

---

# EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN  
ERRI AKADEMIA

---

2 Zenbakia.

1988

## AURKIBIDEA

Orr.

<b>Gu bagoaz. Ni baita. A. Zatarain</b> .....	1
Lauaxeta'ren derkigintza. L. Arostegi .....	5
<b>Nemesio Etxaniz giza—eskubideen kezkatu. M. Olazar</b> .....	8
<b>Euskerazko izenak erdi aroan. B. Latiegi</b> .....	16
<b>Nintzan, nintzake... I. Zubiri</b> .....	23
<b>Euskera lantzen. A. Zatarain</b> .....	25
<b>Ondarroa'ko toponimia. A. Zubikarai</b> .....	30
<b>Gure kezkak: 1.—Euskeraren soin eta ikurrak</b> .....	34
2.—Goi Yakintza. A. Urrestarazu.	
<b>Anai arteko gorrotoa. A. Arrinda</b> .....	39
<b>Albiste ta berri</b> .....	56
<b>Deba'ko itxuarena. (Azalean) N. Etxaniz</b> .....	58

Zuzenbideak:

GETARIA 21 - DONOSTIA  
C. LARREATEGI 14 - BILBAO

EUSKERAZAINZA  
Legerako Gordetza (Depósito Legal): BI - 1928 - 87  
Konponketa: Flash Composition. Bilbao.

# -GU BAGOAZ. -NI BAITA.

namuno'k aspaldi esana' alegia "el vascuence pierde cada día en extensión territorial y en vigor gramatical" zorigaitzez orduan baiño ere egiago da oraiñ. Len gaztelania sartzeko bakarrik erabiltzen ziranak' eskola eta mezubideak' orain euskera lardaskatzeko sekula izan dan indarrrik aundienak biurtu zaizkigu. Idazleok gero eta okerrago idazten degu, eta mintzalariek darabilkien izkuntzak gero eta euskeraren itxura gutxiago du. Baserrietan jaiotakoeri eta baserrietan jaiotakoen aurreri ere kezka bera entzuten zaie: —"Dalako telebista orrekin' laister guztiok euskeraz gaizki egingo degu; orrenbeste euskera txarr entzunez' oitzen ari gera"

Bi aldiz papera artu eta entzundakoak idazten ari naiz. Lenengoan (88.2.13) amarrenbat minutu; bigarrenean (88.2.14) bost minutu; ona orduan jasotako ale batzu, (aldrebeskeri bat idatzi orduko beste bi entzuten nituan, eta danak eziñ idatzirik sorta tiki bat besterik enuan egin).

—Gure alderditik agur! lenengo bider/ ordu desberdiñetatik eta toki desberdiñetatik / ezta penaltirik egon / lau lagunek ezin dutela erriaren kontra joan / gauza asko esan genezake / ni naiz infraktorea / sei metrotako datoak / konpañia bakoitza nola osatua dagoen / ez degu ikusten paperr (sic) ori oso betegarria / "Bella Easo"ko banda / azkeneko adaptazioak (**adaptar** euskeraz **egokitu** esan oi degu) / traslado / akordioa rratifikatu / pentsatu dut orretan (he pensado en eso) // Artzalluz eta X. jauna Ajuria'enean ikusi dira Lendakariarekin / dena-den (**dana dala** esan oi degu; beste orrek arako kantu zaarra gogoratzen dit: "Atea jotzen eztegu lanik / dana-dan dago zabala" / etxe ontako jende noblea / Jaunak bedeinka dezala"). / lareun milla lagun bilduko da gaur auteskundetarako / penaltia pitatu / Atzo España'ko erregea eta Ingleterra'ko printzesa egon ziren / ez nuke nahi ezer gabe joan zaitezten (zuek ezer gabe joaterik enuke nai).

Ona oraiñ ikastoletan euskaraz ari izandako aurreri, nere billoberri' amaika biderr entzundakoa: —Ni banoa —Ni baita Euskera liburuetan ikasi dueneri orrelako esaerak agian ezte belarrian miñ emango, baiña bederatzi urte bete arte erderaz ikasten asi etzanari, eta geroztik etxean eta kanpoan beti euskeraz egiten jarraitu duanari' orrelako izkerak nazka eta negarr egiteko gogoa ematen dio. Liburuetan ikasitako euskera aipatu det, eta izan ere adirazkizun orri buruz izen aundiko liburuetan ediren ditudanak arrigarriak dira. Ona batzu:

Azkue, DVEF: BAITA: 1.º(c) también, aussi. (Contr. de bai-ta)= Encabeza la frase de que forma parte y exige que la palabra a que ella se refiere le siga el verdadero "también" que es BERE o ERE. "Baita san Karlos Milango obispo jaunak bere:" "también san Carlos, obispo de Milán". (Olget. 173-13). En rigor **baita... bere, baita... ere** no es más que una trasposición: ta san Karlos Milango obispo jaunak ere bai. —2.º (BNc, L, R-bid), porque lo es= Se compone de BAIT — DA (V.bait)— 3.º (...) Orra garbi, zeatz eta argi esana; baiña eta 1905 urtean irraria eta argitaratua Baiña... Quandoque bonus dormitat Homerus. Ona Azkue berberak "Morfología vasca" liburuan diona: Con mucha frecuencia y en todas partes se oyen **balta** también y **ezta** tampoco. Por **baita** decían viejos bizkainos **baeta** (Micol. 28-12). No hay por qué repetir la mutación que sufre **ta** de copulativa a causal (702). **Baita** y **ezta** van generalmente acompañadas de la concesiva **ere, bere.** (...). Este (baita) de ahora es el adverbio **bai** seguido de la conjunción copulativa La locución **balta gu ere** es en rigor **bai ta gu ere** "sí y nosotros también" que a voluntad del que habla se dice también **bai gu ere** sin la **ta** o como dice Lardizabal (Test. 515-3). **Arrant-**

zara noa — gu ere bai zurekin "voy a pescar — también nosotros con vos". Hay también, aunque en menor número, gentes que dicen bai eta y ez eta en vez de baita y ezta. Ezkerala gauza... ezeta Jesus bat esateko ere que no somos aptos... ni siquiera para decir un Jesús (Ag. Ercus. 18-20).

Orra benetako también euskeraz ERE zala esan eta idatzi ondoren' ogei urteren buruan ERE concessiva dala eta benetako también baita dala argi eta garbi esan. Ori ikusirik jarrigarri alda gure aurrek yo también = ni baita esatea? Euskeraz jatorr onela esaten da: Banoa. —Ni ere bai. Bukatu det. —Nik ere bai. Besterik ez tet egingo. —Nik ere ez. Orrelakoetan eztago eta edo ta sartu bearrik. Au bestela erabiltzen da: Pello joan da, eta Patxi ere bai. Iño ren buruan sartu elitekena' —nerean beintzat ez— eta ori bai itzarekin baturik idazteko ze arrazoi aipatu diteken da.

Beste baita bat bada baturik idatzi bear genukena, eta Mitxelena'ren iritziaren kontra eta etimologokeri utsez bi zatitan idazten duena: bait da alegia. Bait ori uste utsa dala ikusteko' aski da ika mintzatzea: Itxaron bear ko dek, goizegi etorri bai aiz; aulki bat ekarriko diat, orrela zutik gaizki baiago; nekaturik egongo aiz, atzo lan aundia egin bai van / baiunan; Badakit an izan aizela, neronek ikusi bai aut.

Bait idaztearen alde baitzera eta baikera bezelakoak aipatu oi dira, baiña aski da emon deutzu, ekarri ditutzu, etorri jaku eta jin zauku gogoratzea zu'ren jatorria tzu, eta gu'rena ku dala ikusteko; itzaren asieran tz eta k z eta g biurtzen dira. Gogoratu tzintzarri eta ceresia, kereixa itzak zintzarri eta gerezi biurtu dirala, beste asko eta askoren artean bi bakarrik aipatzea aski dala uste baitet.

Leengora itzuliz' arritzekoa da gatzelaniz también bai eta tanmal ez esatea, tampoco bal eta tanmucho ez entzutea, eta prantzesez aussi (alid sic) bai eta aunon ez, non plus bai eta non moins ez esatea. Bestelako egokitasuna da eukerarena: ere bai eta ere ez.

Azkenik eskari bat. Gutxienez iñork eztezala baita eta ezta idatzi, bai eta eta ez eta idatzi bearrean. Eta askoz obe eta... ere bai, eta... ere ez idatziko balude. Eta gauzak zearo ongi egitekotan'onela idatzi bear ko genuke: "Eman da, goizean etorri baita." "Joan bear zuala, baiña ezta joan" "Eztet erosi, dirurik ezpainuan." "Eztet egiñ, ongi egiten ezpaitakit." Orrela idatziko bagenu' Aita Villasante'k itzen ebakitze makurrak salatu bearrik eluke edungo.

Mitxelena'k "ereduzko euskeraz" idatzia dala esan zigun liburu batean onako auek aurkitu ditut:

(Orduen liturgia) 729, 1013: Ez bait duzu nere biotza Leizera egotziko, **ezta** zure zintzoa uste-lak artzen utziko.

710. Ez eraman nere anima gaizkilleekin,  
ezta nere bizia odol-zaleekin.

740. Ez dute Jauna gorensten il direnak,  
ezta ixil-tokira jaisten direnak.

1005. Ez zaitu ikaratuko gauezko izuak,  
ezta egunezko geziaren ziztuak,  
ez illunpetan dabillen izurriak,  
ezta eguerdiko ondamen galgarriak.

175. Krixto, Jainkoak autatua, kaiñabera pitzatua austen ez duzuna, **ezta** ketan dagoen metxa itzali **ere**; (...)

1261. ...ez irabazi zikiñari begira **ere**, utsean baizik; **ezta** menpekoen jauntzo bezela, artaldearen erdu izanez baizik.

978. Ez bedi gurean arresi-austerik, ez atzerrieratzerik, **ezta** gure enparantzean aienerik.

803. Ez zuen Jaungoikoak egin eriotza, ez du atsegiñik bizien ondamenean, bizirik irauteko egin zituan Arek gauza guztiak; munduko izaki gustiak osasungarri dira; ez da oietan eriotzarako pozoririk, ezta leize-zuloaren aginterik ere lur-gaiñean, zuzenbidea illekorra bait-da.

415. Gu gera gauza auen testigu, baita Jaungoikoak bere esana egiten dutenei ematen dien Espiritu Santua ere bai.

418. Guretakorik iñor ez da beretzat bizi, ezta iñor beretzat iltzen ere.

957. Ez dizute berriz deituko "Utzia", ezta zure lurraldeari ere "Ondamendia".

Orixe, Urte guziko Meza-Bezperak, 633 a: Beraz, Zure Seme Jesukristo gure Jaunaz oroituki, bai Pasio doatsuaz, bai ta lurpetik Pizteaz, bai ta Zeruratze argia ospatuz, Zuri, Jainki aundi ta argitsu Orri, (...)

Mitxelena, Euskera XXXII, 127 a: Etxepare baino lehenagokoak ahalegindu gara biltzen, erabat edo ia erabat, baita goroztik agertu diran lekukotasun bakanak ere. 128 a: Npp.; ezean gertatu da, lehengo eta baita oraingo kasu askotan, beste biderik ez genuelako gauzen berri jakiteko.

Irigioen, Euskera XXXII, 203 a: (...) mintzaira, mintzoa, elea, eta baita hitza eta berbea ere (...). 204 a: (...) baina Saussuren zentzuan bai ta hizkera ere (...).

Aukera murrirtza egin det, baiña iñork ere ere bai eta ere ez idazten eztituanaren susmoa sorizeko aiña badala esango nuke. Dana dala' también euskeraz ERE BAI, eta tampoco berriz ERE EZ esan eta idatzi bear genitukela aski argi eta garbi utzi dedala uste det, baiña ori erabakitzea euskaltzaiñoi dagokizue. Ori baño ere zeatzago esanik: "Pello emen da, eta Patxi ere etorri da" (Pedro está aquí, y Paco también ha venido) esaera gogoratzen badegu' también = ERE dala esan bear; "Pello ezta emen, eta Patxi ere ezta etorri" (Pedro no está aquí, y Paco tampoco ha venido) gogoratuik tampoco =ERE. Gaztelania motz gelditzen da: también asimismo sí eta asimismo no lirake itzulpen zeatzak.

#### ERASKIA

Kantu zaarretan ediren ditudan batzu

Salaberri / Chantz populaires du Pays Basque.

30 a: Itxasoti mintzatzen da zilharrezko trunpeta,  
Bai eta're ikharatzen Olandresen ibarra.

44 a: Goizetan eder dizv ekhiak leiñhvrv,  
Mvndi'argitzen dizv vngvrv vngnrv;  
Ni ere zur'unduan hala nabilazv:

190 a: Goizian goizik jeiki nvndvzv espusa nintzan goizian;  
Bai eta zetaz ere beztitv ekhia jelkhi zenian;  
Etxek'andere zabal nvndvzv egverdi erditan,  
Bai eta ere alhargvntsa gazte ekhia sarthv zenian.  
Musde Irigarai, ene jaona, altxa izadazvt bvria;  
Ala dolviv othe zaizv eneki espusatzia?  
—Ez, ez, etzidadazv dolvtv zureki ezpusatzia,  
Ez eta ere dolvtvren bizi nizano Ivrrian.

230 a: Zeren beitzen lili ooren / eijerrena,

Bai eta ene bihotzeko / maitenena, (...)

310 a: Laugarren hori zer pheza, / M.... zapatainesa;  
Untsa esplikatzen zituen heskuara eta frantsesa,  
Bai eta ere aisa egiten bide handian esa; (...)

315 a: Arrastiritan dantzatv, / plazer ere bai hartv (...)

348 a: Zankho-besuak gogor ete bizkarrian zauria,  
Bai eta istant gvziez Ivrrilat erorlia.

384 a: Hitzaz gvtvk estunatzen, Museñako kuntia,  
Zerentako hartzen dian Galñetarren althia:  
Ar' eta nik ere eztiat hiretako antsia

Aphez beltxaren kantua:

Igande-mezak erraitian, / Harrixuriko gainian,  
eskopeta kargatu nuen / neuretzat zorigaitzian,  
**bai eta ere** deskargatu / aphez beltxaren gainian.

Ene mutilik ttipiena:

Ene nagusi maitia / eldu naiz ongi tristerik:  
Eztutu ikhusi leihorrik / **ez eta ere** belarik;  
Nurbait jan behar baduzie / hil nezazie lehenik.

Amalau eriotzena:

Markiñ Etxeberri'ko / Altzibarr'enean  
ateak yo nituen / ongi illunean,  
**bai eta** ireki **ere** / borondat'onean.  
Agurr etxekanderia / gure diruen yabia,  
berriz **ere** behar dugu / arnoakin ogia,  
**bai eta're** arratsian / kartekilan argia.

Bordaxuri, 10 b.:

Kartu hauk eman ditut / Paube'ko hirian,  
burdinez kargaturik, / oi ! presondegian;  
**bai eta** kopiatu / denbora berian, (...)

Ziburu'tik Sara'rat:

Maitia bizi zaite / gazte ta lorios,  
**bai eta** fidel izan / hitzemanenez geroz (...)

Anderia, gararik zaude leihoan:

Izan niz Frantzia'ra et'Espainia'n  
**bai eta ere** Angleterra guzian

Ikusten danez' **bai eta're** amar pikuko lerroen erdia egiñez agertu oi da; lerro ttikizko bertsoetan' **bai eta** agertzen da, beti **ere'rik** gabe. Ala ere' ikusi "Amalau eriyotzena"ren lenengo bertsoan **bai eta** ireki **ere**.

Anbortsi Zatarain.

# ELERTU

## LAUAXETA'REN OLERKIGINTZA



**O**rainsurarie ia zearka bakarrik ezagutu geikezan Lauaxeta'ren literatura ideak, bere aldikoak esanikotik eta bere olerkiak aztertuz (baiña beti be garrantzitsuak ziran bere oar eta sarrera laburrak). Azalpenak bildumak orain artez-arte dakarskuz bere ideak.

Orixe'k antxiñako poeta jatorretarik ez jakola ezer andirik itsatsi bota eutson eta "milinga eta itxuranaiekoa" zala aren "Maitale kutuna" (Azalpenak, 129, 131, 133). Lauaxeta'ren erantzunean ainbat idea dagoz, eta bearbada danak ez datoz bat. "Neurekiko klasiko ez naz, romantiko bere ez —zer zara, ba?— ederzalea" (bertan, 135). "Batzutan klasiko eskolara joaten naz, beste batzutan Heine'ren eskolara. Noizbaten Valery jaunari agur egitera edo parnasianoai" (bertan, 136). Gautier'en idea bategaz be erantzuten dautso: "Beste batzuegan gogai argiak, bakunak eta tolesgeak sortuten diran legetxe, euren adimenean gogaime, igeskor ta itzungabeak ernetan dira. Ludiko gauza eder guztiai aurrez barik, ertz batetik begiratuten dautse". "Gauza batek besteagaz daukon zerikusian errezenera jo barik, zaillenari laguntza eskatuko dautsoe". Tolesgetasuna itxuranairik andiena izango litzake eurakan (bertan, 140). Emen baiña konparaketa arrisksua egiten dau eta Gautier'ren idearen makala erakusten dausku: "Aitonon semeai jazoten jakena. Aitonon semeok edo nobleok azkenerako seme murriz, erdi geixo eta euren sendia amaitu daroe. Odola meetuten jake edo". Konparaketa onek kontrakoari emoten dautso errazoaia. Baiña Lauaxeta'ren pentsamentua au da: zelan neurtu nor dan klasiko, edo nor dan benetako olerkari? Era bateko baiño klasiko geiago dira: Orixe'ren klasikuak bake andia erakusten dabenak eta gauzai aurrez-aurre begituten dakienak litzakez. Baiña gu, diño Lauaxeta'k, "gerokoak, ezilkortasunak, zadorrak jo gaitue". "Guzti orreik olerkietan azaldu dagikeguz. Zergaitik ez?" (138). "Gaur klasikoen eta idazlari onena izango jatzu, oraingoa ondoen bere olerkietan eta idaztietan azalduten dauana. Eundi bakoitzak bere klasikoak daukoz. Eta klasikorik onenak izan daitekez gaurkoan itxura naiekoak diranak" (142).

"Idazlearen edo olerkariaren argia bere ondoan igituten diranen min eta biotzberak, oiñazeak eta gogaikak ikututea, gauzarik ederrena" (142). "Baiña idazle orrek bake girorik ez dauko --esango daustazu. Bake girorik ez dauko, bere egunetan bizi ziranak bake girorik ez ebelako euki. Bizitzako goraberak, eriotzeak, siñiste zalantzeak eta urduriak kezkatutako gogain kiñuak idazlari orrek azaldu ebazan". (142-143).

Lengo konparaketa irriz, ironiaz esana da, bere argumentu lineatik kanpora: 1) Bera ez da eskola bati lotua. 2) Klasikotasuna ez dago bake andian edo antxiñako bakuntasunean, gizonaren eder-egia ondoen azaltzean baiño. Giza-eder-egi au aldatu egiten da, eta oneri jagokon azalaz azaltzean datza klasikotasunak bear dauan armonia, ez beste barik galaren baretasunean. Giza-ederraren esperientzian ikuskera eta sentikerea be aldatu egiten diranez, era barriak eta ezbaridiñak ez dira berez itxurakeri, "amaneramiento". Jakiña, era barri ta ezbaridiñen egokitasu-

na defenditzen dauanez, ez dau emen argi izten itxurakeria sarritan jazoten dala, antxina eta orain (baina ez Orixe'ren errazoiakaitik).

Azpirarratu daigun bere aldiko gizona zertzelada sakon eta drarnatikoakaz margozten daua-la. Aldiko gizona ezeze, Lauaxeta bera agertzen da or, gizon eta olerkari. Ez da beti ain logikoa, alan be. "Saboi aparrez egin daikeguz olerkiak bere, egun baterako baiño ez diran izango, ta zer? kutsu ona itziten badauskue, ordu onean betorz" (137). Barriro be emen era guztietako olerki-motak defendi-tzen ditu, eta errazoiz; baiña ez dator bat aurrean azpirarratu dogun erra-zoibide sakonagaz, eta, dana dala, mota guztiak ez dira balio bardiñekoak.

Zer ikasi geinke klasikoakandik? "Orixe jaunak maite dauzan klasikoak zer erakutsi legiskuen jakingarri jaku" esan eban aurrerago (144). Orain, erantzuna emoten asten danean, mota guztie-tako idazleak ditu gogoan, edertasuna azalduten jakin daben guztiak (145). "Baiña leenengo maillan dagoz doai orreekaz lan iraunkorra egiten aalegindu diranak. Gizatasunari jagokon idaz-tia iraunkorra da" (145).

Leenengo maillan, lan iraunkorra egin dabenak. Izate, sentikera eta ikuskera aldatzeaz izan da leen berbea. Baiña lan batzuk iraunkorrak badira, zeozer gera-tzen da, geroko aldietan adie-razgarri eta esanaitsu izateko. Ez dago kontresanik. Zeozer aldatu egiten da eta zeozer geratu, eta aldian aldiko gizonaren izatea benetan azaltzen dauana da gerorako be esanaitsu. Ikusi daiguzan orain klasikoan irakatsiak.

a) Gorengo idazleak "neurria" edo "batasuna" edo "osotasuna" emon dautsoe eder-lanari. Baiña osotasun ori zetan datzan dogu barriro be eztabaidagarri. Zentzunak epaitu bear dau. Baiña zentzuna ez da adimen otza, edertasun-zen-tzuna baiño, au da, ez oizko logikaren bata-suna, eder-esperientziak berak eska-tzen dauan batasuna baiño, berak eskatzen dituan erlazi-ñoakaz.

b) Klasikoan erderazko "humanismo" doaia ikasi geinke. Emen Lauaxeta'k giza-doaien aziera armonikoa dau gogoan: gogo, biotza ta irudimena bateratsu aziz. Aziera armoniko onek be parte andia dau bakegiroa sortzean (146-7).

c) Aukerea bear da gero, agokerea, gai egokiak aukeratzeko. Gaiok "izadi amearen altzoan" eta gogoan, biotzean, aukeratu bear dira. Lauaxeta momentu onetan klasikuegi egiten jakula esan lei (Orixe'ren zentzuan): ez da itzi bear izadiak biotza larregi ikutu daiskun, gizona izadia- ren erregea da-ta, zaldia ugelakaz nai dan lekura eroaten diran lez (147).

d) Sentitzen dana era berean azaldu bear da. Jatorfasuna, "sinaeridad". Eta izadia adimenaz barik begiakaz artu bear dogu, eta "dakusguna aldatu barik zor jakon itzalez edo zentzunez argitaratu egizu". "Ikututzeaz" dagi berba, eta beraz ez da izadi utsa bakarrik, izadiak olerkaria-gan sortu dauana baiño. Bestalde, jatorfasun ori ez da errezkeria: "izadiak berak biotza ikutu baiño leenago" goaz idazten "geure buruak eta irudimenak sortu dabezanak azalduteko as-moz" (148). Pentsa lei izadia eta gogoa alkarren kontra jarten dirala: izadiak "ikutu" bako gogoa eta biotza esan gura dau, azken baten inspiraziño bako irudikeria.

Orri onetan eta oindiño geiago "Lizadi olerkari" lanean (Azalpenak, 149-156), garrantzi andia ezarten jako izadiari olerkigintzan. Bere olerkietan egitez zelan agertzan dan geroago ikusiko dogu. Baiña orain, bere poetika aztertzean, errealista eran ulertu bear ete da? Aipatu dogu leen izadia eta gogoa, biotza, dirala olerkiaren sorlekua. Gogo au geratu da emen, Lauaxeta'ren ber-betan, edatu barik. Baiña gogo kreatzaillearen eskubidea duda barik autortu dau: "Baiña beste egi batzuk bere badira. Geure adimenaren barruan egi asko dira, izadian eutsikairik euki ez arren. Eskuekin ikutu aal doguna ezeze zerbait geiago aurkitu geinke" baieztu dau ain zuzen be bere olerkerea defenditzean (137).

Eta ain izadi gurtzaille agertzen dan "Lizardi olerkari" lanean be, San Juan de la Cruz eta Maragall'egaz batera Leopardi'ren *L'Infinito* olerkia gogoratzen dau adibide eta jarraibidetzat (*Azalpenak*, 153). Ain zuzen be, olerki onetan olerkariak ikusi eta entzuten dauana oler-bizikuntza-ren zati bat da soillik: ikusten dauan apurragaz batera "interminati spazi" eta "sovrumani silenzi e profundissima quiete / io nel pensiero mi fingo"; eta "betikotasuna" jatorko gogora, eta "urtaro



illak" oraingo biziagaz batera: "eskeratasun onetan murgildu egiten nire gogoa". Ez da izadiaren deskriziñorik; izadiaren barruan sortutako irudi eta pentsakizun eta sentipenak dira. Au da Lauaxeta'k benetan esan gura dauana.

Izadi eta gogo-biotzaren ondoan ez dau aipatu "gizadia", gero ikusiko dogunez ain esentziala bere olerkietan. Izadia esanaz baliteke mundu osoa esitu gura izatea, nai ta bere adibidiak egitez izadi-paisajetik artutakoak izan.

e) Orain arte gaiari buruz jardun izan dau Lauaxeta'k. Azala dala ta, "Edertasunaren erdia azalean dago", diño (148). Jakiña da, orregaitik zelan landu eban Lauaxeta'k azal txukuna. Arrats bildumaren erderazko oarrean geiago diño oindiño: "El secreto de la poesía se ve en la gracia de la forma, en la pulcritud del buen decir". Larregi esatea dala pentsa lei. Baiña Lauaxeta'k leengo euskerazko textoan, errazoa emokeran argitzen dau bere asmua: "Urrezko marra jaurti egizu errepara, ibaira, ta ura garden ez bada, ezer ez dozu ikusten. Gogairik txukunenak eukiko dozuz, baiña azal naastua, loa. Ez da ezer ikusten (Azalpenak, 148). Zer dan azal egokia, "gardena", eztabaidatu leike. Baiña, dana dala, obeto ezin eikean azaldu azalaren izate ta egin-kizuna olerkian: barrua erakutsi, ur gardenaren antzera.

f) Klasikotasunari buruzko lanean aipatu ez dauan beste baldintza bat jarten dau Lizardiren omenezko idazkian: "olertia sentitzen baiño leen, ura bizi izaten ikasi dezagun, geronek bizi izan ez degunik ezin esan dezakegu txukunki. Ertilari trebeak baiño leenago gizon onak nai ditugu, ontasuna utsik baita elertia. Nork beraren gogoa ederrez ez badu janzten, azaletiko ikusgarriak nola egingo ote dira ziztada edo zirrara?" (149). Leenago, ostera, Baudelaire'ren epailleai buruz, moralista izan zirala kritikatu dau, "eta idaztietan zileiztasuna neurtu bear da, baiña baita elertietazako mamiña bere" (139). Orain ontasunaren ederra baieztatu-tzen dau eta baldintza lez jarten. Ontasunak alderdi bat baiño geiago ditu eta edertasunak be bai, baiña ontasun osoa dauken eder-lanak ederragoak dira.

Gizatasuna aipatu dau leen Lauaxeta'k. "Humanismoa" ete da, ala jarraian esan dituan baldintzak osotzen ete dabe (batasunak, giza-menen eziera armoni-tsuak, aukerak, jatortasunak, azal ederrak), ala orain aipatu dauan "ontasuna" edo "arima ederra" (154), ala leen esandako aldiko gizonaren izaera emotea? Ez dot uste klasikotasunagaz beste barik bardintzen dauanik. Klasikotasunaren irakatsiak eta baldintzak billatu ditu, eta bein bakarrik erabili dau "gizatasuna" berbea, benetan lan iraunkorrek zeintzuk diran agertzeko. Irakurri doguzan bere berbetatik, gizatasunak urrengo alderdiak artzen dituala esan lei: 1) Aldiko gizonaren izate sakona bere sammin eta ardurakaz; 2) "humanismoa", gizamenen aziera armonitsua; 3) ontasuna edo arima ederra.

Luis Arostegi

# NEMESIO ETXANIZ, GIZA-ESKUBIDEEN KEZKATI

Azken zenbakian, Etxaniz jaunari Azkoiti bere jaioterriak eta Euskerazaintzak eskeiñi-ko eutsen omenaldia iragarri gendun.

Omenaldi aretako itzaldien artean, bidezko zan bere giza-eskubideen aldeko jokabi-dea agertzea. Giza-eskubideak eta euskera ziralako bere elburu gureneta bi.

Zenbaki onetan Martin Olazar jaunak egun aretarako gertu eta laburtu bearra euki eban itzaldia argitaratzen gatoz.

ESTU - ALDIAN  
(Nemesio ta Gipuzkoa'ko Gobernatzaillea)

## 1.—JAZOKIZUN BATZUK

**E**gun gogoangarri bat dot gogoan. Ez dakik zeatz-zeatz zein urtetan eta zein illetan izan zan.

Egun aretan adiskide batzuk urreratu jatazan, Mungia'n, eta auxe esan eusten: Gaur Donostia'ko Zuzentasun-Jauretxean Nemesio Etxaniz epaitzen dabe. Goazen ara.

Auzi-gaia zein zan be esan eusten: Nemesio'k Gipuzkoa'ko Gobernatzailleari idatzitako esku-titz batzutan agertutako eritxiak eta dana abadeak izenpetu eben agiri ospatsuaren giroan eta ori dala-ta espexeratuta egozan eritar batzuren arazoa or sartzen zala. Agiria 339 abadek izenpetua, 1960-5-28'an.

"Goazen Donostira" izan zan guztiok batera onartu genduan erabagia.

Pizka bat berandu eldu giñan, baiña ez guri eta ez sasoz eldu ziranai ez euskuen itzi jauretxe-ra sartzen eta aurreko kalean izan giñan. euri ta aterri, Nemesio'k urten arte. Argazkiak ugari atera euskuezan eta zemai batzuk be entzungenduzan.

Nemesio'k urte ebanean, Orio'ra joan giñan an izandako abade batzuk batera bazkaltzera. Ez dakit zenbat, baiña bai irurogei abade inguru.

Bazkal-ostean euskal-giro bero ta bizia sortu zan gure artean eta abesti ederrak abestu genduan Ayestaran jatetxean, Aretxabaleta'tar Ignazio abadea zuzendari genduala.

Giro orren barruan entzun nebazan Artetxe'tar Txomin abade adiskideak esan eustazan igar-le-itzak: "Ona etorri azelako ire kanonjiak galduko dozak" Egia esan nik ez neukan kanonjirik, Fruniz baserrian nengoan abade eta Derio'ko Seminarioan emoten nebazan laugarren urteko irakastaldi batzuk.

Urrengo egunean Seminario'ko Zuzendari zan Goiri'tar Santiago jaunak egin eustan dei eta esan eustan:

— Donostira joan ei zara abade baten epaiketara!

Bai, eta ez daukat damurik. Estualdian dagozan abadeak zertan dabilzan jakitea dagokigu.

Baiña ori gotzainari ez jako atsegin izango!

Izan leiteke ori, baiña nik neure egitekoak ba-dakidaz eta onein erantzukizuna neuk artzen dot.

Egun bat geroago esan eustan:

- Jakitun dago Gotzaiña zure Donostira joateaz.
- Azkar, benetan, eldu jako barria.
- Zergaitik ez zoaz beragana eta alkar-izketaz arazoa argitu?
- Bai. Joango naz.

Esan eta egin, joan nintzan gotzainagana berba egitera Oso illun aurkitu neban eta gaia ageritu neutsanean esan eustan:

- Ez dakit zelan egiten dozuzan olako gauzak.
- Gotzain jauna! Nik eginbear bat bete dot: Abade-lagun bat zetan salatzen daben jakin eta bere estualdian lagundu.

Bai. Ori orrelan izango da, baiña politika-joko lez ulertzen dabe eta ara zer diñotsudan: Nik ez dot zure aurka ezer egingo, baiña politika-gizonak arazo orretara sartzen ba' dira, bildur izan zaite, nik ez dautzut lagunduko.

- Eskerrik asko, Gotzain jauna

Ikasturtearen azkenean Goiri jaunak esan eustan:

—Gotzain jaunaren erabagiz, datorren ikasturtean Seminarioak ez dauz artuko zuk emoten dautsazuzan laguntza-Zanak.

- Eta zergaitik ori? Txarto irakatsi al dot?

- Ez oso ondo irakatsi dozu eta pozik gagoz, baiña gotzaiñaren erabagia da

Urrengo urtean Gotzaiñaren beste eskutitz bat artu neban:

"Artzain-lan arazoak orretarako beartuta, Fruniz'en daukazun abade-lana itxi dagizula" erabagi dot.

Ortik aurrera arazoak samiñago ta garratzago jarraitu eban. Ezaguna da "Gogortasun" taldeak izan eban jokabidea eta ekintzak. Talde au sortzeko Euskalerrriaren aurka eleiz-agintariak izan ebezan eraso asko izan ziran zio eta arazo ori talde onen jokabiderako agiri luzean ageritzen da

## 2.—JATORRIA

Nemesio Etxaniz aurrelarietarikoko bat zala, sortu ziran ekintza orreik iturri bakar bat euken: Euskalerrria zapalduta egoala eta erri-eskubideak aldezteko egoan eginbearra, gudearen ondo-renak ziran okerbideak zuzendu-bearra.

Kristiñauak, eta era berezi baten abadeak, okerbideen aurka jokatzeko beartuta egozan eta orretan Batikano'ko II Eleiz-Batzar Nagusiak emon ebazan argitasunak euskaldunen jokabidea indartu egin eben eta euskaldunak be bialdu ebezan Batzar Nagusi aretara txosten batzuk.

Giro aretan berba egitea, idazki-bidez erri-eskubideak aldezte, jokabide arriskugarria zan, laikoentzat arriskugarriago abadeentzat baiño. Orrelan diño Nemesio abadeak berak be eskutitz baten: Agiria izenpetu eben abadeak kalean dabiltz eta agiri ori zabaldu eben gazteak baitu eta espetxeratu egin dozuez".

Inguru orretan ezarri bear dira Nemesio'ren jokabidea ta ekintzak, giro orretan Gipuzkoa'ko Gobernatzaillearen aurrean eskutitzen bidez egin eban salakuntzak, laguntza eskatzeak eta zapalduen alde jokatzea.

## 3.—ESKUTITZAK

Nemesio'ren salakuntza-lanak benetako igarle-lanak dira Berak Gipuzkoa'ko Gobernatzaille-ri egindako 8 eskutitz eta Gotzaindegiko Idazkariari egindako bat daukaguz aurrean. GUDARI aldizkaritik artuak dira 1961-1969 Josu Gaztañagaren ete Lazkaoko Beneditarren laguntzari eskerrak an dagoz guztiak.

### 3.1. (1961-9-20) Laburpena euskeratua:

- Zure aurreko Gobernatzaileagaz asi neban alkar-izketa au.
- Inoz eskutitza onuragarria izan zan eta orregaitik jarraitzen dot.
- Agintarien arrisku bat izaten da, erriaren eritxia ta egoerea ezkututzen daben gizon koipet-suak inguratuta egotea.

Ni poliziak abertzale ta txerrendun lez artzen nabe, baiña erdeldun askoren lagun aundia be ba-naz, eurak euskaldunen arerio izan arren.

Eriotzea ur ikusten dot eta orrek askatasun berezia emon eta abade izateak eleiztarren alde jokatzeko eskatzen daust.

—Txarto ulertuak izateko arrisku aundia daukagu: oarra egiten dogunean ez dabe sinisten euren onerako gabiltzala. Ulertuko al dozuz zuk nire berbak abade gogo ona agertzeko bide lez.

Ez neuke nai txarto ulertua izateko arriskuagaitik isillik egoterik, ain katolikukak dirala uste daben agintarien aurrean.

—Zure aurreko gobernatzaileak arazo larri bi itzi ebazan bideratu barik: Agote ta Gereka jaun-nen baitzeak; oneik epaitu barik jarraitzen dabe urte osoa ta geiago igaro ondoren. Onein auzi-gala inongo laterri legetutan ez litzake izango zigor-gai eta onei aurkitu dautsezan liburuak eta agiriak, zabaltzeko eskubidea dauke eta agiri orreitariko bat izenpetu genduan abadeak espet-xeratu barik gabiltz.

Bigarren arazoa, esandako agiria izenpetu gendualako abadeoi pasaporteak ukatzea da. Urtebete baiño geiago da ori egiten dala. Jokabide ori umekerizkoa da eta orretantxe be agertzen da agiri orretan agertzen dana egia dala: Giza-eskubideak ukatuta dagozela.

Orrez gaiñera oraintsu tren-bidean izandako "sabotaje" baten ondoren lez baitutako gaz-teak oiñazetuak izan dira. "Sabotaje" a ez dogu onartzen, baiña erriaren eskubideak ain aldi lu-zean zapalduta egoteak olako ekintzetara bultzatzen dau. Aginpidea lortzeko milloi bat erriar II dabezenak dauke eskubiderik gitxien "sabotaje" ori txartzat artzeko.

Olako jazokizunen aurrean guztiok egin bear dogu oi, abadeak lenengo dirala, "ori txarto dago" esanez. Eta oi, ori gorroto barik egin bear da.

### 3.2. Bigarren eskutitza (1961-11-15)

Epe luze beten itxaron ondoren bialtzen dau erantzuna.

Eskerrak emoten dautsoz Gobernatzaileari erantzuna emon daualako eta Agote ta Gereka jaunak askatuta dagozelako.

Gobernatzailearen erantzunean berba mingarri batzuk irakurri ditualako kezkatuta agertzen da. Olako berbak dira: "Guzurrezko salakuntzak" egiten dirala, "burubako jentea" dirala, "askatasun-zalekeria" agertzen dala...

Orrelan itz egitea, argi ta garbi barrua agertzeko bidea izaten da eta ondo dago.

Gobernatzailearen eskutitz osoari ezin leikiola erantzun eta gauza zeatz batzuk artzen dauz erantzuna amoteko.

—Lenengo billatu bear doguna gogo ona da.

Gogo on ori oker dagoanean, oartu-erazo egin bear da eta auxe da abadeen lan bat, batez be egoera ori beste batzun kalterako izaten danean.

—Aita Santuen irakatsietan sarritan agertzen dira giza-eskubideak (albiste-bideetakoa, sindi-katoetarakoa, erlejiñorakoa ta abar) baiña eskubide orreik ukatuta dagoz España'ko laterrian 25 urte oneitan.

Eta orrelan jarraitzeko ustea dago, Franco'k eta bere lagunak diñoenez.

Gure pasaporteai buruz, ez uste izan "atsekabe txikiak" diranik, zuk diñozun lez. Norbera-ren eritxien aurka agertzen diranak zigorizea komunistak dauken jokabidea bera da.

Zuk ezin ukatu izango dozu, egiz, baituai oiñazeak ezarten jakezela. Polizi britaniarrak, katolikuak izan barik, orretan emengoak baiño zintzoagoak dira.

—Gaurko agintaritza gutzat ez da bidezkoa, eta ez bakarrik oker sortu dalako, Jaungoikoak emonak izanik gizadian diran eskubideak zapaltzen dauzalako be bai.

—Oudea "ebakuntza bearrezkoa" izan zala diñozu, baiña ori ez dau iñok sinisten ainbeste odol ixuri dabenak eurak izan ezik. Aita Santuak oraintsu Modrego Bartzelona'ko Goi-Gotzainari egin dautson eskutitz baten "guda negargarria" ta "guda odoltsua" aitatzen dauz. Ikusten dozun lez, orain ez da aitatzen "kurutze-Gidarik".

Batek bere burubideak guda-bidez aldeztu al ba'dauz, zergaitik ez beste batek eta beste eritxi batzuk? Orrelan beti gudan jarraitu bear.

—Guda-sortzaillearen aurka egiteko komunistakaz alkartzea ez da eritxietan alkartzea.

Laster joango naz barriro pasaporteak eskatzera. Ez al dauste barriro be ordain-saria kendu eta gero pasaporteak ukatuko.

—Barriro be eskerrik asko erantzun daustazulako. Oraingoan ez daukazu erantzun-bearrik. Zure burubideak naikoa argi agertu dirala uste dot.

### 3.3. Irugarren eskutitza: Gotzaindegiko Idazkaritzara (1961-11-4)

—Joan dan larunbatean (61-11-4) artu neban Ekintza Ertzekoetarako Auzitegi Bereziaren deia, Eymar koronelak izenpetuta.

—Ez neban artu idazkaritza orretatik ezelako idazkirik. Ez nekian ba, auzitegira joan bear neban ala ez.

—Ni auzitegira eroateko baimena Madrid'etik emona ete zan zalantzea neukan, baiña Auzitegian emen emona zala ziurtatu dauste.

Ez ete eukan ba, Gotzaindegia baimen orren barria neuri emon-bearrik? Artzain on batek ez ete eban lagundu bear une larri onetan?

—Danak bultzatzen gaitu aspertuta bizitera, aspaldiko urteetan eta ez dogu ikusten inguruan kristiñautasun osoaren eredurik.

Zergaitik gure Bikario jaunak ez dautse erantzuten bere idazgelako mai-gaiñean izten diran eskutitzai?

—Barriro Auzitegira deirik artuko ba'neu, eta Gotzaindegiko baimenik ez ba'datort, ez nintzake joango. Ezin esan neike besterik, Gotzaindegia nire jazokizun oneitan artu dauan jokabidea ikusita.

## 4.—ZER SALATZEN DAUAN

Giza-eskubideak aintzat ez artzea.

—Agintarien inguruan diran gizon labanak.

Erriaren eritxia zapaltzea.

—Euskaldunak zio barik baituak izatea.

—Abadeen agiria zuzena izan eta orregaitik pasaporteak kentzea

—Orduko agintaritza-giro osoa, 25 urtetan erri-eskubideak zapalduta

Zuen gogorkeria zuen gaiñera.

Azkenengoz baitutakoen oiñaze ezarriak.

—Gudea ez zala bearrezkoa izan.

Gudarako eta aldar zaintzeko komunistakaz alkartzea bearrezkoa izan zala

—Muga-igarotze agiriak (pasaporteak) emon..

## 5.—ZELAKO BIOTZA AGERTZEN DAUAN

Gorroto-bakoa. Bildurraz.

Euskaldun ez diranak be maite dauzana.

—Eriotzea ur dagoala, askatasun osoaz berba egiteko guraria.

Abadeari dagokion lez, eleiztarren alde jokatzeko gertu.

Txarto ulertua izateko arriskua izan arren aurrera egiten dauana.

Okerkeriaren aurrean salakuntza sendoa egin bear dauala uste dau.

Lenengo billatu bear dana, gogo ona.

Otoitza: meza-erdian zugaitik otoitz egiten dot.

Gogo onez oker dagoana zuzentzeko eginbearra ikusten dau, agintaria izan arren.

Gotzaindegitik ain begiratze gitxi aurkitzeaz minduta dago. Berziartua goratu beste gotzain batzuk elikal...

Oiñarrian, kristiñau lez, eta abade lez erri-arazoetara bizi-bizi sartzeko eta orretara sartzen diranai laguntzeko eginbearra argi ikusten dau.

## 6.—ORDUAN ETA GAUR

Arazo onetan bere jokabidea guk orduan argi onartzen genduan baiña giroa oso latza zan eta asko ziran gure jokabideen aurka agertzen ziranak. Gaur, zorionez, gizarte-giroa asko aldatu da eta gizarteak jokabide areik ez dauz txartzat artzen. Benetan txalogarria da ba, orretan gure Nemesiok egin eban lana: Arriskugarri izan arren arazoai aurpegia emoten irakatsi, berbaz eta egitez. Ez da erria salbatzen olerkiak eta antzerkiak eginda beste barik, illuntasunean argia be emon bear da. Eleizeak, laikoak eta eleiz-gizonak, ba-dauke, zer-ikasirik gure Nemesio'ren jokabidean.

Etxaniz'tar Nemesio abadeari omenaldia egiterakoan, arazo au ez zala aitzu-bearrekoa uste genduan eta orregaitik idatzi doguz lerro apal oneik bere omenez. Ondo dakigu abertzaletasunaren eta zuzentasunaren bidean gure errian egin genduan eta egin zan burrukearen aritxu bat baiña ez dana emen agertu doguna, baiña sasoi izan zana izan zalako eta ortik sortu ziran ondorenak sortu ziralako gai jakingarriak dirala uste dogu.

Izango aldira beste kondaira-idazle batzuk ari orretatik korapillo osoa aurkituko dabenak.

### 3.4 .Laugarren eskutitza: Gipuzkoako Gobernatzailleari (1968-1- )

Oarra: Bigarren ekinaldi bat asten da eta aldi onetako Gobernatzaillea Valencia Remon jauna.

Urrutizkin-dei larria entzun dot goizeko lauretan etxean.

Eskaria: Ikurriña ipinten atrapatu dabegan gazte biren alde zerbait egitekoru- —Gazteak polizi-etxera sartu diranerako, min-garraziak entzun dira.

Ordotik aurrera une guztietan nago samintasunez.

Zer egin neike nik? Polizi-etxeetan izen txarra daukat eta bost urtetan pasapo rte barik nauke.

Zuri, agintari katoliku bateri lez idaztea ikusi dot bide bakar lez. Giza-eskubideen agerpenak eta Aita Santuen idazkiak ontzat emoten dabe gazte orreik egin dabena, gaiñera euren aurka oiñazea erabiltea neurri-bako lotzabakokeria da.

Nik bizitza-zati laburra geratzen jatala ikusten dot eta ondo dakit gizonen bizitza-egunak laburrak dirala:Laster emon bearko dozu Jaungoikoaren Epaitegian zure egiteen kontua, olako edo antzeko berbak entzunez: Kain, Kain! Zer egin dautsazu Abel zure anaiari?

Bildurraz idazten dot au, baiña meza-erdian Jaunari eskatu dautsat betiko galdu baiña len biurtu zaitezala.

### 3.6. Bostgarren eskutitza: Gobernatzaillearen erantzuna (1968-1-19)

Errazoibako ta zentzunbako dan zure eskutitzean agertzen dozun lez zure kontzientzia

eukitea ez dot nai, baretutea baiño, baiña bear ba'da ez daustazu sinistuko.

—Egia da, iru baitu dira baiña zurren bik iges egin dabe.

—Teillatuan txapliegu-botakiñak edo "lanzacohetes" aurkitu dira eta erriaren gaiñera etorriko ziran "mana" lez.

—Baitu ebezan eta euren agerpena egin dabe.

Esango dozu: Eta oiñazerik?

Zarata bat entzun zan bai, eta neuk be etxe-gaiñera urten neban, baiña mozkorti bat izan zan kalean zarata ori egin ebana.

—Eskerrik asko unerik aundienean geideen alde otoitz egiten dozulako.

Nik ez dautzut "benagantza"rik egingo eta zuk jarraitu euskal-Kikote izaten.

—Oraín-artean be iñoz esan dot baiña zu txera oneko gizona zaiataz.

—Eta zure eskutitza Caracas'eko "Gudari"n agertzekotan ainbat lasterren agertu antziñako-usaiñaz agertu ez daiten.

### 3.7. Seigarren eskutitza:Nemesio'k Valencia Remon Gobernatzailleari (1968-1-22)

Nire eskutitza egun barik joan zan baiña 1968-1-19'koa zan eta zure erantzuna egun beratakoa da.

Nirea zuzen eta sendo joian arazora, zure kontzientzia argitzeko asmoaz.

—Erantzuna laster etorri da baiña ez da ona: Arazo sakon bateri ardurabakoen erantzuna emoten dautsazu. Nik ez dot uste olakoa zaranik.

—Itaun bi:- Sinisten dozu benetan Eleizea? Orrelan ez ba'litz ez neuke bide zapaltzen katolikuen jokabideak?

Jazokizunai buruz zuk diñozuna ez sinisteko zio astunak daukadaz: Oiñazetuen eta mozkortien garraziak ez dira bardiñak, ez antzekoak.

"Gudari"n agertzeari buruz, zure erantzun sakon bategaz batera agertzea nai neuke baiña artu didanak ez dauko sakontasunik, ez seriotasunik.

—Gure artean izan doguzan eskutitzak guztiak batera argitaratu ezkeru, ondo salduko litza-kez, trajedi ta komedi-itxurakoak diralako.

—Maketo izena ez da jatorriz euskalduna, Santander'tarrak Burgos-tarraiz ezarria da eta antza dagoanez makuto edo morralakaz etorten ziralako.

Euskaldunak erdel dunai "belarrimotzak" esaten dautsegu. Ez dakit zergaitik.

Ikurriñak emoten dautzuzan buruko miñai buruz, aolku bat: Iparraldean zillegi da ikurriña agerizea, zuek be esan egizue gure lurralde onen ezaugarria dala eta itzi agertzen. Castilla'k Katalaunia'k Naparroa'k eta Donostia'k eurena dauken antzera izan dagiala Euskalerrriak be.

Amaitzeko: Eskutitz oneik agertzen ba'dira, ez da neure burua agertzeko, abadeak isillik ez gagozela erriak jakin dagian baiño. Eta gaiñera gure artean alkar-izketea izatea bearrezkoa dala uste dodalako.

### 3.8. Zazpigarren eskutitza Nemesio'k Oltra Molto Gobernatzailleari (1968-4-24)

Il onen 8'an egin neutzun "ondo etorria" zan eskutitza artu dozula uste dot. Aberri-eguna ospatzeko bide batzuk eskiñi neutzuzan, baiña alperrik.

Biok gara Araba'ko Oion'go alkatearen lagunak.'

Zelan biurtu leiteke bere etxeok maite dauzan gizona, geideen oiñaze-ekarle?

Zuri argitasun batzuk emon nai dautzudaz eta orretarako argi ta zuzen egingo dautzut berba.

—Laster "Lanaren Eguna" dogu, Aberri-Egunaren antzekoa.

Aztertu dagigun Aberri-eguna:

Itxuraz ondo urten jatzun, baiña barru-barruan galtzaitea izan zan. Izkulluen bidea, orain-arte zure aurrekoak artu ez dabena.

Kirio-burrukea galdu egin zenduen eta dirua be galdu egin zan.

Gizon lez be galdu egin zenduen: Zelako berbak entzun ziran polizi-etxeetan.

Kristiñau lez, batez be, galdu egin zenduen: Eleizearen eta Aita Santuen eta Azkenengo Batzar Nagusiaren aurka jokatu zenduen.

—Gure Gotzainak, Bereziartua jaunak, gogorkeria alboratzeko eskatu eban eta ez zeuntsen jaramonik egin.

Oiñazeen aurka Olano ta Larrañaga gotzainak eta Lazkao'ko abatak Castells eskribauaren bidez egin eutsuen agiria entzun ez egin zenduen.

Zure izen onari buruz, ondamendia ikaragarria izan da, len be naikoa izen txarrekoa ziñala: Sabin Arana, bularreko gaisoduna izanik, ciñazetu dozue eta Estibaliz'ko Nagusiaren aurka egin dozuen zabaldunde-ekiñaldia, Araba'n euskal-irakaskuntzari buruz egin zenduana...

Lengo Gobernatzailleak bere ardura ori itzi ebanean, bildur nintzan / "militarren" eskuetara jausiko ete giñan eta poztu egin nintzan zu etorteagaz, baiña aberri-egunekoa ikusita nire poza samintasun biurtu da.

BEARREZKO AGERBIDE BAT:

Eskutitz ori gogorra dala ikusten dot eta orregaitik diñot auxe:

1. Ez daukadala inor iraintzeko asmorik, baiña bai egia argi esatekoa.

2n. Gizona sarritan inguruak menperatzen dau:

Gazteak "guardia" ilten dabenean, orrelan egin bear dabela uste dabe.

—"Guardiak" ilten dauanean ori egin bear dauala uste dau.

Baiña ezin dot ulertu zelan eroan daben auzitegira gazte bat agertu dan egoeran. Ori iltzailleak eta diktadoreak egiten dabe, baiña laterri katoliku baten?

### 3.9. **Oltra Molto Gobernatzailleari** (1969-6-17)

Irugarrenez idazten dot eta lengo zure biak etxean ezin itzi izan dodaz eta Gobernatzailletzako kutxara sartu bear izan dodaz.

Lenengo eskatzen dautzudana pasaporte emoteko da, sei urtetan pasaporte barik nago-ta.

—Ori esan ondoren, beste arlo batera noa:

Orain-arie euskaldunak ez dabe odolik isuri.

—Guda-giroan España'ko alderdi politikuak il eta il ibilli ziran alde batetik eta bestetik. Eusko alderdi Jeltzalea izan zan bakarria eritxiakaitik ilterik ez egitean.

3 urtetan gogorkeria alde batetik bakarrik agertu da. Gaurko agintarien gaiñera doaz ezkerreko partiduetakoak izan diran millak ildakoak, langilleen sindikatoetakoak izan diralako ildako millak, ainbeste espetxe-ordu eta zigor. Zabal dabil "milloi bat ildako" idazpurua daroan liburua.

Ori ikusita, nok iragarri lei bakezko jokabidea? Alan eta guzti be alegin guztia egin bear da gaurko gazteak gogorkeriaren bidea artu ez dagien.

—Alde bakoitxetik ildako bat izateak biztu dau sua eta gazteak gogorkeriaren bidera doaz.

Ez aitzu gogorkeri-zaleak erre azurkituko dabela euren aldeko eritxia emon bear dautsen edo euren buruak iltea zillegi dala laguna salatu baiño lenago esango dautzen jokabide-irakaslea.

Urtenbidea agertsen ez ba'da edur-bola au geroago ta aundiagoa izango da.

Gazteak ez dabe ikusten kondairan gogorkeri barik gogor jokatu dauan gizon ondo urtenik: Gogoratu Gandhi, Luther King...

—Urtenbiderako agintariak emon bear dabe lenengo oinkadea eta oiñazeak alboratu. Torturatzaillea edo gaiztoa da eta espetxeratu egin bear da edo burua galdu dau eta zoro-etxera sartu bear da.



### 3.10. Oltra Molto Gobernatzailleari (1969-3-7)

Emen doatzu 4n. alkar-izketa-bidea, naizta aurreko irurak erantzunik artu ez. Ez dozu nai aldar-izketarik, baiña ez nau orrek arritzen, arritu nauana zure aurreko gobernatzaille biak erantzun ebena erantzutea izan da.

Gaurko eskutitz oneri idazpuru au ipiñiko neuskio: "Gizajo batek beste gizajo bateri".

—Ni abade gizajoa nazanez, Jaungoikoa ta gizonen bitarteko nazela diñoie eta ortik datorkidaz erantzukizunik aundienak, batez be katoliku dirala diñoen agintari iltzailleen aurrean.

—Agintariak, zu zein Franco bera, bakoitxa bere maillan, gizajoak dira, erki naiz laterri baten agintari jarriak eta oraingo onetan leku ori gogorkeriz lortu dabenak diralako. Zuen agintaritza izten ba'dozue, zer etorriko da zuen gaiñera ainbeste ilketa egin ondoren? Eta gaiñera aurrerabide baten lortu dozuen leku orretan sendi bat aurrera aterateko irabazia lortu bear dozue.

Franco bera be beste gizajo bat da. Ez da ausartuko bere agintaritza izten, Musolini'ren antzeko zori txarrean ilteko arriskuan.

—Eta edur-bolea aurrera doa: Okerreko bidetik, odolez gorrituta, agintari izatera eldu dana, bildur da lekua itzi ezkeru zer izango ete dauan. Ortik dator agintarutzari gogorgeriaz autsi-bearra.


Donosti'ko Artzain Ona'n baitu dabenak eta zu, edozein lekutako Eleizeak "exkomunikatu" egingo zinduezan. Ori jazoten ez ba'da, España'ko Eleiz-Agintariak gizaldietan agertzen daben morrokeriagaitik da.

—Bitzzea laburra da eta Jaungoiko bat dagoan ezkeru, agintaritza oker darabilenak epai-kunde gogorra izan bear dabe.

—Sinistedun dan euskal-gaztedi onek fedea ta geroko bizitzearen bildurra galtzen dauanean, zuri bizitzeak balio gitxi eukiko dau, bideko autsak baiño gitxiago.

Eta parkatu zuk zeure lekua iztea biotzez nai dauan gizajo oneri.

Martin Olazar



*Nemesio Etxaniz'en omenaldiko oroitza. Aita Iturria on Nemesio'ren arrebarekin.*

# EUZKERAZKO IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN

## II

DONE IZENAK.

**B**ost doneen izen bakarrik damaizkugu larruki onek, baiñon biziro jakingarriak bostak:

Donekepa eta Donepaul'enak. Eta aien erreliki edo gozpurkiz sagaratu zuala diosku Nonna Bella'k lekaidetxe berria; eta baita Done Purdentzi eta Donemikel goiaingeruaren gorpuzkiñen bidez ere. Kostako zitzaion noski Kepa eta Paul Doneen gorpuzkiñak aurkitzea; eta... Mikel Goiaingeru Deunarenetaz zer esan? Aren egaletako lamaren bat idoro ote zuan gure abatemeak? Danadala zalantzarik gabe idatziaz zion Otxotorena (?) apaizari: "ex reliquiis almi Dei arcangeli Micaeli et sanctorum apostolorum Petri et Pauli et Santcti Prudencii sacrare disposui".

Bost oietaz beste, santu-izenik ez eroatean, bi gauza erakusten dizkigu larruki onek:

1.<sup>a</sup>—Armenti'ko Purdentzi Doneaganako eraspenna arin eta azkar zabaldu zala Euskalerrian. Donemillan bezala VI mendekoa ornena zan Donepurdentzi. Orra ba: VIII mendearen erdi-erdian, Eliz osoan omentzen diran Mikel, Paul, eta Kepa'z gainera, Purdentzi bakarrik gogoan euki zuan abateme euskaldun ark bere lekaidetxeari sortzea ematerakoan.

2.<sup>a</sup>—Bisigoten jaurerria jausita mende-erdi bat ondoren ere bisigot-elizeko done bat ere ez aipatzearekin, Errioxa Garaiera sekula santan bisigot-kulturarik sartu ez zala adierazten digu Nonna Bella'k. Eta orrek, bisigot-kulturik an ez sartu izate orrek, bisigotak ere ez zirala an beñe-re sartu aditzera ematen digu.

Arrazoi bat geiago, Fuela l'aren izena dokumentu ontan ikustea arrigarri zaigula esateko.

.....


Esan dezagun orain zerbait, larruki oneri dagozkion toki-izenataz:

PEDROSO: Ez da, jakiña, euskal izena, gaztelerazkoa baizik. Gaztelerarik orde ez zan jai oraindik erdiaro-garaien, eta orregaitik, lateraz ikusiko duzu beti bere izena dokumentu zarretan. "in monasterio S.Michaelis de Pedroso", 954'ean; eta orrela, gutxienez, ogei ta bi aldiz, Kukul'a'ko larrukietan.

Aldi aretan, ordea, erriak ez zuan emen laterarik itzegiten, eta ez zion eskierki, Errioxa'ko erri-koxkor arri Petrosus esango. Nola ote zan ba, erriko jendeen ezpaitetan erri aren izena? Petrosus ori, Arrieta, Arriaga, Arrona edo ARRIOLA baten itzulpena ote dugu? Ez litzake arritzekoa izango.

Araba'n asko dira, era batera edo bestera "AR sustraitzat daramaten erri-izenak, eta oien artean bada Barrundi'ko Aranean ARRIOLA deritzan bat ere. Entzun ba: XIII mendeko larruki batean Aro'ko Lope Didakorena Bizkai'ko Jaunak, Arriola izeneko erri orri LA PEDRERA esaten dio; eta ez bein bakarrik, bere denporan ikusiko dugunez.

Zenbat orrelako izen-erderatze ez ote dute; int,`euskera galdu dan tokietan batez ere, gure larrukietako lumalariak? Eta baita euskera galdu ez dan errialdeetan ere! Barrundi'n, eta baita Araba osoan, Ibero-ertzean izan ezik, bizi-bizirik zegoan oraindik orduan euskera. Arriola'ko jen-



de aiek ez zekiten euskera besterik. Ala ere, **ARRIOLA LA PEDRERA** biurtu zigun...nork? eta Bizkai'ko Jaunak!

Gaur egun ez da Pedrosa bat besterik Errioxa'n; Naxerilla Itpaiaren ertzean dago. Ezi du Madoz'ek ere beste Pedrosa'rik aipatzen. Ez dirudi erri au danik gure larrukiari dagokiona.

Nonna Bella abatemeak ez digu Pedroso'rik aipatzen. Ezta beste erri-izenik ere. Soilki Tiri-ertzean egin zuala bere lekaimetxea diosku: "quem iuxta Tiri abtavi": ("abtavi bear luke," be izkia, lapsus aalami edo lumaren utsune bat dugu eskierki).

Nola dakigun orduan lekaimetxe ura Pedroso'n eraikia izan zala? Ba Tiron ibaiaren ertzeko Pedrosoñ Mikel Deunari eskeiñitako lekaimetxe ospetsu bat izan zala larruki zar askok adierazten digutelako. Naxerilla'ren erizeko Pedroso'n berriz, iñoiz lekaimetxerik izan danaren arrastorik ez da.

Burgos'ko Errioxa'n zegoan Pedroso au beraz: "No lejos de San Felices, a media legua de Belorado", Serrano'k dioskunez. Ikus 971'ko larruki baten itzak: "Ego igitur domina Maior, filia de senior Albaro Garceiz, ob Sancti Spiritus revelationem, sana et integramente trado me ad atrium S.Michaelis archangeli qui est situm in suburbio de Petroso, iuxta Flumine Tirone, et tibi abbatisa domina Munnnata..." ("Nik ba, andre Maior, Albaro Garceiz jaunaren alabak, Gogo

deunaren igikundez, adimen sendoz eta garbiz, Tiro ibaiaren ertzean dagoen Donemikel goiain-geruaren lekaidetxeari eskeintzen diot nere burua, eta baita zuri ere, andre Muñata abateme omi"...) )

TIRI.—Jenitibu -eran larruki onetan. Nola egiten ote zuten VIII mendean lateraz, izen orren nominatibua? Tirus? Tiro? Tiron? Tironis? Tirone?

Gaur, Tiron, Aro'ren alboan Ibero'ra sartzen zaigun ibai baten izena da. Demanda deritzan mendian jaio, ta ezkerretik urbiltzen zaion Urbion izeneko ibaiarekin bat eginda, Belorado-zear orain Burgos'koa dan Errioxa osoa igarotzen du. URBEL, euskaldun-izena dan bezala, TIRON'ek ez dirudi ala danik. Itz bat bakar-bakarra ezagutzen dut nik "tiro" aurreizkia daramana: TIRAPU, Naparroan. Atzizkitzat daramanik ez dut bat-bakarrik ezagutzen. (1)

Arrigarria da, Pedroso'ko Lekaimetxe arri dagozkion larrukietan zenbat euskal-izen age rtzen zaizkigun; danak Errioxa garai artakoak edo bere ingurukoak. Merezi du izen oien kopuruak azterketa bat. Izan ere, ia-ia aro barrira arte, euskaldun gorde bait zuan bere burua Tiron'ek ibiltzen duan lurralde guziak. Altagutziz, ez dirudi bere izenak euskalduna danik. Nola daitzen ote zioten Nonna Bella'k, bere lekaimetxe, eta erdiaro osoko jende aiek danak ibai orri?

Larruki onen azterketa amaitzeko, esan dezagun, oso dotorea dala bere latera, deklinazio izen-jokuari dagozkion gauzatxo batzuk izan ezik. Txukuna da ortografia ere. Dagizkian aldaketak, "k" doiñua ez adierazteko "ch" edo "z"rena adierazte "t" erabiltzea erreztasunaren billa egiten ditu. Bein bakarrik erabiltzen du "CH", "K" esateko, Otxotorena idazleak bere aipua egiten duanean. Larruki au geroago bir-idatzia izan zanaren siñale.

*(1)Leitza'koa eta Iruña'koa dala Tirapu abizena dio Kerexeta'k. Naparroako TIRAPEGI bat ere aipatzen du, eta ontzat arlzen duala dirudi Lopez Mendizabal'en etimologia: "T" protetikua edo apaingarria, "IRA" eta "PE" edo "PU" atzizki toki-adierazleak. Beraz "Tirapu", "Garaki" edo "Iradi" izango litzake. Beste bi abizen ere ematen dizkigu Kerexeta'k "Tira" osogari dutenak: "IRIGARAI" eta "TIRA GORRI". Azkeneko au "Iragori"ren aldakuntza dala iduritzen zaio. Bai ote? "TIRO"z eraturik dagoan izenik ez dakar bat bakarrik ere. Ez ote da euskeran?*

.....

So-egiogun orain bigarren larruki bateri. Oso-oso zarra au ere: 800 garren urtekoa.

Garai artan ez zan oraindik Iruña'n erregerik, eta beren Batzarretan bildurik zuzentzen zuten gure asabek beren errialdea. Alhakem I'a zan Kordoba'n kalifa, II Alfontso berriz Astietan errege. (2)

Larruki onen bitartez, Vitulo abatak eta bere aide Erbijio'k, Taranco deritzan errian jauretze berri bateri ematen diote sortzea. Ta, onatx, orduan Euskalerrria zan lurralde artako toki-izenak. Ez dezakegu esangabe utzi larruki ura lateraz idatzia izan zala, eta orregaitik, ezpairik gabe, toki izen asko laterara itzuliak idoroko ditugula bertan. Ala, adibidez, Ripa (Aitz edo Atx, bizkaiera egiten bai zan Taranko'n), "Lamiella" (Lamiñeta?), "Penniela" (Aitzxo? Atxo?), "Linares" (Lierri esaten zitzaion liñuz ereindako lurrari); ("via que vadit ad vado de Linares", dio gure larrukiak: "Lierri'ko bidera doan bidea"); "Illa Spina", Arantzazu eta Arantzeta edo orrelako zerbait izango zan eskierki. "In loco que dicitur al illa Spina, ipintzen du larrukiak. Arantzondo edo Arantzalde ote zan toki aren izena? Ez beintzat Illa Spina; ez aantzi ago jendeak euskaldunak zirala.

Dana dala, beste iñon baiño leenago asi zan euskera galtzen Euskalerrriaren sarkaldean eta Enkarterri-aldean bertan. Erderazko itz oiek VIII mendean azkenean euskara ordurako lurra galtzen asia zalaren adigarri ote dira? Ez dut uste; Euskaldunak ez ziran latera edo latiñera igaro, erromanzerba baizik, ta VIII mendean ez zan oraindik erromantzetik sortu.

Azaldu dezagun orain larruki onek damaizkigun izenen zerrenda:

ELHAM	AREA PATRINIANI	CASTELLE
MENE	BURCENIA	MANENSE
TAUZO	FAUZES	COTIELLA
ORCELIONE	TABULATA	LATRERO
NAVALIOS	ANGUSTINA	ILLICINO
ZIELLA	AQUA NOVI	SALA
AGROMAIORE	ZEZA	NORONE

Itz oietatik oso gutxik dute euskal-izena.

TARANGO izenean "ko" euskal atzizkia beintzat nabari da. TARANKO beraz; baiñan zer ote da TARA? Sustrai ori agiri zaigu TARAZONA'n ere, ta Tarazona'ri erromatarrek Turiasona esan zioten; eta askorentzat "turia" ori ITURRI'tik dator. Nork jakin!

"Tara"z edo "Tara" utsez asten dan itzik ez dut ezagutzen Euskalerrian. (3). Orrek ordea ez du ezer esan nai; ez beintzat Taranko euskaldun ez danik. Euskal usai gutxi du TABIRA'k ere, baiña Durango'n daukazu Tabira, Euskalerrian erdian!

*(2)Bazan leendik emen Duke bat: Vasconi'ko edo Wasconi'ko Dukea. Egoaldean bisigotarrek Kantauri'koa euskaldunen aurka sortu zuten bezala, Vaskoani'koa ere, asmo berarekin franketarrak sortua izan zala dirudi, gero ordea, franketarren menpetik iaretuta euskotarren eskuetara jausi zala, eta, beren buruen jabe egiñik, euskaldunak izan zirala azkeneko dukeak.*

*Ain zuzen 759 gn urtean, Nonna Bella abateak bere larrukia izenpetu zuanean, Waifre zan Uaskoni'ko Duke, eta 800 garrenean, beste larruki au idatzi zanean, 11 Hunaldo, Waifre aren semea. Baiña Uaskoni'ko Duke aiek Euskalerrian egoaldean eskubiderik izan zuten, eta, izan ba'zuten, nolakoa eta zenbat aiñakoa izan zitekean izan zuten eskubide ori, iñork ez dakian gauza da.*

*(3)Nik, ez Baiña agian zuk bai, zuk ezagutuko dituzu, irakurle. Orrela ba da, ori edo emen aztertzen ditudan izenei-buruz zerbait ezagutzen ba'duzu, idatzi eidazu arren, danon arlean gure euskera zarra nolakoa izan zan jakiten leiatu gaitezen,*

ELAHAM.—Akusatibu-eran: "...deinde al Elham": "gero, Elha'ra". Auxe dugu larruki zaar ontan "H"z datorrigun itz bakarra. Zergaitik ote? Lumalariari gogoak eman ziolako bakarrik? Ez, bearbada. Jande aiek "LL"ren otsa nola adierazi ez zuten bezela, "LL" adierazteko "LH" erabiltzen zituzten. Orixe bera egiten dizute gaur bertan portugaldarrek ere. ELHA, beraz, ELLA duzu. Zer esan nai duan, ez dakit. Baiña...Serrano'k itz ori beste era batera ematen digu: ELHAIN eta orrela bai, euskalerrian ain zabaldurik dagoan "AIN" atzizkiarekin, euskal itxura osoa artzen du gure toki izen orrek, naiz sarkaldeko lurralde aietan atzizki ori oiturazkoa izan ez.

Nere ustez, "LL" ta "N" orain baiño geiago erabiltzen ziran euskera zaar artan, larruki geiago aztertzen ditugunean ikusi al izango dugunez.

TAUZO. "O" "AU"ren bidez agertu oi zutelako, "Tauzo" ori ";tozo" edo "TOTZO" errez izan daiteke. Nola esaten zan antziña artan erriaren izkeran, ez dakit. Ez dakit zer esan nai duan ere.

MENE. Jenitibu-eran dator. Gaur Burgos dan iparraldeko aran politaren izena Euskalduna zalantzarik gabe, naiz etimologi gaitzekoa. Araba'ko Araia'n, MENAGARAI izeneko erri bat badugu.

CASTELLE. Garai artan Kastilla'rik ez zan. Ezta izen orren sustrai diran gazteluen ezague-rarik ere. Larruki oneri, geroago izenak erantsi zitzaizkiolaren adigarri dugu Gaztela'ren aipu au. Askoz geroago, maometarrak dira lurralde aietako gazteluen aipua egiten dutenak, Araba'ri ekiten diotenean, beti, "ARABA eta AL KILE " zanpatu dituztela esaten dute.

ALKILE plurala edo askorena dugu: "gazteluak" esan nai du. "Castellae", lateraz.; "Los Casti-

ilos orduan oraindik sortu gabea zan gaztelean.

Gaztelu aiek on zeude eta maometarren aurka nork babesten zituan, inok ziur ez daki. Bureba'tik aruntz zeuden beintzat KILE ospetsu aiek; Bureba oso-osoan Araba bait zan. Ala Araba'n dabilzata esaten duten guztietan, edo ia guztietan, Bureba'n dabilzkizu maometar aiek. Gutxi<sup>o</sup> tan igarotzen bait dute Ponte Corco, edo Pancorvo'ko arrariea. Ortaz, Araba eta Al Kile jotzen dituztela diotenetan, argi adierazten digute Kile aiek Bureba'n ez zeudela. Non ote zegoen ba Gaztelueta ura? Ziur, askoz sarkalderago zegoan Urbel eta Pisuerga ibaien aranetan. AMAYA uriaren inguruan, gaur Palentzi'renak diran lurrak ere bere baitan artzen zituala. Gaztelueta ura babesten zutenak berriz, arabarrak zirala dirudi, 665 eta 666 urteak arte ez bait zaizkigu Araba eta Gaztelueta ura alkarren berezik agertzen. Urte ortan aipatzen dituzte arabitarrek bi konde ezberdiñak: Eylon, Araba'ko konte bezala; eta Ruderik, Gazteluetakoa lez. (4)

*(4) Altaguztiz ezazu uste izan gertakizun orri-buruz deus aundirik argi eta garbi badakigunik. Arras illunak eta ezberdiñak bait dira, orlaz mintzatzean Ibn Adhari'k, Albella'ko "Kronikoiak" eta Sampiro kronikalari leondarrak damaizkiguten albiste laburrak.*

Gerontzean bi laterri bereizi izango dira beti Araba eta Gaztela. Al ta Ruderik ura ere euskalduna izatea ez litzake arrigarriko gauza izango, naiz izen bisigota eraman. Danadala, uste oi dan baiño garrantzi aundiagoa izan genduan euskaldunok Gaztelaren sorkundean. Ondo alaba zipotzari eman genion sortzea!!! (5)

AGROMAIORE'k "soro zabala" esan nai du eta TABULATA'k "olez egindako esia". AQUA NOVI berriz "I" ori "A" ren ordeaz lumaren utsa bait da, "UR BERRI" dugu, iturri berriren baten izena seguraski. Beste leenagoko biak ere ez dira egiazko toki izenak eta soilki soro bat eta esi bat adierazi nai dizkigute; soro eta esi bereziak biak, muga-adierazle lez erabiliak izateko aski ezagunak.

MENENSE (Mainese Serrano'n) ziur-ziur "MENENSE" da, ots Mena'koa, larruki onek bein "Menense" esaten ba'du ("Burcena in territorio Menense") geroxeago "Mene" esaten bait du ("Burcena in territorio Mene").

ANGUSTINA Itz orrek "igarobide estua" esan nai du, eta Mena Araneko arrarte baten izena zala esango nuke, Araba'ren Sorkaldean, Bernedo, Nabarrete, Urturi eta Obekuri'ren alboan ANGOSTINA izeneko erri bat ez balitz. Erri au bera ere, arrarte baten sarreran dago: Ega ibaiak Araba'tik Nafarroa'ra joateko iriki duan arrartean.

BURCENIA.—Mena'n dagoan erri bat da. BURTZEÑA, esan dugunez, "NI" ori "Ñ" adierazteko era bat bait da. Bere etimologirik ez dut ezagutzen baiña benetan euskal izena da. Orain BURCENIA esaten diote. Barakaldo'k ere badu BURCENIA deritzan auzo bat.

FAUCES. Len esan dizudan lez FOCES irakurri bear duzu. Gaur-egun bada Mena'n Hoces de Mena izeneko erri bat ARCEO eta TARANCO'ren artean. Dakizunez, erderaz, "foz", errekek irikitzen duan arrarte estua da. Nafarroa'n asko erabiltzen dan itza; oroi Iraiti ibaiarena: "La Foz de Irati". Nafarroan bertan ere galdu zaigu erriak arrarte estu oiek adierazteko erabiltzen zuan itza. Nafarroan itz ori galdua ba da, Mena'n ere galdua izatea ez da arritzeko gauza.

*(5) Araba eta Gaztelueta zaar ura, bat izan balira bezala mintzatzen da "Encyclopédie de L'Islam" deritzan iztegia ere: "ALABA WA-L-KILA, `Alava et les Chateaux", expresion géographique désignant aux VIII-IX siècles, chez les chroniqueurs arabes, la partie de l'Espagne chrétienne la plus exposée aux attaques des expéditions estivales (sa'ifa) envoyées de Cordoue par les émirs umayyades." Bost tomo mardul eman ditu argitara iztegi bikain onek, eta oraindik MAH'z asten diran iztetara bakarrik iritxi da.*

ILLICINO. (ILICINO aurreraxeago) eta ZEZA zer diran ezin esango dizut, baiña euskaldun

itxurako itzak dirala, bai. VALLICELA ez da erri-izena. "Aran txiki" esan nai du.

VALLECIELA eta RIPA DE ZILLA bai, toki-izenak dira. Ez dakit ordea ZIELLA zer izango zan. ZIELLARAN eta ZIELLAITZ esan nai dute bi itz oiek. (6)

"LL", orduan eta orain, lateraz beti "L" aoskatu dalako, "Vale-Ciela" eta "Ripa de Zila" dituzu, eta itz bat bera dira seguruaski: ZELA edo ZILA.

Kerexeta'k dakarkigunez, ZELA giputz-abizena dugu, Eibar'koa eta Arrasate'koa jatorriz. ZELAA berriz, Zaldibar'koa, Arrasate'koa eta Idiazabal'koa. Sei abizen dakarzki "Zela"z asten diranak: Zelakoetxea, Zelada, Zelaeder, Zelaeta, Zelaga eta Zelagaran. "Zela" ori "Zelai", "Azela" edota "Zala"ren aldakuntza ornen da. "Azela" berriz, "sasia" ornen dugu. "Zala" zer dan, ez digu esaten. Azkue'k ere ez du "Zala"rik aipatzen.

"ZILA"z asten diran izenak ere asko ditugu Euskalerrian. ZILAUAREN eta ZILAU abizenak adibidez, Lenitz'en. Mitxelena'tar Koldobika'k ("Apellidos Vascos" San Sebastián 1973) "Zila" ori "Zillarra" dala esaten du, ariñegi nere ustez, bi itzak itxura berekoak izatea beste arrazoirik ez bait du ortarako. Itxura au ez da beiñere etimologian arrazoi naikoa.

ORCELIONE. "...via que vadit ar Orcelione". "ORTZELIO" ra edo ORTZELIONE'ra dijoa bidea". Gaur Orcelion du izena. Bere etimologiarik ez dut ezagutzen, baiñan ORCEGUI deritzan abizen bat, bai. (7)

(6) *A gian, VALLECIELLA, au lentxeago aipatutako VALLICELA bera da eta berdiña bere esan naia ere: ARANTXO.*

(7) *Kerexeta'k badakarkigu abizen ori; eta baita ORCE bat ere, bere ustez "Olze", "Otz" edo "Arce" ren aldakuntza. Orrela ote? Etimologiarien eskuetan uzten dut ausia. "ION" atzizkiz amaitzen diran euskal-izenak jakitea ere oso atsegin izango litzaiguke.*

AREA PATRINIANI. Oraingo Villarcayo'ren izena da. "Ares patriniani in territorio Castelle" diosku larrukiak; baiñan ori seguruaski geroago erantsia du, "Castelle" beraz aitzintxe esan dugunez. Gaiñera arabitarrek geroago aipatuko dizkiguten Kile aiek ez zeuden Villarcayo bezala Ibero ibaiaren iparrean, egoan baizik, eta baita aruntzago ere: Oberenes deritzaaien mendien egoaldean.

Aski errikoskor aundia da-ta gelagotan ere agertzen zaigu dokumentuetan bere latinezko izen ori. Erriak nola esaten zion ez dakigu, zoritxarrez antziñako euskaldunek ez bait ziguten ezer idatzi.

Gure larruki ontan Bitulo abatak eta Erbijio apaizak an "uria eta Martin Deunaren eliza (dirudiane, zaila bait da irakurketa), ondamenez lur-jota aurkitu zituztela, eta Martin Deunaren eliza bir-eraiki eta baita uria inguru guztian isten duan arresiaren barruan ere, lurra gertutu ta landu" egin zutela diote. Ori...beren izkera naasi ulerkaitzen arresia ber-bera ere beraiek bir-jaso zuela esan nai ez ba'digute! Ikus lateraz: "Et in Area Patriniani ad S. Martini invenimus ipsa civitate ex ruina desolata, et fabricavimus ipsa ecclesia S.Martini, et feaimus culturas et laborem et cum illa omnia hereditate quem cludit muro in circuitu de ipsa civitate".

Seguruaski mauritarrek, ustegabeko sarrera batean, erria kiskaldu zuten, eta bertako jendeak il. Uda oroz egin oi zituzten orrelako "algara" edo "sarrerak" bai maometarrek eta bai kristauak ere; eta ebasketan, kiskalketan, eta jende-eraiketean ez ziran batzuk besteak baiño gozoago ibiltzen. Baleike beaz Estornes Lasa'k arrazoi izatea, euskaldunak asturiarregandik, VIII mendearen aurreneko erdian, lekaro batek bereizten zituala dioskuenean. (8) Algara aiek ez ziran lurra irabazteko egiten, lurra ondatuaz etsaiari lur aietan gudarozte bat alikatzea zailago egiteko baizik.

Ure berri bat eleiz eta guzti an eraiki zutenean eskier ikusten zuten nonbait lur ura gure bi erail aietan bidea isten zieten arabarrei eskerrak.

ILICINO, (ILICINO, lentxeago) eta NAVALIOS zer diran ez dakit. COTIELLA "Muño-Txiki"

dala dirudi eta orrelako zerbait izango da, itz orren aide dirudian COLIOLA ere.

—NORON erreka baten izena duzu. Bada Araba'n ORON izeneko beste bat, eta baita Miran-da-aldean ORION izenekoa ere. ORONCILLO da beste arabar-erreka baten deitura. Foronda bazteiz-aldeko erriskari, ORONDA esaten dio 1025'ean Kukulla'ko Burnibarren larruki ospet-suak.

*(8) Bai ete? Urte batean bai eta bestean ere bai, arabitarrek uda oro 'Araba eta Alkile' ren aurka borrokan ditugu. Bureba'n eta Gaztelueta artan ez ote zan gudaria besterik bizi?*

"ORON" eta "ORO" (ORONOZ, OROKIETA) ezagunak ditugu Euskalerrian, eta baita "ORO" izen soilla bezala ere. ORO da Araba'ko Zuia'n mendi baten izena, eta Naparroa'n, Gesalibar Aranean, gatzak ospetsu egin zuan erri batena. Salinas de Oro, esaten zaio orain.

.....

Sei giza-izen ematen dizkigu gure larrukiak:

VITULUS ETA ERBIGIUS: larruki au idatziaz zutenen izenak. Eraikille bizkorak ziran diru-dianez bi gizakume aiek, gero Errioxa'n beste Done euskaldun bat, Kaltzada'ko Done Domingo, izango dan bezala. Beintzat, Villaraayo bir-eraikiaz gainera, Taranko'n ere beraiek "beren eskuz eraiki zutela oiñarritik gora Emeter eta Zeledon doneen santutegia, esaten bait digute: "...S. Emeteri eta Celedoni, cuyus baselica extirpe manibus nostris construximus ego Vitulus abba et frater meus Erbigius".

Vitulus itzak lateraz "Txala" esan nai du, eta baita edozein abereren ume gaztea ere. Euskal-dunek, beren buruei abere-izenak ipintzeko zuten oituraz mintzatu gera. Abata arek aberekume-ren baten izena ote zuan? Erbijijs, bisigota da.

LEVATUS et MOMADONNA, bi anai aien gurasoak ziran; Momadonna izenak, badu Tiron ibaiaren ertzeko lekaime aien izenekin aidetasuna, eta Levatus... Lobatus ote da? OTSOKO edo OTXOA? "Levatus" "goratua" esan nai duan aditz baten partizipio edo aditz-izena dugu, baiña ez dut inoiz idazti zarretan gizakume baten deitura lez ikusi.

MAURENTI, Morenti irakurri bear da. Toki izena edo giza-izena danik ez dago larrukian argi. Giza-izena dirudi. Naparroa'n bada Morentin izeneko erri bat Lizarra ondoan, Oteiza, Allo eta Baigorri'ren alboan. Ega ibaiaren ertzean dago, Montejurra edo Mendijurra'ren maldan. (9)

Gero, testigu edo lekuko izenak datoz:

JAUNTI (Jenitibu dirudi, bere nominatibua Jaun izango zan).

AZANUS, euskal itxurakoa.

MUNINO. "MIN" oiek ia ziurki "Ñ" adierazteko bait dira, MUÑO duzu jaun aren izena; euskal-duna seguruaski,

ARMANDUS laterazkoa da eta HANDALISCUS, bisigota.

LOEPINUS du idazleak izen: "Loepinus presbiter scripsit". "OE", "E" irakurtzen da lateraz, eta izkuntza ortan "lepus" "erbia" da, eta "lepinus" "erbikoia". ERBI edo ERBITSU edo orrelako zerbait ote zan apaiz aren izena? Baita're baleiki Leopinus'en "E" ori berak edo, larruki au ber-idazterakoan beste lumalari batek uste gabean sartua izatea. Orrela ba'da, Otsoarena edo OTXOARENA izango zan. Beti ere abere izena.

*(9) Araba'ko Zelaiean baduzu MENDIJUR izeneko erri bat. Lopez Mendizabal'entzat Morentin "garadi" da. "M" proteikua, "ORO" ("geroa") eta "TI" ugaritasun adierazlea. Kerexeta'k berriz ORENDAIN'en aldakuntza dala dio. Ez dut uste ala danik.*

Bixente Latiegi



# NI NTZAN. . . . NI NTZAKE. . . I .

## **Nintzan... Nintzake Neban... Neuke'ri buruzko zeozer**

Bergara'ko igarleak ez dakit zer esaten eban, baiña emen ikusiko dogu Mendatakoak esanten ebana, eta zelan aurretiaz iragarri eban nergargarrizko beste gudaketa bat, bertokoak nastautata bestiekaz, alkar ilten **ibilliko zirala**, ta gero gerokoak.

Ibilliko **zirala** ala **ibilliko** litzakezala...?

Ondo alkarturik egon balira euskotarrak eta bestiakaz nastau barik, indartsuagoak **izango ziran**, eta baliteke....

**izango ziran** nire ustez emen ondo dago

Dana-dala inork ez eban siñisten arrantzaleok an arrapatu eikiezan emoitza utsakaz **biziko** zireanik. Arein jan-edanak...

**biziko** zireanik ala **biziko** litzakezanik...?

Alako baten amari amen esatearren, ori baiño ez bazan ezkonduko **zala** agindu eutsan, baiña erraiñari berak egiteko mandatua.

ezkonduka **zala** ala ezkonduko **litzakela**...?

Kontatu eustan zelan Bilbo'tik Donostia'ra etorri zan, psikologia ikatea gura ebalako eta bertan bizitzen **geratuko zala**.

**geratuko zala** ala **geratuko** litzakela...?

Aurrerantzean Mendata'ko Profeta lez **agertuko zan**, eta senitartekoak be izen orregaz ezagutuko eben.

**agertuko zan** ala **agertuko** litzake...?

**ezagutuko eben** ala **ezagutuko** leukie...?

Egiazko arrisku baten bildurrak eraman zuala Iñotzentzio XI'a, Fenelon jakintsuaren esari aiek gaitzestera Ostera Españietako, Frantzi'ko eta Itali'ko alper-egonzaleen izugarrikeriak kristaudian berbiztuko **ote** ziralaren bildurrak.

berbiztuko **ote** ziralaren ala berbiztuko **ote** lirakelaren...?

Ainbeste itxilluren artean bat erabatekoa **izango zan** Tomas Moro'rentzat, Oiñordeko-Agiria oyukatua izan zanean.

**izango zan** ala **izango** litzake...?

Andik aurrera, Aragoi'ko Katalina ez zan erregiña ta Ana Bolena'ren seme-alabak **izango ziran** errege-gai.

**izango ziran** ala **izango lirake...?**

Dei arekin (Tomas Moro) ez zan malmetitu ere; bere kezka guztiak erabat **baztertuko zirala** ikusiaz, ala zion, berekin zijoan suyari " floper nere seme: Jainkoari esker, burruka irabazi det."

**baztertuko zirala** ala **baztertuko lirakela..**

Nagusitasunaren agiri lenengoa: Ingalterra Eliza'ren lurreko Buru Nagusia erregea **izango zan.**

**izango zan** ala **izango litzake...?**

Gure elertia beterik dago esaera onein antzekoekaz. Nire ustez arazo au bein betiko erabagi bear izango genduke, eta oker ez ba'nago "izango zan" **habra sido edo hubiera sido**, adierazoten dau, eta bardin: "izango neban" **yo habre tenido edo yo hubiera tenido**, adierazoten dau. Dana dala, arazo au garrantzitsua da, eta ondo merezi dau arreta apur bat emotea

Zubiri'tar Iñaki



"EUSKERAZAINTZA" aldizkari onen 1 zenbakian, sail oneri buruz au esaten gendun: Ara emen, beste zenbakietan lan au burutzen joateko asmoakin, azterketa sakonak egin ondoren, zeaztu eta agertutako lenengo 75 erdal itz edo deituren euskal ordekoa.

Gaur beste eun itzeri dagokiena agertzen degu

76. Federación (profesional, deportiva, etc.)	BATZA
77. Atentar (cometer un atentado) .....	ERANKETA EGIN
Atentado (tentativa de matar) .....	ERAN-ZURKETA
Matador (persona que mata a otra) .....	ERAILLE
Matar .....	ERAN
78. Molestia, molestar .....	KEZKA, NAIGABE
79. Despedir, despedida (saludo) .....	AGURREGIN (aldegitean ADIO Urruntze-AGURRA)
80. Transporte .....	KARRIO, LOR
Acción de transportar .....	LORRETA
81. Recurrir a una autoridad .....	GORA JO
Recurrir a un superior .....	GORAGO JO
Recurrir a alguien .....	NORBAITENGANA JO
Recurrir a otros medios .....	BESTE ZERBAITI ELDU
Recurrir a otros medios .....	BESTELA MOLDATU
Recurrir a otros medios .....	BESTE BIDE BAT ARTU
82. Circunvalación (tráfico o tránsito) .....	IBILDUNTZA
83. Profesión (medio de vida) .....	LANBIDE
Profesional .....	LANG I N
Deportista profesional .....	KIROLGIN
86. Financiar .....	DIRUZTATU
Financiación (acción de) .....	DIRUZTAPEN
Banco (entidad de financiación) .....	DIRUZTATZE BALTZUA
87. Desarrollo económico .....	OGASUNKETA, GARAPENA
88. Oficial (documento, declaración) .....	JAURBIDEZKO
Documento oficial .....	JAURBIDE-AGIRIA
Declaración oficial .....	JAURBIDE-AZALPENA
89. Locutor (anunciador, presentador) .....	MEZULARIA
Locutor (el que lee noticias) .....	IRAKURLARIA
90. Arbitro .....	ERABAGITZAILLE
Arbitro (deportivo) .....	KIROL-EPAILLE
Arbitrar .....	ERABAGI
91. Interés (provecho, utilidad, ganancia) ....	SUDU, MESEDE, IRABAZPEN
Interés (valor que en sí tiene una cosa) .....	BALIO, GARRANTZI

	Interés (lucro producido por el capital) .....	OBARI, KORRITU
	Interés (inclinación anímica) .....	GANO
	Interés (Pl. bienes de fortuna) .....	OGASUNAK
	Interés (necesidad de carácter colectivo) .....	BALTSAKO SUDUA
92.	Corto circuito .....	BIDELASTERRA
93.	Ciencia .....	JAKITE
	Científico, sabio .....	JAKITUN
	Investigador .....	IKERLARI
	Erudito .....	JAKINTSU
	Sabedor, enterado .....	JAKILLE
	Sabiduría .....	JAKINTASUN
	Conocimiento, cultura .....	JAKINTZA
	Científico .....	JAKITEZKO
	Científicamente .....	JAKITEZ, JAKITE-BIDEZ
94.	Materia prima, materia .....	EKAIA, GAIA
95.	Aire comprimido .....	ZAPA- AIZEA
	Presión de aire .....	AIZE-ZAPA
	Compresor de aire .....	AIZE-ZAPAKIÑA
	Bomba de aire .....	AIZE-ZAPAILLUA
	Ventilador .....	PUZLAILLUA, AIZEKIÑA
96.	Ascensor, montacargas .....	JASOKIÑA
	Para personas .....	GIZA-JASOKIÑA
	Para cargas .....	ZAMA-JASOKIÑA
	Para barcasas .....	ALA-JASOKIÑA, GABARRA-JASOKIÑA
97.	Control (vigilación, supervisión) .....	ZAINKETA
	Control (inspección, comprobación) .....	EGIZTAKETA
	Control (dominio) .....	NAGUSITASUNA
98.	Norma, normal, normalizar, normalización .....	ARAU, ARAUZKO, ARAUPETU, ARAUPETZE
99.	Velocidad, aceleración, acelerar .....	LATERTASUN, LASTERPEN, LASTERTU
100.	Red de sucursales (cadena de tiendas) .....	DENDORDETZA
	Red de sucursales (de una casa de banaa) .....	ETXORDETZA
101.	Ambulatorio, dispensario .....	SENDATEGIA
	Hospital clínico .....	ERITEGI, ERI-ETXE
102.	Funcionamiento: modo de funcionar .....	ARIKETA, IBILKERA, JARDUNKERA
	Acción de funcionar .....	ARIKERA, IBILKERA
103.	Computadora, ordenador .....	JAKINGAILLU
104.	Corredor de comercio colegiado .....	MERKATU-IDAQTARI
105.	Aculturación .....	KULTURA-KUTSATZE
	Enculturación .....	KULTURAZ TATZE
106.	Aislamiento: soledad, desamparo .....	BAKARTASUN
	Eléctrico, térmico o acústico .....	DEBEKU (esaterako, bero-debeku, ots-debeku)
	Material aislante .....	DEBEKU-GAI
	Dispositivo aislante .....	DEBEKUGARRI
	Aislador (aparato) .....	DEBEKUGAILU
107.	Luz intermitente .....	KIÑU-ARGI
108.	Buque petrolero, buque tanque .....	PATIN-ONTZI
109.	Información, acción de informar .....	JAKIÑERAZTE, BERRI-EMOTE
	Conocimiento, saber .....	JAKITE, BARRI
	Investigación .....	IKERKETA

	Informe, noticia .....	TXOSTEN
	Explicación .....	ARGIBIDE
110.	Angulo .....	KANTOI
	Triángulo .....	IRUKANTOI
	Polígono .....	KANTOITZU
111.	Disco .....	TXIRINBOL
	De gramáfono .....	SOIÑU TXIRINBOL
112.	Zurrar las pieles .....	ZURRATU
113.	Foco .....	BILGUNE
	Polo .....	BILBURU
114.	Corriente .....	GOAI(esaterako, ur-goiaia, aize-goiaia, tximista-goiaia)
115.	Alienar: ceder, vender, donar .....	BESTERENDU
	Alienarse, trastornarse mentalmente .....	EROTU, ZORATU
	Alejarse .....	ALDENDU
	Enajenar, sacar a uno de sí .....	BERE ONETIK ATARA
	Alienación .....	1)BESTERENTZE; 2)EROTZE, ZOROTZE; 3)ALDENTZE
116.	Burócrata, empleado de oficina .....	BERETER
	Burocracia .....	BERETERTZA
	Mando de los burócratas .....	BERETER-AGINTZA
117.	Catamaran .....	ONTZI BIKUNA
	Trimaran .....	ONTZI IRUKUNA
118.	Ciclo: período recurrente .....	ITZULALDI
	Períodos por segundo .....	HERTZ
	Serie de conferencias .....	ITZALDI-ERREZKADA
	Sucesión de fases de crecimiento .....	ETORPIDE
	Prefijo que en química indica	
	aadena cerrada .....	KANTOI (esaterako: aiclo - butano = KANTOI-BUTANO)
	Espira en botánica .....	KIRIBIL
119.	Crisis: depresión económica .....	URRITZE
	Período de crisis .....	URRIALDI
	Desempleo, escasez de trabajo .....	LAN - URRITASUN
	Epoca de escasez de trabajo .....	LAN - URRITZE
120.	Neumático de rueda .....	AIZE-UZTAI
	Cámara de neumático .....	AIZE - ESTE
	Cubierta de neumático .....	UZTAI - AZAL
	Neumático sin cámara .....	AIZE - UZTAI ESTEBAGE
121.	Acto, hecho o acción .....	EGITE
	Hecho público solemne. Ospakizun, ospaketa;	
	parte principal de obra de teatro .....	EKITALDI
	Forense (anticuado) autos .....	AGINDU
	Actuar, poner en acción .....	ERAGIN, ERABILLI
	Entender, penetrar, asimilar .....	KONTURATU, ADITU, ULERTU
	Ejercer funciones propias del cargo .....	ARI, JARDUN
	Actuación, acción y efecto de	
	actuar .....	ARITZE, JARDUTE, ARIKETA, JARDUKETA, JARDUNALDI
	Forense: autos o diligencias de un procedimiento judicial .....	AUZIKETA
122.	Abstracto .....	ZEINGABE
	Abstraer .....	ZEINGABETU
	Abstracción: acción de abstraer .....	ZEINGABETZE, ZEINGABEKETA
	Efecto de abstraer .....	ZEINGABEPEN

123. Cinta transportadora .....	LOR - EDE
124. Tornillo de ajuste .....	DOITZE - TORLOXO
125. Radar (sistema) .....	MIRA - IRRATI
Aparato .....	MIRA - IRRATILLU
126. Central nuclear .....	KIZIGUN - INDARRETXE
127. Trópico de Cáncer .....	IPARRALDEKO ITZULOBOA
Trópico de Capricornio .....	EGOALDEKO ITZULOBOA
128. Container .....	KUTXARRA
129. Muelle, resorte .....	BULTZAGARRI
130. Petróleo .....	LURROLIO edo ARROLLO
131. Reactor atómico .....	KIZI - LABE
132. Bujía de encendido de motor de explosión .....	TXINPARTAILLU
133. Amortiguador de oscilaciones	BAREGARRI
Amortiguador de sonidos .....	MOTELGARRI
134. Torno .....	BIRIBILKIN
Tornear .....	BIRIBILDU
135. Longitud .....	LUZETASUN
Anchura .....	ZABALTASUN
Altura .....	GORATASUN
136. Masa inerte .....	GAI NAGI
Inercia .....	NAGITASUN
Masa de un cuerpo .....	Gorpu baten EKAI
137. Hidrógeno .....	GARRAZKAI
Oxígeno .....	ERDOIGAI
138. Cuestación .....	LIMOSNA-BILKETA, LIMOSNAKETA
139. Hospital Civil .....	ERRI-GAIXOTEGI
140. Pasa (en un frontón) .....	BARRIRO, LUZEA
Falta .....	UTS, MOTZA
141. Dosis .....	IZARI
142. Beca .....	IKASTE-SARI, IKASTE-DIRU
143. Promoción: iniciación, procura	ERAGITE
Elevación a un puesto más elevado .....	GARAGOTZE
Conjunto de personas ascendidas simultáneamente .....	ALDIKIDETZA
144. Hipoteca .....	ONIBAR-BAI ILLA, BAITURA
145. Moneda .....	DIRU-KOSKO
Moneda extranjera .....	ATZERRI-DIRU
146. Caja de Ahorros de Guipúzcoa	GIPUZKOA-AURREZKITEGIA
147. Asociación .....	ALKARKETA
Disociación .....	BANAKETA
Sociación .....	GIZARTEKETA
148. Iniciativa: derecho de proponer	SALOMEN
Adelantarse .....	AURRE-ARTZE
In. Legislativa .....	ERRI-EKITAMEN
Iniciar, emprender .....	EKIN
Proposición .....	SALO
Hombre de in .....	GIZON SAIATUA, GIZON EKIÑA
149. Variaciones .....	MOLDAKERAK
Permutaciones .....	EZARKERAK
Combinaciones .....	AUTAKERAK
150. Erario, hacienda pública .....	BALTSAKO OGASUNTZA, LATERRI-OGASUNA

Fisco, reaudación de impuestos .....	ZERGAZAITZA
Tesoro, fondos públicos .....	BALSAKO DIRUTZA
151. Obras públicas .....	BALSA-LANAK
152. Mecanismo .....	ATXEMARTA
Mecánicamente (accionado) .....	ATXEMARTAZ
153. Colectivo (conjunto de personas actúan juntas) .....	SALDOA
154. Espacio exterior, cosmos .....	ZABALDIA
155. Abonar(en cuenta), debitar .....	ARTZEIDATZI,ZORRIDATZI
156. Sindicato de defensa .....	JAGOTE-ALKARTEA
Sindicato obrero .....	LANGILLE-ALKARTEA
Sindicato de empresas .....	BALTZU-BATZARRA
157. Comité de empresa .....	BALTZU-BATZORDEA
Consejo de empresa .....	BALTZU-BATZARRA
158. Residencia secundaria, casa de fin de semana	JAI-ETXEA
159. Consejo de Administración .....	ARDURA-BATZORDEA
160. Mesa electoral .....	AUTESTEZAIÑAK
Presidente de la mesa .....	AUTESTEZAIN-BURUA
Secretario de la mesa .....	AUTESTE-IDAZKARIA
Adjunto de la mesa .....	ZERRENDADUNA
161. Junta de accionistas .....	ZATIDUN-BATZARRA
Acción .....	(JABETASUN) ZATIA
Accionista .....	ZATI-JABEA, ZATIDUNA
162. Urna electoral .....	(AUTESKETA) - ATABAKA
163. Campaña electoral .....	AUTA-GUDUTE
164. Acta de una reunión .....	BILLERA-AGIRIA
Acta de una asamblea .....	BATZAR-AGIRIA, BILTZARR-AGIRIA
165. Presidente .....	LENDAKARIA
Vicepresidente .....	LENDAKARI-ORDEKOA
166. Excepción .....	BEREZTAPEN
167. Convenio colectivo (de trabajo) .....	(Lanerako) ALKARTE-ITUNPENA
168. (El) Policía .....	ERTZAIÑA
(La)Policía .....	ERTZANTZA
169. Esquema (explicación esquemática) .....	ARGIGARRI MURRITZA
Figura esquemática .....	IDURI MURRITZA
Organigrama .....	ITXURAPENA
170. Seguro .....	SEGURTAPENA
Reaseguro .....	BISRSEGURTAPENA
Compañía de seguros .....	SEGURTATZE-BALTZUA
171. Carretera turística .....	TXANGO-BIDEA
172. Violencia .....	INDARKETA
173. Cámara Oficial de Comercio, Industria y Navegación .....	MERKATARI, LANTEGILARI ETA ONTZI-JABEEN BAZKUNA
174. Portero (de fútbol) .....	ATEZAIÑA (Ostiko - Kirolean)



# ONDARROA TA INGURUKO TOPONIMIA ONDARROA KORTZELEKO IRUDIAK

(Jarraipena)

Elimeti azpi	soloa	Giñarrix	basoa
Eriñoste	soloa	Gizezti	soloa
Errebalekoa	etxea	Gizon soloa	soloa
Erriba solo	soloa	Goiengua	illobia
Espeso alde	soloa	Goiko soloa	soloa
Estratia	bidea	Goikoa	soloa
Etxaburu	soloa	Goiko-errekalde	soloa
Etxaldi	ingurua	Goikoetxe	baserria
Etxazpi	ingurua	Goiko-kale	kalea
Galantxotekoa	illobia	Goiko zabala	soloa
Galartzakoa	illobia	Goimendia	auzoa
Galdona Ezkutasolo	illobia	Goitia	sagastia
Galartzakoa Iturrino	illobia	Goitiale	soloa
Galletakoa	etxea	Goitiko	soloa
Galtzuaran	baserria	Goitiniz	baserria
Galtzuaran alde	sagastia	Goiesko	soloa
Garralde	soloa	Gorostei	basoa
Garramiztueta	soloa	Gorozika	auzoa
Garro	baserria	Gorriko-solo	soloa
Garro	illobia	Goxizkoa	soloa
Gastuna	baserria	Ibaibarriaga	etxea
Gastunalde	ingurua	Ibargoen	etxea
Gaztañadi	gaztañadia	Ibarguren	illobia
Gaztañadi txikia	gaztañadia	Ibarra	illobia
Gaztañadi zarreta	mendia	Ibarra	kalea
Gaztañalde	soloa	Ibarrekua	illobia
Gaztañeikoa	soloa	Ibarrola	illobia
Gillestegikoa	illobia	Ibartxu	soloa



Idiakazkoa	etxea	Kantera	mendia
Idiakezkoa	illobia	Kapopekua	soloa
Idoibalzaga	ingurua	Karebizia	soloa
Ikaita	etxea	Karabizulo	kare-zuloa
Ikaita barri	etxea	Karia	soloa
Ikaita zarra	etxea	Kaseta	etxetxea
Ikattetxe	soloa	Kasetalde	ingurua
ikatza	etxea	Kazintosolo	sagastia
Ikatzakoa	illobia	Kitarra	soloa
Ikatzaldea	ingurua	Kitarranekua	etxea
Ikoalde	soloa	Koastei	baserria
Ilorokua	soloa	Konde Etxebarri	baserria
Ilorokua	illobia	Konde baso	basoa
Intxuzkidi	etxea	Koosti	arboladia
Iparkale	kalea	Koosti-gioa	soloa
Iparkalea	ortua	Korretabarri	eleiz-ingurua
Irabaltza	ingurua	Korreta-zarra	eleiz ingurua
iramategialde	ingurua	Korruburu	soloa
Iramategi barri	etxea	Kortamika	soloa
Iramategi zarra	etxea	Kortazabal	soloa
Iramategi erreka	ingurua	Korteta	ingurua
Irazabal	sagastia	Korteta-atesare	sagastia
Irugaztañeta	mendia	Korteta-buztindia	soloa
Itola	baserria	Koskabil	mendia
Itolamendi	mendia	Kristosolo	soloa
iturralde	ingurua	Kurutze-aldea	mendia
iturrazpi	soloa	Kukuneku	soloa
iturribarri	iturria	Kurutzekoa	soloa
iturribarri	ingurua	Labakoa	illobia
itxas-agirre	sagastia	Lamiña	soloa
Itxiarkoa-Iperkale	illobia	Lanbarri	mendia
Idurre	illobia	Landarixe	soloa
Ixuzkidi	etxea	Landazarra	sagastia
Ixuzkidi	mendia	Lapa-bide	bidea
Izuzkidualde	aritzia	Lapabide-erreka	ingurua
Jauregi	etxea	Larreko errekatxoa	ingurua
Jauregikoa	illobia	Larriñe	soloa
Jausolo	soloa	Latetxe	etxea
Josanton solo	soloa	Latrozulo	mendia
Kalamendi	mendia	Lazurikakoa	illobia
Kaleandi	kalea	Letabiñe	sagastia
Kamiñibar	etxea	Letañabide	bidea
Kamiñaga	etxea	Letañabidieta	sagastia
Kamiñalde	ingurua	Likoakua	etxea
Kamiñazpia	soloa	Likoakua	illobia
Kamiñazpi	ingurua	Likona	torrea
Kanpaipe	soloa	Limongua	etxea
Kantale	kalea	Luarri	soloa
Kantalekua	maastia	Labarri	soloa
Kantalekua	illobia	Lurgorri	soloa

Maastialde	sagastia	Olarrakua	etxea
Maastiluze	sagastia	Olasona	soloa
Madarixa	soloa	Olesketxe	etxea
Magala	soloa	olazkoa	illobia
Makao-Makaro-Mokao	baserria	011engoa	etxea
Makatzaga	mendia	ondarreko burua	sagastia
Makazkixe	basoa	Oriokoa	illobia
Makibar	illobia	Ormaburu	soloa
Makoaga	illobia	Ormape	soloa
Mandazketa	ur-aska	Ormaetxea	illobia
Manunekoia	etxea	Oroldixe	ingurua
Mausolo	soloa	Oronzokua	etxea
Marrakazkoa	illobia	ortu	ortua
Marrerukoa	illobia	Ortuburu	ortua
Meltxorrenekua	etxea	Oriutxiki	ortua
Mendigaiña	soloa	Ortuzar	soloa
Mendi nagusia	mendia	Ortxeriako	soloa
Mendipe	soloa	orube-solo	soloa
Mendi-punta	mendia	Orueta	illobia
Menditxua	basoa	Orueta barri	etxea
Mereludi	ingurua	Orueta zarra	etxea
Millagarai	soloa	Osandola-gaiña	mendia
Miragarai	soloa	Osollomendi	menda
Mollondo	ingurua	Ospital-baso	basoa
Montealegre	mendia	Otamendi	mendia
Montetxua	mendia	Otorroko-potzondua	tokia
Montexe	soloa	Ozollokua	illobia
Mortizur	ingurua	Pagadi	arboladia
Mota	soloa	pagaldi	soloa
Motamendi	mendia	Pagate	sagastia
Motatxurra	soloa	patrokua	etxea
Mozillo-alde	soloa	Pelloneko txikia	etxea
Mugartegibaso	basoa	Piotriñenekua	soloa
Muguruza	illobia	Plazakoa	illobia
Muna	ingurua	Portalekoa	illobia
Munabe	baserria	Portua	kaia
Munabe-erreka	ingurua	Praille erreka	mendi-arte
Munabekua	illobia	probetukoa	ifobia
Munabeta	soloa	Prudentziosolo	soloa
Munizarreta	soloa	Puntako aitz	Itxas-aitza
Mustutxurru	iturria	Sagarragakua	illobia
Muturzulo	sagastia	Sagarrakua	etxea
Obillo	larrea	Sagasti	Sagastia
Ogeikosolo	soloa	Sagasti zarra	Sagastia
oietxalde	ingurua	Sagatza	Sagastia
Olabe	baserria	Sailbarri	soloa
Olaetxe	baserria	Sail-luze	soloa
Olaetxe buru	soloa	Salbe lekua	soloa
Olanokua	ifobia	San Juan solo	soloa
Olaorkoa	illobia	Sansarrangoa	illobia

Txondor zulo	basoa	Santa Klara	ermita
Txopite	illobia	Santa Klara alde	ingurua
Txoribaso	basoa	Santa Klarapia	ingurua
Txurrukakoa	etxea	Santana	etxea
Ubea	illobia	Santana-atea	Erri sarrerako
Ubilla	baserria		atea.
Ubillalde	gaztañadia	Santa Kutz	ermita
Ubillalde	mendia	Santa Kutz	etxea
Ugarritza	soloa	Santa Kutz azpi	zelaia
Ugonoeta	etxea	Santa Kutz zelaia	zelaia
Undakua	etxea	Saroe	etxea
Urkamendi	illobia	Sarratu	zelaia
Urkiaga	baserria	Sarratuko landa	zelaia
Urkiaga bekoa	etxea	Sasturri	illobia
Urkiaga goikoa	etxea	Sasturri	etxea
Urrea	illobia	Serotetxe	etxea
Urrestieta	illobia	Soloandi	soloa
Urriola	ifobia	Solobarri	soloa
Urrunagakoa	illobia	Solobizkarra	soloa
Urrunaga	etxea	Solo galdu	soloa
Ursolo	soloa	Sologuen	len gaztañadi
Urzelai	soloa		geroago sagasti
Usutegi	soloa	Solo nausi	soloa
Utxupil	ifobia	Solotxu	soloa
Zabalagakoa	illobia	Talaia	ikus-tokia
Zabaleta	soloa	Telleria	etxea
Zaldu	etxea	Telleria	illobia
Zalduburu	etxea		
Zalduburu	mendia	Tontorramendi	mendia
Zalduerreka	ingurua	Tripaerreka	ingurua
Zaldupe	ingurua	Txabolalde	soloa
Zelaibarrena	zelaia	Txakurzulo	ingurua
Zelaikoa	illobia	Txaralde	soloa
Zezermendi	etxea	Txaranbeleta	etxea
Zezermendikoa	illobia	Txarapotzu	mendia
Ziaramona	tokia	Tximikilla	basoa
Zumeta	tokia	Txindurri	mendia

Ezin ukatu lenengo zerrenda onek tartetan uts asko daukazala, bete-bearreko eta geitu bearreko beste izen asko dagozala, eta orretan alegindu bearko gara. Gogoratu, baita, asieran esandakoa. **Ondarroa eta inguruko** deiturak dirala, kontuan eukita Ondarroa eta Berriatua sarrí alkar-tu eta naastuten dirala jaubetazunetan.

AUGUSTIN ZUBIKARAI



# GURE KEZKAK

## EUSKERAREN SOIN ETA IKURRAK GOI YAKINTZA

**I kus** ditzagun gaur euzkeraren soñu ta ikurrak zeintzuk diran; guztiz bearrezkoa zaigu batzuk eta besteak nolakoak diran eta alkarrekiko nola erabiltzen ditugun zeatzez ikusi ta begiratzea.

Izkuntza guztietan bezela gurean ere soñuak ditugu mintzatzeko ta ikurrak id azteko. Guziok dakigunez gizonen lenengoz mintzatzean bakarrik erabiltzen zituzten beren izke mendeetan barna alkarri itzegiteko ta nai edo bearr zuten guzia alkarri ere jakin-erazteko; gero egokia iruditu zitzayen soñu guztiak ikurren bitartez adieraztea, ta orrela idazten asi ziran, eta lenengoz beren izkuntzak ao ta belarrien bitartez erabilli bazituzten bakarrik, arrezkero begien bidez be erabiltzen ari-izan ziran gero ta aundiagoa izan zan neurrian. Orrela gaur bi azpegi auetan aurkeztu ditekete arazo au: Soñuak ao ta belarrien bidean eta ikurrak begien bidean, bienganako alkartasun ederrean eta gogo-biziari laguntasun guztiz egokia ematen. Saussure'tarr Ferdinand izkuntzalari ospetsuak izkuntzaz ari dan bere idaztarian onela diño: "... soñua Itzaren berezko aurkezpena da ...".

Orrengatik oso garrantzi aundia oartu bearr dugu euzkeraren soñu ta ikurrak aztertzean, ain zuzen gure izkuntza onen egitura obeki ikusi ta ikasteko, bera dan bezela begiratzeko ta bera, euzkal-eliztia, ongienik erabillita izan dedin. Goazen beraz azterketa ori al eta ondoen egitera.

Oarr dezagun lenengoz gure izkuntzan, berezkoak diran beste guztietan bezela, soñuak izan dirala lendabizi ta ikurrak urrengoak, ongi baitakigu gizonak milla ta milla urteetan barna beren izkuntzak itzegiteko bakarrik erabilli situztela, beraz soñuak soilki izan zirala. Gero, noizpait, idaztea otu zitzayen eta ortarako ikurrak sortu edo egin bearr-izan zituzten; alakotz, auk ez tira iñoiz berezkoak izan aukerazkoak baño. Orrengatik ikurrak dira soñuak egokitu bearr zaizkienak, iñoiz ez auk ayei; soñuak ez dira aldatzen, ikurrak alda ditezke iritziaren arauz; beste aldetik ez dira izan berdiñak izkuntza guztietan eta oso ezagunak dira gaur erabiltzen diranak; ikurrak izkiak ere deitzen ditugu batzuetan, eta orr dauzkagu: later azko abedea, gerkerazkoa, ebreozkoa, eslabozkoa ta abarr; orra nola agertzen diran izkiak, ikurrak, ezberdintasun aundiaz eta orrela ikusi bearr berezkoak, berezkoak ez dirala aukerazkoak baizik.

Soñuak ikurren bitartez aurkezteko iritziak ez dira izan berdiñak, ez aldian ez eta aldean ere, ta orrengatik ortarako ikurr-mota batzuk ezagutzen ditugu, egun eta ondorioz abede-mota batzuk be dagoz izkuntzaetarako, guztiak gizonen autatuta izanik, inundiak ere berezotasunik erakusten gabe, ta orrengatik ikurrak mendeetan barna aldaturik izan dira ta ba-liteke aurerantzean ere oindiño aldatuak izango dirala izkuntzalarien artean gaur arau bi auk onartzen dira naiz al daketai buruz naiz ta, asmo orokarrean, soñu ta ikurrai buruz be: soñu bat adierazteko ikurr bat bakarrik izatea, ta ikurr bat ere soñu bakoitzarentzat autatzea be. Saussure'tarr Ferdinand jaunak onela diño izkuntzari buruzko bere idaztarian (23 orr.): "... izkuntzak asmo bakarr baterako bi

ikurr izatea iguintzen du ...". Ikus dezagun, arretaz, gure soñu ta ikurrak nolakoak ditugun.

Soñuak, ikurrak, izkiak bezela, bi taldeetan agertzen zaizkigu, ta onela deitzen ditugu; gediñak eta igidiñak; lenengoak bost dira: a, e, i, o, u, ta atsaren egozte bakarraz egiten ditugu oguztean; besteak, igidiñak, bi atsaren egozte edo geyago bearr ditugu oguzteko: b, be (b + e), k, ka (k + a), m, eme (e + m + e). Gediñak, beren artean, sei alkartze egiten dituzte: lau i'az: ai, ei, oi, ui, ta beste bi u'az: au ta eu; sei alkartze oyek bikonde deitzen ditugu ta oyetan agertzen dira oguzteari buruzko lenengo arauak, iru; auetxek: i'az amaitzen diran bikondeak, atzetik beste gedin bat artzen dutenean, i gediña **y** igidiñaz aldatzen da; e.b.: Bei + a = beya; odei + ek = odeyek; urdai + a = urdaya; otoi + ak = totyak. Beste aldetik urrenko itz auek oguztean: Deya, Bizkaya, Badaya, amaya, Araya eta abarr, beti ta guztien aldetik, beren azken itzatala, **ya**, soñu igidiñaz oguzten da; orrengatik soñu ori ikurr igikiñaz, **y**, ere agerrerazi, ots, idatzi bear da, len aipatu dugun egokitzeagatik. Gaur egun eta aspaldian be orren aurkako jokera onartu da, i gediña erabiltzean, eta arritzekoa da gureztat, Azkue, Orixe ta beste izkuntzalari aundiak okerr ori egiten azaltzen zaizkigula; Olabide'k, ostera, oso ondo gordetzen du arau ori beti, **y** igidiña erabiltzean. Eta nik neuk be, nire lenengo eliztian, okerr ori bera egin nuen, lenengo ikaskayan araua ematen nuen eta gero edazti osoan arau ori guztiz aiztuta geratzen zan; geroko beste eliztietan okerr ori zuzendu dut, nire ustez egokia dan iritziaz.

Bikondeetarako beste bi arau auek dagoz; i'az amaitzen dan bikonde batek **n** bat artzen badu ta onen atzetik gedin bat gañeratu ezkerro, n'a ñ biurtzen da ta esandako **i** ori kendu ala jarrai diteke; e.b.: arrain + a = arraña edo arraiña; artzain + ak = artzañak edo artzaiñak; zurtoin + a = zurtoña edo zurtoiña; eta abarr. Beste araua, onen antzekoa da, onela: i'az amaitzen dan bikonde batek **1** bat artzen badu ta onen atzetik gedin bat gañeratu ezkerro, i'a **ll** biurtzen da, esandako **l** ori kendu ala jarrai ditekela; e.b.: orail + a = orala edo orailla; eraboil + a = errabola edo erraboilla

Sta Z soñuak, beste soñu guztien artean, alkarretik oso urbil dagozelako ta erderaren eragi-penagatik, oso zabaldua dagoen okerra sorrerazi dute, ta askotan bigarrenaren orde lenengoa ikusten da erabiltzen. Bata ta bestea ez dira zallak oguzteko, baña esandako urbiltasunagatik nastuta bezela agertzen zaizkigu. Erderaz ezta gertatzen orrelakorik eta bi soñu oyek oso ezberdiñak dira; erderaz Z soñua S aldean gogorra da, ta euzkeraz, alderantziz, S'a agertzen da bestearen gogorra bezela; beraz, Z soñua euzkeraz beti biguna da ta, jakiña, erdal adikin barentzat S'az artzea bidezkoa da Ori dala-ta **zu** itzatalaz amaitzen diran abizenak erdeldunek beti su'az egiñak bezela artzen dituzte, ta ortan ere, askotan bezela, euzkaldunek erraz amor<sup>o</sup> egiten dute ayek bezela jokatzeko, beren aldetik ori egitea okerra dala oartu gabe. Guztiz zabaldua dago okerr ori, itz askotan agertzen danez, eta orrengatik bi soñu oyek ondo oguzteko irakasi ta ikasi bearr-izango lirake lenengo ikastoletan asi-ta.

Itz batzuk agertzen dira, batzuetan S'az eta besteetan Z'az idatzita, e.b.: asi ta azi, aske ta azke, usi ta uzi, isi ta izi; ta oyetan beren zentzuna ez da berbera, beraz zentzuna zein dan ikusi bearr da aurretik izki bat ala bestea erabiltzeko. Lenengo bi bikondeetatik etorrira, beste itz auek be dauzkagu: asiera ta aziera, askatasun eta azkatasun, eta auetan ere itz bakoitzak bere zentzun berezia du, ta ezin izan diteke berdin bata edo bestea erabiltzea, bakoitza bere zentzun berezirako baizik. Noski, zailtasun bat dugu ortxe, gure ustez, euzkeran oguzteko dagoen bakarra; orretxengatik oso egokia izango litzake gurean txikitatik naste ori ikustea ta ezberdintasuna ondo ikastea ere.

Naste ori dala-ta eztabaida bat sortu da gurean, euzkera itzari buruz. Nola idatzi bearr da itz au, S'az ala Z'az?; emen agertzen dan **z** ta **k** alkartzea beste itzetan be ikusten da: Gipuzkoa, Bizkaya, Amezkoa, eguzkia, dauzka, Azkue, azkarr eta abarr, eta -zko atzizkia egiñak dagozen besteak: urrezko, zilarrezko, zurezko, ta beste asko; **Z** ta **K** alkartze ori ez ote da euzkera itzan ikusten dan berbera?; orduan bidezkoagoa dirudi euzkera ere Z'az esan eta idaztea. Ba-dagoz, ala ere, z ta k oyen ordez **s** ta **k** daramazkiten beste itzak: asko, neska, noski, aski, seaska, ta beste batzuk, eta auek beti S'az esan eta idazten dira; oyetan bezela erabilli bearr al da, euske-

ra, onela S'az? Ondo aztertu bearr-izango litzake arazo au, ta ene aldetik Kardaberaz aldizkarian, 3'gnean, 1974 urtekoan ortarako zer egin liteken adierazten genuen.

S ta Z'tik sortuak bezela ba-ditugu beste bi soñu auek: TS ta TZ, eta auen artean ayen arteko korapilloa bera agertzen da Soñu bereziak ditugu auek, españeraz eta parantzeraz ezagutzen ez diranak, eta orrengatik, Azkue'k bere iztegian esaten duenez, bi soñu oyek TS ta TZ izkietaz adierazteko Euzkadi osoan ontzat artu da

Ba-dago beste ikurr bat, H'ta berari buruz iritzi guztiak ez dira berdin; ikur bat diñogu, ez soñu bat, egitan, Azkue'k eta Saussure'k diñotenez, H'k soñurik adierazten ezuelako otsa baño, ta orrela da zalantzik gabe. Ta soñuak ditugu oguzten diranak, ez otsak; orrengatik H oguzten ez dala esan bearr dugu; beste aldetik itzai ez die zentzunik ematen, eta ondorioz ezertarako ez dan ikurra bezela ikusi bearr da Aipatutako ots ori aideak egiten du birikaetatik sortu ondoren eztarritik igarotzen danean; edonork egiztatu dezake au berarengan erraz eta orrengatik arritze-koa da oriaz gure Erri'an guztiok batera ez etortzea; alakotz bidezkoa izango litzake alperrikako ikurr ori iñoiz aintzako-tzat ez artzea Gaur erabiltzeko gogoia ikusten da sarri, baño ortan lera itunak ari diralakoan gagoz.

Ez dugu uste gure izkuntzan soñu ta ikurrai buruz beste korapillorik dagoela; ta dagozenak ez dira agertzen ebazkizun aundia bezela, ta orrezaz guztiok batera etortzea ez dirudi gauza zalla izan bearr danik; ortarako, geron iritiz, lerak eta aurre-iritziak alboratzea da egin bearr dan lan bakarra Euzkera ta Euzkadi'ganako maitasuna ta gure izkuntzak eta gure Erri'ak bearr dutena bakarrik begiratzea izan diteke ortarako bide agokia, bide bakarra ere apika, ta guziok egin bearr dugu alegin aundiena lenbailen orela gerta dedin. Egiatzko euzkal-abertzaletasunak orixe eskatzen digu guziok ertsiki.

Urrestarazu'tarr Andoni

## II

### **GOI-YAKINTZA'RUNTZ URBILTZEKO NAYEAN, EUZKERAZ EGINDAKO URRATS TXIKIAK:**

#### **I. BIZIA**

er ote da Goi-Yakintza? Zer begiraten du? Zer aztertzen du? Zer ikasten du? Zer-tarako ote bere yardunbidea?

Lenengo galderari erantzuteko, orokarra dan mallean, guziek ao batez onela esaten digute Goi-Yakintza zer dan:

Izakien izaera, zeindasun, zio ta ondorioak aztertzen dituen yakintza.

Yakintza onen zati berezia, garrantzidunena ta bere asikera izanik, Aurre-Yakintza dugu, ta bereziki lendabiziko ta orokarrak diran asierak aztertzen ditu. Beraz, ba-dirudi Goi-Yakintza'ri buruz ari-izateko, zati berezi orrezaz yardutea oso egoki ta bearra izango dala

Jakiña, gure asmoa, orrezaz erabilliko dugun guzia, gure adimenaren mugaetan zedarriturik, euzkeras egin nai dugu, euzkeraz oldozten, euzkeraz gogoetatzen, euzkeraz begiraten eta euzkeraz aztertzen ari-izatea da Ez dugu uste ori egitea erraz izango zaigula; alde batetik gure gogo-lantze guzia, naiz eta txikia izan, erderaz egin bearr-izan dugulako; bestetik, gure gogo-lantze orlan Goi-Yakintza'ri buruz iñoiz ezertxo ere ikasi ez dugulako; gañera, gai onezaz ezta-ki-gu euzkeraz ezer egiña ote dagoen, eta egon ezkeru eztugu ori ezagutzeko aukerarik izan. Alakotz, ez-ikasi ta ez-jakiña bezela ari bearr-izango dugu; azketsi bekit nire ausardia orrela ari-izateko, baño euzkerak berak lan orlan yarduteko, apika, bere bide bereziak emango dizkidalakoan nagoelako, bekokia dut zera orlan sartzeko.

Noski, Aurre-Yakintza Goi-Yakintza-ren aurrekoa bada, beratzaz yarduten asteak ezinbestekoa dala dirudi. Ekin dezagun, bada, orrela

Esan dugunez, Aurre-Yakintza, lendabiziko ta orokarrak diran asierak aztertzeo yakintza dugu; ta orrela izanik, bidezkoa zaigu lendabiziko asierak eta asiera orokarrak zeintzuk ote diran galdetzen

Enurarik gabe, lendabiziko asierak ere ez dituzte guziek berdin ikusten; eta gutxienez, berdinak ez diran bi azpegi auek dagozela autortu bear-izango dugu: Sorkundea ta Aldakundea. Ez dugu gurean zalantzik lenengoa onartzeo ta bigarrena astantzeo. Sorkundea'n agertzen dan lenengo agerpena BIZIA da, agiri-agirian; eta geron aldetik siñestunak geralako, BIZIA Yainkoa'k sorrerazi duela egi-egitza dugu, gureztat egi aundiena Yainkoa ba-dala ta betikoa ba-dala autortzea dalako; ta orrengatik bakarrik, beste karirik billatu gabe, Yainkoa Bizi'aren iturburua bezela ikusten dugu.

Alaz ere, bigarren azpegia ere zerixobait begiratu bearr dugu, zergatik onartzen eztugun azaltzeo bederen. Aldakundea onartzen dutenek BIZIA gai'tik sortzen dala bayezten dute; ta sortze ori azaltzeo, onela gogartzen dute, batzuen batzuek beñepein: Bein, zeatzez noiz izan ote zan esan eziñean, zibizki bat (ba-dakigu zibizkia zer dan: azke bizi ditekzen gorputz baten zati txikiena, bera kizi batzuen bidez egiña izanik) kizkin bat biurtuta izan zala. (Kizkin bat ere zer dan ikustekoa da, ta onela diñote jakitunek: Bizi danaren oñarrizko izagaya); beraz, kizkin batean ba-dago bizi, ta biziaren lenengo aztarna bezela begira dezakegu.

Orrela, zibizki (bizi gabeko ekaya) batetik, kizkin (bizidun) era egiña izan ornen zan biziaren lenengo urratsa. Baña nun, noiz, nola ta zergatik eman zan urats ori ?, ain garrantziduna agertzen zaigun urratsa ? Nolako ekayarena izan zan zibizki ori ? Zibizki bakarra izan al zan aldatua izan zana ? Zergatik ekai batean zibizki bat bakarrik (orrela izan bazan) ? Zergatik ez beste ekai baten beste zibizkiren bat? Zein ekayarena izan zan aldatutako zibizkia\$ Noiz gertatu ote zan aldaketa ori?, bein bakarrik? Ekai batean eta

bein bakarrik ori gertatu bazan, zergatik ez ekai bertan beste zibizkiak beste ainbeste ez egin? Nola eman zan urrats aundi ura? Zergatik jazo zan ura? Zergatik ez zan berriro ekai be-rean edo beste batean?

Oso ospetsua dugun Teilhard de Chardin'ek bere "Giza-agerkizuna" idaztian, 369'gn. orrialdean onela diño: "Aspaldidanik Gizona ez da aldakeraz igitzen, iñoiz igitu baldin bada". "Gugan, Gizonak ororen zentzuaren eraren batek oindiño eusten dio - bizi-aldakundea osotzen du". Orduan, aldakundea gizona agertu zanean amaitu al zan ?, eta nolako gizon-malla izan zan ura?, eta zergatik orduan?

Amaika galderak sortzen dira, ala bearrrik, urrats orri buruz. Ba al dagoz galdera oyetarako erantzun egokiak?; geuk bederen eztitugu ezagutzen, eta ez dugu ikusten Aldakunde'rako argi-biderik. Azkenez ortan ere siñistea al da egin bear dana? Eta siñistu bearr bada, bidezkoago deritzaigu Sorkundea'n siñistu. Utzi dezagun, orrengatik, alboratua Aldakundea'ren asmoa, ta goazen Sorkundea begiratzen.

Alakotz, Sorkundea'n ikusten dugu BIZI'aren asiera; ta Sorkundea'ren egillea Yainkoa izan zala siñisten dugulako, Bera da, zalantzik gabe, bizi'aren asiera, egiazko asiera. Orra orr gure oñarri sendoa.

Aztertu dezagun orain, Bizia nun, nola ta norengan ala zeñengan sortzen dan. Ludi ontan bitarikoak ditugu bertan dagozen guztiak: bizidunak eta bizigabeak; bigarrenak gauzak dira ta biziari buruz ezer ez. Ori dala-ta, bizidunengan agertzen dan bizia da begiratu bearr duguna.

Kizki batean lengai batzuk ere ba-dagozela esan dizaigukete, ta egia da; arestian idoro diranak: proton, neutron eta abarr, eta oyetatik indar aundia irten ditekela ere; baña, ori dala-ta, auxe galde dezakegu: Indarr ortan bizirik al dago? edo: Indarr ori bizia al da? Ez, geron ustez, ortan indarr bat baño besterik ezta; sutan, urtan, aidetan ere ba-dago indarren bat, baña bizirik ez; orobat gertatzen bide da kizkian.

Orrengatik BIZIA bizidunengan bakarrik agertzen dala bayeztu dezakegu; beraz orixe dugu azterizeko bakarrik.

Biziaren asmo orokarra bizidun guziaz dagokien arren, bizidunengan ikusten dan bizia ez da guziengan berdin, eta aldakuntza aundia oartzen da zentzungabeetan dagoena zentzundunengan agertzen danarekin erkatzen badugu; aundiagoa oindiño bi oyek gizonagan dagoenarekin erkatu ezkeru.

Noski, bizidun guziok jayotzen gera, azten eta iltzen ere; ortaz guziok bat gera, berdin; baña belarkiak ez dira ibilpidedunak, abereak eta gizona bezela; alakotz lenengoak eta besteak alkarri buruz oso ezberdiñak gera ta bizia ezta, neurri osoan, berbera oroengan. Orrengatik lenengoak albora ditzakegu, besteak begiratzeko; baña abere ta gizonaren biziak ere, alkarrekiko urbiilago egonarren, oyek be eztira berdin, gizona adimenduna dalako ta mintzatzen dalako. Orrela izanik, beraz, abereak ere alboan utzi ditzakegu, gizonaren bizia bakarrik azterizeko, gizonarengan bizi osoa dagoelako, ta osoa ikusi ezkeru, bere zatiak be ikusita geratuko dira, ots, gizonaren bizia begiratzean beste bizidunena ere oartuta geratuko dalako.

Orrengatik, goazen gizonaren bizia arretaz aztertzeru, beragan eta bere baitan bedegarrak diran azpegiak ikusten. Arean, ba-dago gizonarengan, abereengan eta zentzundun guziengan dagoen bizi-mueta bera; jakiña, zentzundunak geran guziok ikusten, entzuten, usaintzen, gozatzen eta ikutzen dugu, baita konormen eta konorpenak be ba-ditugu; ots, soñari dagozkion almenak, eta guzti oyek gorpuz-bizia osotzen dutela oartu bearr dugu. Itz batean, gorputz-bizia zentzundun guziena da, zalantzik ez ortaz.

Baña gizonak ba-du beste zentzundunak eztutena. Gizonak adimena du ta oldozmena edo gogamena ere, bai ta oarmen, oroimen, naimen, ikasmen, gogoramen, ezagumen, ulermen, burutamen, egiztamen, asmamen, arkimen, aztermena be; ta guzti oyek gogo-bizia osotzen dute.

Alakotz, ba-ditu gizonak bi bizi-mueta; bata bere gogoan, bere baitan dago, bestea gorputzean, beregan eiki; ta biak alkarturik gizonaren bizi osoa burutzen dute. Ta bi bizi-mueta oyek alkarrenganako jokatzen dute, gogoarena nagusia izatean.

(jarraitzeko)

Urrestarazu'tarr Andoni

## **AITA SANTI ONAINDIA OMENDUA.**

Zenbaki au kaleratzeko gertu egoala, Bizkai'ko Aldundiak, "Andres Mañarikua" saria, aurtengoz, gure batzarkide dan Aita Santi Onaindia'ri emon dautsola irakurri dogu.

Gaurkoz ezin dogu besterik esan Euskerazaintza'ri be ornen egiten dautsola onelako izendapen batek baiño, eta anaitasun zintzoan ospatuten dogula gure lankide aspergabearren goizeaupidea, beretzat eta guretzat lanean jarraitzeko arnastzat artuaz.

(Jarraitzeko)

Anes Arrinda



ANAI ARTEKO GORROTOA : GIPUZKOA  
ETA NAPARROA.

Naparroa eta Gipuzkoaren arteko gorrotoak sustraiak ditu oso luzeak eta zaarrak. Antxiña antxiñakoak dituzu: amairugarren gizaldiaren asieran Gipuzkoak alde egin zion Naparroari, Kastillarekin bat egiteko.

Arrezkero, bien artean, ez da burrukarik falta izan euren bitarteko mugaren zear: Lazkano, Amezketeta eta Berastegik, irurak zeukaten "fortaleza" bana, bakoitzak bertatik naparreri erasoteko...

Lan onetan histori zeatzak eta asmakizunak naastean dabilta: 1329'an Naparroako agintariak Lazkanoko Jaunen seme Semeno artu zuten preso Olazagutian eta Tiebasko gaztelura eraman. 1936'an, berriz, Lazkanoko Jaunen seme Borja Arteaga dator Lazkanora naparrekin bat eginda, Gipuzkoaren aurka. Bi ekintza auetatik sortzen da histori onen aria

ANAIARTEKO GORROTOA  
NAPARROA ETA GIPUZKOA

**0/.** Gela **arrunta** bat zuriz. Gaua.

Erdiko paretan Sabino Arana Goiriren lauki bat Eskubitan ikurriña; ezkerretan arramario bat eta erdian maia iru aulkirekin. Arramarioan radio bat

OFF/ Larunbata da gaur eta batzokiko maiburu en billera. Bederatzi lagun. Une onetan billera amaitu dute. Aulkietatik jeikitzen dira euren artean izketan. Batek radioa pizten du.

**RADIOAK**

...en Africa. No se sabe con certeza si son las kábilas del Protectorado de Marruecos o los militares españoles con algún Tábor de Regulares. Más bien parece esto último porque el General Franco se ha movido de Canarias al Africa. Pero, no temais ciudadanos de la democracia porque la República aplastará

con sus botas estas cucarachas. Sucesos: un tranvía ha atropelado a un burro...

(Apagan la radio. Berri oiek entzutean guztiak gelan gelditu dira irten gabe.)

**BATEK**

(Kantuz letanien antzera)

Ezpañiako gauzak...

**BESTEAK ALKARREKIN**

Ora pro nobis.

(Geienak praka "mil rayas" eta alkondara zuria daramate. Lanetik etorriden batek prakak eta alkondara urdiña "maoiezkoa". Illea kokote aldetik garbi eta patillak erdizka Albar-keta zuriak geinek edo urdiñak.)

**JOSEBAK**

(mai-burukoak)

Españolen arteko arazoek. Eta, guri zer? Konpondu diiezela nai duten bezala.

**MANOLOK**

(Idazkariak)

Or konpon, Mari Anton.

**LUISEK**

Goazen mus-aldi bat egitera

**JOSEBAK**

Ni etxera nijoak biar goizean perretxikotan joan nai diat-eta.

**LUISEK**

Ba ornen zeudek gibelurdiñek... (Besteai) Onek arrapatutako gibelurdiñekin biar merienda-apañe emen...

(Badoaz gelatik)

0/1.-Kalea. Goizean.

OFF. Gaur igandea degu, uztaillaren emeretzia. Goizeko zortzirak, Mezetara joateko ordua. Orregaitik datoz ain serio eta emakumeak mantilla beltzeekin, errosarioa eta liburua eskuetan dituztela.. Bide-ertzean General-Motors kamioneta bat dago amar toneladakoa eta bere barruan zortzi barrika ardo. Txoferrak kamionetatik irten du eta jendea dauka bildurik inguruan. Lazkaon gaude: Lazkanoko

Jauntxoan errian. Milla bederatzireun eta ogeita amasei garren urtean.  
(Kamarak goitik, gero gerturatu eta txoferraren plano bat eman).

#### **TXOFERRAK**

Al amanecer venía yo de la Rioja por la carretera de Estella...  
(Txoferrak prakak illun eta alkondara zuri).

#### **0/2.-Bidea. Goiz-aldea baiña oraindik illun.**

Kamioneta dator Estella-bidean eta bere argietara parapeto bat ikusten da kamiñoa itxitzen duena. Txapelgorriak eta fusillak.

#### **BATEK**

(Parapetorik)  
Alto, quién vive?

#### **TXOFERRAK**

(Kamioneta gelditu eta leiotik)  
-No disparéis, camaradas.

#### **PARAPETORIK**

Qué camaradas ni qué ostras! Viva Cristo Rey! Aquí no pasa ni Dios!  
(Kamara urrutiratzen da eta bost txapelgorri ikusiko dira txoferrarekin eztabaidan. Aizkenean gurdi bat erditik kendu eta pasoa uzten diote libre)

#### **0/3.-Kalea.Goizean**

(Kamioneta. txoferra eta abar, lenago bezala:0/1)

#### **TXOFERRAK**

Les dije que no era mío el camión y a ver qué le iba a decir yo al dueño del camión y del vino. Si vosotros estuvierais en mi lugar, qué haríais? Les dije. Y entonces, me dejaron pasar.

(Une artan txirrindulari bat dator Beasain alde-tik. Txapelik gabe. Beltza eta patilla luze. Praka panazko eta aldondara urdin).

#### **TXIRRINDULARIAK**

De parte del Comité de la C.N.T. que los vehículos para Beasain que pasen inmediatamente porque van a volar el puente.

(Badijoa aurrera)

#### **JUXTOK**

(Agure xaar melarra Praka eta alkondara zaar-rak. Burutzik eta kaskoa soillik. Barrikardoeri bigaratzuz)

QUE VOLEN! Que volen!

(Txoferra kamioira igo eta badoa bidean. Jux-

to gelditzen da bakarrik eta triste kamionetari begira)

#### **0/4.-Kalean. Egunez.**

OFF.-Burrukaren berri zabalduda errian. Astelena gaur. Jendeak ez dauka lanera joateko gogorik. Zer egin bear danik iñok ez daki eta or dabilta bata mendian perretxikotan, besteak errekan arrantzan, geienak taberna zuloan, zenbaitzuk pelotan edo futboleant. Luis eta Joseba datoz alkarizketan.

#### **JOSEBAK**

Zer egin bear degun? Ezer ez. Au euren arazoa da Alkar jo nai badute, jo dezatela alkar. Alkar il nai badute, il dezatela alkar... Guri, zer..?

#### **GIOIA -- 1**

#### **ANAIARTEKO GORROTO**

#### **1/- BIDE ZABALA. ARRATSALDEZ.**

Lazkautik Ataunerako bidea Txirrindulari bat dijoa Ataun aldera Mutil gaztetxo bat da Kamarak bere ondoren. Errebuelta batetik irtetzean, bidea itxita dago sakuz eta traste zaarrekin, trintxera baten antzera. Txapelgorriak eta fusillak agerizen dira trintxera gainetik. Mutikoak jira-bira egiten du Lazkano alde-ra Bitartean kamarak bijoaz gerturatzen zer diran ikusteko: dozena bat mutil daude jazkera arruntekin, lanetik etorrita bezala Buruan txapelgorriak eta eskuetan fusillak. Eun metrora baserri bat ikusten da kamiño-ertzean eta bertan jende pilloa nabari da txapelgorriz. Txirrindularia aurrera doa erriruntz. Kamarak bere ondoren zati batean eta gero Lazkanoko ikusmira orokor bat... Tituloak eta abar plano oietan impresionatuak.

#### **2/- LAZKANOKO JAUNEN PALAZIOA.**

#### **ILLUNTZEN ASITA.**

Jauregiaren aurpegiaren bista orokor bat. Kamarak atzera jiratu eta aurreko orman, Monjetako etxearen orman, dagoen marmol zurizko plaka bateri gertutik begiratu. An dau-de Lazkanoko Jaunen gaurko titulo guztiak: OFF/ "Duque del Infantado, marqués de Val-mediano... y Señor de Lazcano."

#### **TXIRRINDULARIA (palazioan sartzen)**

-ERREKETEK ATAUNEN DAUDE.

Sartu eta ezkerretara sukaldea dago. Bertan

Batzokiko Batzordearen iru lagun daude bilduta Iru mutil gazte eta palazioko zaindarien etxeoandrea. Aueri itz egiten die txirindulariak. Coaina-economicadun edozein sukalde.

Txirindulariak itz egin ondoren:

OFF/ Erreketek karlista-soldaduak dira Beuroen ezagupidea txapel gorria da Ogei milla jeiki ornen dira Nafarroan Errepublikaren aurka

BATEK

-LISTA GUZTIAK ERRE. ETA ZUK (bateri) ARTXIBOA BESAINERA ERAMAN.

Cocina-economica artan erretzen dituzte paperak. Beste artxiboko liburuekin pardel bat egiten dute. Ondoren etxetik irtetzen dute. Gaua da kalean. Ikurriña eurokin daramate-

### **3/-GELA ILLUNXAMARRA, KALEAN**

**GOIZA DA.**

Sotano antzeko gela uts bat da. Kutxa zaar bat eta aulki luzanga bat.

Badu leiotxo bat ere aldamenean. Erriko zubia ikusten da bertatik. Iru amonaxo, bi neskazar, lau mutiko, iru neskatil, etxeko jaun eta onen lagun adiñeko bat, itsasoko kapitana, sariuz:

KAPITANA

-GORDE OGI AUEK KUTXA ORRETAN.

Iru ogi aundi dakarzki. Neskatil batek diotza: NESKATILLA

.OSABA, AU BILDURRA! EZER EGINGO OTE DIGUTE? ZUK EZ DEZU BILDURRIK?

Emakume batek ogia gordetzen ditu kutxa zaarrea. Nun gordetzen diran begira doa kapitana.

KAPITANA

-ITSASOAN NEKE ETA ARRISKU ASKO PASA DITUT. AIEN ONDOAN AU EZ DA EZER.

Leioan kanpora begira dagoen andra bate, barrura begira

ANDRE BATEK

-ARA, OR DATOZ... TXAPEL URDIÑAK ETA TXAPEL GORRIAK..

ETXEKO JAUNAK

-TXAPEL URDIÑAK..? OIEK ZER OTE DIRA..?

TXAPEL GORRIAK BETIKO KARLISTAK DIRA, BAIÑA TXAPEL URDIÑAK...!

KAPITANA

-TXAPEL URDIÑAK, EDO TXANO URDIÑAK,

FALANJISTAK DITUZU...

Guztiak leiora urbildu nai dute. Zubitik pasatzen ikusten dira, euren buruak petrillen atzetik izkutatu nairik. Txapelgorriak eta txano urdiñak alkarrekin; gerora soldaduak ere bai. Ez da tirorik. Bandera espanyola (gorri eta ori) danen aurretik.

### **4/-PALAZIOAN BERRIRO. GOIZA**

Alferez falanjista bat dator aurretik. Beltxarena, ille kirrua eta beltza, lerdana eta oso gaztea Buzo urdiña eta ugalak beltzak, pistola gerrian eta buruan soldaduen antzeko, bi puntako txano urdiña, erdi aldetik galartsu gorria eta muturreko borlatxo ere bai, gorria Bere ondoren datoz kapitana bat eta bi teniente txapel-gorri. Atera gerturatzean zaindarien etxeoandrea atera zaio bidera. Kurtiñapetik zegoen sukaldeko leiotik begira kalera eta gizona ikusi duanean saltaka atera da.

ETXEKOANDREA

-ENE SEÑORITOA! ONGI ETORRIA ETXERA

BORJA ALFEREZA

-Okerrik egin aldute etxean? Danok ondo zerate?

ETXEKO ANDREA

-BAI, JAUNA. DANA ONDO DAGO. ERRESPETO AUNDIZ IBILLI DIRA ETXEAN...

BORJA

-ORRELA OBE DA...

Alferez falanjista izketan txapel-gorriekin ari dan bitartean.

OFF/ Alfereza Borja Arteaga da, Lazkanoko Jaunen semerik gazteena. Aizkeneko bost urteetan, Errepublikako urteak, etxe onetan igaro izan ditu bere udarako oporraldiak.

BORJA

Reketeen kapitanari:

**-Kapitana, zure eskuetan uzten dut nere aurrekoen etxea.**

Txapel-gorriak barrura sartzen asiko dira...

Borja eta bere falanjista taldea aurrera doa, Columna Cayuela osoarekin, Gipuzkoa konkistatzera...

OFF/ Rekete konpañi bat gelditu zan Lazkanoko Jaunen etxean, Beasaindik Zumarragara bitartean frente jakiñik ez zegoalako. Nafarroako gudari talde guztiak Irundik Beasain arteko bideetatik zetozen. Ezkerreko alde osoa gelditzen zitzaien ergel. Zumarraga

aldetik erasorik ba'zan, ordurako zegoen gordeta reketek konpañi bat Lazkanoko Jaunen jauregian.

(Bitarte onetan kamarak Olaberri gaiñetik eman lezake Zumarragarako partea.)

### 5/-LEMONAKO AITZAK

OFF/ Zazpi illabete pasa dira borjak Lazkanotik alde eginda gero; Gipuzkoako mendiak zearkatu dituzte bien bitartean burruka bizian... eta Bizkaira eldu. Lemonako aitzak, aitz gogorrak. Burruka latza. Gaillurra arrapatu ezin... Alde bietatik, zenbat odol-ixurtze, aitzak gorritu arte... Borjaren gorputza zerraldo batera jaso dute.

(Bitartean panoramika batzuek Ernio ingurutik eta Bizkai aldera Lemonako aitzeetan amaituz.)

### 6/- Taberna.Egunez. Lazkano

Ezkerretik mostradorea eta eskubitik, mai luzanga bi. Bigarren maiaren barruko muturrean, paretaren kontrako txokoan bi apaizgai gazte, ogei urte ingurukoak, biak beltzez txapela, txamarra eta prakak, bizkarra ematen. Euren aurrean txapelgorri brigada bat. Izketan diardute:

BATEK

Gogorra izan al da Lemonakoa?

BRIGADAK

Ez dakizute ondo. Ederretik libratu zerate.

BESTEAK

Bai, zuek "voluntarioak" eskatu eta gu, apaizgaiak, "voluntario" izatera beartu...

BRIGADAK

Bai, ordena ori gendukan eta orretxegaitik ibi-III izan zerate gurekin bateginda guda-ariketarik egiten mendi auetan zear...

BATEK

Ezkerrak Marco itsasoko pillotua zalari eta nere aita itsas-kapitana. Alkar ezagutu ez balute, an izango giñan gu ere Lemonako aitzeetan...

BESTEAK

Adieraiguzu an gertatua.

BRIGADAK

Negu osoa mendian aterperik gabe... Eurria eta bisutza, elurra eta kaskabarra... Ezurretaraiño bustiak, otza ezur-muiñetan, izotza kokatu zaigu biotzaren erdian...

BATEK

Zer ari zera, gizon..?

BRIGADAK

Guda anker eta zital onek maitasuna antzutu digu barnean... Ezin dut Lemonakoa burutik kendu. Zubi baten ondoan geuden geure buruak erreka-ertzeetan gorderik... Egunsentia, sutautsaren kolorea galduta, Urdiñez jaten ari zan... Mendi arren gaillurrean genduzkan begiak josita. Goi artan bazan ezer; guk ordea ez jakin zer...

BESTEAK

Zenbat ziñaten..?

BRIGADAK

Giza-seme asko. Bat-batean kañoi-burrunda aidean... Mendi-inguru osoa sutan... Ondoren ogeita amar egazti zaar aitze-muiñotik zear beuren bonbak uztutzen... Baillara guztia bete zan zarataz eta iskanbilla arrek lasaitzen zigun biotza...

BATEK

Luze irauñ al zuten bonbardeoak..?

BRIGADAK

Kañoi eta egaztien artean ordu pare bateko lana izan zan danetara. Turutak urratu zuan ixil-aldia. Jeiki nintzan lurretik eta mutillak ondoren nitula, ekin diot mendian gora. Borja eta bere eskudra eskubitik.. Ez zan ezer ikusten iñun.. Ametralladora batek esnatu nindun: ta-ta-ta-ta-ta-ta-ta...Ondoren garraxia, santzoa, madarikazioa... Borja ikusi nuan erortzen...

BESTEAK

Eta..?

BRIGADAK

Lurrari josita gelditu giñan al zuana al zuan tokian, lapak aitzari baiño elduago...Burua jasotzen zuanari zuloa egiten zioten txapelean... ildakoak ez zuten garraxirik egiten; zaurituak, ordea, ixildu ere ez...

BATEK

Luzaro orrela..?

BRIGADAK

Illunduta, turuta-otsa berriro, zaurituak eta illak jaso, ta berriro erreka-zulora... Amaiera gabeko gau luzea berriro... Oste berriak etorri ziran laguntzera... Berriro kañoiak, berriro egazkiñak, berriro zarata, beia, autsa... Sukarra odolatan eta zorabioa buruan...Turuta berriro eta

bagoaz goruntz... Jeiki eta etzan, etzan eta jeiki, beti babes baten bila...Tiroa emendik eta tiroa andik; esku-bonbak arrika nun-nai...Eldu gera erpiñera eta iges zijoan gazte gizarajo baten sartu dizkiot bost tiro pistolatik...Eskuak zikindu ditut odolez..!

(Negar itxurak artzen ditu eta pattarra eskatzen dute irurontzat. An uzten ditugu).

7/- Beneditarren eliza. Egunez. Lazkao. Borjaren aldeko illeta-ospetsuak egin dira, Amaitzen. II-kutxa galanta aldara nagusian eskubitarra ipintzen dute. An dago benetan, arkupe batean. Aurrez-aurre Oquendorena dago, beste arkupe batean. Oquendorenari SEMENO ipiñi bear zaio. Borjaren guraso eta aideak. Erria ere bai. Alkateak eskua ematen dio aitari. Kamarak SEMENOren il-kutxa ere erakutsi.

#### ALKATEAK

Le acompaño en el sentimiento.

#### AITAK

Estoy muy orgulloso porque ha muerto por Dios y por España.

(Une onetan kañoi zaratak, rekete, falanjista, soldadu, moro, italiano, Condor alemana...eta abar. Irudiak bata bestearen gaiñetik...)

#### 8/- Beneditarren liburu-gela. Lazkao.

##### Gaua.

OFF/ Borjaren arazoa dala-ta emen nabil, an elizan dagoen SEMENOren aztarnak billatzen. XIVgarren mendeko librua topa det. Bertan Cámara de Comptos dalako Iruñakoari buruz ari da idazleak eta esaten digu 1313an naparrek Lazkanokoen gaztelua menperatu zutela: "Quod navarri expugnaverant fortalezan de Lazkano." Zenbat kostatu zitzaizen naparri Lazkao menperatzen eta orduko bitxikeri guztiak dakarzki kopia onek. Gorrotoa nun-nai. SEMENOren berri ere topatu det beste kronika zaar batean. Salatarien bitartez napar Merinoak SEMENO arrapatu zuen Olazagutien eta Tiebasko gaztelura preso eman. Baiña arazo au, geroko kontua degu. Semeno I 27kanoko Jaunen semea zan Borja bezelaixe. Arbola baten kimuak eta emaitzak... Aaa..! Ao-zabalka asi naiz... Loak artuko nau... A zer logurea daukaten... (Loak artzen du).

#### 9/- Beneditarren aldara nagusia. Lazkao. Gaua. Illun

Semenoren kutxa irikitzen da eta barrutik Semeno agertzen da. Salto egiten du aldarara. Gezia eskuetan, lepotik txintxilika adarra, belaunetarainoko kapusaia, belaunak narrugorri, amantarrak eta abarkak oiñetan, gerrian ezpata motza Mutil sendoa gaztain-kolorekoa, begiak ezti, sudurra kako, bekokia zabal, burua arro, tximia luze... Sendoa eta lerdena batera Gaztea oso...

#### SEMENO

(oska)

Borja, borja jeiki adi eta ator onera (Borjak kutxatik irteten du eta aldarara salto. Buzo urdiña, gerriko pistolarekin larruzkoa eta beltza, txano urdiña borlatxo gorriarekin. Mutil gaztea au ere, beltxarena, arpegi luze, matasa beltz...)

#### BORJA

Zer dezu?

#### SEMENO

(Alkarri gerturatuta)

Naparrek, gure etsaierik okerrenak, ekarri dituzu Lazkanoko Jaunen etxera..? Ez al dituzu zure aurrekoen ibillerak ezagutzen, ala.? Bizi osoan naparrekin burrukan ibilliak gaituztu eta zuk orain naparrek dakarzkuzu etxera..!

#### BORJA

Naparroa eta Arangoi, Katalunia eta Kastilla, Gipuzkoa eta Bizkaia, Leon eta Galizia... denak bat egin zuten aspaldian eta batasun ori sakratua da..

#### SEMENO

Eta, moroak..?

#### BORJA

Oiek bota zituzten Espaiñitik kanpora.

#### SEMENO

(Asarre eta geldi egon eziñik)

Baña, naparrek beti izan dira gure areno eta etsai. Oiek gure etxean sartzerik ez dizut sekulan barkatu ko.

#### BORJA

Konpreni zazu Espaiñaren onerako egin degula.

#### SEMENO

Hispania osoa moroz beteta zegoen; baña gure erri-aldetara ez ziran sartu. Inguratu ziranak bultzaka bota dituguz Kastillan zear...

Burruka luze aspergarri oiek ba zituzten beure pake-uneak... Eta, tarte oietan zer egiten gendun bai al dakizu..?

BORJA

Ez dakit ezertxo ere.

SEMENO

Geure artean burrukak egin. Gu ta gure etsaien artekoak.

BORJA

Eta, zeintzuk ziran zuen etsai oiek?

**SEMENO**

Etsaia beti izaten da auzokoa. Gure auzoan naparrak bizi dira.

BORJA

(Semenori goitik beera begiratzen dio)

Eta, zergaitik egiten zenduten burruka naparrekin? Politika arrazoiren bat izango zenduten..?

SEMENO

(Borjaren itxurak arrituta)

Zer politika eta politika-ondo, gero... Indarrak neurtzea zan geure politika eta bide-batez abereak arrapatu...

BORJA

Lapurretan, beraz...

SEMENO

Bein burrukan asi ezkeroz, lapurretak ondoren datozte...Baña, zuk gure etsai naparrak zergaitik sartu dituzu geure etxean..?

BORJA

Naparrak gure lagunak dira.

SEMENO

Geureak ez. Nola liteke lazkanotarren kontra ekaritzea..!

OFF/ Ekin zioten luzaroan eztabaidan. Etzuten alkar entenditzen, seireun urteko utsunea baiño aundiagoa zeukaten bien artean...

(Aldara batean Inazio deunaren irudi bat agertzen da sotana beltzez. Alkar-izketa artara esnatzen da eta salto arek ere. Salto egitean jantziak aldatzen ditu: sotana beltza utzi eta Amedis eta Galaor'en antzeko jantziekin dator beste biengana. Ona nola ibilli oi zan Azpeiti aldean Arevalotik etorritako Korteko pajea:

"Vestía el joven desgarrado y vano, traje acuchillado de dos vistosos colores, capa abierta, calzas y botas ajustadas, espada y daga al cinto, y, sobre la erguida cabeza de rubia

cabellera, cuyos bucles caían hasta los hombros inclusive, la gorrita de escarlata (divisa del partido oñacino), tocada de pluma gallarda y ondulante."

Semenok eta Borjak, biak, arrituta begiratzen diote).

IÑIGO

Semenok arrazoi. Gipuzkoarrok beti ibilli gera bat-eginda kastillarekin Naparroaren aurka.

SEMENO ETA BORJA

(Biak batera)

Eta, zu zein zera? Nor zaitugu?

IÑIGO

Zuetako bat eta zuen tarteko bat. Zuen bion arteko tartean bizi izan nintzan. Loiolako semea naiz eta Oñaztarra zuek bezala eta Lazkanotarren senitarteko. Alkarrekin burrukatu gera Lazkano eta Loiola Naparren aurka, bai Beotibarren eta baita ere Ondarrabian.

SEMENO

Ori, ori Loiola. Gizaseme au ez dakit nundik soriu zaigun...(Borjaren gaitik diotza). Gure gizarra guztiak aldatuta dator. Ez ditu ba, gure etxean naparrak sartu..!

IÑIGO

Gu denok oñaztarrak gera eta Kastillari lagundu diogu Naparroa menperatzen Beaumontarrekin batera, auek ere oñaztarrak bait dira...

Leringo Kondea eta Najerako Kondea, biak ditugu lagunak; Agramontekoak, berriz, etsaiak eta napar geienak dira agramontarrekin...

(Semenok eta Borja alkarri begiratzen diote eta kiñu egiten diote alkarri esanaz bezela: nungo zoro-etxetik atera ote da pailaso au?)

SEMENO

Ez dizut tutik entenditzen, baiña poztutzen naiz nerekin bat etortzea naparrak gure etsaiak dirala esaten dezunean. Eta, onoko txapel-txiki oneri, neuk emango geure etxekoen berriak, jakin dezan bein-betiko zenbat kalte eta naigabe eman dizkigun Naparroak geuri.

(Semenok Borja besotik artu eta badoaz odeitan, laiño artean galdu arte. Iñigo, bere aldarara).

10/- **Lazkanotarren gaztelua Egunez. 1329 urtea**

OFF/ "Quod navarri expugnaverant fortale-

zam de Lazkano" dio Iruñako Cámara de Comptos'en dagoen liburu zaar batek. Fortaleza itz ori oraindik ere lazkaotar baserriarrek beuren gogoan dute eta orrela deitzen diote Beeistein baserriaren azpitik dagoen soro bateri, muiño borobil batean. Muiño orretatik ikusten dira bai Ataungo bidea eta baita ere Segura aldetik, Olaberrian zear, datorrena Bi bide oiek zituzten naparrek Lazkanori erasoteko. Eta, 1331 an eraso ziotenean, Seguran zeukaten naparrek euren kuartel jenerala. 1936an ere, bi bide oietatik etorri ziran rekete eta falanjisteen erasoak: talde bat Etxarri-Aranazetik Lizarraustiko atera eta andik beera Ataunera, Ataundik Lazkanora; beste taldea Alsasutik Zegamara eta Seguran zear Beasainera eta ara eldu baiño lenago Olaberriatik Lazkanora Bi bide oiek ikusten zitun Semenoren etxe-fortalezak.

(Kamarak gaztelu baten ormak erakutsi eta ondoren Beistingo muiñotik ikusten diranak Ataun aldera eta Olaberri aldera).

### 11 /.-Albitxu baserria. Egunez.1329

**OFF/** Albitxu, Goierriko baserrien antzekoa da. Sarreran, kanpotik, liñarria topatuko degu. Liñarri orren gaiñean jotzen zuten, liño-mazoarekin, eunezko soiñekoak egiteko bear zan liñoa Aurrean, sarrerako atea. Atalburuan egurrezko gurutze txiki bat josita, Erramuegunean bedeinkatutako erramuearekin egiña.. Sarrerako ate onez gaiñera badira beste bi ate ere: bata ikulluko atea eta bestea mandiorako atea. Sartu gaitezen ikullu atetik: ateztean akuilluak eta lurrean uztarria Beste ate bat sukaldera sartzeko eta parean ikuillua etxe aiñako luzea. Ikuillu eta sukaldearen bitartean egongo díra nekazari-lanabesak: segea, sega-potoa, itaia, lastoa mozteko epaia, laiak, atxurraik aizkora eta abar... Oien ondoan ganadu-janak eta goiko solairuan gari, baba eta ganaduari emateko beste aleak. Ezkerreko atetik sartuta sukaldia: aurreko orman sutokia. Sutokian su-burniak suari euzteko zabaldu gabe eta erdian eltze-burniak eltzeari euzteko. Orma zaarrea auspoa, talaburnia, talomantenua, talo-ola, burrunzia, sargagia eta krisaillua Suaren atzean su-atzeko burnia erdian talaburnia eukitzeo txapaldatxo batekin egon oi da.. Tximiñiko kanpai-ingu-

ruan pertz oria eta pertxotia, tupiñak, almaiza eta almaíz-eskua kandelaruekin eta krisaillua. Sukaldeko paretetik duela atakea, etxe-kanpoan, labea eta labe-atakaren ondoan labe-endaia ogia labeetik ateratzeko eta zatar-endaia labeko sorua garbitzeko. Eskubitako paretan orromaia, paretan zintzilik iriñaulkia eta orromai-barruan baia iriña pasatzeko. Beste paretan dago zizallua, apaltxoarekiko arramario txiki bat eta apalatxo oietan egurrezko kutxara eta sardeak, egurrezko txaliek... Solairutik zintzilik kaiku eta esne-pertza; baita zeziña eta urdai-zati aundi bat ere. Suaren inguruan aulki bajuak. Lo-gelak atea sukaldetik du. Ogeak sokazkoak dituzte beuren soruak, bere azpiak, eta gaiñean txurikinezko lastaideak. Oge-ondoan kutxa ta kutxa barruan kutxatilla. Ogearen gaikaldean, gurutzea.

(Kamarak erakutsiko ditu xeetasun guztiak).

### 12/- Sukaldia. Gau illuna. Alzea eta kas-kabarra.

(Sutondoan Otxoa bere lau semetxoekin: amar, zortzi, sei eta lau urtekoak. Alarguna Ama xaarra, andre argala, lanak menperatutako baserri-alaba, lo-gelan dabil lastaiak arrotzen, umeak lotarazteko. Apari-legea beteta: gaztañak eta esnea taloarekin... Ifar-aizea keezulotik sartzen zaie tarteka, sutautsa arrotuz... Aitak palatxoarekin astindu bat ematen dio suari garra bizitu dedíñ).

#### **JOAN**

(Txikiena da) (Lau urte) (Umetxoak larrukiz jantzita)

-Aitatxo, esaiguzu ipuitxo bat.

#### **RESTE IRURAK**

-Bai, bai, esan.

#### **OTXOA Arra**

(36 urteko gizaseme gordiña eta ederra)(Kapsaia gaiñean du; baita amantarrak eta abarkak ere)

- Zer ipuin nai dezute?

#### **BATEK MARTIN**

-Tartaloena nai det nik.

#### **BESTEAK MIKEL**

-Nik jentillena nai det.

#### **IRUGARRENK SALBATORE**

-Jentillenik, ez; moroen gerratekoak nai ditut nik.

OTXOA

-Alkar artuko ote dezute guztiok? Zuk, Joantxok, zer ipuin nai dezuz?

JOAN

-Beigorritxuarena nai det.

(Irriparrez)

BESTE IRURAK

-Orrek ez zian balio...

-Ori askotan entzun degu...

-Ori...

(Dana da protestatzea eta txiari amor ez ematea).

OTXOA

Ixilik denok. Gure poxpolin txiki onek eskatu diguna emango dizutet.

(Bere magalean artzen du eta begietara begiratzen dio)

Zure amatxoren begiak dituzu. (Bere kolkorako. Maitekor).

MIKEL

Asi, aitatxo

OTXOA

Bein Atxubitetxeko alabea bei-zai ornen zegoen Aralarren eta bei-faltan etorri ornen zan etxera. Birao egin zion ugazamak: ez zala geiago etxean sartuko bei-gabe... Illunarrean bei-billa joan ornen zan eta billatu zuan beien figura gorri-gorria eta eldu zion isatzetik eta figura arrekin sartu zan leize-zulora. Mari agertu zitzaion beigorritxo baten antzera. Neska ez zan aspalditxo batean geiago agertu.

MARTIN

Ez al zan geiago agertu iñoiz?

OTXOA

Zulo aren atakan ikusi ornen zuten artzaiek illea orrazten. Esan zien irteteko kanpora zulo artatik. Eta, neskak ezetz erantzun. Txerri gorri bat zeukan aldamenean eta ura esnatzen bazan, galduko zitula guztiak eta alde egiteko.

**SALBATORE**

Zer egiten zuan neskak leize-zulo aretan?

**OTXOA**

Ari baten adarretan urresko matasa, ardatzean egin, lixubea jo, ogia erre Mari Murumendiko Dameak, Anbotoko Sorgiñak, agintzen zion neurrian.

MIKEL

Eta, an dago oraindio?

OTXOA

Neska eder bat eginda gero, etxera bialdu zuan Marik eta etxerako saskitxo batean, ikatza eman ornen zion etxerako...

MARTIN

Ikatza? A zer gauzea..

OTXOA

Baiña, leizetik atera zuanean, ikatza urre biurtu zitzaion saskitxoan.

**SALBATORE**

Mari, orduan, ona da.

OTXOA

**Ona eta gaiztoa. Biak betera. Leze-zulotik sugarretan ateratzen danean, ez da goxogoxoa egoten.. Orduan bialtzen ditu tximistak eta arriak gai guztiak ondatuz...**

MARTIN

Garia ona da, aitatxo. Egia al da jentillek asmatutakoa dala garia?

OTXOA

Jentillek asmatu eta kristauek arrapatu Ataungo koba batean jentillek bizi ornen ziran eta sekulako gariak biltzen ornen zituzten. Bealdeko lurretan kristauek ez zuten garirik eza gutzen eta Sanmartintxiki igo ornen zan bein aien kobara eta berealdiko gariak ikusita, apustu bat egin zien jentillei zeinek salto audiagoa egin gari-pillo gaiñetik. Jentillek errez egin zuten gaiñetik salto; baiña Sanmartin-txiki gari erdian erori zan eta zaramazkin bota aundi aiek, osorik gari-alez bete...

MIKEL

Bai ederki egin zula. Zergaitik daukagu ikuilluko atean karda-lorea?

OTXOA

Karda-lorea eta aizkora, biak dira etxea tximistatik gordetzeko. Tximistak okerkeri aundiak egiten bait ditu. Gabonetan Etxorro baserria erre zan tximistak jota.

MARTIN

Naparrak baiña okerkeri geiago egiten al ditu tximistak?

OTXOA

Ez dakit zer esan ere: tximistak asko jotzen bagaituzte Txindoki mendiaren inguru onetan, naparrak geiago oraindik. Aaztu zaizute joan dan urtean, emen bertan, lramendiko gaiñean, Enparaundiko Erramus urkatu zutela...?

MIKEL

Eta, auzoko Katagorri naparra al da, ba..?



OTXOA

Zergaitik diozu ori?

MIKEL

Zumin batekin anka-zaiñetan ederrak eman zizkidalako atzo eta urrungoan aizkoraz joko nindula.. Nik bildur diot, aitatxo...

OTXOA

Egingo ziñun okerren bat.

MIKEL

Bere etxe-ondoko belardian jolastea besterik ez, aitatxo.

MARTIN

Neri ere etxe onetan danok giñala sugekumeak esan zidan an bertan...

OTXOA

(Oldozkoi eta berekasa)

Zorioneko belardi orrek lanak eman bear dizkigu oraindik. Gure beiak larrera sartu dirala eta ez dirala, beti badegu eztabaidaren bat...

Aspalditxo onetan zer gertatzen zaioan ez dakit; baiña asarre bizian darabilkigu. Ni ikustearekin batera, sua dariola jartzen da. Bigun egiten badiot, sutsuago oraindik... Bekaikeria sortu ote zaio barnean gure auzo oneri..?

Gure azpitik ibilli-bearrak erretzen ote dio, barrua..?

(Une artan dan-dana etxeko atea. Otxoa bere aulkitik jeiki eta atera dijoa onela esanez:)

Aurrera Sartu, sartu aurrera; gure baserriko atea zabalik daude beti bidean datorrenentzako.

BIDEZKARIA

Eskerrik asko, jauna.

(Berrogei urte inguruko gizona da. Kapusaia burutik beera, abarkak amantarrekin, gezia eskuan eta ezpata gerrian. Bustia dator baiña ez ainbeste).

OTXOA

Pasa sukalderañño. Martin, aulki bat jaun onentzat.

(Mikelek berea lagatzen dio)

Jarrai zaitetz sutondoan. Kendu kapusaia eta amantarrak. Esne tanta bat berotuko dizut.

(Bidazkaria jartzen da Martinen aulkian, baiña ez du ez kapusairik, ez amantarrak kentzen,

Otxoa kaikua artzera doa)

BIDEZKARIA

Ez, ez det esnerik nai. Zorigaiztoko gau onetan bidean gelditu naiz iñorako ez nintzala Larreatik netorren Olazagutira. Naparroako

Merinoa ornen dabil inguru aietan eta pizti txar ura zertan dabillen jakin nai...

OTXOA

Gureak ere andik dabilta.

BIDEZKARIA

Bai, Lazkanoko Jaunen seme Semeno ixilik joana dala, esan didate...

OTXOA

(Arri-ta-zur)

OFF Nork esan dio oneri..? Gutxik dakite Semeno Olazagutira joana danik. Gure artean konfiantzazko gizona izango degu au. Gure artekoa beintzet bai. Ixilik gordeteko agindua artuta gendukan.

(Bidezkaritari)

Larreakoekin artu-emanetan izan gera beti; baiña, zure gomutarik ez det. Ez zaitut gogoratzen...

BIDEZKARIA

(Sutondoan eserita dago suari begira)

Ez da arritzeko, asko gera-ta Larrean. Larreko gaztelua Lazkanokoa bezin aundia eta ederra da..

OTXOA

Esnerik nai ez badezu, gaztai apur bat ekarriko dizut.

(Une artan amona sartzen da sukaldean)

Ama, umeak lotaratu.

AMAMA

Tira, umetxoak, jaun oneri agur esan eta lotarra...

(Umeak jeiki eta badijoaz amamarekin lo-gelara)

UMEAK

Agur, jauna. Ondo lo egin. Agur, aitatxo, etorri musu bat ematera.

BIDEZKARIAK

Ume ederrak dituzu.

OTXOA

Bi urte da ama galdu zutela. Ezkerrak amama bizi dutenari... Baiña, berriketari utzi eta gaztaia ekartzera noa

(Joaten da lo-gelara gaztai billa, bertako kutxan ditu-ta)

(Sutako kanpaiatik egurrezko txali bat artu du gaztaia eta ogia ekartzeko)

BIDEZKARIA

(Berekasa)

Biar berriro etorriko banintz, ez zendukea

orrelako kunplimenturik nerekin izango. Nor naizen ez dakizu... Nere Jaunak ondotxo ordainduko dizkit gaurko neke auek. Lazkaron biar jakingo dute ni gaur emen izan naizela eta ortik etorriko diran okerrak nere etsaierengana jo dezatela eta ez nere lagun Axari-rengana...Auzoko Axari gero ere lagun bear det...

OTXOA

(Eskuetan gazta, ogia eta sagardoa ditula sartzen da eta mai gaiñean utziko ditu)

Ez da gauza asko. Apari-legetxo bat egiteko aiña bakarrik. Zorria iltzeko.

BIDAZKARIA

Eskerrik asko, berriz ere. Naikoa da.

(Beste gabe jaten asiko da. Otxoa bere aurrean eseriko da)

OTXOA

Eta, Larreatik zer berri?

BIDEZKARIA

(Bere kolkorako) Onek zeukak Larreako kontuen berri jakiteko gogoa eta nik osta-osta dakit Larrea nun dagoen.

(Otxoari)

Ba, an gabiltza Beteluko naparrekin burruka bizian... Joan astean berrogei txerri, lau bei eta zortzi beor arrapatu dituguz Naparroako lurraldean, Aralar mendian.

OTXOA

Guri berriz, eurak arrapatu digute artalde oso bat joan dan astean eta orain amabost Segurakoei Naparroako Merinoak ogeita amaika mando kendu dizkie. Ordañak artuko dituztela uzte det. Gaiztoak dituk benetan...

BIDEZKARIA

Izan ere, guri nundik Kalte egingo dabilta beti napar alen oiek..!

OTXOAK

(Zutitzen da)

Zure zaldiarekin astuta nengoen. Pentsu on batek ez dio kalterik egingo. (Badoa ikullu atetik)

AMONA

(Une artan amona agertzen da lo-gelatik. Kri-saillua eskuetan)

Gabon, jauna. Zure baimenarekin lotaratzera noa.

BIDEZKARIAK

Gabon, etxeoandrea.

OFF. Aldameneko lo-gelan Otxoaren lau umet-

xoak, biñaka oge bakoitzean, lo daude aingerutxuekin amesetan.

(Bidezkarria bere aulkitik jeiki eta lo-gelan sudurra sartzen du)

Ementxen daude laurak. Ederki, ederki...

OFF. Solairutik zintzilik dauden saiaski eta urdaien itzalak dantzan dabilta suaren argira. Bidezkarria kopeta-illun dago bere aulkian.

OTXOA

(Ikullutik dator)

Lotaratu nai dezunean mandioan daukagu gela ordeko bat. Erakutsiko dizut nai dezu-nean.

**BIDEZKARIAK**

Bai, banoa Nekatuxamar ere banago-ta (Mandioko atetik gora dijoaz. Kamarak segitzen die. Buelta eman eta suari begiratu)

OTXOA

(Jetxi eta sukaldera dator, sutautsak pillotzeko, sua estaliz. Bitartean onela dio)

Etsairik ez dedilla sartu sukalde onetan eta aingeruak dantza egin dezatela bere inguruan.

OFF Orrela esango ez balu, bere arbasoen animak aurka edukiko lituzke; suaren bearra bait dute gauez, geuk egunez bezala. Gauerditik aurrera eurak etorriko dira su onen ingurura.

(Krisaillua artu eta umeen gelara begiratu bat ematen dio, lotaratu aurretik)

OFF Orduak aurrera doaz. Gau-erdiaren muga gaude. Etxe-barruan dana da pake. Etxetik kanpora aizea, euria eta Mateo Txistu erbien ondoren... Zein dala Mateo Txistu? (Aizeak txistu kanpoan) Aizeak txistu jotzen duanean neguko gau beltzetan, Mateo Txistu bere txakurrekin erbien atzetik dabillega esan oi dute Euskalerrian. Eizerako afizio aundia zuen apaiza dala ere, esaten dute. Meza ematen ari zala, Meza erdikoan, erbien atzetik zebiltzen zakurren zaunkak entzun-da, urduri, denak bertan laga eta zakurren ondoren joan ornen zan. Arrezkero or ornen dabil, eten gabe, erbien ondoren, gau bildurgarrietan batez ere...

(Txistu-otsa aizeak) (Sukaldea illupean, estalitako suaren gorritasunak ematen duen argi apurñoa besterik ez da.) ("Kirrin" sukaldeko atea. Geldiro-geldiro irikitzen dijoa Atearen atzetik Bidezkarriaren burua agertzen da.

Begiratu bat emanda gero, sartzen da barrura ixil eta begirunez, anka-punttatan. Beti begirunez;)

**BIDEZKARIAK**

(Umeen lo-gelara begiratuta gero)

Lo dago gizarajo au. Nabillen kontuz eta ixil, bada-ez-bada ere... Orduak aurrera dijoazkit. Onezkero Naparroan bear nuen. Katagorri dala eta ez dala emen nago oraindik. Gauerdia izango da. Emen bear zuan. Kanpoko atea irikiko diot.

(Ala egiten du eta bitartean ikusi-aldi ematen die baztar guztiei)

**KATAGORRIK**

(Sukaldeko atetik burua agertuz)

Or al aiz, Axari?

**BIDEZKARIAK**

Aspaldi onetan ire zai, Katagorri.

**KATAGORRIK**

(Barrura sartuta misterio aundiz)

Esan bezala, Semeno, Lazkanoko Jaunaren semea, an dezute Olazaguti inguruan. Urdiango zulora joana dek ixillean Perizerekin. Ori jakiteak iri ez dik okerrik ekarriko, onurak baik. Ontzako urre ederrak jasoko dituk. Neretzako ere zer-edo-zer izango dek. Zati bat orain nai nitek...

**BIDEZKARIAK**

Tok poltza Baiña, orain zati bat eta gero bestea? Ez diat tutik entenditzen.

(Poltza emanaz)

**KATAGORRIK**

Oraintxen ikusiko dituk nere asmoak.

(Poltza artu eta sutokiko suarri atzean gordetzen du) (Poltzari begiratu) Au neri eskeiñitakoaren erdiak ere ez dek. Bestearen erantzuna ik ereak kobratutakoan izango diat. Bitartean emanidak ire ezpata ori ere. Dana osorik kobratutakoan, atzera biurtuko diat ire eskue-tara

**BIDEZKARIAK**

Ez diat antzik ematen; dana dala tori nere ezpata, ez bait dut gaur bearrezko. Eta, ibilli ari bizkor, berandutzen ari zaigu-eta.

**KATAGORRI**

Bai, gure asmoa bete daigun.

(Beste gabe, ezpata sutondoan utzita, sartu dira biak umeen lo-gelan. (Joan txikia aukeratzen dute eta kontuz ateratzen dute ogetik eta estalki batekin bildu. Sukaldean berriro dira-

nean esnatzen da umetxoa. Iriki ditu begi beltz larriak baiña ez diote garraxirik egiten utzi. Katagorrik eskuarekin estali dio agoa.

Umea bidezkariari emanaz:)

Artzak eskuetan.

**BIDEZKARIAK**

Lenengo zaldia atera bearco det ikuillutik.

**KATAGORRI**

Goazen ba.

OFF. Bidezkariak, Axari naparrak, bere zaldia ateratzen du ikuillutik astiro-astiro, zaratarik gabe. Zaldi-gaiñetik umea artu eta illunpean galtzen da Naparroako bidean. Katagorrik badu oraindik lanik ikuilluan. Otxoari alditun okerkeri guztiak egingo dizkio. Ikuilluan sartuta dabil, Bidezkariak alde egin zigun unetik. Badator sukaldera.

**KATAGORRI**

Otxoa madarikatua. Orain dituk nereak. Nere atzaparretan erori aiz. Eta pago batean mingain-luze ikusten ez auten artean, ez diat pakerik izango. Arrotuari orain jaunaren gazteluan i bezalakorik ez dala-ta.. Galbidean jarri aut.lre odolaren egarri nauk. Egarrri bizia nerea.!

**(Parre tristea ezpañetan eta gorroto bizia begietan)**

Ire ezurrei agur egitera joango nauk beleak garbitukoan. Deabruagaitik zin dagit, nere itza beteko dedala Ara nere argibidea!

(Ori esanarekin batera, naparrak emandako ezpata, lurrean sartu du indar guztiaz. Ondoren igesi doa, danbada ateari emanaz). (Zarataro Otxoa dator sukaldera krisaillua eskue-tan)

**OTXOA**

Zer ote zan ori? Zertan ote dabil gure bidezkaria?

OFF. Otxoa mandiora igo da eta ogea utzik.

**Kanporako atera doa eta irikita arkitzen du. Sukaldera dator berriro.**

**OTXOA**

(Krisaillua eskuan)

Alde egin digu. Orren azkar joan bear ote zuan ba? Nik ez det lo-saio aundirik egin. Goizaldea oraindik urrun dago.

(Krisailluaren argira ezpata ikusten dut zutik lurrean sartuta Eskuetan artu eta krisailluaren argira begiratzen dio. Arrituta)

Napar ezpata! Tiebasko gazteluaren ezauga-

rria du. Madarikatua! Naparra, alajañetan, gure bidezkarria...! Ez al zigun izugarriren bat egingo..

(Garraxika asiko da)

Martin, Mikel, Salvatore, Joan..!

(Sartu da lo-gelan)

Emen al zaudete guztiok..?

(Bi ogeak begiratuta)

Nun da Joan nere..! Ez da negar egiteko ordua. Jeiki Martin eta ikuillutik atera zaldia...

(Mikel ikuillura eta aita abarka mantarrak jaztera. Jazten ari dan artean Martin dator sukaldera estu eta larri)

MARTIN

Zaldia etzanda dago odoletan, aitatxo.

**OTXOA**

(Su eta gar)

Aspuge madarikatua! Nik ostatua eman eta ik semea arrapatu..! Arrapatuko aut..!

MARTIN

Zaldirik ez, aita.

OTXOA

(Zalantzan unetxo batean)

Zergaitik ez? Bai Katagorri eskatuko diot zaldia.

(Etxeko atetik zantzoka)

Katagorri..! Katagorri..! Mikel, irten bidera Katagorri eta zaldia eskatu; baiña obea da bera onera etortzea gertatu diranak esplikatzeko. (Amantarrak eta abarkak lotzeari ekiten dio berriro. Gero kapusaia jantzi eta ezpata estutu gerrian. Eskuetan azagia artuko du.) Makurgaitza dek Katagorri, baiña orrelako estu-aldi batean, lagundu bear... (Umeak sukaldera datoz, baita amona ere oiñutzik eta alkari bilduta)

KATAGORRI

(Katagorri sartzen da sukaldean. Arrituta bezela eta zeken)

Zer dek orrelako garraxiak gauerdian egiteko..!

OTXOA

(Estu eta larri)

Utzidak zaldia, arren, Jainkoaren izenean.

Azkar..!

KATAGORRI

Utziok Jainkoari pakean. Akelarrerren batera al oa gauerdian eta zaldi gaiñean..? Albitxuko jauna akelarrean..! Ez genduke besterik falta...

OTXOA

(Larriago)

Zer nai dek zaldiaren truke? Baiña, bereala bear det. Napar batek seme txikiena arrapatu zidak... Bizkor, Katagorri!

KATAGORRI

Auek ez dira iñora joateko orduak eta kito.

OTXOA

(Belaunikatzen da)

Ire aurrean ona ni belauniko, Albitxuko jauna izan arren... Zer nai dek gaiago..? Utzidak zaldia berandu baiño lenen...

(Amama eta umeak baztar batean daude zotinka eta negarrez. Katagorri geroz eta zekenago)

KATAGORRI

(Burua arro, jaso eta okerka begiratuz onela diotza Otxoari)

Noiztik ikasi dek orrelako falso-paperak ain ederki egiten..! Emen napar bat izan dala jakingo duten bildur al aiz..!

OTXOAK

(Ezpatari elduta, belauniko oraindik)

**KATAGORRIK**

Bildur dana bide txarretik dabillelako dek!

OTXOA

(Salto baten jeikitzen da eta ezpata burugaiñetik jasotzen du)

Ni salatzaile..! Nere biotz urratua zirikatzer a ator..!

KATAGORRIK

(Bere ezpata atera eta atzeraka egingo du sukaldeko ateraiño)

Ire paperak ederki betetzen dituk. Baiña, alperrik! Nik, Otxoa, begi-bizta diat luzea...

OTXOA

(Besterik eziñean, ezpata lurrera eta bere gorputza aulki batera botatzen ditu. Nekearen kargak burua makurtu dio. Ausita dago. Birrindula. Zukututa). Jainkoak salba nazala.

KATAGORRI

(Irriparra ortzetan)

Nere oinpean, baiña ez diat naiko. Adar batek zintzilik ikusi nai aut.

(Alde egiten du)

13/- **Taberna bat: sagardotegia. Zuri batzuek argi egiteko.**

(Mai luze bat eta amasei lagun txerrikumeak

jatenr Lau txerri-kuma erreak bakoitza egurrezko txali aundi batean. Lurrezko pitxarrak sagardoa edateko. Txerriak zatituta datoz. Eskuekin jan eta pitxarretik eran. Upelak barruan. Pitxarra uztutzean upelera sagardobilla txotxa kenduta. Algarak eta etengabe ko izjarioak.) (Kapusaiak eta ardi-larrukiak)

OFF. Murdingoetan gaude Naparroako Sakane ko errixke batean. Garzi Semeneitz dute buru, maian lenengo dagoena. Jaten ari diran txerriak lapurretakoak dira eta orretxegaitik, gozogoak. Ortik ainbeste algara. Gertatua gogoratzen ari dira.

14/- Mendingoetan. Goizean goiz. Argi dago.

OFF. Amasei lagun doaz Otzaurteko atetik beera Zegamaruntz. Atea da Otzaurte eta bertan makurtzen da Aizgorri eta leuntzen. Ate orretatik pasatzen dira naparrak Gipuzkoara eta giputzak Naparroara. Sakon-sakonean dago Zegama eta bertara doaz gure amasei gizonok. Geziak eskuetan, ezpata motza gerrian, abarka-mantarrak oiñetako eta, kapusaia burutik beera ez duenak, ardi-larrukiz estaltzen du bere gorputza. Garzi-Semeneitz aurretik. Gizon gordiña oraindik eta bere ondoren iru anai gazteagoak, bi osaba eta guda-Lagunak.

#### GARZI SEMENEITZ

Ni aurretik joango naiz eta zuek etorri atzera go. Iñor baletor, txistu joko dizutet.

(Bera eun metro aurretik doa basoan aurrera. Pagoak erdoiak janda agertzen dira: arriak ori-gorrixkak sukaldeko pertzeen antzeko. Zerua goibel. Udazken aurreratua. Pagadia Zegamako Eleizetxoaren oiñetaraiño jeisten da. Eldu dira amaseiak baso-ertzeraiño. Abatearen etxea eleiz-atzean dago eta bere aurreko atarian amaika txerri gazte eta urdanga ama beurokin batera. Enbor baten atzetik kiñu egiten die laguneri ixil eta bizkor ibiltzeko)

Aurrera!

(Eldu diete amaika txerriei burnizko kakoekin eta euren garraxiak odoletan ixildu. Abata konturatzerako maldan gora doaz Otzaurteko atera).

OFF. Murdingoetan jan zituzten txerriok kronika zaarrak dionez; baiña, pasadan beste bei

bat ere eraman suten eurokin. Gertakizun auek milla berreun eta irurogeita bateko urtean gertatu ziran. Iruñako paper oiek diotenez urte artan gertakizun geiago ere izan ziran Gipuzkoako muga inguruan. Ona batzuek: gure Garzi Semeneitz onek eta bere bi semeak, Inigo Diaz eta Yenegro Amurrok, Beste lagun batzuekin batuta, lau abere, lau bei eta mando bat arrapatu zioten Lopez Diaz de Unzetari. Diego Lopeizeri, berriz, errota eta bi etxe erre ondoren bei-zaia il zioten eta berrogei bei akabatu. Zortzi bei zortzi zekorrek in arrapatu zizkieten Pero Garziari, palazioa eta upeltegia sei upelekin, erre ondoren. Etxea eta upeltegia erre zieten bai Lope Peritz Ibarkoari eta baita Pero Abateri ere.

Oker oiek epe bakar batean egin zituzten eta ondoren naparrora bildu ziran; baiña, etxera koan Pero garzia il zuten eta Diego Lepeizeren artzaia ere bai, Lopezen semea urkatu ondoren. Ordurako Araman, Zaldueñon, Erripiden eta Muskatuen ganadu-lapurretak egiñak zituzten. Ez zuten gutxi bear napar kua drilla onek.

(Kamarak bitartean txerri-lapurrei segiko die Otzaurtetik aurrera Naparroko bidean)

Gipuzkoarrak ere ez ziran lo egoten. Bien arteko burruka zan. alkarri lapurretak eta aldarrirailketak. Gipuzkoa eta Naparroaren arteko artu-emanak oso daude gaiztotuta. Politika aldetik gauzak ikusi ezker, berriz, giputzak Kastillarekin bat eginda ibiltzea, ezin zuten naparrek pakean eraman.

15/- Iruña. Errege-gela FELIPE III

OFF/ Ona gai oneri buruz zer gertatu zan, Semenoren historia baiño bi urte geroago: Felipe III zan Naparroako Errege eta Enrique de Sulli nombratu zuan bere erreinorako Gobernadore 1331 urtean. Urte orretan idatzi zuan erregeak auxe:

(Kamara Felipe III'aren irudi baten aurrean)

"...queriendo descargar las conciencias de nuestros Predecesores, et nuestra, conoicemos et decimos en verdat, que el derecho de a<sup>y</sup>er et heredar la propiedad de las Tierras de Ipuzcoa, et de Alava, et de Rioja, et de toda la otra tierra que ha seydo, et es, del Reino de Navarra, et lures sucesores, et quanto tiempo las ha hombre tenido embargadas, soste-

nidas contra Dios et razon, et usurpándoles lur derecho."

(Kamarak segi irudiaren aurrean)

Esanez bezela Gipuzkoa, Araba eta Errijoa Naparroako Erregearen menpekoak zirela eta Napar-erreinoak zuela Probintzi oienganako eskubide osoak. Eta, egia esan giputzak, arabarrak eta errijojakoak danak zebiltzen Kastillarekin buru-bat eginda Naparroaren aurka...eta, ortik sortzen zitzairen, besteak beste, eraman-eziña eta gorrotoa...

### **IRUÑAKO GOBERNADOREA**

(Aurreko gela. Garaiko jantziak. Gobernadore eta Joan de Erreta Merinoa) Garzi Lopiz, Lazkanoko jauntxoa asarre dabil Etxarri-aranazek pariak, pakearen ordaiñak, pagatzen ez diotelako.

JOAN ERRETA

Erria erreko onren du pariak ordaintzen ez badizkiote.

### **GOBERNADOREA**

Asarre badabil, dabillela. Zuk eun gudaria artu eta zoaz Etxarri-aranazera; onek ez du pariarik ordaindu bear iñundik ere Lazkanori. Zure esku utziko det arazoa.

JOAN ERRETA

Eun gizon naikoak ditugu. Etxarrik arri-esi ona du defensarako.

### **GOBERNADOREAK**

Zoaz ba, eta Aranazko esibarrutik ballara osoa zaindu. Apirilla da eta bertan geldi Lazkanokoari asarrea pasa arte.

### **16/- Basoa Etxarri-aranaz inguruan. Egungaritzen**

OFF/. Merinoa Etxarrira etorrita zegoan Garzi Lupiz lazkaularrak, Semenoren aitak, Etxarri erretzeko erabakia artu zuanean... Ogei mando zuziz beteak ogei mandazaiñekin eta bes<sup>o</sup> te berrogeita amar guda-mutillak artu dute Naparrorako bideak, Ataundik gora, pagadi artean gaillurrean eta ariztiak beeran Etxarri inguruan. Egun sentiaren argiak gaueko illuna urratzen asita zegoen lazkaularrak eldu zira-nean. Zelatan zeuden Merinoaren mutillak Aranazko baillara bete zuten adar-otsez. Eun asko ziran esi-barrutik kanpotik zetozen irurogeita amarren aurka jokatzeko. Garzi Lupizek zuziei su emateko astirik ere ez zuan artu. Ez zioten artarako biderik eman..r Ekin diote

basora berriz ere lazkaularrek; baiña, andik gora mendietan aurkitu zituzten txerri, bei, auntz edo ardi, aurretik artu eta eurokin eraman zituzten Lazkanora. Ez zuten alperrikako biajerik egin... Merinoa Etxarri-aranazen gelditu zan uztailaren zazpirarte, San Fermin egunerarte.

(Kamarak bitartean gertakizun oien irudi batzuek eman)

17/- Basoa itsua. Egunez.

(Semen eta Borja baztar batean aurreko gertakizunen testigu)

(Kamarak Semen eta Borjarengana gerturatu)

SEMENO

Nere aitak Etxarri erre nai izan zuan ezkeroz, asi ziran Naparroan pakearekiko bideak egi-ten. Baiñan, itxuraz bakarrik.

BORJA

Zeiñen bidez?

SEMENO

Gobernadoreak eta Gotzaiak, Iruñatik, idatzi zioten nere aitari eskutiz bat Erreta Merinoaren bidez eta Lizarragan alkartu ziran Merinoa eta nere aita.

BORJA

Ezer onik atera zuten andik?

SEMENO

Artan ari dirala, pakearen bidia bilatzen alegia, ixilleko lan batera bialdu ninduen aitak Olazaguti aldera. An aurreko mendietan, Kontrasta erriskan, daukagu torre bat, andik ikusmiran egoteko Naparrrora begira...

BORJA

Eta?

SEMENO

Salatari-barrunta batek nere berri eman zion Merinoari. Lagun batekin ni joan eta biok arrapatu ginduzen mendian gendukan txabola batean.

BORJA

**Barruntak esaten al diozute salatariei?**

**SEMENO**

Izen orixe daukate gure artean.

BORJA

Eta, zer gertatu zan?

SEMENO

Nere laguna onera ekarri eta ementxe, Etxarri-aurrean, urkatu zuten eta bere gorpua zintzilik utzi arbola batean erritarren pozgarri.

BORJA

Pakerako bide eskasa dek ori. Baña, salatarien arazo ori ez diat ondo ententitzen. Naparroako Merino batek nola jakin lezazke Lazkanoko berriak..?

SEMENO

Erreta Merinoak barruntak edonun ditulako. Begira, Borja, lagun maite bat nuen nere ize-nekoa Semeno de Uriz eta nere etxetik, Lazkanotik, irten zuan bertako bost mutillekin. Barruntak, salatariak, esan zion Burunda ballaran entregatuko zitula. Eta nere lagun maitea Urdiañen urkatu zuan eta an utzi zuan arbolan zintzilik ura ere.

BORJA

Oiek egiak dira?

SEMENO

Egi zeatzak 1329an gertatuak. Ikusten dezu, Borja, zenbat okerkeri naparren eskutik jaso bear izaten ditugun?

BORJA

Eta, zurekin zer egin zuan Merinoak?

SEMENO

Tiebasko gaztelura eraman nindun. Ango gertakizunen berri gero emango dizkizut. Orain esango dizut gure okerrik aundienak 1330an eta 1331 an gertatu zirala naparren eskutik. Lenengo gure lagun oiñaztarren Larreako gaztelua lurreraiño ondatu zuten. Geroago Berastegira urbildu ziran eta bertako gure senitartekoen gaztelua, erre zuten eta aizkenik Lazkanora etorri eta gure "fortaleza" birrindu zuten... Zurea eta nere zan etxea zanpatu zuten... naparrek! Eta, i oiekin etorri aiz gure etxe berrira; egoitza eman diek bertan... Borja, Borja, ez diat ori sekulan barkatuko.

(Ke-artean galtzen dira oianean)

### **18/-Lazkanoko gaztelua. Egunez. GeIa nagusia**

(Bi morroi mai luze bat ipintzen ari dira eta jarlekuak maikoentzat, auzia erabakitzeke.)  
(Zazpi jar-leku)

MORROI 1

Nork esan ori gertatu bear zanik...

MORROI 2

Gutxiena usten dan tokian, salatari-barrunta. Nork esan..? Ezin diat sinistu ere...

MORROI 1

Gaurko egunez ez ari iñokin fia... Norberaren erraiñuak ere bildur ematen dik.

MORROI 2

Ain zintzoa zan gizona..!

MORROI 1

Bai, bai... Zintzotasunak orain ikusten dituk...

Joan Zuri'ditek orrelakoek izena Joan Zuri'...

Aurretik zurikeri asko eta atzetik salatu...

MORROI 2

Besteren bat izan balitz...baña, ori..!

MORROI 1

Besteak bai eta ori, zergaitik ez..?

MORROI 2

Maiak bere epaia eman arte ez diat ezer sinistuko.

MORROI 1

Sinistu bear ko dek. Argibiderik ez zaie falta maikoai.

MORROI 2

Ala izango dek, bear bada, baiña nik sinistu ezin.

MORROI 1

Bai, jaunak ere orixe esaten dik: ezin duela sinistu; baiña, egia balitz, bere eskuz urkatu ornen likek.

MORROI 2

Gaizki nai dionen bat zebillek or tartean, bera ondatu naiean... Ez neok geiegi fiatzen...

MORROI 1

Badatoz. Guazen gu emendik...

(Alde egiten dute bigarren ate txikitik.)

OFF/. Morroiak esan bezela Garzi Lupiz dator epaikari eta maiburuko, guda-mutil eta aidentaldearekin. Gela zabala izan arren betetzen ari dira, mai-inguruan zutik. Garzi Lupiz Lazkanoko Jaunaren arimea triste dago.

(Mai-buruan Garzi Lupiz eta beste iru aldamen bakoitzeko. Zazpi. Garaiko festatako jantziak)

GARZI LUPIZ

Jaunak, badakizute zer arazo dakargun eskuartean: Semeno preso eta Per Iñigiz urkatua. Gure artean barruntak eta salatariak daude naparren serbitzuan; bestela, nundik eta nora jakin dute Olazagutira joanak zirela..? Ixilik joanak ziran....Auziaren mamia danok dakizute.. Erabaki dezagun auzia.

(Zutik euren atzetik gelditu diran bi gudarieri) Ekarri ezazute.

(Badoaz mutillak morroiak joan diran ate txikitik, maiaren gibeletik dagoena. Eta, Otxoa dakarte kopatillun eta eskumuturrak lotuta)  
(Jaunak Otxoari)  
Albitxuko jaun Otxoa, nere galdereiri argi eta garbi erantzun diezu.

**OTXOA**

Bai, jauna.

**GARZI**

Zuenean naparren bat izan al dezute lengo gabean?

**OTXOA**

Bai

**GARZI**

Gau osoan?

**OTXOA**

Ez.

**GARZI**

Arengandik dirurik ertu al zenduan?

**OTXOA**

Ez.

**GARZI**

Baietz ziona ba zan emen.

(Guda-mutilleiri)

Nun da Katagorri?

(Sartu da Katagorri bere bila joan diran bi gudariekin) (Jaunak Katagorriari)  
Naparrengandik dirurik jaso al zuan onek?

**KATAGORRI**

Bai, jauna.

Bai, jauna.

**OTXOA**

(Katagorriari begira begietatik keia dariola)

Gezurra!

**KATAGORRI**

Gezurra?

**OTXOA**

Bai, gezurra. Gezur utsa.

**KATAGORRI**

(Berarekin sartu diran guda-mutillei)

Erakutsi maikoei onen etxean zer billatu gendun.

**GUDARIA**

(Diru-poltxa bat erakusten die)

Ara, Albitxuko su-arri azpian zer billatu degun.

(Epaikariak aopekotan eta jendea arri-ta-zur)

**OTXOA**

(Larri eta naigabez)

Arazo onetan eskuak garbi ditudale, Jainkoak daki.

**GARZI**

(Bizi-bizi)

Utzi Jainkoari bakean!

**OTXOA**

Jauna, serbitzari zintzoa izan nauzu bati, eta orain salatzaile bezela agertzeak ematen dit biotzean min.

**GARZI**

Ez da norbera iñor, norbere burua garbitzeko. Zure itzeetan ez da egirik argitzen iñundik. Egia beste bide batetik dator eta, etorri ere, zeure kaltean dator.

(Otxoak bere burua makurtzen du miñaren miñez)

Alkarren arteko ituniñ egin al zenduten naparrak eta biok?

(Otxoa ixilik, erantzunik gabe)

Alkarri argibiderik eman zenien?

(Otxoa ixil. Erantzunik ez. Burua makurturik)

Ez al dezu erantzunik..? Otxoa, Albitxuko, nere galdereri erantzun!

**OTXOA**

Aita baten biotz urratuari zirika zabiltza eta errukirik gabe..Zure biotzaren samina nere biotzean daramat; zure semea Tiebasen badago, nik nerea nun dan ez dakit...Semea lapurtu zidanakin ituna egin..!?!Nola, baiñan..!?! Nagoan ixilik...

(Zurru-murrua sortu jendearen artean...Badi-rudi sinistu diotela..)

**GARZI**

Otxoaren itzak egiazkoak dira. Beste argirik ez bada.

**KATAGORRI**

(Bixi-bixi)

Ara neroni argibide. Neronek ikusi nitun biak alkarrekin.

**OTXOA**

Gezurra..!

**KATAGORRIK**

Gezurra?(Guda-mutillari) I, agertzak an billatu degun bigarren zera...(Gudariak ezpata bat ematen dio. Katagorrik eskuetan artu eta maiaren ipintzen du)

Jauna, ondo begiratu nungoa dan ezpata ori..!

**GARZI**

(Eskuetan artu eta begiratu bat emanda gero, oso arriturik)



Tiebasko gazteluarren ezaugarria du ezpata onek! Zeiñek eman dizu ezpata au, Otxoa?  
(Ixildu da berriro Otxoa)  
Ez al dek erantzunik..?

**OTXOA**

Zertarako erantzun nere itzari sinistuko ez badiozute..?

(Zearo suminduta eta lur-jota)

**EPAI-MAIEKO BATEK**

Otxoaren aurkako susmoa bada.. Susmo oien arrazoibidea Katagorriren eskutik datoz...

Poza dario ezpañetatik eta Otxoaren etsai agertu da...

**MAIKO BESTE BATEK**

Otxoaren semeak ere argibide litzazke auzi onetan.

**GARZI**

Dakartela nagusia.

(gudari batek irten eta laister Martin dakar eskutik elduta. Aita ikustean zotinka negarrez asten da)

Ez izute, ume, eta nere galdereiri erantzun: zure aitak iñor etxean artu al zuan gauez.

**MARTIN**

(Zotinka)

Kontu-kontari ari zitzaigula, gizon bat sartu zan etxean.

**GARZI**

Geiago zer?

**MARTIN**

Lotara bialdu ginduzen aitatzok.

**GARZI**

Eta, gero zer gertatu zan?

**MARTIN**

Gabean aitak esnatu ginduzen, Joan arrapatu zutela.

**GARZI**

Ogetik jeiki ziñeten?

**MARTIN**

Bai, jauna, eta zaldia topatu nuen ikuilluan odoletan etzanda eta gero aitak Katagorriti ots egin zion

**GARZI**

Zertarako?

**MARTIN**

Zaldia eskatu zion eta ez zion eman nai eta orregaitik biak burrukan asteko jarri ziran..

**GARZI**

(Katagorri)

Zer diozu, Katagorri?

**KATAGORRI**

EGI UTSAK DIRALA. Susmoa artuta nengoan eta igarri nion Otxoa itxurak egiten ari zala.

**GARZI**

Zer diozu, Otxoa?

(Otxoa ixilik, burua makur).

Gaizki zoaz.

(Maikoeiri)

Zuek zer diozute?

**MAIKO BATEK**

Ez dirala gauzok bear aiña oraindik argitu.

Otxoa zigortzeko eta urkamendira eramateko, argi geiago bear degu. Orainarte izan de bezelako izanda Albitxuko jauna, ergibide

geiagorik gabe ez nuke auzirik erabakiko...

**GARZI**

Eta, besteok zer?

**BATZUEK: GEIENAK.**

Ala dala.

**GARZI**

Ondo da. Argi geiago egin artean, Otxoa giltzapean gordeko degu. Eraman presondegira. Gaurko lanak egin ditugu, jaunak.

(Otxoa daramate ekarri duten atetik. Erabakia ez zaio izan gogoko Katagorri. Arpegiko

barreak usatu zaizkio. Illuna eta amorrua pozaren orde. Erakutzi beza kamarak Kata-

gorriren asarre-aurpegia). (Jendeak irtetzen du gelatik: Garzi Lupiz eta maikoak gelditu

dira, eurak bakarrik)

Otxoak zintzo jokatu du beti eta orain orrelakorik ezin nezake erre sinistu.

**BATEK**

Ezin genezake, besterik gabe, erabaki gaiztorik artu, Otxoa bera dalako epaitzekoa...

**BESTE BATEK**

Baiña, errudun gertatuko balitz, orduan zigor guztiak gutxitxo.

**GARZI**

Ziur egon jaunak; ori ala bada, nere eskuz neronek urkatuko det.

(ateraiño eldu dira. Maikoak zurubian beera asi dira. Garzi bertan gelditzen da)

Agur. jaunak.

**BESTEOK**

Agur.

(Jarraitzeko)  
Anes Arrinda

# ALBISTE TA BERRI

## ARRESE BEITIA, FELIPE.

Otxandiotarra.

Bertsolari eta olerkari ta euskal biziaren kezkatu.

Orretan azpimarratu leike bere lan ugaria. Or euskaldunen arteko bere eragiñaren sustraia.

Gizon ugaria lanean, ugaria baita adiskidetasunean.

Benetan maitatua zala, diñoie, erritarrak; orde bagako mesedegille, edozelako laguntza bearrretan.

Santugiña. Ainbat elizetako irudi egille eta aldara barriztatzaille.

Euskal gaietan sarri omendua. Bere gaiak, bere antzeko lanak, Euskalerrriaren bizitzan sarri gertatu diralako, egun-egungo gai.

Aurten, udazkenean, Otxandio'n girorik egokiena gertaten dan aroan, bertan batuko gara Euskerazaintzakoak, Bilbao'ko "Euskera-zaleak" taldeak eratuko dauan omenaldiari gure berotasuna eta gure kidetasuna eskintzen.

Arrese Beitia, len, orain eta gero ere, euskaldunon gogoko zan, da eta izan- go da.

## JAKAKORTAJARENA, TXOMIN.

Olerkari ezagutu gendun gaztarroan.

Gero, apaiz erbesterratu, Argentinan ibilia da. Euskalduna euskaldun, nun-nai. Iztegi bi argitaratu zitun an: Erdera-Euskera, lenengo., Euskera-erdera gero.

Erri beartsu, txiro, ondasun gabeko baten bete zun bere apaizgintza. Eta bere erriari, zetatik bizi ez ekian erriari, erlezaintza erakutsi, ortara moldatu eta zaletu eta bizibide jator eta onurakorrrean sartu erazi zuan, egi gurenetan sendotuaz batera.

Euskalerrira biurtu zan, geienbat berekin bizi zan arreba urteekin gogortzen etorralako. Etorri la laster agur egin zion egun aundirarte. Txomin'ek bakardadea lanean arintzen daki. Eta orra, egunotan, Erlezaintzari dagokion liburu mardul bat kaleratzeko gertu.

Berak dionez, pozik bialiko dio urrurik, doan, eskatzen dionari ale bat, "ia erdel-itzik gabeko euskera garbian eta aalik errezenean eta aberatsenean ondua."

Geiago: "Erle-idazti au argitara ematean, auxe izan da beraz gure xedea: Erderak baiño aixago, garbiago, ulerterrezago, ark bezala itzen eske beste izkuntzetara ian bearrik gabe, bere arrobi ioritik ateratakoekin adieraz lezazkela Euskerak iakintza guztietako gairik zailenak eta asmakizun berri danen izenik egokienak.

Otarako orde, batu egin bear izan dugu Euskera; sakabanatuta zegoan txoko guztietatik BATU; mendi arteko sakanetan gordeta zegoan errizkatatik bildu; erki danetako izkelgietatik laso eta batez ere, Exipto'ko metarri-obietan sarratsunduak bezala, gure ele-gizon iakintsuak iztegietan orzitutako zurrunitzei, ats berri bat emanez eta lozorro ortatik itxartarazita, bizi osasuntsu bat izateko argitara ekarriaz, baita gure idazle zaarren idatzietatik aal izan ditugun guztiak irutzita ere."

Gure txaloak eta agurrik sutsuena Jakakortajarena euskal langille oparoari.



Deba'ko Itxuarena

1

Orain asiko degu  
Debako itxu kanta: (bis)  
erri ontan badu norbaitek  
borondate galanta.  
¡Ai, ai, ai !.  
Erri ontan badu norbaitek  
borondate galanta.

¡Ai au azkengabeko  
gorroto zistriña !.  
iNoiz amaituko ote dek  
orren pipermiña !.  
Batzuek beti zeudek  
edaten ozpiña.  
i Auxen dek baiña  
amorró piña  
kendu eziña !.

2 —

Ezta beste iñun itxu  
onen antzekorik:  
bista ona izan arren  
urkoa ikusi eziñik.  
¡Ai au azkengabeko...

3—

Debako aurrak ziran  
jolasten kantetan:  
baña norbaiti gaitz egin  
zioten nunbait estetan.

—4

Asmatu zitun azkar  
gezurrezko opilak:  
baita alperrik bialdu  
etxera guardizibilak.

5

Asmatu Kontakatilu ori  
ibai kristau bapua!  
Aria jaurtiki eta  
ezkuta bere ezkoa.

6

Apaiz bat omen-degu  
oso separatista:  
apaiza beti apaiz da  
ez izan aren fatxista:  
gezurzulo ori ez ote-da  
biotzez komunista.

—7

Apaiza ez izan arren  
bere gogokoa:  
erespeloa artzen dio  
txakurrari añakoa.

—8-

¿Jaunak noiz ote zien  
agindu kristauei,  
men-egiteko bakarrik  
fatxista diran apaizei

—9

Orain amaituko det  
Debako itxu kanta:  
¡Jaunak biurto bezaio  
begi bietako bista!.

(1) Abesti au "Ez dago  
larrosarik arantzarik  
gabe" bezela abesten da.

(Etxaniz' en papel artean aurkitua)



# IRIZPIDEA

(Jaime Balmes'en "EL CRITERIO" Jose Zinkunegik euskeratuta)

Urte mordoa da egun bat antolatu zutela, euskal- jardunaldi batzuetan eleiz-gizonak azken urteetan, Liturgia berria euskeratzen egindako lana aurkezteko. Batzuen eta besteen itzaldi eta txostenak entzun ziranean, ondoren entzuleei etorri zitzairen itz egiteko txanda. Besteak beste, an ziran bi politiko: Irujo eta Monzon jaunak. Guztiak ixildu ziranean, Monzon jaunak artu zuen bere aldia, eta, labur esateko, gutxi gora bera, auxe izan zan esan zuanaren mamia: "Emen atsegiñez entzun eta ikasi degu eleizgizonek euskeraren alde egin duten eta egiten duten lana. Euskerak bizirik badirau, neurri eder baten elizgizonei zor izan zaie. Orain ara nik neure buruari egiten diodan gogoeta eta galdera: Elizgizonek berena duten sailean egindako lan ain txalogarri eta eskertzekoa gure izkuntzaren bizigarri izan baldin bada, zer egin dugu eta zer egiten dugu besteok, lege-gizon, osalari eta gaiñerakook? Zein bere sailean saiatu izan bagina euskera lantzen elizgizonek egin duten ainean, gure euskera maiteak bestelako bizia izango zuen leen eta izango luke gaur, ezbairik gabe. Zer egin dugu besteok eta zer ez dugu egin bearko geureak ditugun sailletan?

Zinkunegi jaunak, Monzonek baiño lenago egin zion gogoeta ori bere buruari. Eta ala, gaztetarik, 1916n asi zan idazten eta, ain zuzen, osalariari egokionez, osasun-gaiak euskeraz erabilten. Non? Nire ustez gutxik ezagutzen duten eta Bilbon argitaratzen zuten "Euzko-Deya" aldizkarian.

Gaur zenbatek ote dakite aldizkari orren berririk, iñoiz izan danik ere? Ez dakite urte aietako idazle askok bialtzen zituztela beren euskal- lantxoak aldizkari orretara. Besteak bete, Elzo-Azpiazuk, Larrekok, Lizardik eta Zarautzko Sabiñek, Kirikiñok eta abar luze batek. "Euzko-Deya" onek bi aldi izan zituen: lenengoa 1916tik 1920rako eta bigarrena 1921 tik 1923 raiñokoa, Primo de Rivera jeneralak debekatu zuen arte. Eta lenengo aldian, lenengo zenbakian agertu zan aldizkari orretan Zin izena, eta osalariari zegokion gaiak azaltzeko, andik aurrerako zenbakietan egingo zuen bezela.

Zinkunegi aize berriak ekartzera zetorren euskal-alorrera. Bakoitzak bere sailla, ongien ezagutzen duen sailla jorratu eta landu bear zala uste du berak. Ori da bakoitzarentzat egitekorik egoki eta bearrezkoena. Ori egin du "Euzko Deya"ren lenengo aldian. Eta irizpide ori berori dauka bigarren aldian 1921 n idatzi zuen lan batean. Bere itzez esan dezadan: "Edozein sailletan, orain emen eta gero an jardutea ez da egoki. Landa berean izan arren, saillak idekeak (ez-berdiñak) dira eta sail bakoitzean lankizun bereziak daude. Gizon orok ez dute gaitasun berdiña edozein lanetarako... Aberriak landubearrak dauzkan sailletan gure gaitasunari, gure ikasketai eta eguneroko lanai ongien dagokiena aukeratu bear degu, gure izerdia naroa izan dedintzat. Osalarientzat bada sail berezirik, egokirik".

Orra Zinkunegi idazlearen eta osalariaren irizpidea. Eta orra zergatik nere ustez, osasun gaiak lantzen eta aztertzen aritu zan onek, berez bezela gogoaren osasuna zaintzeko eta gogoaren okerrak eta okerbideak zuzentzeko argibideak ematera jo zuen. Orretarako Balmes katalanaren El Criterio euskerara itzultzea, euskerara aldatzea gauza egokia iruditzen zitzaion.

Euskal-Esnalea aldizkarian zatika emango du bere lana 1918n asi eta 1924n amaituko duen arte. Bere asmoak burutzeko, Zinkunegik ez zuen aukera txarra egin. Gizonari bere gogoko indarrak egia zuzen aurkitzen eta bizitzako sail guztietan gizon jokatzeko irakasteko, liburu gutxi egokiagorik Balmesen liburu ori baiño. Ala uste du Zinkunegik eta ala uste izan dute gizon argi askok.

Nor da, baiña, Balmes eta zer da berak idatzi zuen El Criterio liburua? Esan ditzagun itz gutxi batzuk, bi galdera auei nolabaiteko erantzuna emateko.

Balmes, apaiz katalana, ez degu esango izenez beintzat naiko ezaguna ez danik. Urte zalaparta batzuetan jaio eta bizitzea gertatu zitzaion: Vich'en, Barcelonako errian jaioa, 1810, eta bertan 1848 urtean illa. Bizi laburra urtez, baiña bai luzea ere, egin zituen eta idatzi zituen lanez. Bere gaztetako urteak irakurten, ikasten eta irakasten eman zituen eta azkenengo zortzi urteetan izugarritzko lana egin zuen bere argiak jakintza-sail askotara ixurtzen, filosofiatik asi eta politika sailletaraiño. Adimen argi eta zorrotzdun gizona zan bera, oroimen andi eta zabalekoa. Amar milla liburu-ren kapituluaren zerrenda osoa emateko gai zala erakutsi zuen bein, Parisen frantzes batek egiaztatu zuen bezela. Eta Balmesek bein ikasiak buruan ongi sailkatuak zeuzkan, eta ez batere naas-maas. Bizi guztian iraun zion jakingaiak sakonago eta errotikago ikasteko eta argitzeko griñak, ikasitakoak gero bere idazlan eta aldizkarietara zabaltzen saiatzeko. Kataluñan ikasia naikoa ez zuela, egotaldi luzea egin zuen Parisen, Europako filosofia eta pentsakera berriez jabetzen. Ikasteari ez zion ematen jakiten utsean bertan goxo egiteko, ez ikastetxeetan irakasteko ere. Jakitea Balmesentzat aldian aldiko gizartearen arazoak eta goraberak argitzeko erabili bear da. Danetik egingo du berak: ikastetxeetan irakatsi, filosofi-liburuak atera, gizarteko eta politikako gaiak sakon aztertzeiko aldizkariak sortu; baiña politikakerietan sartu bageko lanak idatziko ditu, alderdi guztien gaiñetik egatuko da beti, batzuen eta besteen uts eta gezurrak salatuz, guztien alde onak aintzat artuz. Lan ori lasaiago eta erosoago egiteko, nai zuenean eta bear zuenean, bazekien inguruko zaparradei iges egiñez, nonbaiteko toki ezkutuen batean sartzen, an, beste iñor munduan ezba-litz bezela, gauzak baketsuago eta astiroago aztertu eta auznartzeko.

Orixe gertatu zitzaion 1843 garrean, Espartero Agintaritzatik bota zutenean, Barcelona, burruka eta iskanbil gogorra sortuta, bonba-otsen artean zegoenetako egunetan, urte artako udazkenean. Balmesek, guztien ixilik billatu zuen Prat de Dal'ten, Barcelonatik zetozkion bonba otsak entzuten zituen bitartean, gogoia bere auznar-lanean murgildurik zeukala, ia libururik bat ere gabe, Urriaren lenetik azaroa-ren 21 ra, an idatziko du, asi ta buka, ain epe laburrean bere liburu ederra: El Criterio izenekoa. Liburuaren gaia, antza, aurretiaz ondo gogoan erabillia eta auznartua zuen. Ez zitzaion, bestela, liburu ain biribilla aterako.

Egia zer dan, egia billatu eta jasotzeko zenbat eta nolako bideak ditugun, gauze-tan eta gertaeretan non dan, egia zuzen ikusteak eta ulertzeak gure adimenarentzat nolako garrantzia duen; gure zentzuen bidez aurkitu eta ikusi gertzak egia edo ta adimenaren bidez aurkitzen deguna zuzen ezagutzeko nolako eragozpenak izan ditzakegun, irudimenak nola lilluratu gintzazken eta gure griñak nola itsutu: guztiori saillean eta adibide egokiz argitu eta erakusten du Balmesek liburuan. Adimenak egia eta gezurra bereizten, gauzak argi eta garbi ulertzen eta jasoten jakin bear du, eta oker ikusi eta ez ulertzeko arriskuei alde egiten ikasi; aurre-iritziak utzi; griñak lilluraturik gezurrera edo okerrera eraman ez dezaten zur eta esna ibili, norbere burua aztertzen jakin, eta egiaren argiari atek zabal utzi.

Gero, badaude besteen esaneti eta lekukotasunetik jaso bear ditugun gauza asko ere. Urrutiko erri eta bazterren berri munduan zearreko ibiltarien lumatik edo esanetatik datorkigu. Zertan eta noraiño dira sinisgarri jakin bear. Iraitzean, egotaldi luzerik egin gabe, erriz erri ibilteak ez du ematen erri bakoitza sakon ezagutzeko aukerarik. Ibiltariak ikusi dituen gauza asko bere irudimenaz puztu eta anditu egin ditzazke.

Edo geien batean, ikusi dituen erri, erritarren eta bazterren azaleko itxura ematen jakin dezake; baiña erritarren barruan sartu eta aien barrukoa ulertzen jakin gabe. Irakurle zurrak dana bereizten jakin bearke du, zer dan idazleak bere burutik asmatua eta zer dan egiazkotzat sinistekoa.

Antziñako gertaeren berri edestilariek ematen dute. Ez dira izaten guztiak neurri bardiñean sinisgarri. Ez gertaeren aldetik, etz ez edestilariaren iritzien aldetik. Gazetari izan da Balmes eta gazetariaren jokabide oker askoren berri zekiena. Gazetalaritzan ez omen daukagu askotan egiaren iturri garbirik. Alderdikeriak askotan urruntzen du gazetalaria egiaren bidetik, bai gertatuak izan ez diran bezela kalera-tuaz, edo ta erdizka esanez edo alderdien bat ixilduz.

Azkenez, egiaren eta gezurraren arazoa ez da jakite-ezjakite utsezkoa. Egiak gizonaren gidari izan bear du bere bizian. Gizona ez du jakite utsak gizon egiten. Ekintzak esango du nolako gizon dan. Eta Balmesen liburuak orretan ere gidari eta bide-erakusle izan nai du. Zein bizibide artu, nolako elburuetara jo, nolako ekintzetan sartu, nok bere barruko indar eta griñak nola zuzendu eta ezi, nolako garrez elburu zuzenetara eta garbietara bizia zuzentzen ikasi. Gai guzti auetan Balmesek ematen dituen argibideak liburua onuratsuago eta irakurgaiago egiten dute batez ere ikasurteetan bizi diranentzat. Gaurko egunetako pentsalari askoren iritziz ere, nor bere burua ezagutzen eta adimena zuzen erabiltzen jakiteko, gizonari gizona-ego egiten irakasteko, ez ornen da liburu egokiagorik asko idatzi. Guztia irakurgarri-ago eta atsegingarriago egiteko, idazleak bere irakatsiak gertakariz eta adibide arri-garriz ornitu ditu. Gizonari egia billatzen, erlijioan, gizartean, politikan eta gaiñerako arremantetan zuzen ibiltzen laguntzeko egiña dan liburua da. Orain mende eta erdi egiña dan arren, gaurko egunetan ere bada liburu oso baliotsutzat daukan gizon jakintsurik. Europako Ikastetxe Nagusitako irakaskintzaren berri ongi zekien Aita Errandonea euskaldunak eta berak esana da onako au: "Zentzun onaren araudia edo esku liburua dan au, berak ezagutu zuen Alemaniako irakasle batek Unibersitatean sartu aurreko ikasurtea egiten zutenei irakurri, ikasi eta idatziz laburtu erazi egiten zien". Lenengoz argitara berritan, zoraturik esan ornen zuen Barzelonako irakasle jakintsu batek: "Zorioneko bonbaketa, au bezelako liburu ederra ekarri diguna". Europako izkuntza askotara itzulia izatea merezi izan du.

Barkatu baldin Balmesen berri ematen geiegi luzatu banaiz. Esan dedanetik, gauza bat gelditzen da argi: J. Zinkunegik ez zuela aukera txarra egin, apaiz katalan onen liburua euskeratzeko lana bere gain artu zuenean. Zatika zatika noiz eta non argitara eman zuen lentreago entzun dezute: 1918tik 1924ra "Euskal-Esnalea" aldizkarian. IRIZPIDEA jarri zion izenburutzat. Beste izkuntza batzuetara ez zuten ain itzez itz itzuli: Gogoia lantzeko antzea, edo Egia ezagutzeko bidea eta ola.

"Euskal-Esnalea" k atsegiñezko ongi etorria egin zion: "Lan arduratsu eta txalogarria auxe: asko poztu gaituena. Gogo-gogoz argitaratuko degu eta Euskal-Esnalea'koak poz pozik irakurriko dute noski. Eta "Eusko-Deya"tik, bi urte lenago asita Zinkunegi idazle laguntzaille zuen aldizkaritik, gogoia berotzeko eta aurrera jarraitze-ko itzez agurtu zuten: "Bide orreatik jarraitu, aberri-elia biar dan lekura jasoteko". Eta etorri zitzaizkioken esames eta erausiai aurretiaz erantzuteko bezela, onela esaten zioten: "Olako idazkiak ez dira edornok ulerizeko... Ala, uste dozu erdaldun guztiak ulertzen dabela El Criterio au, erderaz egonarren? Emon idazti ori edozein españarrei eta "ez dot ulertzen" esango dautzue geienak".

IRIZPIDEA euskerazko au ez da atera Euskal-Esnalea aldizkariaren orrietatik kanpora. Liburu egiñik, gaur agertzen zaigu, Zinkunegi zanaren jaiotzako eungarren urte onetan. Zor zaion omenaldia eginnai izan zaio euskeratzaille azkarrari.

Liburuaren mamiari dagokionez, arestian esan degu zerbait. Euskeratzaillearen lanaz, zer esan? Euskerazko Irizpidea liburu au, orain irurogeita amar urte euskal idazle askoren artean zerabiltzen euskeraren lekuko ikusten dut nik. Eta ori bi aldeta-

tik, gutxienez Gaiaren aldetik eta euskeraren aldetik. Gaiaren aldetik, nolako joera erakusten digun, asieran esan det nolako arrak eta garrak eragiñik zebillen Zinkunegi gaztea, euskera edozein jakintza-maillan erabilteko gai egin bearrez. Zinkunegi'rekin batean Euzko-Deyan bere idazle-asikiñak eman zituen Lizardiren geroago-ko itzez esateko, jakintza-arlo guztiak nai dira euskeraz:

Baiña nik, izkuntza larreakoa,  
nai aunak ere noranaikoa,  
iakite egoek goa,  
adiña zar, berri gogoa.

Izkuntza lerrokoa, landu gabea dela euskera? Axular ezkerro, ainbat aldiz esan izan dana esan beariko degu: Landu gabea izate ori ez dala izan euskeraren errua, euskaldunena baizik. Norbere alperkeria zuritzeko, errua besteei egozte gaugarik errezena da. Monzonek ondo ikusi eta esan zenez, elizgizonez besterik bada euskaldunen artean, euskerak gutxi landua izanaren errudun danik. Zinkunegik ere ongi ikusi eta aitortu zuen euskaldun eskolatu askoren zabarkeria. Eta pekatu ori garbitzeko, lanean jarri zan bera berez zuen arloa lantzen, gorputzaren gaitzaz sendabideak euskeraz ematen. Eta gorputzarenak bakarrik ez, gogoaren gaitzak sendatzeko lanetan ere sartuko da, au ere ez baita goi-eskoladun baten arlotik kanpo gelditzen dana. Eta ez du naikoa izan besteai bidea erakustea; bera egin da bere irakatsien jarraitzaile eta egille. Osalariak gure ariean euskera lantzen geien nabarmendu diranak izan ba dira be, Zinkunegi jauna bide orretan eredu izan dala argi dago; egille eta eragille, bide erakusle eta zuzpertzaille. Ori, gaiaren aldetik.

Euskeraren aldetik, Zinkunegiren lanak garai artako giroa erakusten du. Esan bearrik ez, orduko joera eta giroa euskera garbizaleena zala. Idazleak euskera garbi eta jatorra nai dute, eta itz berririk bear dutenean, nekez joko dute inguruko erderetara. Al dutela, euskeraren beraren erroetara dijoaz, itz berriak sortzeko. Ori da Zinkunegi joera ere. Ortara jo du euskera gaurkotu eta jakintza —maillakotu bearrez. Kezkarik agertzen du noizik bein, okerreko bidea artu ez ote duen, laster ikusiko degunez Baiña esan dan bidea artu duela ez dago zalantzarik.

Gaur badakigu beste joera bat sortu dala eta indar artzen ari dala: euskera kulto eta urbanoaren joera. Joera au, nik uste, nolabait aldi guztietako euskal idazleena izan dala. Baiña bakoitzak ori lortzeko zein eta zelako bidea artzen duen, or da batzuen eta besteen arteko aldea. Esaterako, joan dan mendeko idazle batzuk euskera landua eta baserri-kutsu gitxiagokoa egiteko Larramendiren Iztegiara jo eta Iztegi artako itzez josten zuten idazten zutena. Zinkunegi'ren egunak orduko ikusi zan bide orren okerra. Larramendiren Iztegi itz asko Larramendik asmatuak ziran, eta ala-ola asmatuak gaiñera. Ori ikusita, joan dan mendearen azkenerako, euskal kutsu geiagoko itzak, itz berriak sortzen saiatuko dira iztegi gille eta idazle asko. Gaur beste giro batek gaiña artu bear duela dirudi. Inguruko izkuntza eta iztegi guztietatik artuta, inguruko erdera guztien itzak txertatu nai dizkiogu euskerari. Eta askotan erderarik garbienekoak ere ez, bai erdal-gaiztozkoak. Olaxe nai degu euskera aberastu, kultotu, modernotu, urbanotu. Eta askotan geure geureak ditugun itz eta esatera asko baztertu, gaizki ulertutako erdal-itz eta erdal-gaiztoz aberastu, jatortu eta gaurkotu nai dogu euskera. Egunkarietan eta kaleetan irakurten diran ainbat lan eta txartel lekuko. Noiz sartu bear ote gera zentzun obeko bideetan?

Zinkunegi berak, oar batean irakurleari autortzen zionez, Balmesen liburua euskerari saiatu bear izan du. Korapillo ori askatzeko, erdal-itza bera artu zezakela dio; orixe egin eta kito. Ala sortutako itzak ez-ezagunak izango dirala? Baiña beste izkuntzetan ere ez ote da berdin gertatzen? Jakintza-gaietan erabiltzen diran itzak azaldu eta



argitu bearra izaten omen dute ongi ulertzeko. Eta Zinkunegik bertan eman du erabili dituen itz batzuen argibidea eta azalpena. Ez dauzka berak akats gabekotzat eta apalik autortu du obeak agertu arteraño baizik ez dituela erabiliko. Urrengo batean beste itz-berri zerrrenda bat dakar eta berdin dio: berak sortuak dirala-ta, jakintsuagoak besterik erabagi artean erabiliko dituela.

Itz batzuk, orraitio, ez det esango gaizki asmatu eta egokitu dituenik. Esateko, gauzaldeko, objetivo esateko eta norberaldeko, subjektivo adierazteko. Beste batzuk, nola nai ere, jakintsuagoen eskuetan uzten ditu. Eta apaltasun au eskertzekoa da. Itz berrien gorabera orretan, ez dago bera bere iritziak ñori ere gainetik ezartzera. Orren apalik datorren oni eta lenengo aldiz itzul saioetan sartu zen oni, nork egingo dio kritika gogorrik?

Zinkunegik, beretik ari danean, euskera argi, ulerterraz eta ixuri onekoa du. Oraingo lan au gaztetako lana du; eta gaia euskeraz jorratu eta landu gabea duenez, eta euskeratzailea erdal itzei lotuegi ibilli danez, irakurtzeko gogor samarra izango zaio irakurle askori. Nola nai ere, esker onez artzea merezi du artan jarri duen ardura eta euskaldunai eman nai izan dien laguntza.

Euskal-Esnalea aldizkarian lanari azkena eman zionean, Itzultzaileak erantzi zizkion itzekin eman nai diot nere jardunari azkena: "Urte asko dira, amabost edo geiago, Gaztelako goituri batean arratsalde batez, adiskide eta ikaskide batekin egurazten nenbillen. Euzkotarrak biok. Nere lagunak ez ekian euskerarik... Bera euskera ikastera zirikatu nairik asi nintzan. Alako batean, bion adiskide zan beste euskera ez ekian, baiña ikasten gogor ziarduan euskotar bat jarri nion eredutzat. Nere laguntza eskiñi nion. Amaika gogarpen egin nizkion. Guztiak alperrik. Nik zenbat ate, ark ainbeste maratilla. Ari ta ari, nardaberako esan zidan berak euskera ikasiko zuala, baiña Kimistia eta Osakiztia eta beste orrelako yakidi-idaztiak euskeraz idatziko diranean. Bere apeta ulertu nuan... Ordura baiña len eta ordu ezkeroztik orrelako ergelkeriak entzun izan ditut bein baiña geiagotan. Ez det orde a inbesteko miñik artu eta min ura izan zan orain bukatu dutan lan onen yatorria. Ordutixe artu nuan yakidi gairen batetzaz idazteko asmoa, orrelako argalkeriai itzez baiña egiñez erantzutea euskerarentzat obaritsuago izango zala iritzita.

Geroztik yakidi batzuetako gaietzazko idazkiak or-emen argitaldu ditut. Orrekin ez nintzan asebetetzen orde. Eta lan sakon, eder eta onuragarri bat yo nuan begiz. Bein baiña geiagotan atsegiñez eta onuraz irakurritako El Criterio, Balmes jakintsu andiaren lan ospatsua, yakintsu batek zuzenki "gogoaren zuzenbide egiazkoa" deitu ziona... Bera euskeraz yartzera izango zan ergel aientzat erantzunik onena, nere ustez...

Orain bukatutako IRIZPIDEA au argitaltzen asi nintzan ezkeroko askok galdetu izan ditare, artu nuan lan onen zergatia: idatzitako lerroak izan bitez aiei eta beste guztiak erantzuteko. Euskeratze au ain aldin aundikoa ez dala ta akats asko ta ugari dauz kala bai dakit. Baiña beste irabazirik ezean, tarteka, artu-utzika, beste lan askoren artean, nere yolas-orduai zatitxo bat kenduaz, gure euskera kutunari biotz biotzez egindako opari txatxarrena izango da beintzat".

Ager dezaiozun guk Errezilen egiten diogun omenaldi onetan, euskerari opari au egin nai izan dion errezildar langilleari geure esker on tazintzoena.

**Lino Akesolo**



# LAUAXETA'REN ASMUA OLERKIAK BURUTZEAN

"Izkuntza baztertu onetan be gauza asko esan geinkezala azaldu gura izan dot" (Azalpenak, 119). Idea bardiña Bide Barrijak bildumari erantsi eutson "Uarrean". Aberriagaitik argitaratzen ditu. Eta bere eritzia: "gaztaroko neurtitzok eztira sakonak, eztira gurenak, gauza guren eta sakonik gastaruan eztalako egiten. Geruago Aberri-jari yagokozan naurtitzak egingo dodaz" (ikus Olerki guztiak, 168). "Bide Barrijak baderitxot, ez da izkuntzagaitik, geiagogaitik baiño. Orainarte erabilli ez diran gaiak diralako geure liburuan" (Azalpenak, 121). Eta ez dau uste Frantziko azken-azkenengo poeta barrizaleen antzera idazten dauanik: "France'n gaurkoetan Valery, Claudel, Gide, Cocteau'ren antzik iñondik ez. Leenago parnasiano esanak, neure gogokide, bearbada (129).

Arrats-beran asmu bardiña: "Gaurko egunez Europa'ko letretan lantzen dabezan olerki motak geure ele onetan biribildu" (Azalpenak 160). Baiña argitara emotea bere buruagazko burruka luzea kostau jako. Bere elerti-senak eta arrokeriak ezetz, "barruko ixurpen oneintzat ezpaitago azal ederrik"; eta ganera "Elerti-zale nazan onek ziarke-ri ta pirtxilleritzat daukodaz olertijok" (Arrats-beran, "Aurre-itza"). Baiña Aberri maitasunak irabazi dau.

Bide Barrijak argitaratu ebanean, Aberri-olerkiak burutzea eban asmuan. Bere berbetatik laster egitekoa zala ataraten da. Eta liburu atako azkenengo olerkia, Itxasora!, aberri olerkia da gaien eta tonoen. Ostera, agirian beintzat (kazetaritza lanaren ganera) ume-alegiak eta Arrats-beran liburuan ageriuko ziranak idatzi ebazan olerki-arloan. Baiña Kortazar'ek jakin aal izan dau gerra aurretuan Roncesvalles (ez daki-gu erderazko ala euskerazko izenez) poema irakurri eutsolakoa lagun baten (epikoa zala diño Kortazar'ek) (Lauaxetaren olerkigintzaren ardatzak, 1. c., 82 or. eta oarra).

"Topa baten ostean" olerkiaren ondoren oar au jarri eban: "Elade edo erromatarren arauz egiñak diran olerki oneikaz idaztiñoa argitaratuko dau egilleak". "Era edo mueta askotariko olerkiak egin daitekezala egilleak adirazo nai leuke" (Olerkiak 1974, 172 or.). Asmuan eukan liburuari buruz illebate batzuk leenago (1935) "Idazti-antzo" Jautarkol'eri erantzunean: "Irugarren bertso idazia laster argitalduko dot". "Ogei olerki idazti itxi gura neukez" (Olerki guztiak, 496 or.). Baiña "liburu ori ezta jente xeearentzat egiña" (Olerkiak 1974, 172 or.). Azkenengo oar berbera Arrats-beran liburuari buruz aipaturiko "idazki-antzo" lanean: "Neure olerkiak eztira erri-arentzat egiñak, gitxiago literato ixun askorentzat" (Olerki guztiak, 495 or.).

Azken esaldi onek orduan bizi ebilan polemikara garoaz. Gai onetaz irakurri J. Kortazar: Gerra aurreko giro literarioa, Jakin, 29 (1983), 6-15 or.; L. Otaegi: Aitzolen projektu kulturalaz, Jakin, 29 (1983) 18-25 or. Auzia laburtuz esan daigun era bitako polemika izan zala: bata euskereari buruz, bestea poetikari buruz. Erlazionata dagoz, jakiña, baiña ez ziran gauza berbera. Esate baterako, Orixe ez zan Lauaxeta'ren poetikaren zale, baiña izkuntzan barrizaleen artean zan (eta poetikan bere bai, baiña beste bide batetik: bere "klasikuen" bidetik). Izkuntzari jagokonez, euskera errikoia,

bizia, eta euskera garbizalea (eta orrela erriagandik urrindua) ebiltzan burrukan. Poetikan, batzuk aurreko euskal olerkarien egikera, bertsolaritza ur, bertso erre-zak, oizko gaiak nai ebezan. Poetika barria, ostera, Euskalerriko poesigintza beste naziñoetako mailla jantzi ta modernora jaso gura ebenak defenditzen eben. Lauaxeta'k poetika barriaren alde olan diño: "Eskribatzaillak batzuk dira, beste batzuk "literatoak". Aldakuntza andiak dira bioen artean. Idazlearen lana erriarentzat dan ezker, erriarentzak idatzi bear dau... Olerkariak literaturarako ei dauz... Dante'ren poema ederra ertiak irakurten dau? Bai zera! Goethe'ren lanak edonork irakurri ete dagikez? Ezin ba..." (J. Kortazar: Gerra aurreko giro literarioa, 1. c., 11 or.). Errezkeria zapuztutzen dau: "Euskerazko olerkiak gaitz edo akats bat dute: erreztasunaren kaltea. Milla itz bulko bat azaltzeko. Gero konsonanteak egiteko erreztasuna delako, bertso bat eta bertso bi, mamin gabeko olerki" (Asalpenak, 156).

Aitzol 1933 garrenetik aurrera erriagandik ur dagoan izkuntza ta poetikaren alde jarri zan: (Koplak) "irakurri utsaz eta entzun utsaz errex aditzen dira. Eta onelako olerkiak bear ditugu. Irakurleak eta euskaltzaleak gere bertso zail eta idazlan ezin entendizkoaz aspertu ditugu. Geok ere, idazleak, aizkenaz nekatzen ari gara. Inor mintzeagatik ez diot. Neroni naiz erruduna. Baña guztiak bide txarra utzi eta bide onera jo dezagun... Ongarri baño txarkeri geiago euskerari egiten diogu.

Guztiok euskera maite degu. Gure elburua euskera piztutzea da. (El día 1933-2-12: L. Otaegi, Aitzolen projektu kulturalaz, 1. c., 22 or.).

Izkuntza arazoari buruz, orduan, eta ia geure egunetararte, idatzi zan lanik zabal eta sakonena Severo Altube'rena izan zan: La vida del euskera, "Euskera", 1933, 299-397 or.). Erriaren euskera biziaren aldeko lan realista eta bikaiña.

Lauaxeta'k eta kidekoak aurrekoen poesigintza be estimaten eben (eta ikusi dogu bertsolaritza be bultzatu gura ebal), baiña poesigintza barriaren bearrizana ta izatea defenditzen ebezan. Eta izkuntzan be euskera garbia. Errazoi osoa eben poetika aldetik euren jokera orokorrean. Baekien euren olerkigintza ez zala beste barik erri guztierentzat, beste izkuntzetan be jazoten dan lez (eta arte guztietan). Baiña euren uestez euren erako olerkia be azken baten erriaren gora ta dedurako zan. Eta egia da. Alan be, poetika aldetik eta izkuntza aldetik mugak daukez. Gogorregiak eta ez berezko dira batzuetan euren olerkiak.

Aitzol'en ardurea euskerea sendotu ta zabaltzea zan, eta guztiz zuzen ebillan idazleen eta erriaren artean troka aundiegia egoala eta olako idatziak ez ebela benetan euskera sendotzen esatean. Baiña era askotako idazleen artean, olerkari moderno-en eskubidea eta berrizana be autortzen jarraitu bear zan. (Olerkariak buruz, ona Orixe'ren testigantza: "Lizardi ta Jaka-Kortajarena ta ni ez ginduzan bere deboziño-koak. Lauaxeta, Jauregi, Tapia-Perurena zituzan bere kutunenak"-S. Onaindia: Eskutitzak, Bilbao 1974, 24 or. (1953-XII-12).

Lauaxeta'ren esanetan, eta bere olerkiak aztertuta, au daukagu: olerkiakaz euske-rearen aalmena erakutsi gura ebal. Eta bein era batekoak probaten ditu, bein beste-koak. Europa'ko orduko eta leenagoko erak. umeentzako alegiak. Gero Elade eta erromatarren erakoak; eta orrela ogei bat liburu osotu bear dituala diñosku aurretizik. Asmu onek ez ete dira boluntarismo, trebetasun eta bertso-joko, eta ez ainbeste goi-argi ta berezkotasun?

Beste aldetik, olerkien euren egia eta Lauaxeta'ren autorkuntza daukaguz. Bide Barr jak liburuaren azken "Uarrean" olan idazten dausku: "Or-an entzun eta ikasi dodazan gogai batzuk neure bijotzaren barnetik euzkeralduta agertu dodaz". Biotzaren barnetik. Arrats-beran bildumaren "Aurre-itzean" olan diño: "Ludi onen bestaldez loratzen diran landaraen usañak goxalde bakotxak dakarkidaz. Auxe da neure sakona! Bestiak entzuten eztaben egal-otsa neure gelara yatorrt eta barneko zugatz oneitatik txorijak aidatu ziranarren, abar-dardarea ezta amaitu". Ez aaztuteko leen leku beretik aitatu doguzanak: "barruko ixurpen oneintzat ezpaitago azal ederrrik".

Arazoa izan leiteke texto era bi onen artean, baiña ez da kontraesanik. Bere olerkiak be mailla diferentetakoak dira, alegi bertsoetatik asita (onek benetan olerkiak izan be ez dira). Ezbardiñak orizontalean eta sakonean. Orizontalean diferente diran eder-gaiak era ezbardiñak eskatu leikeez, eta aukera andia itzi olerkariari. Sakonean ezbardiña izateak gai bardiña zelako berarizko goi-bero ta argiz ikusi eta sentitzen dan esan gura dau: poesibizikuntzarik sakonenekaz ezin lei literatura jokorik egin, goi-beroak eskatzen dauan era egokia billatu baiño. Onen antzekorik badiño Lauaxeta'k berak: batzutan klasikuen eskolara doa, beste bein Heine'ren eskolara, edo Valery eta parnasoanoai agur egitera: "gogoa zelan, kutsu alan. Gaur alai ta barre egiten dot, biar itun eta negar. Egunari berea" (*Asalpenak*, 136).

Lauaxeta'k literatura erak, baliapideak, jantziak bereganatzeko erreztasun berebikozkoa erakusten dau. Bere irudimen eta belarrian biurkoi, malgu, aldakor agertzen da. Olerkigintza oso aberatsa burutzeko doaiak. Baiña erreztasun-doai orretan bada arriskurik, geroago eta era liraiñagoetan eta bakanetan saiatzeko arriskua, benetako norberaren poesi-deia lausotuz.

**Luis Arostegi**

#### ATETAN NAGO

("Lauaxeta"k Gasteiz'ko espetxean, il aurrean idatzitako olerkia)

Goizero zagoz nere atetan;  
oi ots goxoa biotz muñetan!  
Iretzat ditu Jainkoak  
goiz neskatxaren usoak?

Egun sentia baño lenago  
nere txaki au dirdiraz dago.  
Norbaiten begi niniak  
antz artzen ditu argiak.

Baña ots meia, zer nai didazu?  
—Ixil, enetxo, Jauna nazazu.  
Adats ederrok intzetan  
maite-min nabil atetan.

Lotan ziñala zure ortuan  
belar ta zugatz busti nituan.  
Ikusi euren ederra,  
zurez dute, ba, eskerra.

Zut nadin, Jauna, didar goxora  
eta zut nagon zure mintzora!  
Ostro-tartez, ixil-ixil,  
zure ats xamurra bebil.

Betarte orrein pake argira  
ibar ta landa edertu dira.  
Oin garbi orrein urratsak  
joranez ditu loratzak.

—Enetxo, zabal zure atea  
ta izanen dezu eder betea.  
Landan baño garbiago  
eder au barnetan dago.

Sar zaitte, Jauna, etxe-barnera,  
poza dator, ba, Zugaz batera.  
Eta zure Arnas deunak  
bete begiz biotz-muñak.

(1937)



# EUSKERAZKO IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN



Garai artan gure Euskalerrriaren mendi-aranetan jendearen aberastasuna zerk osotzen zuanaren berri ere ematen digu larruki onek, bi anaiak Taranko'n eraikitako santutegia "cum omnia que ganavimus et augmentare potuimus ("irabazi eta geiagotu dugun guziz") ornitu zutela, esaten bait digute: "Id est", "au da": zaldiak ("cavillos", "v"z eta "l" bakarrez Portugal'en bezala aoskatuaz), beiak ("baccis", ablatibuz eta "b" kin), astoak "iumenta") ardiak ("o'ses"), auntzak ("capra"), zerriak ("porcis" ablatibuz berriro besteak akusatibuz daudela), oge eta oge-oialak ("lectuaria"), soñekoak ("vestimenta"), kasullak, liburuak, kalizak, zillarrezko, tupikizko eta zurezko ontziak ("vasa argentea et aerea et lignea").

Oietxek izango ziran Euskalerrriko beste basterretan ere, gure jendearen aberastasuna eratzen zuten gaiak.

VIII mendea ez da oraindik erromes edo peregrinazio aundien aroa. Alare Euskalerrriari santutegietara erromes ibiltzeko oitura ba'zuala orduan ere jendeak, erakusten digu gure larrukiak eta baita erromes eta beste arrotzek alkarrekin komunitatean bizitzekoa ere.

**Euskalerrriko bizieraz bi gauzatxo erakusten dizkugu gure larrukiak:**

—Naiz VIII mendea erromes edo peregrinazio aundien denbora izan ez, emen atsegin zitzaiela euskaldunei erromes ibiltzea.

—Arotzak ere santutegietara biltzen zirala eta an bertako eleizgizonekin komunitatean bizitzen zirala. Santutegiak eta lekaidetxeak zirala orduango otelak, alegia, eta an, arrotzak lekaide bizitza egiten zutela, otoizketan eta baita alorreko lanetan ere seguruaski. Ori izango zan bertan jan eta lo-egiteagaitik ordaintzen zuten saria.

Ikus nola mintzatzen zaizkigun ulertzeko izkera sail eta naasian, Vitulus eta Erbigiuz anaiak: Beraiek diotenez, "ut sint in auxilium servis Dei et peregrinorum vel ospitum qui is viverint comuniter cum illis vivant", euskeraz: "Jainkoaren serbitzarien onerako, eta, emen bizi diran artean aiekin gorputz bat egiñik biziko diran erromes eta arrotzen onerako" egin omen zituztela egin zituzten gauza guztiak, dioskute.

Beraientzako Vitulus eta Erbigiuz anaiak, eginkizun aietan beren aberastasunak ("hereditates") oro utzi izatearen truke, urtean iru meza eskatzen dizkiete bertan biziko diranei: "ut omni anno tribus vicibus non desistant missas cantare". (1)

Ortografiari dagokionez oar bat: "MIHI" ("ni" esan nai duan "EGO"ren datibua idaztean) "CH" ipintzen duala larruki onek beti "H" ren ordeaz. maiz egiten zuten ori beste lumalari zarrek ere. "MIHI" itzean ordeaz, "K" aoskatzen zuten "H" a. Eta "CH" ere, beti-beti, "K" bait zan aientzat, errez ikusi dezakegu, lumalari aiek "H" eta "K" errez bata-bestearekin nasten zituztela, naiz azkeneko soñu au batzuetan "CH" eta beste batzuetan "K", "C", edo "O" erabiliaz adierazi. Izango ditugu orrelako idazkerak aurkezteko egokitasunak erdiaroko idaztien ikerketa egiten jarraitzen dugun neurrian.

Aski bezaigu gaurkoz, "H" a erabiltzeko orixe zala lumalari zar aien arrazoietakoa bat. Onatx gaur ikusi ditugun bi arrazoiak:

Aurrenekoa: Gure "Ñ"ren soñua emateko "N"ren atzetik "H" a jartzea. Mintzatu gera ortaz, idazlan ontako lenengo dokumentua aztertzerakoan.

Bigarrena: Oraintxe esan dugun bezala, gure "K" adierazteko ere "H" a erabiltzen zutela maiz.

Aipa dezagun beste arrazoi bat ere, danetan garrantzitsuena: Orduango arauziurren falta. Orrelako araurik ez zutelako gogoak ematen zien bezala dantzatzaren zuten "H" toki batetik bestera. Ala, maiz aski ikusi aal izango dugu, larruki auek aztertuaz goazela, larruki bat berean itz ber-bera "H"z idatzia orain eta "H"rik gabe lerro bat edo bi geroago.

—Ba zituzten beste arrazoi batzuk ere, gure gaurko beste izki batzuen ota idatzinaian ere, erabiltzen bait zuten "H" a, azalduko dugun lez.

Aoskatu ordea, emen ez da sekulan "H" rik aoskatu. Ori, batere ezpairik gabe olesutu dezakegun gauza da. Orregaitik, izugarritzko txatxukeria eta oker gaitz aundia egin ditugu izkuntzaren aurka Euskaltzaindiak "H"ren bearrrik ez genduan eta "H" rik nai ez genduan euskaldunoi "H" a indarrez artuarazi nai izan digunean. Bizirik erio-zori beltzetik irtetzeko eta bizirik jarraitzeko, erreztasun guztiak aski ez zituan euskerak ez zuan orrelako ateka gaizto eta zailtasun bearrrik.

.....

"Regnante principe Aldefonso in Obeto" izenpetzen digute bi anaiek larruki au: "Alfontso printzipea Obiedo'n errege dala".

Alfontso ori, Asturietako II Alfontso dugu, Fruela I'aren semea. Euskalduna zuan ama; Fruela'k emen katigu arrapatuta, gero, bere emazte egin zuan Munnia izeneko neskatx ura. Entzun nola ematen digun III Alfontso'ren "Kronika"k gertazin aren berri. "Fruela... Uascones reuelantes superauit. Huxorempe sibi Munniam, bomine (cepit?), exinde unde eta filium Adefonsum genuit", "Rotense" idaztitan. ("Fruela'k... euskaldun borrokalariai garaitu zituan; eta Munnia izeneko emaztea aien artetik ariu; onengandik izan zuan Alfontso bere semea").

Ovetense" idaztiak zabaltzen digu pixka bat albiste medar ori: "Vascones rebellantes superauit atque edomuit. Muniam quandam adulescentulam ex Casconum praeda sibi seruari praeciens, postea eam in regali coniugio copulauit, ez qua filium Adefonsum suscepit". Euskeraz: "Garaitu eta menderatu zituan biurri jeiki zitzaizkion euskaldunak. Euskaldunei arrapatutakoetatik Munia zeritzan neskatil bat beretzat gordetzeko agindu zuan; gero errege-ekontzaz bere emazte egin zuan neskatil ura eta aregandik seme-izan zuan Alfontso". (2)

Len, Nonna Bella abatemearen idatzia aurkezterakoan, an Fruela onen izena aurkitzea, arrigarri egiten zitzaigula esan dugu. Ta orain? Zer esan orain 41 urte geroago aren semearen izena, II Alfontso'ren izena, beste larruki ontan aurkitzean?

Egin ote ziran pakeak berrogei urte oietan euskaldunen eta asturitarren artean? Ez; borrokan jarraitzen zuten, eta ala jarraituko zuten geroago ere.

Ez ote zeukaten une ura ezker bisigotatzat asturitarrek beren burua? Bai! Eun urte geroago ere, bisigotak esaten die bere "Kronika"n III Alfontso'k Asturietako erregei.

Iruña'n oraindik erregerik izan ez-ta, beren larrukia garrantziz eta apaintasunez ornitzeko ezarri ote zuten bertan Vitulus eta Erbigius anaiek asturitarren Erregearen izena?

Errege ura Munia bere amaren aldetik euskalduna izateak bultzatzen ote zituan idazkian aren izena erabiltzera?

Izan ere, Errege ura erdi-euskalduna zan. Autrigoia seguruaski, austrigoia izango bait zan bere ama ere. Fruela karistiarren edo bardulitarren lurretara iritxi zanik ez du ba inork pentsatu ere egiten. Autrigoiak ziren noski Vitulus eta Erbigius ere: Mena'koak edo Mena'ren ingurukoak, eta angoa, Mena'koa edo Mena'ren ingurukoa, errez izan

zitekean Munnia, errege onen ama bera. Ia-ia errikide zuten beraz Vitulus eta Erbigio'k Alfontso II'a. Orregaitik ipiñi ote zuten aiek onen izena? (3)

—Edo ta ...an, Autrignonian, Euskalerrriaren sarkaldean... bai ote zuten asturiarrek beren mendeko lur-zati bar?

Orduango euskaldunek ezer idatzirik laga ez zigutelako, gure etsai amorratu bisigotek utzi zigutena beste biderik ez dugu garai artako gertakizunak jakiteko: gutxi, eta oso-osoan sinistu ez daitekeana. Etsaiek esandakoari fede geiegirik ez zaiola eman bear, edestizti edo istoriofragiaren legea bait da. Ori dala-ta, orduango gertakizunei-buruz egi osoa jakin gabe gelditu bearko dugu beti.

Alatagutziz, an, asturitarrek beren aiña ipini zutela dirudi. ("Dirudiala" diot, euskaldunen aldetiko albisterik ez bait dugu). Gaiñera emen oiña ipini ba'zuten ere, noiztik, noiz arte, eta zenbait aiñako zabaleran... ez dizu iñork esango.

Alfontso I'a, euskaldunen aurka gudan sartu zanean, ez zan lurralde artan ibilli, Euskalerrriaren egoaldean baizik, Errioxa'n eta Bureba'n. (4). Fruela aurka altxa zitzaizkion euskaldunak zapaltzera etorri zala esatean ez du ezer ziurrik adierazten, ori bera egi-ten bait zuten erdiaroa asi ezkeru bisigoten erregeak ere, naiz sekulan Euskalerritik menderatu ez.

Gauzak orrela, bisigotak jausita gero, egiaz menderatu ote zuten asturitarrek Euskalerrriaren puskarren bat?

—Alde batetik ezetz dirudi; eta ara zergaitik: Fruela ilda, aren semea, gure II Alfontso au, Mauregatok erregetza leputu ziolako, Euskalerrira, bere amaren errira, etorri zan babes eskierraren billa, eta emen egon zan, arriskurik gabe pakean.

Mauregato errege lapurra zalarik, agintaritzan eskier ez zala egongo-ta, agian orregaitik ez ziola, egiazko errege iges-egiñaren billa, Euskalerriri erasoko? Baleike; baiña ori egia balitz eta asturitarrek Euskalerrrian zati bat ebatsi izan ba'lute Asturietako erregetza eskiertasunik gabe zegoan une ura izango zan euskaldunek izkilluen bidez ostera beren lurak berenganatzeko adiunerik egokiena. Orrelako eusko-eraso baten azternik ordea ez da edesti zarretan ageri.

—Beste aldetik ordea, 804'gn urteko Abenduaren 21'ean, gure II Alfontso erdi-euskaldun onek eta Jon zeritzan gotzai batek Gobiaran'go "Vallis Posita" gotzai-uri egin ziguten-da... uste izatekoa da aldi artan beintzat gure sarkaldeko lurretan Asturietako Erregeak nolabait eskuu bazuala. Noiztik, nolako baldintzetan eta nondik-noraiño, iñork askatuko ez dizkizun korapilloak dira.

.....

Garrantzi aundiko xedea da edestiarentzat larruki zarrak egin oi dituzten Doneen-aipaketak. Ona, larruki onek damaizkigunak:

DONEZTEBE.— Eliz osoan betidanik ospatu izan dan Donea dalako, ez digu bere aipuak ezer erakusten.

DONEROMAN.— Ez da Done onenak ere, au ere eliz osoan, sarkaldean beintzat, ondo ezagutua bait zan.

EMETER eta ZELEDON Doneak. Euskaldunak seguruaski biak; edo ta beintzat, Euskalerriko Kalagurri'n beren bizia Kristoren ziñopa eman zutenak. Ez digute auek ere ezer aundirik erakusten, bi Done auen eraspena, Euskalerritik at arras zabaldu bait zan gure inguruko Eliza-baitan.

DONEMARTIN.— Au bai, au txit arduragarri dugun Donea da. Eta ona zergaitik:

Martin Donea, Turena'ko Gotzai izan zan VI mendearen zatian, eta Galieta bizi izan zan beti, naiz jaiotzez Panoni, gaurko Ungari'ko semea izan. Bera ilda bereala etorri bait ziran sarkaldera iparraldeko barbaritarrak, aren izena ez zan Españi'ko lurretan ezaguna. Done Jakoba'ren Konpostela'ra zetozan erromesek ekarri zuten Españi'ra Donemartin'en izena eta arenganako jaiera. Konpostela'runtzko erromesketa ordea, asko geroagokoa da, XI, XII eta andik onuntzko mendeetakoa.

Eundaka urte, leenago beraz, ondo ezaguna eta omendua zan emen Turena'ko Donemartin. Ain omendua ere! Ain done gutxi aipatzen dituan larruki ontan, bere ize-

na... aurkitzen bait dugu! Geiago oraindik, 800'gn urtean egiten dute Vitulus eta Erbi-gius anaiek aren aipua, eta gaiñera, Donemariñen eliza lurjota aurkitu zutela esaten digute, eta eliz ura beraiek bir-jaso zutela. Zarra zan ordurako, ikusi dezakegunez, euskaldunek Donemartiñeri zioten eraspenna. Baita Turena'tik urrutien zeuden bazterretan ere. Gaur Burgoskoak diran mendi-aranetan-Taranko'n, Mena'n, Billarkaio'n--, adibidez. (5)

Zer esan nai digu onek?

Aro zarrean euskaldunoi, egotik gora baiño iparretik beera geiago etorri zitzaigu-la kristautasuna. Edo beintzat, gutxienez, beitik gorakoa aña izan zala goitik beerako igikunde.

800'garren urtean lur-jota dakusgu gure Sarkaldean Martin Deunaren Eliza. Noiz eraiki ote zuten ba Turena'ko Gotzai Donearen omenez, euskaldunek, orduan jausirik zegoan eliz ura? Eun urte leenago, VII mendearen azken aroan? Berreun urte leenago, VI mendean? Baiña... VI mendearen atarian il zan Done martin Turena'n, 397'garren urtean!

Garona Ibaiaren lurretan zegoan aldi zaar arian Euskalerraren Iparreko muga. Ez da Turena andik urruti gelditzen. Orregaitik, agian, ain errez ezagutu eta ain azkar onartu ote zuten euskaldunek Donemartiñenganako eraspenna? Orregaitik iritzi ote zan ain arin gure txokorik izkutuenetaraiño arenganako jaiera?

Danadala, esan dugun lez emen kristautasunaren eta kulturaren bideak egoaldetik gorakoak ez baiñan iparraldetik beerakoak izan ziralako, ez digu Vitulus eta Erbigivas anaien larrukiak Bisigot-Elizako Donerik aipatzen. Ori... bisogoten Jaurerria jausi ta !a mende oso bat geroago!

Bi erakuspide atera dezakegu ez-aipatze oriatik:

Aurrenekoa: Leenago Toledo'k bisigotengandik izan ez zanbezela, orain ere, aien oiñordeko ziran Obiedo'ko asturiarrengandik, ez zala Euskalerrira kultur-etorririk izan. Euskalerrira kultura Iparretik etorri zala, geienbat, erdiaroan.

Bigarrena: esan dugun guztiaren ondorio bezala, esan dezakegula ezpairik gabe, emen ez zutela, ez bisigotek ez asturiarrek, erabateko oin sendorik sekulan ipiñi.

## **Latiegi'tar Bixente**

*(1) Maiz ari gera idazlan ontan Asturias aipatzen. Bai al dakizu Ondarrabi'ko kaiak ASTURIAGA duala izen? ASTURIA euskal jatorrizko izena ote dugu? Ez eidazu erantzun Asturiak urrutiegi dauzkagula aien izena jatorriz euskerazkoa izateko, bata bestearrengandik oso berlan egonak ditugu-ta Asturia eta Euskalerrria; antziña artan bi "Asturi" bereizten bait zituzten españiarrek: Sarkaldeko Asturia ("Las Asturias de Oviedo") eta Sorkaldekoa ("Las Asturias de Santillana") gaurko Santander'en. Auzokoak ziran, beraz, Asturia eta Euskalerrria. Ez, arren, gaiñera aztu, Asturiarekin mugatzen zuan Euskalerrriaren zatiari Autrigonia edo AUSTRIGONIA esaten ziotela erromatarrek, eta "austrigones" edo "autrigones" euskal-leñu artako jendeei. AST-URI. Zalantzarik gabe, atzizkia beintzat euskalduna du izen orrek. Aurreizkia? AST?*

*ASTURITZAGA, Araba'ko Arkaia'n alor baten izena da, eta ASTURI AZAGA eta ASTUNI ta ASTUNIZAGA, euskal abizenak Araba'n.*

*(2)Araurik ez zutela eta idazle zar aiek "H" a nai zuten bezela erabiltzen zutela esan dugu. Orra or "UXOR" ("emazte" lateraz) sekulan "H"rik izan ez duan itza "H"z idatzia. "Kronika"tik jaso ditugun itzak, Ubieto'ren aipatutako argitalpenean 41 eta 42 orrietan daude.*

*(3)Baleike II Alfonsot an nunbait bizita izatea ere Mauregato'rengandik igesi, "amagandiko aidean artean babes aurkitzeko, Araba'ra etorri zanean". 'Alabam petiit, propinquisque matris suae se contulit' "Rotense idazkiak"; "a regno deiectus apud propinquos matris suae in Alabam commoratus est" "Ovetense" k. ("Kronika" 44-45 or.).*



(4)—Bai noski, badakit III Alfontso'ren "Kronika" zer dion: "eo tempore populantur... Subporta, Carranza..." Ots, aldi artan, 1 Alfontso'ren aldian (739-757), jendez ornitu zirala "Sopuerta eta Carranza"; baiña orrek ez du ezer garbirik erakusten. Ikus zergaitik.

—Bi erri oiek, Estornes Lasa'k usmatzen duan lez, Bizkai'ren sorkaldean ezagutzen ditugun bi erriak ez izatea baleikelako.

—1 Alfontso'k erregetza artu zuanean, 739'an, Bizkai'ko sarkaldea jenderik gabe utsik egotea itxurik ez duan gauza dalako. Ogei urtetan ez zuten arabitarrek Enkarterrietara iritxi ta ango jendea ikaraz igesi ipintzeko astirik izan. Bizkai'ko eta Enkarterrialdeko lurretara, gaiñera, arabitarrak ez ziran sekulan urbildu, eta ango jendeak ez zuen beiñere arabitarren bildurrik izan. Errioxa'n, Bureba'n, eta "Al Kile" aietan ezpataz Euskalerrriaren ego-sarkaldeko ateak arabitarrei isten zizkieten arabar gudari trebeei zor diete bizkaitarrek orduango lasaitasun ura.

—Agian orregaitik, "Kronika"k ez diosku erri oiek **nok** jendez ornitu zituan, jende aiek nongotarrak ziran eta noren esanera zeuden.

—Ortaz, zalantzarik gabe, jendez ornitze ori dana la bi mende geroago 111 Alfontso'ren bisogotarren arrokerizko erronka ustel bat besterik ez dala esango nuke nik, eta gezurra dala "Sopuerta" ta "Carranza" aipatzean Euskalerriaz ari ba zan beintzat. Eta ala ari zala dirudi.

—Galizi'ko itxasaldea, "Asturias" (Santillana'koak seguruaski, --eta au aipatzean aipatzen ditu "Sopuerta" eta "Carranza"; urbil zeudelako noski), eta Castilla ematen dizkigu orduan jendeztatua bezela, eta ustel usaia dario kontu guztiari. Gezurra da beintzat "Castela"ri buruz diona. VIII mendean eta baita urrengoan ere, asturitarrek ez zuten Gaztela'n eskurik izan; an "Al Kile" etan, dirudianez, arabitarrak ziran borrokan ibili ziranak. Ez beintzat asturitarrek. Ai gure osaba aiek!, zegaitik ez ete ziguten ezer idatzi?

(5) Villarcayo.— Villarcayo? ala Villa-Arkaio? —"Villa" erdera utsa da, bai noski, baiñan "ARKAIO" ori, oso-osoan euskalduna danik, nork ipiñiko du zalantzan? Araba'ren erdi-erdian, Arkaute, Elorriaga, Otazu, Aberasturi, eta Azkartza'ren artean ba'duzu ARKAIA deritzan erri bat.



# EUSKAL IDAZLE BIREN EUNGARREN URTEA

Eun urte beteko zituen aurten euskal idazle emakume andi bik.  
Gure erriaren gorespen eta maitasunaren duin egin ziranak biak.  
Azpeitia'tar Julene, "Arritokieta", eta Mujika'tar Errobustene "Tene".

Zumaiarra bata, debarra bestea.

Biak gaztetatik euskerari lotuak.

Julene, 1920 ordurako agertu zan, eskoletako irakasletza kalera zabalduaz, erri guztierengan urreratzen. Or kaleetan "Osasuna, Merketza ta Yanaritzaz" izendun liburu erakusgarria.

"Tene Mujika, 1923 urtean Euskeltzale Bazkuna'k Zornotza'n eraturako leiaketa batera agertzen ausartzen da bere maitasunez igortzitako idazki eta samurtasuna darioen olerkiekin. Or gero, saria irabazi eta bereala kalean bere liburu: "Miren Itziar'i Idazkiak eta Olerkiak".

Julene 1980'n il zan, eta Bizkai'ko auzo ikastoletan bere lan eraginkorren gain, or utzi zitun "Irakurri maite", "Azeri jauna", "Amandriaren altsoan", "Umien adiskidea" eta abar.

"Tene" 1981'ko Iraila'ren 1'n il zan. Eta or geratu ziran aldizkarietan bere olerkiak, bai eta bere antzerki eta ipuñiak, eurretari batzuk leiaketa ez-berdiñetan sari nausiak irabaziak. Eta beragaitik euskaltzale jator batek esana: "Tene" bezelako amar idazlekin, euskerak eginen du bidea".

EUSKERAZAINTZA'k gogoan euki nai izan ditu euskal idazle ta euskeraren bultzagille izan ziran andre andi biok.



*Róbustiana Múgica, "Tene"*



*Juliana de Azpeitia (Azpeitia'tar Julene)*

# YON OÑATIBIA'REN OROIMENEZ



*Yon Oñatibia "Euzkadi  
Group"en zuzendari zanean*

EUSKERAZAINTZA'ren sortzailetakoa izan zan Oñatibia'tar Yon gure gogoetan bizi da.

Bidezko zan gure aldizkarian bera aipatzea, gure artetik bizi obeagora joan ziran besteena egingo degun bezela.

Oartzun'go endak eskeinitako omenaldian On Manuel Mitxelena apez agurgarriak esandako itzaldia argitaratzen gatoz.

Arritu egingo dira batzuk gure aldizkarian h'dun lana ikustean.

Esan bearreko da Mitxelena jauna laburditarra dala, Endaia'n bere zeregiña dun apaiza, eta gure arauetan h izkia alperrikotzat ikusten ba degu ere, idazleari lotsa gordeten dakigula.

Au dala ta gure Idaztarauetan, idazkera sailleko 12 ataltxoan esaten dana gogoratzen degu:

H izkia:

"Euskaldunik geien-geienok ESATEN edo AOZKATZEN ez dugunez, idatzi ere ez dugu idatziko, baldintza biotan izan ezik:

a) Idaztekotan ere, Ipar-Euskalerriko itz berezietan, aozkatzen dutenean.

b) Idaztekotan ere, erdal-izenetan, abizen, toki-izen e.a."

Adixkideok,

Omenaldi hunen antolatzaileek, Yonek Iparraldean egin-lanari buruz itzaldi labur bat eskatu zidatenean, berehala, zalantzarik gabe, baietz erantzun nien.

Euskaldunberri izan arren eta hunelako itzaldiak egiteko oiturarik ez izan, beren eskaera betetzen saiatuko naiz.

Hori, gainerat, gogotik egingo dutala geitu behar dut. Yon adixkide ona izan baitzen eta ari esker lan sakona eginga naiz. Bestalde nere burasoek, Yon Hendayan ihesle izanik, beren semea bezala onhartzten zuten beti. Beraz, ar-emanak hertsia-hertsia izan ziran gure artean.

Ziur nago zuek ez dakizutela, Yonek Iparraldean zer lan garrantzitsua egin zuen. Omenaldi huntan, lan hortaz mintzatu behar naiz laburki. Yonek Iparraldean eskuaren alde zer egin zuen: nola eta noiz, huna hemen nere itzaldiaren gaia.

Bainan gauzak ongi ulertzeko, hixtoria pixka bat behar da jakin.

Duela hamalau-hamabost urte, Iparraldean ez zen, Hego-aldean bezala, euskararen aldeko zaletasunik. Hiru gau-eskola zeuden: bata Bayonan, bestea Donibanen eta irugarrena Hendayan. Hendayakoa, Haize Garbia deitua, herriko euskaltzaleek eratua zen. Asi-berrian, giristiño eskolako maixu bat asi zen euskara irakasten. Bainan irakasle honek, beste herri bateko maixu izendatua izan zelako, Hendayatik alde egin zuen. Hori, milla bederatzi-ehun eta irurogoi eta bederatzian gertatu zen. Une hartatik, irakaslerik ez zelako, euskara-ikasketak bukatuak izan ziren Haize Garbian.

Orain heldu da Yonen sarrera Iparraldean.

Udako ikastaro "intensiboak"6 antolatu zituen Donostian, Lehen aldiz Euzkadin. Bertara deitu ninduen ni Yonek eta illabete osoa eman nuen lan hortan berekin.

Jakin zuten hori Haize Garbiako agintariek eta nere billa etorri ziren, beren egoera larritik atera-bideren bat ematen ote nien. Nik Yonekin hitz egin nuen hortaz, baita eskatu ere bera etor zadin Hendayara. Berak baietz esan zidan berehala. Bere metodoa Iparraldean ezagutarazteko aukera ikusi zuen bat-batean. Hendayan, Yon Oñatibia, bere metodo ospatsuaz, eskuara irakasten zuela jakin zan bezin laister, euskara maite zutenak asko bildu ziran berriro.

Bainan Yonen metodoa lapurtarrera itzuli beharra zen. Lan hori gogoz hartu zuen Lakarra andereak, Donibaneko gau-eskolako irakasleak, bainan ez zuen bukatu ahal izan, hil zenez geroz. Minaberry andereari esker izan zen bururatua itzulpena.

Euskadi hego-aldean —milla bederatzi-ehun eta hirurogeitik hirugoei eta hamarretara— bultzada haundia hartu zuen eskuarak. Eta Yonen irratizko irakasketei esker nun-nahi edatu zen bultzada hori. Zenbat jende jarraitzen ote zituzten irratsaio aiek goizeko hamarretan (heien artean nere amak)!

Yoni esker, euskera ikasteko zaletasuna pixkanaka-pixkanaka Iparralderaino ere heldu zen.

Yonen metodoaren lehen liburua lapurtarrez argitarazi genuenean, hiru milla ale egin genituen. Hainbeste liburu iñoiz ez genituzkela salduko esaten zigun Laffttek, gramatika-egile ospetsuak. Berak hamagost urtez ezin saldu izan zituela bere gramatikaren milla ale. Oker izan zen zorionez!

Metodoa ezagutarazteko edakunde edo propaganda-paperak Iparralde osoan banatu genituen. Paper horietan Salaberry zenak deitura hau ezarri zuen: "Oñatibia'tar Yon deabrua baino azkarrago". Yonen liburuaz euskara errex ikas daitekela esan nahi zuen, alegia. Denek dakizuen bezala, ipui zaharrak dionez, deabruak ezin ikasi izan bait zuen euskara.

Ekintza honen ondorioa ikaragarria izan zen. Hiru illabetez, milla eta bost-ehun liburu saldu ziren, gehienak udatiarrek erosiak.

Iparraldeko euskal-liburu-egileek iñoiz lortu ez zutena, Yonek lortu zuen.

Handik aurrera adiñeko jendeak, gazteak eta haurrak euskara ikasten asi ziren Yonen liburuarekin. Bayonako izparringi batek asteen bi aldiz argitarazten zituan Yonen ikasgaiak, Nun-nahi, irratietan eta izparringietan, Yonen pedagogiari buruz hitz-egiten zan, goratuz eta onhartuz.

Lehen liburua hiru aldiz argitaratu behar izan genduen: orotarar, hamar milla ale gutxi gora-behera. Bigarrena, behin bakarrik: bi milla ale.

Yonek gipuzkeraz moldatutako ipuiñak ere lapurtarrez eta zuberotarrez argitaratuak izan ziren. Lapurtarrezkoak denak (sei milla ale) aste batean saldu ziren. Zuberotarrezkoak, alderantziz, oso gutxi. Garai hartan euskararen aldeko bultzada ez zen oraindik Zuberoraino iritxi. Errientez edo maixuek eta apaiz gehienek euskararen auka ekin zuten. Yonen metodoa zuberotarrez ere itzulia izan zen, bainan ez zuten iñoiz argitaratu, ez saltzeko beldurrez.

Dena dela, Iparraldean euskararen arazotaz gero ta gehiago mintzatzen zen, euskararen arduradunak harriturik utzirik. Izan ere, haiek lan gutxi egin bait zuten. Eta beti bezala, euskaldunen artean bereziki, lagundu beharrean, arduradun batzuek behastopak ezartzen asi ziren.

Oñatibia' tar  
Yon

meke

ta  
noz



EDILI

Bainan Jonek bidea ideki zuen. Eta Yoni esker Iparraldeko jendeak, gazteak bereziki, beren axolakabekeritik ateratu ziren eta euskarari buruz lo-zorrorekin ernatu ziren.

Handik aurrera Hendayako Haize Garbiak lan asko egin zuen, Yonek lagunduz. Bi euskal hiztegi ateratu zituen (orotarar hamasei milla ale, danak salduak), Gramatika osoa, lau liburutan zatitua, kasetak, ipuiñak eta abar.

Geroztik Iparraldean lagunarte batzu eratu ziren, gure Zana onhartzen ez zutenak, politiko-talde ez garelako, eta, bereziki, euskara batuari jarraitzen ez diogulako.

Bainan, talde horiek eta agintari batzu bezik, Iparraldeko jende gehienek onhartzen dute Yonen eta Haize Garbiaren ekintza. Haize Garbiak bere lana politiko-helburutik kanpo egitea begi onez ikusten dute euskaldun jator gehienek. Horrengatik Yonen metodoak eta gure liburuak oraingoz ikasle aunitzek erabiltzen dituzte.

**Iparraldean euskara salbatu ta indartzeko danok batean lan egin behar genduke, bainan hori ezinezkoa dela agerian da. Euskara batua sartuz eta politiko-asmoak nahastuz, aurreratu beharrean, euskera gero ta gehiago gibelatzen da.**

Arduradunek Yonen lanari lagundu baliote, gaur euskararen egoera ez litzake hain txarra izango Iparraldean.

Bukatzer a nioja. Bainan bukatu baino lehen, Iparraldeko euskararen etorkizunari buruz hitz bat esatea oso garrantzitsua iruditzen zait.

Iparraldean, itxura bestela badira ere, hemendik hiru gizaldira euskera galduko dela ageria da, mirakulurik ez bada.

Euskaraz hitz-egiten duten jende zaharrak bata bestearen ondotik hiltzen dijoaz. Beren semeek ez dakite euskaraz edo bederen ez dute euskaraz hitz egin nahi. Haurrek, ia denek, herri txiki gutxitan ezik, ez dakite euskaraz. Ehunetik hiru edo lau haur ari dira euskara ikasten ikastoletan edo eskoletan. Bainan, denok dakigunez, euskal giroan bizi ez badira, laister ahazten dute haurrek ikasi dutena.

Hau tamalgarria ta illuna da benetan! Bainan egia esan behar da beldurrik gabe. Nun daude Iparraldeko biharko euskaldunak?

Guk, Yonek bezala, euskara salbatzeko eta indartzeko, beti argi eta garbi lan egin izan dugu, ez ohoreak, dirua eta ospea irabazteko asmotan. Eta euskara salbatzeko mirakulu baten beharra bada, eginaraziko dugu mirakulu hori ere denon artean.

**Yon beti baikor edo optimista izan zen. Hortan ere guk Yonen gibeletik ibili nahi dugu.**

**Mitxelena'tar Manuel**

# EUSKOTAR UMEEN ALDEZ

**Euli baten edestia. (Euliak berak edestuta.)**

(Julene Azpeitia'ren eungarren urtea beteten dan onetan, bere omen eta oroiz 1933 urtean "Kirikiño" saria irabazitako lan au agertzen dugu).

*O ilean erailtzen dan euliak bagilean bi anei gutxltu 'Gaztelar esaera.*

Iñork ikusiko ez zuan atautza txiki-txiki bat nintzan ni lenengoz.

Okoilu bateko zikinkerien gaiñean ipiñi ninduan nere amak beste :afautza askorekin batean.

Egun batzuek gerotxoago erten nintzan afautzatik.

Aar zuri, txiki-txiki bat nintzan orduan.

Aste betean, neu nengoan zikinkeria yanda bizi izan nintzan. ¡ Yaio-tzean yanari ugaria ta ona euki nezan arduratu bai zan nere ama!

Yan da yan, azi ta azi, ordu gutxiren bafuan erten zidaten egoak eta eulia izatera eldu nintzan.

Geroztik yoan etoti aundiak eta asko egin ditut. ¡ Eta nik egin ditudan lanak eta eraman-ekatiak!

Zuek ikusi ez aten, anketan ¡le me-meak ditut eta ile oiekaz edozein :gaitzen aziak batu ta eramaten ditut. Egoetan ere eraman nezake gaitza.

Zuek ez dezute siñistuko, ¡Ez ba, txikia bai-naiz ! baiña nere gaiñean •6.000.000 azi eraman neizke.

Zer azi mueta ?

Gaitz guztien aziak, napaferienak, biriketako gaitzenak, gornienak, ti-puzenak eta abar.

Udan ume asko gaixotu ta iltzen dituan gaitz baten azia ere beti -neurekin erabili oi-det, eta umea lo dagonean bere ezpain eta sudutean ibilketak egiten ditut, baita ere umeak aoan erabiltzen duan txupetea, -nai aiña mikrobio utziaz.

Zikinker¡ guztietan ibiltzea da nere atsegiñik aundiena. ¡ Zikinkerien gaiñean ya¡oa naiz ba !

Ez naiz ordea zikinkerietan bakafik ibiltzen. Baita ere okela, atai, :gaztae, esne, opil eta onelako gauza gozoetan.

Zenbait zartxoa naiz, ez naiz ba aurten yaioa, igaz baizik ; negu osoa -sukaldeko epeletan igaro dedalako nago bizirik.

Nere autetikoen befirik ez det, baiña yakintsu batek diona egia .ba'da, uda baten 6.000'000 ondorengo utzi neizke. Ez dago beraz gure

abenda amaituko dan bildufik, neguan bat edo beste bizirik gelditzen ba'gera.

Lu aren gaiñetik gure abenda kendu nai ba'dezute, guk a autzak ipintzen ditugun lekuak, okoiloak, zakar-piloak egoten diran bazte ak, atandegiak eta abar garbi euki, zikinkeri guztiak efe, ta kare bizia bota. ugari : ¡Kare biziak iltzen bai ditu ba gure a autzak !

Baiña, etxeoandre batzuek oso maite gaituzte. ¡ Maite ez ba'ginduzkete, ez lituzkie euli-k.....z zikindutako gauzik dendetan erosiko

Gaur goizean bildur ikaragatia igaroa naiz. Esetan ia-ia ito nintzan\_ Il bear dedala etsita nagoalarik, etoti da etxeoandrea ta poliki-poliki atera nau. Gero, nik ainbeste mikrobio utzitako esneaz eman dio bere-umetxoari biberioia.

Umea gaixotzen ba'da, ez du ama arek asko usteko zeñek gaixotu. dion bere biotzeko semetxo kutuna. Tiputza etortzen ba'zaio, **Ene,** gu ez gera ba tiputzik dagoan etxean izan »—esango du.

Nik erantzun nezaioke—« Baiña esnetara erori baiño len, tipusdun. gaixo baten ogearen azpian zegoan ontzi berarizkoan ibilita nengoan+ordea».

Lengo uda baten, Washington urian ¡¡guri egin ziguten guda gogota!!'

Leku guztietan gu a apatzeko sareak'zeuden. Lan gabe zeuden langile-guztiak saregiñan ipiñi zituzten. Izpar-ingi batek 75.000 sare eman zituan.. Eta txadon, etxe, a andegi, arategi, denda, bultzi, tximist-burdi, txaide,, enparantza ta leku guztietan, dana zan gu atapatzeko sarea.

Gure azkena orduantxe izango zan, baldiñ an bezela beste leku guztietan, guda egin ba'ziguten.

Baiña ¡ bai zera !

Gaur baiño naska aundiagorik artzen ez ba'digute. ¡ Gizaldi batzue-tarako ba gera !



*Julene Azpeitia  
"Arritokieta"*





# "TENE" OMENDUA

Aurtean, besteak beste, Euskerazaintzak eta Debako erriak atsegiñez ospatu eben itxas-ertzeko uri ontako alaba argi Muxika'tar Errobustene euskal idazle ernea. Berton jaiotako, bizi izan eta zartzaro luze Jainkoaren besoetan illa.

Onela idatzi neban nik nere "Euskal Literatura" liburuan, V-garren tomuan, 209'garren orrialdean: "Tene izenordez ezagunado dugun euskal idazle ta oler-lumatik irteadako oro ere, idatziak lekuko, orrelaxe dituzu. Deba'n munduratua, 1888-5-24'an, eta bertan, bere jaioterri muñuñu politean eta beretarren artean, jatekoz ornidutako denda baten arduradun, bizi izan da bere bizitzaldi luzean. Argi ta ezkongea, astia izan du orrez gain, artu ta utziaz, euskal lan txairoak osatzeko ere. Biregarro iduri, tarteka mar- teka sarri egin dizkigu kantaldi ederrak. Bertsoz eta itz askatuz egin ere. Aren laneta- tik, sarituak ez dira gutxi izan".

Eta lengoan, aurtengo orrillaren 28'an, Euskerazaintza'k, zapatuz, iragarrita euka- nez, bere illeroko batzar ostean, egin eutson omenaldi ederra. 11,30 erdietan, meza nagusia zazpi apaizek emonda; eleizan jente asko ta koruan abeslari talde gazte erri- mea. Mezan erdiko bertako jauna, izlari Anes Arrinda, sagara ostean erriko dantzarien ekinaldia. Jaunartze luzea... Jarraian "Tene"ren denda ate buruan ari eskiñitako plaka dotore bat agertzea erriko agintari, apaiz-praile, andra-gizon, gazte ta zarren aurrean; dantzari trebeen artaziak, txaloak, eta Euskerazaintzako bazkaria. Kultur Etxean itzaldiak be egon ziran Euskerazaintzak eratuta: Maritxu Barriola izan zan bat eta Augustin Zubikarai bestea "Tene" goratzen alegindu ziranak.

Nik izan neban artu-emona Muxika andereñoarekin, Eibar'en egin nituan iru urtee- tan batez be; urtean lau bat osteran egingo neutsozan, eta euskal arloa izan oi zan bion alkarrizketa. Bere gaztetako euskal lanak, Donostia'ko "Argia"-n, Bilbo'ko "Euzkadi"- n eta Zornotza'ko "Jaungoiko-Zale"-n argitara emonak. Ementxe argitaratu eban, On Zirilo Artzubiaga'k zirikatuta batez be, berak biotzez maite eban Miren Itziar'i Idaz- kiak eta Olerkiak liburua, 1923'an argitaratua.

Ez eukan eskola andirik, berak esaten eustanez; gaztetako ikasketak eta geiago ez. Gogoz irakurten zitun olerkiak, eta antzerki-lanak. Dendan ez eukan berak nai beste asti euskal lanak osatzeko. Alan be, igande ta jaiari zerbait kenduta, jolasketak be itxi- ta, an eta emen azaltzen zituan artikuluz gain, lantxo ta liburu oneik be, aituriko Idaz- kiak eta Olerkiak, Gogo-ñaizeak (1934), Gabon (1935), Juan Jose (1936), iru an- tzerki liburu. Lenengo biak Tolosa'ko "Antzerti" aldizkarian datoz, eta irugarrenagaitik onela idatzi eustan Tene'k, 1973'ren abenduan: "Ni, 1936'ko jorraitlean, Oñati'n egin zan Asamblea Mariana Diocesana"-ra aurkeztu nintzan, "Cetamen Literario" saillera. Amabi gai ziran, batzuk erderaz, besteak euskeraz. Nik bidali nuan iru ataldun antzer- ki bat, "Juan Jose", saritua izan zan. Gai bakoitzerako sari bakarra eta nereak berea irabazi zuan. Diruaz gainera "Diploma" eman zidaten On Mateo Mujika Gotzai jaunak izenpetuta, berak eman ere. An laister, illabetera, gure guda. Gu bezela gure Gotzai jaunak emendik aldegin bearra izan zuan Prantzi'ra. Gasteiz'en beste Gotzai berri bat eta beste kontu batzuk... Ez beintzat euskerarentzat onak. An galdu zan nere an- tzerkia, ta beste askoren lanak".

Jeltzale bizkorra genduan. Olan age rtzen jaku bere **Idazkiak eta Olerkiak** liburuan. Itziar'ko Amari eskintzen dautso, onela esanik: "Zuri, Itziar'ko Ama Neskutza maite orri opaltzen dizut, nere lenbiziko idazti au, Ar zazu maitez, eta onetsi, euzkaldun emakume artean, Jel-aldez emaitz ederrak bildu ditzan". Jel-aldezko idazkiak, kariak, Miren Itziar'i zuzendu eutsozan eta olerkiak orduan asko idazten eben "Aberri" ta "Zargaste" euskal idazleai.

Gogoan ditu aberria ta beronen izkuntza maite dabezan amak, seme-alabaz ingura Oneik aberri ta euskera meite izaten erakutsi bear dautse seme-alabai. Ederto diño: "Euzkaldun eta ama: zer geiago bear du emakume euzkotarrak bere ele aldez lanik ederrrena egin al izateko? Bere umetxuak euzkaldun eta euzkaltzale azi, ara emen emakume abertzalearen egiteko garrantzi aundidun bat, eta euzkera aldez era bat. Amaren magalian ikasitako izkuntza oi du geien-geienean gizonak izkuntz berea, eta amaren magalian maitatzen ikasitakoa, beti maiteko duen izkuntza; eta auxe da euzkerak, biziko ba'da, bear-bearrezko duana: bere eletzat artu eta maitatu duen semeak. Abek, berriz, dasakizudan bezela, emakumeak eman lezaizkio inork baiño obeto, osoago, beretzakoago".

Adin oneko egiñak ditu itz-neurtuak. Eta ez gero suster barik. "Xalu ta gozo egiñak daude —idatzi neban nik—, neurkera ugariz naiz arrantzaleai, naiz amonari, naiz ikazgiñai, naiz biotz maitaleai zuzenduak. Bere garaian izan zuten olerkiok arrakasta ta atzerik. Watson Kirkkonell jaunak, esaterako, bere olerki liburu **European Elegies** (Otawa, 1928) osotu ta argitaratu zuenean, Tene'ren **Udazken-ala** artu zuen bilduma artarako, ingeleraz jarrita. Nik neure "Milla Euskal Oleri Eder" eratu nebanean, Tene'ren sei sartu nebazan bertan: "Ama", "Muxua", "Ikazkin lilluratua", "Gogo-negarra", "Amo'ko Gurutzia", ta "Neskuts minduari".

Bere etxetik itxasoa ta Amo mendi ez txikia aurrez aurre. Kurutzea bere gaiñean. Au baleiteke bertarik ez ikustea, baiña Tene'k, mendigoizale antzo, askotan ikusia dauko, beti zoragarri. Amairu estrofako olerkia dozu, gustoz biribildua. Ona lenengoak:

Leiotik neretzat aurrez aurre beti  
gaillurrean zutik dagon kurutza.  
Maitasun legeak ludian geznari  
gure erriko mendi-tontor bakoitza.

Bera asabendandik gogoan damagun  
Jaun siñismenaren ikur maitea,  
aberri nerean elburutzat degun  
goi aberrirako zuzen-bidea.

O Amo mendian zeru-lurren mугan  
ikusten zaitudan kurutz lerdena!  
gogora mintzatzen begietan dedan  
ikusgarri eder eta onena!


Eta "udazken-ala" deritxonaren bostgarrenaren au:

Amaitu dira, bai, neska-mutillen  
itur-ondoko egunak,  
gogorki ditu ba ortik bidaldu  
euriak eta bisutzak.  
Ai, bai luze itunak maitalientzat

neguko gau illun baltz-baltzak,  
ames egitera deitzen ez ba'leu  
sukalde zarreko suak.

Alakoren batean agertu oi dira onako emakume idazleak. Merezi daben omena eskiñiz goratu daiguzan, ba, or naiz emen daukaguzan euskal artistak. Gitxi gare-ala? Ez daiguzan eurok ixil-zokora bota. Urre-bitxi lez jaso ta txalotu baiño.

Aita Onaindia



"Asko dezakegu, asko; ain asko eze, gu gabe, emakume euskaltzale gabe, ezin liteke euskerak bizirik iraun, beste eleena bezela, beronen bizia ere, erabillia, aoz erabillia izatean dagolako; eta gizadiaren zati bat egiten degunez (ontan ere esaten dutenez gizasemeak baño zati andia-go), gizadiaren erdi bat egiten degunez, beñere ez da gauzen aldez edo kaltez gure eragiña aintzat ez artzekoa; len ere au bein baño geiagotan esan det-eta; eta bai zenbait gauzetarako gizasemeena baño almen geiagoduna; sustraiagotik ukitzen diegulako, edo ta beren oñarria dakigulako; orrengatik gera gu gauz oyen zoria erabaki dezakegunak. Abetako batzuk dira eleak, edo izkuntzak gizartean; eta gure aberrien elea euzkerea. Biziko ba'da, ele illa izango ezpa'da, beste guztien gain emakumien egipena da lenen lenen bear duana..."

"Tene" Mujika. "MIREN ITZIAR'I IDAZKIAK".

"Eztogu erderazko itzik aotan erabili bear, esan gura doguna euskerazko itzakaz esan daikegunian". Txomin Agirre.


176. Centro médico ..... OSASUN-IKARTEGIA  
177. Rehabilitación (judicial o moral) ..... BIRDUINTZEA  
Rehabilitación (física o intelectual) ..... BIRGAITZEA  
178. Droga, estupefaciente ..... ORDIGARRIA  
Drogadicto, toxicómano ..... ORDIGARKOIA  
179. Marginar ..... BAZTERTU  
Marginación ..... BAZTERTZEA  
180. Revelador (fotográfico) ..... AGERGARRIA  
Fijador ..... IRAUNKORGARRIA  
181. Objetivo (de aparato óptico) ..... (Ikusgailu)-GAUZALDEKOA  
Ocular (de aparato óptico) ..... (Ikusgailu)-BETALDEKOA  
182. Observatorio astronómico ..... IZARR-IKARTEGIA  
183. Telescopio (astronómico) ..... IZARR-IKUSKIÑA  
Catalejos ..... BEGIRAILLUA  
184. Caravana (tienda de campaña) ..... KAPARRA  
Automóvil-habitación ..... KAPARR-ORGA  
Remolque-habitación de un eje ..... KAPAR-GURDIA  
Remolque-habitación de dos ejes ..... KAPARR-KARROA  
185. Tractor agrícola ..... ATOIKIÑA  
Tractor de carretera ..... ATOI-ORGA  
(Buque) remolcador ..... AOTI-ONTZIA  
186. Surf a vela (wind surf) ..... AIZE-TXANPAKETA  
Tabla de windsurf ..... AIZE TXANPOLA  
Surf sobre olas ..... OLATU-TXANPAKETA; UGIN-TXANPAKETA  
Tabla de surf ..... TXANPOLA  
187. Camping (conjunto de tiendas y caravanas) ..... KAPARTZA  
Terreno de camping ..... KAPARDIA  
188. (Buque) portaaviones ..... EGAZKIÑ-ONTZIA  
Buque nodriza de hidroaviones ..... UREGAZKIÑ-ONTZIA  
189. Estrategia (arte de la guerra) ..... GERRAIZTIA  
Estrategia (forma de dirigir una guerra) ..... GERRAKEA  
Táctica (arte del combate) ..... GUDUIZTIA  
Táctica (forma de combatir) ..... GUDUKERA  
190. Nave (de iglesia o industrial) ..... KORAPEA  
191. Enchufe (conjunto de las dos piezas) ..... ESTEKAILLUA  
Enchufe (hembra) ..... ZULO-KOSKOA  
Clavija, enchufe (macho) ..... ZIRI-KOSKOA  
192. Hidróptero (hidrofoil) ..... EGATS-ONTZIA  
193. Anodo ..... AR-MUTURRA  
Cátodo ..... EME-MUTURRA  
194. Providencia (previsión) ..... AURRE-ARTA  
Providencia (decisión) ..... ERABAKIA  
195. Ciencias empresariales ..... BALTZUIZTIA  
196. Submarinista, hombre-rana (deportista) ..... URPEZALEA

	Buzo, persona que efectúa trabajos	
	bajo el agua .....	URPE-LANGILLEA, MURGILKARIA
	Cazador ("pescador") submarino .....	URPE-EIZTARIA
	Explorador submarino .....	URPE-MIRATZAILLEA
	Investigador submarino .....	URPE-IKARLEA
197.	Torneo (de caballería) .....	ZALDUN-GUDUKETA
	Torneo (deportivo) .....	KIROLGUDUKETA
198.	Huso horario .....	ORDU LAKAIÑA
199.	Ecuador (círculo) .....	LUR-GERRIA
	Línea del ecuador .....	LUR-GERRI-MARRA
200.	Invernadero, invernáculo .....	BABESPE-BARATZA
201.	Longitud y latitud (geográficas). Longitud .....	GERRI-MAILLAK
	Longitud este .....	GOIZALDE-MAILLAK
	Longitud oeste .....	ARRATSALDE-MAILLAK
	Latitud .....	GERRIRA MAILLAK
	Latitud norte .....	IPAR-MAILLAK
	Latitud sur .....	EGO-MAILLAK
202.	Café coriado .....	ESNE-KAFEA
203.	Dominio (del idioma) inglés .....	INGELESEZ ONGI (ONDO) JAKITEA
204.	Puerta de vaivén .....	ATE ZABUKORRA
205.	Ventana de guillotina .....	LEIO JASOKORRA
206.	Disciplina (materia de enseñanza) .....	IRAKASKIZUNA
	Azote .....	ZIGORRA
	(Obediencia, docilidad) .....	MENPEKOTASUNA
207.	Autovía .....	TRENBIDE-BUSA
208.	Hormigón .....	ZIPOTZA
	Hormigón armado .....	BURDINZIPOTZA
209.	Inducción (acción) .....	SUSTAKETA
	Inducción efecto .....	SUSTAPENA
	Inducción mutua .....	ALKAR-SUSTAPENA
	Auto-inducción .....	BURU-SUSTAPENA
	Inductancia .....	SUSTAMENA
	Inductor .....	SUSTAGARRI
	Inductor aparato .....	SUSTAGAILLU
	Inducido .....	SUSTAKORRA
	Lo que ha sido inducido .....	SUSTATUA
	Lo que debe ser inducido .....	SUSTAKIZUNA
210.	Autobús urbano .....	KALE-BUSA
	Autobús interurbano .....	BIDE-BUSA
	Autocar .....	TXANGO-BUSA
211.	Esternón .....	BULAR-AZURRA
212.	Largometraje .....	MINTZA LUZEA
	Corto metraje .....	MINTZA MOTZA
213.	Cosechadora .....	UZTAKIÑA
214.	Soplete de soldar .....	SU-ZORROTAILLUA
215.	Mecanizado (metales) .....	LANKINKATZEA
216.	mercería (géneros de costura) .....	JOSTEGAIK
	Tienda de .....	JOSTEGAINDENDA
217.	Soldadora (máq. para soldar) .....	GALDAKIÑA
	Soldar por aportación .....	SOLDEATU
	Soldar por fusión de las piezas a unir .....	GALDATU
218.	Parlamentario .....	LEGEGIÑA

	Parlamento .....	LEGEGIN-BATZARRA (BILTZARRA)
219.	Eficaz .....	EGITUNA
	Eficacia .....	EGITAMENA
	Que produce eficacia .....	EGINGARRIA
220.	Orquesta .....	SOIÑULARI TALDESOA (SINFÓNICA)
	Orquesta de cámara .....	SOIÑULARI TALDEXKA
	Sinfonía .....	TALDESO-ERESKIA
221.	Sector público .....	BALTSAKO SAILLA, BALTSAKO ALORRA
222.	Sanidad .....	OSASUNKETA
	Sanidad (institución) .....	OSASUN-ZAINTZA
223.	Encargarse de .....	ARDURA ARTU
224.	En cualquier momento .....	EDONOIZ
226.	Licencia de obras: de construir .....	ERAIKITZE-BAIMENA
	Licencia de obra nueva .....	ETXE-EGITE-BAIMENA
	Licencia para reformas .....	ETXE-BERRITZE-BAIMENA
227.	Diligencia de liquidación .....	KITAKETA
	Carta de pago, recibí .....	KITATZE-AGIRIA
228.	Cinta magnética .....	MANETA-ZINTA
	Banda sonora .....	SOIÑU-ZIRRINDA
229.	Autosuficiente (autosatisfacción) .....	BURU-ERITZI; ARROPUTZ; ARROXKO
230.	Marketing .....	MERKATUKETA
231.	Resinas sintéticas .....	LERDOIZUNAK
232.	Corredor de fincas .....	ONIBARRA-ARTEKARIA
233.	Luz intermitente .....	KIÑU-ARGIA
234.	Plástico (adj) .....	ITXURAKORRA
	Plasticidad .....	ITXURAKORTASUNA
235.	Material (adj) .....	G Aidun
	Inmaterial .....	GAIGABE
236.	Sierra mecánica, (máquina) aserradora .....	ZERRAKIÑA
	Sierra mecánica, para metales .....	EPAIKIÑA
237.	Maginitud .....	AUNDITASUNA
238.	Diputado foral .....	FORU-ALDUNA
	Juntero (De Juntas Generales) .....	BATZARKIDEA
239.	Contestatario (el que niega) .....	UKATZAILLEA
	(el que acusa de mentira o falsedad) .....	GEZURTATZAILLEA
240.	Sociedad aseguradora .....	KALTE-ORDAIN-GALTZUA
241.	Explosionar .....	LERRERAZI, LERTU, EZTANDA EGIÑ
242.	Best-seller .....	SALKORRENA
243.	Kultur departamentuaren diputatu forala .....	JAKINTZA SAILLEKO FORU-ALDUNA
244.	Alternativa (opción entre dos o más cosas) .....	AUKERAMENA
	(Cada una de las cosas entre las cuales se opta) .....	AUKERA
	(Solución de reemplazo) .....	BESTE-AUKERA
245.	Campus (universitario) .....	ORUBEA
246.	Status social .....	GIZARTE-OLTZEA
247.	Problema (cuestión que necesita una solución) .....	ANTOLAKIZUNA
	(C.a aclarar) .....	ARGIKIZUNA
	(C. a adivinar) .....	IGARKIZUNA
	(C. a acertar) .....	ASMAKIZUNA
	(C. a arreglar) .....	MOLDAKIZUNA
	(C. a decidir) .....	ERABAKIZUNA

	(C. a averiguar) .....	MIRAKIZUNA
	(C. a ejecutar) .....	EGINKIZUNA
	(C. a investigar) .....	IKARKIZUNA
	(Asunto difícil) .....	ARAZO GAITZA
248.	Universidad (institución) .....	ORO-IKASKUNDEA
	(Edificio) .....	ORO-IKASTETZEA
	(Facultad) .....	GOI-IKASTEGIA
	(Edificio de facultad) .....	GOI-IKASTETZEA
	(Conjunto de enseñantes) .....	GOI-IRAKASLETZA
249.	Afiliación (acto de afiliarse) .....	BAZKIDETZEA
	(Efecto de afiliarse) .....	BAZKIDAPENA
	(Número de afiliados) .....	BAZKIDETZA
250.	Prestación (cosa o servicio obligado) .....	ZORRA
	(P. social) .....	GIZARTE-ZORRA
	(P. personal) .....	LAN-ZORRA (Auzolana)
	(Allocación sociale) .....	DIRU-LAGUNTZA
	(Prestaciones asistenciales) .....	LAGUNTZA-SERBITZUAK


**A. Zatarain**



"la bada gure ondorengo gazteok! Aztertu ongi gure euskerak dauzkan adierazte alderdiak. Ez egin muzin arau-bide zearoari. Ar zazute zerontzat zerbait lotzen zaute-na, askorik ez ba'da ere, zeun buruak ongi ezteko".

("Orixe". "Gaztelu"ren MUSIKA IXILLA'ko sarrera).

# BERRIO-OTXOA



*Berrio-Otxoaren asaben armarria*

Oraintsu argitaratu dan liburutxo baten —eliz-otoitzetarako argitaratu be—, "Berrio-Otxoako Balendin" ikusi dot idatzita aurreko azalean. Uts aundi samarra!

Ondo egongo litzakean "Berrio-Otxoa" izeneko oiñetxean jaio balitz; orduan, —ko toki-atzizkia onartzekoa izango litzakean. Baiña ez dago iñon "Berrio-Otxoa" izeneko oiñetxerik (gutxiago "Berriotxoa" izenekorik: "Berrio la pequeña o la accesoria" erderaz). Beraz, ezerezetik ezin ezer atara.

Badakigu, jakiña da, jatorria ta oiñetxea esatea zelanbait bardin dana; baiña, alan be, oiñetxeari jatorriak jarri dautso izena, emen eta edonon. Ez da bardin, gaiñera, jatorria eta abizena, jatorri bakarretik bi, iru naiz lau abizen sortu daitezkez-ta. Abizen orreik jatorri berak geroago jaso ebazan bi, iru edo lau etxeetatik datoz, etheen izen "bereizgarrien" bidez ("determinantes" erderaz). Adibidez: Mendraka, Mendraka-beitia, Mendrakagoia, Mendrakagoitia, eta Mendraka-aldekoa: or jatorri bat eta abizena: Mendraka, eta beste laurak / abizenak, jatorri bereko abizenak (ikusi onetzaz "Casas solariegas de Bizkaia" liburuko "Introducción").

Leen esan denez, ez dago "Berrio-Otxoa" izeneko oiñetxerik. Izen biak bananduta, bai: "Berrio", Elorrio-ko Berrio auzunan, eta "Otxoa", Gipuzkoa-n (Berrio-ra ezkondu zan Joan Otxoa Bergara-ko semea zan). Eta, XVI-XVII mendeetan batzuetan edo naikoa sarritan egiten zanez, aitaturiko Joan orrek, Berrio oiñetxe ta torrera ezkontzean, "Ochoa de Berrio" abizena jarri eutsen bere seme-alabai. Jakiña, Joan —orduan be— "Berrio" oiñetxeko "Otxoa" zan. Andik seigarren gizaldira alkartu zan abizen bien idazkerea: "Berrio-Ochoa" = Berrio-ko Otxoa.

Gure Balendin "Goiko kalea" izeneko etxe baten jaio zan. Beraz, oiñetxearen —ko toki-atzizkia jarri bearrean, jatorriaren —tar atzizkia jarrea da egokiena, jatorri-atzizkia: Aranatakkak, Ganboarrak, Oñaztarrak, Ibaratakkak, eta abar.

Batzuek ez dabe "tar" ori begi onez ikusten, erderatiko "de" dalako. Orretzaz, emon ebazan ostikada batzuk Azkue-k bere "Morfoloía Vasca" liburuan, baiña oker, nire ustez: erderazko "de" ori ez da "Condes y Marqueses"-en jatorrikoai bakarrik ezarteko, edozein jatorri adierazoteko baiño. Jatorri ta Bateo-liburuak arakatzea baiño ez dago: oraintsu-oraintsu arte, euskal-abizen guztiak ekarren abizen-aurrean "de" ori, edozein "kale-garbitzaille" izanarren be. Ori ez da ameskeria, ori mendetako oitureak agertzen dau, istoriak egiazten dau. Ez da, ez —euskotarron artean beintzat—, "tituludunen" edo aundiki-abizenen atzizkia, jatorriena baiño. Esana sinistu ezarren be, egintzak sinistu... (antzekoa, oso urrindik izanarren be! Joan 10, 37).



Txarragoa oraindiño, Bilbo-ko dominikar prailleak esan daustan au: euskaltzale "jakintsu" batek —ori diño arek—, "Berrio-Otxoa'tar Balendin" idatzita ikustean, olantxe araztu ei-utsan: "Berrio-Otxoa-ren Balendin". ("Disparate ebidentea!") —*en* atzizkiak jabetasuna adierazoten dau. Baiña aita ez da ezela be semearen *jabe*, mesedez!, arduradun baiño, semea adiñera eldu arte.

Ona emen orain Balendin-en jatorria aitaren aldetik, agiriak agertzen dabenez:

Joan Ochoa de Berrio .....	Joana de Berrio
Joan Ochoa de Berrio .....	Catalina de Iturri
Joan Ochoa de Berrio .....	Josefa de Esteibar
Simón Ochoa de Berrio .....	Ana de Gasteaburu
Francisco Ochoa de Berrio .....	Marina de Garaizabal
Francisco Ochoa de Berrio .....	Josefa de Gastea
José de Berrio-Ochoa .....	Joana de Gastea
Juan Isidro de Berrio-Ochoa .....	María Mónica de Arizti
Valentín Faustino de Berrio-Ochoa y Arizti.	

"Berrio" torre-etxeko orman, Belendin-en asaben armarrri au agertzen da: laukia da. Leenengo laukoa, Otxoa ta Berrio; bigarrena, Gastea (Gastea-ren "buru" ori, Gastea jatorriaren etxe baten bereizgarria da); irugarrena, Garaizabal; eta laugarrena, Zenitagoia. Armarrri ori, aitaturiko bigarren Francisco-k landuerazo eban, 1722-garren urtean Elorrio-n jaio eta 1742-garrenean Gastea-tar Josepa-gaz ezkondu zanak.

Elorrio-n, 1988, orrillak 31.

**KEREXETA**



*Berrio-Otxoa bizi izan zaneko etxea*

# IKUSI TA... ZER IKASI?

Abisoa: Bus bonoaren prezioa: 340 peseta.  
(Diario Vasco, 20-V-1988)

Edesti-Erdiko Udal Erakundea. Departamento del Centro histórico Municipal.  
(Gasteiz. Dato kaletik enparantza barrirako sarreran)

Fabores, bidali ezazute Asistentzi txartela Batzar Nagusira.  
Por favor, envíen tarjeta de Asistencia a Junta General.  
(Lankide Aurrezkoa. Hidrola'ko Batzar Nagusiko dei  
egiñaz bidalitako eskutitzetan. Gasteiz, 1988-V).

Zer ona den Espuña! Lo mejor del cerdo Espuña.  
(Donosti'ko furgoneta baten).

Zentzu aldaketa. Cambio de sentido.  
(Lasarte'tik Tolosa'ra dagon zubian eta beste ainbat tokitan).

Beingo desbideratzea. Desvío provisional.  
(Ainbat bidetan)

Senide ugarien familia. Familia numerosa.

Sukalde altzariak eta baiñu.  
(Zarautz'eko furgoneta baten)

Ildegia. Funeraria.

Igarleak. Frutas.  
(Bilbo'ko merkatuan. Merkatua barriztatzean kendua).

Eskerrikasko zure ikustia. Gracias por su visita.  
(Gasteiz, Postas kaleko berebiltokiaren sarreran)

Unibersitate kanpusa. Campus universitario.

Behingo ideara. Salida provisional.

Terminala erabili ezina. Terminal fuera de servicio.

Bateko Santutxu obe. Por un Santuchu mejor.

Aita bere Erreibuari deitu dio. El Padre ha llamado a su Reino.  
(Diario Vasco'ko il-mezu baten)

Itzultzaillak

Udaletxe baten itzultzaillae aukeratzeko leiaketan, "Garoa" ko asiera aukeratu zan erderara itzultzeko.

Gogoan artu Txomin Agirre'k idatzia:

"Ura zan gizona, ura!

Zazpi oin eta erdi bai luze, makal zuaitzaren irudira zuzen, pagorik lodiena bezain zabal, arte gogorra bezela trinko, gorosti ezearen tanketara zimel".

Itzulpenak era onetara agertu ziran:

Batek: "Aquel sí que era hombre! Medía siete pies y medio, parecía un árbol derecho, tan ancho como el más gordo de los robles, fuerte como..., nervudo como el castaño seco".

Besteak: !Qué hombre aquel! (Aquel sí que era un hombre). Por lo menos siete pies y medio de largo, por lo menos débil hacia el árbol, tan ancho como el más gordo de los robles... (eta or geratu zan, geiago itzuli eziñik)".

Zer gertatuko zan udal aretan, pagadi bat saltzean, edo ta gorosti ezeak saltzeko, "se vende un robledal" edo ta "se venden castaños secos" iragarrita?

Itzultzaile zeregiña olgetakoa ete da?

### Liburuak irakurten

"Siendo ministro de Gobernación Francisco Pi y Margall, recibió una comunicación del gobernador de una provincia en la que se decía:

Tengo el honor de poner en conocimiento de Vucencia que **hayer** hubo un motín contra el recaudador de contribuciones, pero **oy** ya están calmados los ánimos.

La contestación de Pi y Margall fué:

Me permito advertir a Vucencia que está ignorante en cuanto a la antigüedad de la hache. La **h** no es de **ayer**, es de **hoy**.

(Historias de la Historia. Carlos Fisas).


Guk zer esango?


### ZORIONAK

57 urte Txina, Fomosa eta Filipinas'etan misiolari ibili ondoren, Euskalerrira biuriu da Patxi Etxeberria, jesulaguna, euskal idazle eta olerkaria. Eta euskaldunoi agur zintzo bat ematean biotzez itz egin du: "Au ez da izkuntzaz, ez burubidez, nik utzi nuen Euskalerria.

"EUSKERAZAINTZA" k agurrari erantzunaz gogoratu nai dio: Zorionekoak egia ezagutu eta autortzen dutenak, azken baten eurak izango diralako Euskalerraren nor-tasunaren lekuko.

Taldean





# ARRANTZAKO DEITURA BATZUK

Gure Iztegiak argal agertzen dira arrantza deituretan. Nunbaitetik asteko, laster amaituko dan "antxoia sasoiari" erabilten diran itz eta deitura batzuk gogoratuko ditudaz.

**Antxoia, antxua, albokartia edo ta bokartea.**

Izen orreik emoten dira, zientzi izenez "Engraulis Encrasicolus" deitzen danari.

Talde edo moltsotan ibiltzen dan arraiña da. Arrain baltsu eta sardatan biziten da.

Beste arrain andien janari izaten daki.

Esaerak. Azken izate orretatik datorkio nunbait esaera au: "Antxoia txikiak baiño areno geiago". Au da, danak bere atzetik ibiltzen diralako.

Beste esaera batzuk:

"Antxoari ez da ganoraz arrantzaten, santuak kalez kale oreatu baiño len". (Esatea lez, Aste Santua baiño len. Gogoratu Aste Santua aldakorra dala, itargiagaz ibiltzen dala, beraz udabarriko epeletara urreratzen).

"San Gergoriotan, antxoia bere sasoi onetan". (Santu orren eguna Maiatzean izaten da, eta giroa gero ta epelago).

"Edozein da arrantzale antxoia emen nagoka dabillanean". (Batez be patroï batzukaitik esaten da, zerbait arrantzatu eta arro agertzen diranetan).

Maiatzeko "siri-miri"ari, arrantzale errietan "antxoia bitsa" edo ta "antxoia adurra" be deitzen dakie.

Deitura batzuk:

Antxoia arrantzan beste itz oneik erabilten dira:

**Ardora.** (Uresia) Millaka arruatako antxoia moltsok agertzen diranetan, arrain onek gabean alako argitasun berezi bat zabaltzen dau, ur gaiñean zidar kolore antzekoa zabalduaz. Orixe da **ardora**.

**Manjuba.** Antxoia, oraindik urak otz dagozenetan, ur sakonean ibiltzen da. Len, izurdeak gure itxasoan ibiltzen ziranetan, arrain oneik izaten ziran antxoia moltsoen azpira sartu eta antxoari ikararuta azaleratu eragiten eutsenak eta orrela pillotu, itxas urak bitsa dariola lagata. Origaitik ibiltzen ziran arrantzaleak egun osotan izurden atzetik. Orrelako moltsotan artzen edo arrantzaten dan antxoari deitzen joko manjuba. Bermeo'n Manjungen.

**Blankurak.** Urak berotu ondoren, antxoia azalera agertzen daki, eta urak zimurtu lez egin. Urrunetatik igarten da ori. Orrela agertzen diran pilloei, balnkurak deitzen dautse.

**Gorria.** Antxoia ur azalean, ura zimurtu barik, gorri illuna lako moltsotan ikusten danean, "gorria" deitzen dautse.

**Orenga.** Itxasoan sareak zabaldu eta gero, ontzitik urren dagon sareak ontziagaz daukan soka lotugarriari deitzen joko orenga.

**Despiska.** Antxoa, geienetan, sare edo train andiz inguratuta arrantzaten da. Len sarabardo edo erregiñen bidez jasoten zan txalopara. Orain txupoe ta teknika barrietan. Iñoiz goitik bera zabalduen diran sareetan arrantzaten zan. Sare oneitan antxoa bana-banaka mailla bakoitzean burua sartuta dindilizka geratzen zan. Gero sare mallata-tik atarateari, askatzeari, despiska izena emoten dautse. Bear ba da erderazko despisca'tik etorriko da.



Sareetatik antxoa askatzen "Despiskan"

### **Antxoatako sareak.**

Len sare txikiak erabilten ziran. Orduko txalupak amarretik ogeira bitartean eroaten zituen. Alkarri lotuta zabaltzen ziran itxasoan, goitik bera.

Gaur erabide ori ia galduta dago.

Gaur, batez beste, 180 brazatako sareak erabilten dira luzeran (braza bakoitza metro bi aiña da) eta beste 50 inguru sakonera, edo berako.

Len arizkoak izaten ziran. Gaur nylonezkoak.

Nylonezkoa askoz errezago da erabilteko eta egokiago. Arizkoak bein uretan erabili ezkeru, gero leorrera ekarten zituen, sekatzeko zabaltzera.

Sare luze onei "treiña" izena emoten dautse.

Sare bakoitzak bereak ditu:

Berunak, alderdi bat ondora edo bera joateko.

Mamiña edo papua. Sarearen gerria.

Goiburua, sare eta txikot bitartean egoten dan zati lodiagoa. Bermeo'n sengarrije lez ezagutzen da.

Sareak, pañuak alkarri lotuta egiten dira. Pañu orrei Bermeo'n altorrek izena emoten dautse.

**Kortxuak.** Sarea aidean erabilteko. Gaur sintetikoak erabilten dira, baiña oraindik kortxo izenez ezagutu.

**Kankamuak.** Berunen sokeari lotzen jakozan galtzairuzko erastunak, euretatik sarea batu al izateko.

### **Antxoatako otzarak.**

Gaur piñuzko edo plastikazko kajetan ataraten da antxoa ontzitik kanpora. Baiña len otzaretan ataraten zan eta era askotakoak erabilten zituen arrantzaleak, ez-bardiñak eta bakoitza bere neurrikoak. Ala antxoa-otzara, besigu-otzara eta abar.

Antxoatan erabilten ziranak iru arrua inguruko izaten ziran. Gero areitan arraiña asko bigundu ta makaltzen zala, "maluskatu" egiten zala ta otzara orreik kendu zituen. Baiña lengo denporetan otar egilleak onenbesteko bat ordaintzen eutsan erriari eta urtero barriztu bere eskubidea.

### **Irabaziak.**

Antxoa arrantza "bajura"ko arrantzalei dagokiena da. Arrasteran dabizenak galera dauke antxoatan ibiltea.

Irabaziak geienetan erdizka banatzen dira, Erdia jaubeentzat eta beste erdia arran

Baiña "manjubatan" au da, egun guztia izurden atzetik ibiltzen errekin geiago bear izaten zalako, erabide orretan írutik bi txalopa jaubearentzat izaten ziran.

Arraintsutako dirutzatik lenengo "montemaioresko" ordaingarri lez artzen diranak kentzen dira. Au da, dirutza gordiñetik.

Irabazien banaketeri "diru padilla" deitzen dautse.

Diru-partilla onetan ba dakie zatitxu bat alboratzen, etxerako aloger barik, bakoitzak bere sakelerako gordeten dauana.

Diru orreri "ardau dirua" deitzen dautse, bai eta "amari ez emon" be, edo ta "potokua" Mutrikun, edo "txakurrana" Ondarribia.

Ondarrabiko onek ba dauka bere azalpena. Len, txalopa guztietan, ur txakurrak erabilten zituen. Arraiña gora igotean saretik urten edo amuetatik eteten zanean, txakur orreik bereala joaten ziran uretara arrain orren billa. Arrain ori txalopara jaso eta alboan lagaten zan eta saldu ondoren, bere dirua, arrantzaliarentzat bakarrik izaten zan, jaubeak eskubide barik. Txakur oneik erabilten zituen sare arteko sokak uretatik atarateko eta abar.

Antxoak, urte ona gertaten zanean, dirua zabaltzen eban errian, arrantzalien gain kabanetan (fabriketan) andrazko eta umeak be batzuk latetan ipinten eta besteak burua kentzen, dirua irabazten ebelako. Orrez gaiñera antxoa urtetan, neguan be filete lana egoten zan lantegietan.

Iñoiz antxoatako diruekaz zerbait arrotuta bat ikusten zanean, "antxoa dirua" edo "antxoa bitsa" darabil orrek, esaten zan.

### **Antxoa eta jaiotzak.**

Ume bat jaioten zanean, eta oraindik be, ba dakie itanduten: Ze izan da? Eta mutil ba da, erantzuna au izaten da: Antxoa txikia. Naiko ta geiegi izaten da zer jaidan ulertzeko.

**Augustin Zubikarai**

# ELBIRE ZIPITRIA ANDEREÑOAREN OMENEZKO IV SARIKETA



Olerki sariketa

## **Epai-maiaren erabaki agiria**

Deba'n, 1988'go Jorraitaren 30'ean, Arrinda'tar Anes, Zubikarai'tar Augustin, Onaindia'tar Jagoba eta Gaztañaga'tar Jesus, ELBIDE ANDEREÑO IV olerki sariketa aurkeztu ziran lanen epaille izentatuak izan ziranak eta Kortajarena'tar Andoni idazkari bezala, Deba'ko parroko areto batean bildurik, alde aurrez eman zitzaizkien aipatutako leiaketara aurkeztu ziran olerki-lanak aztertu ondoren eta adostasun osoz sariak era ontan banatzea erabaki dute:

1.º saria, 40.000 pezetakin saritua:

ABEREEN ABOTSAK izenez aurkeztua. Idazlea: Muniategi'tar Sabin.

2'gn saria, 30.000 pezetakin saritua:

ZALANTZAREN ENPARANTZA izenez aurkeztua. Idazlea: Beloki'tar Augustin.

3'gn sana, 25.000 pezetakin saritua:

AMA EUSKERA izenez aurkeztua. Idazlea: Aierbe'tar Jose.

4'gn saria, 20.000 pezetakin saritua:

ENADA AZPI-TXURI izenez aurkeztua. Idazlea Ugarte'tar Martin.

Eta gertatutakoaren aitormen-agiri bezala aztertzaileek agiri au izenpetzen dute epaiketa bukatu ondoren.

Aita Santi Onaindia - Anes Arrinda - Jesus Gaztañaga - Augustin Zubikarai - Kortajarena'tar Andoni.

## **IPUIÑAK, IKASTOLETAKO AURREK IDATZIAK**

EUSKERAZAINTZA'k, Donosti'ko Getari kaleko 21'garrean daukan idazgelan bildurik, Agirre'tar M.<sup>a</sup> Dolores, Zubikarai'tar Augustin, Yurramendi'tar Felipe, Gaztañaga'tar Jesus eta Kortajarena'tar Andoni eta ELBIRE ANDEREÑO IV Ipuin-Sariketara aurkeztutako lanak aztertzeko epai-maia osaturik, azterketa sakon bat egin ondoren, adostasun osoz, sariak era ontan banatzea erabaki dute, Arrinda'tar A. ere epai-maiko izan dalarik.

A mailla:

1.º saria: Eman gabe, utsa.

2'gn. saria: "Igelaren abentura", Ernani'ko

Arantxa Goikoetxea'k idatzia ..... 10.000 pezta.

3'gn. saria: "Aste Santua noiz elduko", Ondarroa'ko  
Itxasne Murillo'k idatzia ..... 8.000 peza.

**B maila:**

1.º saria: "Nekazari kontu bat", Ernani'ko  
Dabid Etxeberria'k idatzia ..... 10.000 peza.  
2'gn. saria: "Izarretaraiño eldu behar naiz" Ondarroa'ko  
Goiz Argi Aristi'k idatzia ..... 8.000 peza.  
3'gn. saria: "Edurraren zuhaitza", Ondarroa'ko  
Ana BeIen Martinez'ek idatzia ..... 6.000 peza.  
4'gn. saria: "Peru Zaldun", Ernani'ko  
Yon Etxeberria'k idatzia ..... 4.000 peza.  
4'gn. saria: "Santa Clara ugartearen gertakizuna" Ernani'ko  
Maidar Goikoetxea'k idatzia ..... 4.000 peza.  
4'gn. saria: "Egun txar bat", Ondarribi'ko  
Xabier Lasalde'k idatzia ..... 4.000 peza.

**D maila:**

1.º saria: "Ni, animalien laguna", Lazkao'ko  
Sheila Lozano Garmendia'k idatzia ..... 8.000 peza.  
2'gn. saria: "Baso miragarrian barna", Lazkao'ko  
Ohiana Aldanondo'k idatzia ..... 6.000 peza.  
3'gn. saria: "Mendira irteera traketsa", Ernani'ko  
Maialen Lujanbio'k idatzia ..... 4.000 peza.  
4'gn. saria: "Mandarina", Arrasate'ko  
Markel Madinabeitia'k idatzia ..... 2.000 peza.  
5'gn. saria: "Villa Floritaren amaia", Ernani'ko  
Iñaki Arrieta'k idatzia ..... 1.500 peza.  
5'gn. saria: "Itsaso majikoan zear bidaia" Ernani'ko  
Lierni Guerrero'k idatzia ..... 1.500 peza.  
5'gn. saria: "Ekaitz hiltzaillea", Deba'ko  
Maria jose Arrona'k idatzia ..... 1.500 peza.

Epaiketa ontan, 96 ipuin aurrek egindakoak aztertu dira. Eta gertatutakoen aitormen-agiri bezala, azterzailleek agiri au izenpetzen dute.

Donosti'n 1988'go Orrillaren 21'ean.

"...Berak "Orixe" k erakutsi digu —egitez, itzez baiño geiago— gai dela gure izkuntza edonongo ezer itzultzeko eta bereganatzeko. Berak, gauza dela euskera biotzaren sentierarik izkutuenak adierazteko".

(Koldo Mitxelena, "ORIXE", omenaldi liburuan)



# ALBISTE ETA BERRI

Juan Gorostiaga

Oraintsu, Bagilla'ren 7'an, Bilbon Bizkai'ko Abade adiñekoak dauken egoitzan il zan, 83 urte bete ondoren.

Deustun jaioa, erri a bere buru jaube zan denporetan. Angotzat eukan bere burua. Abadea. Euskaltzaindikoa, nai eta luzaro, ango gora-bera batzukaitik, batzarretara joaten be arduratu ez.

Erromatar eskolako gendun euskeran. Oiñarri asko, "Logikaz", berez, euskera eta latiñarenak erraz alkartzan zitun. Bear ba da Erroman ikasketak egiña zanez, ango bideak maite zitulako.

Euskal gaietan sakon ikasia izanarren, bere lanak, argitaratuak, erderaz egiñak dira.

Kondairan, Getxo zarrekoa argitaratu eban, bai eta Bizkai'ko Epika eta Lirikari buruz eta Erri Elertiaren antoloji bat ere.

ESKU onekoren baten zain geratuta eukazala, esan eustan, Euskal Iztegi Etimologjiko bat eta beste lan batzuk.



Getxo'n bizi izan zan luzaro, azken urteetan oiñetatik makal, eta ango Irutasun deuneko fraileen etxean bizi zan, Bilboko egoitzara aldatu a re.

Iñoiz lanen bat eskatu ta pozik eta baikor erantzuten ekian. Onelako bat Txomin Agirre'ren mendeurreneko Lore Jokoetarako egiña Ondarroa'ko "Boga-Boga" aldizkarian agertu zan "Kresala'ren euskaltasuna eta euskalkerea" izen buruagaz. Gorostiaga'k, ondarrutarrei ederkatura egitearren nunbait, Txomin'ek erabilten eban Arranondo, Ondarroa biurtuta laga eban bere lanean, bere esaeretan "vox populi" zalako ori.

## Nikolas Barrenetxea ta Uribasterra.

Aita "Yurre tar Julen". Kaputxinoa. "Zeruko Argia"ko idazleen buru zala, 1927 urtean Txina'ra joan zan mixiolari eta an ibili 1953 arte. Idazle ugaria aldizkari eta bes-telako irakurgaietan. Bai liburu idazlea be. "Loramendi" zanari buruz, Il garren Batikano Batzarra" ri, Mao Tse Tung eta abar ondo aztertu eta erabili zitun. Azkenengoz Altsasu'n ikusi gendun, entzuteko gor eta ibilteko lor, baiña ez gendun uste andik laster agur egingo euskunik. Beste liburuen bat argitaratuko ete eban itxaropenez agur egin euskun.

## Goian Begoz




# ZINEHA



## ZINE GIOIA

### ANAI ARTEKO GORROTOA: GIPUZKOA ETA NAPARROA

#### Anes Arrinda



- (1) Lazkanoko jaunen jauregia
- (2) Beditarrak
- (3) "Cister"ko mojak

## JARRAIPENA

### 19.-Tiebasko gaztelua.

OFF/. Iruñatik ordu beteko bidean dago Tiebasko gaztelua, sorkalde aldera Ate nagusitik sartuta eskubira ikuillua dago zaldi eta mandoentzat. Erdian zurubia gora igotzeko eta onen gibelean gudariantzako gela zabala gazteluaren neurrian. Ezkerretik sutegia dago. Iru gelak dute bakoitzak bere atea Sutegia bearrezkoa da gaztelu, torre edo forteleza batean eta Tiebasek ere badu berea.

### 20.-Sutegia egunez.

(Errementaria, larruzko aurre-mantal bat gaiñean duela, txingururan ari da burni guri bat maillukatzen. Sutegia aurrean. Semeno eta Borjaren erraiñuak.)

#### BORJA

Zeriarako da sutegi bat gaztelu batean?

#### SEMENO

Tresnak zorroztu eta konpontzeko. Erabili az ondatu egiten dira eta amoztu ere bai. Noizik bein errepasso bat eman bear zaie.

#### BORJA

Au da sutegia? Lau parete ditu eta zulo bat urarekin gaiñean...

#### SEMENO

Parete oien tartea arri-kozkorrez betetzen da ia goraiño; baiña, oiñerdi bat bezala lodian, arrien gaiñetik, ikatz-atsa ipintzen da. Eta, or ikusi dezun aska ori oiñ betekoa da. Ura du buzteñiken naastuta eta ur ori erratza txiki batekin suari botatzen zaio garra aunditzen danean, sua tximinitik gora joan ez dedin, guritzen ari dan burnira baizik...

(Errementariak Semenok diona egingo du)

#### BORJA

Aspo ori aundia da.

#### SEMENO

Aizea ematen dio suari eta oneri ura buztinakin botatzen zaionean, ez da ikatza arrotzen.

#### BORJA

Eta, arrizko aska aundi ori zertarako da?

#### SEMENO

Bumia tenplatzatzeko. Tresna berotuta gero, erdiotzik dagoanean, idi-adarra iortzi tresnarekin. Tresna errez txirristatzen bada, orduan ondo tenplatu dago eta ur otzetan sartu.

## BORJA

Errementaria txingudian dabil lanean.

#### SEMENO

Txingudia egur baten gaiñean dago; sumilla esan oi zaio eta kana-erdi inguru lurpean sartuta dago. Ondoan daude mailua, maillu aundia, epaia, tenazak eta abar. Bazter artan daukazu egur-ikatza eta galbaia autsa kentzeko.

#### BORJA

Eta, arri borobil ori?

#### SEMENO

Ori esterea dezu, arri biguñakin egiña. Burnizko ardatz batek jasotzen du eta esku-biko ankarekin eraginda dabil. Azpian askatxo bat du urarekin. Ur ortan bustitzen da esterearen barrena bueltaka dabil, zorrozten ari dan errementari ura emateko. Baina, errementaria lan askorekin dabil eta utzi daigun pakean. Artu dezagun zurubia eta goazen mailletan gora.

(Semenoa eta Borjaren erraiñuak zurubian gora galtzen dira)

### 21/-Gazteluko lenengo solairuko gela aundi bat. Egunez.

(Ormak arrizkoak. Sartzeko, ate lodikote bat. Aurrean leio estu bat, aldamenetan arrizko eser-lekuekin, leiotik kanpora begira egoteko. Gela-erdian iru kana luze eta kana bete zabaleko mai bat, intxaurre beltzez eser-aulkiak bezala. Ormeetan gudarako tresnak: bai ezpata eta bai aizkora, bai azagai eta bai burnizko bola-zaarrak esku-leku baterri lotuak katez... Baita burnizko izkutuak burrukan norbere burua gordetzeko.)

(Gela-erdian Tiebasko Jauna; bizar zu ri oparoa, begiak urdiñ, urteetan aurreratua ala gerrak ondatur... Berarekin guk ezagutzen degun Axari).

## T.JAUNA

laio aiz i benetan, Axari; baiña, arazo onek ondo irtengo digula usten al duk?

#### AXARI

Ez bildurrik izan; gaur bertan emen izango dezu, zalantzarik gabe.

#### T. JAUNA

Salatariak edonun zeundek, Axari.

#### AXARI

Geureak ere bai eta orretxegaitik, ziur nago, gauerako ekarriko dutela

T. JAUNA

Ez neuke besterik nai, Lazkauko jauntxoari adarra jotzeko. Semea bizirik eraman nai badu, urre ederrak eman bearco ditu ordainetan. Bildur bat diat, Axari eta auxe dek: Erregearen ordezkoa etorriko ez ote dan egun auetako batean... Gudariak bear dizkik, gaztelarrekin darabilen burrukarako... Nik gudariak egoaldera bialdu eta gero, zer...?

AXARI

Lazkanokoak ez du ori jakingo. Jakinda ere, zer.? Nik ez diot arreri bildurrik bere semea nere eskuetan dagoen bitartean... llda ikusi nai ez badu, beintzat...

T. JAUNA

Ez abil ain oker, Axari.

AXARI

Oker ni ? Ez, jauna, zuzen nabil. Geu etxebarrutik gerala ez degu arren bildurrik.

T. JAUNA

Oste aundiak ekarriko balitu...?

AXARI

Zer oste eta oste-ondo. Oien bildurrik egundo ere ez! Ez aldakizu bere kobazuloan nai dedan guztietan sartzen naizela..?

T. JAUNA

Benetako axari aiz i, ordea..

AXARI

Laister izango degu emen.

T. JAUNA

Nundik nora jakiten dituk ainbeste Lazkanoko berri? Ez dek sekulan garbi ezer esaten...

AXARI

Oraintxen esan dizut gauza garbi: ba det nik an lagun zaar bat. Nere lagun dan ala nere diruena, ez dakit ori ondo. Dana dala, laguna det beintzat.

T. JAUNA

Nor da lagun maite ori..?

AXARI

Katagorri izenez. Arrera ona egiten diote Lazkanoko gazteluan. Ausardia badu eta aundi-naia ere bai... Errez dator nere esanetara.

T. JAUNA

Lagun ona eta probetxuzkoa.

AXARI

Bearrezkoa burruka onetan.

(Ixil-unea. Jauna mai-buruan eseri da. Axari, berriz, jira-ta-bira dabil batetik bestera,

gela osoa pausoz neurrituz. Keskatzu. Tar-teko Ieiora urbiltzen da eta kanpora begiratzen du, albiste baten zai balego bezela).

**T. JAUNA**

Nere kezak makur-gaitzak dituk. Burutik kendu ezin. Gogoratzen al dek nola dabilen Etxarriri su eman nairik..?

AXARI

(Beste mundutik baletor bezela)

Nor?

T. JAUNA

Lazkanokoa... Nor izango da ba besterik...?

**AXARI**

Ortan al zaude oraindik. Utzi egiozu pakean Lazkanokoari.

T. JAUNA

Etxarri-aranazek urteoro eman oi ziona pakean uzteko, aurtun ukatu zio. Eskerrak Merinoa bertan zegoalari, bestela ematen dio su erriari... Baina, Etxarri su-labe bat biurtu arte ez ornen du lorik egingo laz-kautarrak... Maldizio ori botata ornen dago... Guregana joko balu, ni Erregeari gudariak bota ondoren..?

AXARI

Tira, tira... Oraintxen aspertu nauzu zure betiko lelo orrekin!

**J. TIEBAS**

Zer nai dek? Gauzak diranez ikusi bear eta arriskuan begiak iriki... Ori dek zuurtasuna...

AXARI

Maiz izan oi da zuurkeria bildurraren es-talki eta aitzaki.

(Morroia dator eskilleratan gora. Atetik)

**MORROIA**

Jauna, Erregearen ordezkoa dator.

**T. JAUNA**

Bildur nuena gertatu da. Gero arte.

(Jauna morroiarekin batera doa. Gelditu da Axari bakarrik; seiñale du jazkeran ez dala morroi, nagusi baizik. Batera ta bestera dabil eten-gabe. Marmarrean ari da berekasa)

AXARI

Ez dituk urteak alperrik joaten, ez! Urteekin batera dijoazkio gizonari ausardia eta odol beroa. Soiña oztu eta gogoa auldu... Gero, bildurrari zuurkeri esan, eta orrela dana konpondu... Gure Jaun au ez da emendik aurrerako gazteluaren gora-beerak eramateko gauza... Orretarako adimen argi, biotz bero eta zaiñak sendo bear dira..

Gizon onek guztiak dizkik zearo galduta...  
Ezurrak gogortu, adimena moteldu eta odola oztu zaiok oneri...

(Leiotik kanpora begira dago une batean)  
(Batetik bestera berriro) Gaztelu onek beste buru baten bearrean aurkitzen da. Eta, nor izan liteke buru ori neroni ez ba da? Bai, garai eldu zait. Orain arte, eskeiñi bai baiña eman ez. Itxaroten aspertu naiz. Arriskutik naikoa egin det. Saria bear det orain eta bereala... Bestela, nik egin ditudanak egin...? Ez, alajainkoa... Emendik aurrera ez noa iñoren sorora alorrean. Gaztelua, besterik ez det eskatzen. Eman bearko..!

(Urduri dabil geIa neurtuz alde batetik bestera) Asko al da? Nik egiñak gutxi al dira..? Nere nekeak aundiak izan dira eta saria ere aundia bear zaie. Eta, egia esan, zai egoteko astirik ez det. Itxaroten egonda, asper-asper eginda nago. Garbi itz egingo diot eta erantzun garbia bear det. Emateko asmorik ez badu, esan dezala argi. Nere gariak eldu dira eta biltzeko garaia ere bai.

(Gogo beltz batek illundu dio Axariri aurpegia. Begietatik sua dariola jarri da)  
Ez al zidak ostoporik bidean ipiñiko...!  
Polita legoke..! Orain arte bere mandioak betetzen jardun det; emendik aurrera, beste baten mandioan nereak bilduko ditut. Nai badu eta nai ez-badu. Ez al dut ondo merezia.? Aspertu naiz besterenak egiten; egin dezatela orain besteek nereak. Bere alabaren eskua bear dut orain bertan! Ez al didate ukatuko...

OFF/. Zurubian gora Tiebasko Jaunaren alaba dator. Umetxo bat dakar eskutik. Gazte liraña. Argizari kolorea du. Eguzkiak jotzen ez duen mazustaren kolorea. Begiak urdin ditu eta ille-matasak luze eta beltz. Aitaren begiak eta amaren tximia. Azala beltzarana eta biotza sentikorra moroarteko bere amamarenaren antzera. Bere ama egoaldetik etorri zan Tiebasko gaztelura, Tudelatik ekarria. Amaren ama moroa zala zurrumurrua sortu zan Tiebasen, etxeoandre berria Tudelatik ekarri zutenean. Soñeko luzea dakar eta gerria estua Lore, gazteluko alabeak.

(Kamarak lagunduko dio bidean)  
(Axarík atakan ikusi duanean onela dio bere kolkorako:

AXARI

Arrera ona egin bearko diot eta aurpegi alaia ipiñi.

LORE

(Umetxoari begiratu bear aretan ez du Lorek Axaririk ikusi sartu dan artean).

Emen al ziñan...?

AXARI

Ementxen zure zai...Aspaldian ez nuela zurekin itz-jario gozorik egiteko aukerarik-eta...

LORE

(Berekiko)

Betikoa... Sinistuko diotelakoan...Zeren ondoren dabillen badakit...

AXARI

Itz egídazu, Lore... Zuretik darion ezti gozoa ez eidazu uka...

LORE

Aita nun da?

AXARI

(Oso goxo)

Errege-ordezkoaren billa joan da.

(Lore alde egiten asi da)

Nora zoaz? Zaude nerekin apur batean...

LORE

(Illun)

Zer nai dezu?

AXARI

(Lorek eskutik dakarren umetxoari begira)

Ezkon-opari ederra ekarri ez badizut gero nik...

LORE

(Umea aitatzean biguntzen da Lore)

Gaixoa..! On-ona da mutiltxoa... Nundik ekarri dezu..?

AXARI

Badet nik Lazkanoko Albitxu baserrian lagun bat... Arrek utzi zidan semea...

LORE

Eta, amak bere semea ekartzen utzi dizu..?!

AXARI

Ez du amarik izan bear...

LORE

Esaten nuan ba nik... Gizona izan bear bere semea etxetik kanpora bialtzeko..!

AXARI

Gurekin konfiantza duen seiñalea...

**LORE**

Ez txikia ere, orrelako umetxo bat iñori emateko...

AXARI

Uste oso-oso du guregan. Jostallu polita izango dezu...

LORE

Jostaillua..? Ama izango nazaio. Banoa baztarrak erakustera, ia apur bat alaitzen dan.

AXARI

Negarrari ematen badio, astindu zazu..! (Lorek alde egiten du. Axari bakarrik)

Ez du nerekin eskontzeko gogo bero okerrago. Nai badu

eta nai ez badu, nerekin eskondu bearko du. Aspalditik eskeiñi zidaten eta berarekin batera gaztelua. Nere elburura iritxi naiz. Nere garaira eldu naiz eta ez det denbora alperrik galtzeko gogorik. Neri adarra jo..? Ez onek, ez bere aitak, ezta beste inork ere gaztelu onetan.

(Leiotik begiratzan du berrito)

Eginkizun aundia bete det. Orra laznakoko semea atzemanda dakarte. Nere epea bete da. Orain edo sekulan ez!

(Korrika alde egiten du zurubian beera)

(Semeno eta Borjaren erraiñuak gelaren baztar batean testigu)

## **22/- Etxeko atarian. Egunez.**

(Semeno dakarte gudarien artean lotuta. Lerden eta kopetillun)

(Atarian axari zai)

AXARI

Ongi etorri, Semeno, zure kabi gozo onetara... Aspaldiko zorra diak. Nik zaurituta-ko basurdea, ik jaso alajaiñetan eta gaiñera nere bizkarretik parre eragin... Arrapatu aut, basurda-kume ori. Egizak orain parre... Arroputsa ire aurrekoak bezela. Guztiak menperatu nai Kastillarekin buru bat eginda... Beti Nafarroaren aurka... Nere oinpean bear dek... Nere txanda eldu dek... Itzik ez al dek..!

GUDARIAK

Ba, mingaiña barruan du. Bere lagunak agotik kanpora du berea. Arbola baten urkatu degu.

AXARI

Ondo egiña eta beroneri ere beste orren beste egin baziozuten, obe. Laga gu emen eta zoazte, bi ez beste guztiok, zuen gelara, deskantsua bearko dezute-ta. (Bi gudari gelditzen dira eta besteak badoaz erdiko atetik, zurubi atzetik.)

Odolkiak ordaiñetan, Semeno. Nere eskuetan erori aiz basakatu baten antzera. Egizak orain parre..! Bildur al aiz..?

SEMENO

Askatu lokarriak eta ikusiko degu emen nor den bildurtia.

AXARI

Zorua naizela usten al dek, iri lokarriak askatzeko..?

SEMENO

Orra bildurra nork agertzen duen. Ire bildur..? Noiz..? Basoan basurdearen ondoren, Aralarko oianean, alkar jo genduanean..? Zergaitik ez itzan orduan nere aurrean aiñ arro jarri..? Testigurik gabe, biok bakarrik, aurrez-aurre, zergaitik alde egin oan basurdea nere eskuetan utzita..? Nere geziaren aurrean dar-dar ikusi induten basoko pagoek..!

AXARI

Makillaldia irabazten ari aiz.

SEMENO

Egia beti mingarri. Ezagun dek ire jatorriá...

(Axarik ez dio itzak amaitzen utzi. Jo du aurpegian).

Lotuta dagoanarekin gogorkeria... Zaldizaiña izan aiz i beti!

AXARI

Mingaiña moztuko diat.

SEMENO

Gizon eta zaldun baitzake, nere eskuak askatu eta ezpata eskeiñiko eidakek.

AXARI

Sare barman arrapatu aut eta sare barruan bearko dek, katamotz orrek. Nere oinpean aut, Semeno.

SEMENO

Gezurrak irten dik: ni Etxeko jaunaren menpean nauk. Ez, ire menpean.

AXARI

Biok bat gaituk.

SEMENO

Orduan, a zer bikotea..!

AXARI

Arro ator... Joango zaizkik arrokeriak emendik irtetzerako...

SEMENO

Lotuta dagoanarekin arro... Lazkano aldean ez zerazte zuek aiñ arro agertzen..!

AXARI

Egun gutxi dira an izan naizela. I Olazagutin itzala zeñek esan zidala usten dek lazkaular batek ez bada..? Lagun onak

zauzkat nik Lazkanon...

SEMENO

Eurak ez ditek, ba, iregan lagun onik billatu...

AXARI

Eta, nik neurekin eraman izan oi ditudan diruetan...? Oientzako ez da ate itxirik...

Motelak bizkortu, itxuak argitu, errenak arindu, argalak indartu, okerrak zuzendu, zuzenak okertu... orra diruaren zenbait aalmen... Urre-gorriaren dizdira ikusi orduko, leialena ere salatzaille biurtzen dek. Orrenbeste jakingo dek ik ere.

SEMENO

Tamalez, bai.

AXARI

Diruak lillura sortzen dik bamean eta zuen artean badiat nik diruak lilluratutako bat. Zuen kabian sartzeko ausardia bear dek eta neri ez zait falta izan... Salatzaillea nor dan jakin nai dek..? Emango diat gusto ori: Lazkaumendian, Aralar-bidean, bada karobia aldamenean duen baserri zabal bat..

SEMENO

Gezurretan ari aiz. Albitxukoak ez nau zekulan salduko!

AXARI

(Kantuz letanien antzera)

...okerrak zuzendu, zuzenak okertu...

**SEMENO**

Alperrrik ari aiz.

AXARI

Leialena ere saltzaille...

SEMENO

Alperrrik abil.

AXARI

Probak eta argibideak bazetiat...

**SEMENO**

Ez diat tutik sinisten.

AXARI

Iretzat okerrago.

(Une orretan Tiebasko Jauna agetzen da zurubian, beera datorrela. Berekin datoz Erregearen oredezkoa, eta Lore).

T. JAUNA

Emen al zerazte?

AXARI

Bai. Oraintxen nengoen zuri berri emateko.

T. JAUNA

Itxaron apur batean jaun au agurtu a rte. (Gazteluaren atarian bertan ipiñi dio zaldia

gudari batek. Alde egiten du Erregearen Ordezkarriak.) (Agur egiten diote)

(Semenori)

Ongi etorri gure etxera, Semeno.

(Axariri)

Lorek ikusi ditu sartzen eta albistea ematera etorri zait.

AXARI

Ez neuzun esaten..? Ara gaur bertan nola ekarri duten.

T. JAUNA

ALA DEK BAI; ALA DEK. Orain joan eta egizek Lazkanoko gora-beerak.

(Axari ikuilluko atletik sartzen da zaldia aukeratzera. Bitartean beste guztiak gora doaz. Gero Axarrik irten eta alde egingo du zaldian)

### **23/-Tiebas Gazteluko geia nagusia. Egunez.**

(Guztiak atletik sartzen dira)

T. JAUNA

(Gudariei)

Semeno askatu. Lazkanoko semea ez dago ondo lotuta.

(Semeno askatzen dute eta gudariak alde egiten dute. Bi geldituko dira atean kanpotik zaindari)

LORE

(Semenori begira-begira dago. Aitari maitekor onela diotza)

Jaten amango al diot; goserik izango data.

**T. JAUNA**

Bai, Lore, emaiozu jaten.

(Lorek alde egiten du jatekoaren billa).

(Semenori) Zeure etxean zaude, Semeno.

SEMENO

Neure etxean..? Pozago ikusiko zenduteke guztiok nere burua pago batetik zintzilik.

**T. JAUNA**

Ori ere nere esku dago.

SEMENO

Zuk ni urkatu..? Bizarrik ez dezu...

T. JAUNA

Ez nazazula berotu... bestela gaur bertan egingo det lan ori.

SEMENO

Ondorenak gogoratu eta zatoz orduan ni urkatzera..!

T. JAUNA

Tiebasko Jauna argizarizkoa dala usten al dek..! Ire lagun Periz illa dek eta i iltzeko

arriskuan...

SEMENO

Zaunka asko egiten duen txakurrak...

**T. JAUNA**

Berotzen ari nauk ire arrokeriarekin... Itzak neurtu, mesedez...

(Semenok bere burua arro jasotzen du Jaunaren aurrean. Alkarizketa au Lorek etendu gelan sartzean. Gaztaia, ogia eta ardoa dakartzki eskuetan eta maiean uzten ditu).

LORE

Ara emen gosea iltzeko aiña... Beste zer-bait nai badezu..?

SEMENO

Eskerrik asko. Zure aitak eskeintzen didana baiño ohea dezu au.

(Semenok maiean eseri eta jan. Bitartean Lore berari begira.)

**T. JAUNA**

(Bere kolkorako)

Arroa duk Lazkanoko kasta au. Ez litekek burua makurtuko ilda ere. Barruko nere gorroto bizia asetzeko une egokia eldu zait. Urkatu ere urkatuko nuke; baiña, gero euren atzaparretan eroriko bagiña... Neri aurpegi eman ume mukizu onek! Alaz ere obe izango degu onen trukean abere mordoxka bat ateratzea...

(Semenori)

Emendik alde egiteko asmorik ez artu, bizia galduko zenduke-ta.

(Alde egiten du eta ate-ondoako gudarieri ezer esaten die).

LORE

(Lore eta Semeno biak bakarrik. Semeno jaten maiean eta Lore zutik berari begira biotz-bera eta ezti)

Ona al dago?

SEMENO

Txerri goseak, ezkurra ames eta gose danarentzat, ogi gogorrik ez. Gogorraren orde, biguñia eta gaztaia ekartzen badi-zute...

LORE

Ez da ezer askor

SEMENO

Arrazoi dezu. Ori baiña gauza oberik arkitu det nik emen...

LORE

Zer arkitu dezu?

SEMENO

Gorroto illun artean, maitasun-izpi baten argia...

(Loreri aurpegia gorritu zaio beltzara izan arren. Ixil-unea. Semenok, jan)

LORE

Geiagorik nai..?

SEMENO

Gauza bat geiago naiko neuke: zu Tie-basko alaba ez izatea.

LORE

Ene..! Ori gauza arritzekoa...

SEMENO

Ez da gauza aiñ arritzekoa... Dana dala eta dena den, gaur egin didazun arrera on au ez det sekulan aztuko.

LORE

Izan ere, Lazkano ain urrutian ez balego...

SEMENO

Sei ordu ez dira bear andik onera etortze-ko...

LORE

Ez naiz orretan ari.

SEMENO

Zertan ari zera, ba..?

LORE

Gure arteko gorroto sakon eta luzeak ditut gogoan... Gorrotoa anai-artekoa izateak ematen dit min geiago oraindik.

**SEMENO**

Auzokoak gera eta auzokoekin egin oi da burruka...

LORE

Gure artean ez luke orrelako gorrotorik bear...

SEMENO

Auxen da arritzekoa benetan! Ez nuen bela pentsako, emen guri iñork maitekor begira zezaikigunik...

LORE

Aitari esaten diot gure artean pakea egin bear dala.

SEMENO

Ori eziña da.

LORE

Ba, nik pakearen bideari jarraituko diot beti. Lortuko banu ezer..!

SEMENO

Alperrik zabiltza, Lore; bizi osoan gorroto izan dana, zartzaroan nola maitatu..?

**LORE**

Alaz ere, bide orreri jarraituko diot asper-tzeke, gogoz nai duanentzat ez bait da eziñik.

SEMENO

Oraingo au beintzat, bai. Eta, alkarrekin



zertan ari geran zure aitak entzungo balu..?

LORE

Gure aitak badu zeregiñik Erregearen ordezkoa etorri ta gero.

SEMENO

Zertara etorri da?

LORE

Gudari billa eta, badakizu, ez dira edonorekin konformatzen; onenak nai dituzte...

SEMENO

Emen dabillen petral ori ez al du gerrara bialdu bear..?

LORE

Ori ez du egundo bere aldamenetik kentzen. Orrelako gizon azkarrik ez ornen da edonoiz jaiotzen.

SEMENO

Zertarako dan.

LORE

Neronek ere orixe diot. Aspisugetarako ederra ori... Beti dabil nor nola salduko.

SEMENO

Kanpoan izan dala esan dit, Lazkanon.

LORE

Ala dio berak.

SEMENO

zertara joan danik..?

(Lore zalantzan... Baiña, itz egitea erabaki du)

LORE

Bai, esango dizut, ez bait zait bere ajolik. Zure berri jakitera joan zan Lazkanora.

SEMENO

Eta, an duen lagunak ni Olazagutin nengola esan zion.

LORE

Nik aiña badakizu. Ango baserri batera joana da, Aralar bidean. Baserriaren izena ez zait gogoratzen.

SEMENO

Izenak esango dizkizut, ia orrela gogoratzen dezun: Atxubitetxe, Abalin, Beistin, Iztueta, Albitxu...

LORE

Orixe da!

SEMENO

Albitxu baserrian izan dala ziur zaude?

LORE

Berak ala dio entzun nai duanari. Dan ala ez jakiteko bidea badezu, umetxo bat ekarri du bertatik-eta.

SEMENO

Nolakoa da ume ori? Zer seiñale ditu?

LORE

Lau urte inguru, urregorritzko illea, Joan duela izena esaten du...

SEMENO

Baliteke... Baiña, zertarako ekarri du onera?

LORE

Argibidetzat edo... Zu Olazagutin ziñan ala ez jakin arte...

(Ortan ari dirala Axari eldu da ate-ondora eta zertan ari diran entzutean izkutuan gelditzen da salatari)

SEMENO

Gure-gureak bakarrik zekiten ni Olazagutira joana nintzala, ixilletako arazora joana bait nintzan... Albitxu bada, ardi-narruz jantzitako otsoa da bertako Otxoa jauna... Nundik jakin dute bestela, ni Olazagutin nengoela..? Eta, Albitxuko semea emen, zertan..?

**AXARI .**

(Barrura sartzen da)

Orrelakoak sinisten dituk..?! Ja, ja, jai...!

Ezari txoroa izan, Albitxu oso leiale dek.r.

Zeiñentzako dan jakinbear...

SEMENO

Ago ixilik, betiko zaldi-zain ori! Gizon baitzake, ez ukek ire lagunak salduko.

AXARI

Aren bearrik ez diat geiago.

SEMENO

Suge saltzaillea..!

AXARI

Ni ala Albitxukoa?

SEMENO

Biok.

AXARI

Mintzo ari gaur. Nik moztuko diat iri biar mingain zikin ori..!

T. JAUNA

(Zurubian gora dator gudariz inguraturik amorruren bitza ezpaiñetatik dariola.

Sartzen da gelan eta Semenori amorruez begiraturik)

Aita arro baten seme arroa..! Lotu zazute!

(Berrito lotzen dizkiote eskuak sokaz)

Ori egin gizonak..! Abereak agindu eta soldaduak prestatu..?! Damutuko zaio!

AXARI

Zuri irrika eta iruzur egitea da ori, jauna,

zu tentel bat baziñake bezala...

T. JAUNA

Ni tentela..? Datorrela len-bai-len. Emen sartu orduko ire burua leiotik zintzilika ikusi dik, Semeno. Aiek biar goizean emen orduko, irea egiña izango dek. Tiebasko Jauna ez da odolagaitik ikaratzen dan emakumezkoa.

AXARI

Orretan tinko, jauna. Gogor jokatu bear degu.

LORE

Ez, aita, ez zazu orrelakorik egin! Arren, aitatxo..!

T. JAUNA

Noiztik orrela..?! Ire aitaren aurka al abillen..?! Biar bertan urkatuko diñat!

LORE

(Aitaren aurrean negarrez eta belauniko)

Ez, aitatxo..! Ez..!

T. JAUNA

Kendu nere aurretik..! Artu eta eraman zazute emendik!

**(Bi guda-mutillek galtzarbetik artu eta eramaten dute kanpora. Lorek alde egin duanean, gudariei)**

Ori kartzelara. Giltzapean ipiñi. Zer, ba.?

Lazkanoko jaun arro orrek neri iruzur..?!  
AXARI

Zित्रin batzuek bagiña bezela artu gaitu, jauna.

(Batetik bestera dabilta biak gela neurtzen beuren urratsez)

**OFF/.** Aurpegiko zaiñak leer bearrean dauzka Tiebas Jaunak: Amorru bizia batetik biotzetik gaiñezka eta bildur apurren bat ere bai naastean... Axarik poza begietan: beste asmo guztiak betetzen doaz banan-banan. Elburua begien aurrean dauka eskuekin ikutzeko moduan. (Atetik morroi bat izketan)

MORROIA

Jauna, orain étorri dan fraile batek bero-

rrekin egon bear duela dio.

T. JAUNA

Zer arraie nai du fraile batek gurean..?!  
MORROIA

Berorreki itzik egin gabe ez ornen da emendik joango.

AXARI

(Jaunari)

Ez dauka nola-naiko ausardia fraile kas-

kamotz orrek..! Neregano baletor..!

T. JAUNA

(Morroiarri)

Datorrela aurrera eta orrela jakingo degu zer nai duen.

AXARI

Fraile motz oiek beti iñoren bizkarretik nola biziko... Eurak lana egingo baiuteke, beti besteen ematekoari zai egon gabe... Nik ematekotan badaude..?

T. JAUNA

Zergaitik diek fraileei ainbeste gorroto..?

AXARI

Alper utsak direlako.

FRAILEA

**(Morroiarekin sartu da. Kapusai luzea dakar orpoetaraiño bere txanoarekin, nekazarien antzera, soka bat gerrian eta gurutzea lepotik zintzilik)**

Arratsalde on Jainkoak.

T. JAUNA

Zerk ekarri zaitu gurera?

FRAILEA

Eskean etorri naiz ingumari auetara...Zuen gazteluan sartu eta sukaldean esan didate biar goizean, albakoan, gizona urkatu bear dezutela.

AXARI

Ala da eta zuri, zer..?

FRAILEA

Olakoetan badut nik eginbear bat...

**AXARI**

(Asarre)

Zer eginbear, gero..!

FRAILEAK

(Apalkiro)

Gizarajo orrek, mundo onetatik joan baiño lenago, bere animaren gauzak zuzendu bearko ditu, eta nere eginbearra da berari laguntzea, eta zuena, neri lan onetan eragozpenik ez jartzea; kristau izena alperrik eraman nai ez badezute, beintzat...

AXARI

Ori geitxo eskatzea da. Limosnakin konforma zaitez.

FRAILEA

Kristaua moroa bezela bialduko zenduke beste mundura..! Orretarako egiten dezute moroen kontra burrukan..?!  
T. JAUNA

Ez, Axari, orretan ez dek arrazoi... Bere eskaria bidezkoa da; kristaua ez da moroa, ezta txakurra ere. Urkatuko badet ere, eriotz ondorengo kalterik egiteko

eskubiderik ez det.

**AXARI**

Nik ez nioke utziko.

**T. JAUNA**

Nik, bai.

(Morroiarri)

Lagundu kartzelara.

OFF/. Jauna eta Axari alkarri begira, biak bakarrik. Kopetillun dago Jauna eta bere bekokiko zimurrek barru-barruko bezkak agertzen dizkigute. Axari, berriz, mutur-zorrotz.

**AXARI**

Jaun biotz-bera, zergaitik ez dezu inpernura botatzen! Ori ere zeure esku dezu.

**T. JAUNA**

Oker asko egin ditut nere bizitzan; baiña, orrelakorik ez. Gizonaren azken ordua bat dek.

**AXARI**

Bigunegi ari zera jokatzeko gure etsairik txarrenarekin.

**T. JAUNA**

Ortik naikoa degu. Eseri gaitzen eta esan nola egin dituken ainbeste gauza, ain aguro. Abereak agindu eta ordeztatu gudaririk prestatu?

(Jartzen dira maiean bata bestearen aurrean)

**24/-Gaztelutik kanpo. Egunez.**

off/. Goazen atzera Axaririk gaztelutik irten duanean zer eginduen jakitera. Zaldian doa Lazkanoko bidean, baiña basoan sartzerakoan, ara or nun datorren Katagorri zaldia leertu bearrean. Alkartu dira biak basoaren sarreran.

**KATAGORRI**

Emen nator ni presaka eta Lazkanora bueltatu bear det, nere aldeegitearekin aortu baiño lenen.

**AXARI**

Oraintxen ninjoan zuenera, ango berri jakiteko asmoz, baiña zorionean zu etorri zera gurera. Agureari gezurra esan diot, alegia, Semenoren truke ganadu-taldea eskatu degula...

**KATAGORRI**

Itz bietan esango dizut gertatukoa: Semeno Tiebasko bidean dala entzun dutenean, bereala gudaririk prestatzen asi dira; baita Larrea eta Berastegiko lagunei laguntza eskatu ere. Laister izango dezute

berealdiko erasoren bat. Kontuz ibilli eta besterik gabe, banoa ni etorri naizen bidetik. Agur.

**AXARI**

Agur, Katagorri eta esker mile. Alkar ikusi arte.

(Katagorri basoan sartzen da etorri dan lekutik.)

(Kamarak eman beza alkarte onen berri osoa.)

**25/-Gazteluko gela berriro.**

(Tiebasko Jauna eta Axari ebagi degun alkarrizketan)

**AXARI**

Semeno nun zan jakinda gero, esan nizun bezela morroi bat utzi nuen Katagorriren etxean, andik bi egunera Semenoren truke abere-taldea eskatuz...

**T. JAUNA**

Eta?

**AXARI**

Beiak agindu bai, baiña bitartean gudaririk prestatu... Orregaitik etorri da Katagorri...

**T. JAUNA**

Benetako axaria aiz i.

**AXARI**

Baztarretan lagunak izatea bezelakorik ez da. Orra gauzak errez asko egin...

**T. JAUNA**

Orrelako bururik ez dek aspaldian beste bat jaio...

**AXARI**

Alaz ere... ez didazu alabarik emango..? Zer geiago nik egireterik nai dezu..?

**T. JAUNA**

Lore ez dek ire zale...

**AXARI**

Arren baiezkorik ez det nik bear; zurea nai det nik. Zure alde eginditudanak egin eta nere belarriak ez al dute sekulan zure baiezko orí entzungo..?

**T. JAUNA**

Lorera biotza beartzerik ez nuke nai... Ire zale ez dek bein ere agertu eta, orain gutxiago...

**AXARI**

Susmoa artu diot bai... Orretarako ekarri al degu urde ori..?! Eskerrak biarkoa izango duela aizkeneko eguna... Orreri eskerrak! Banoa berarekin aurrez-aurre kontua garbitzera.

T. JAUNA

Frailearekin egongo da bere lanak egiten...  
AXARI

Dagoela. Lenago ere esan dizut txakur bat bezela bialduko neukela nik ori beste mundura.

**261:Goiko solairuko kartzela. Argi-nabarra.**

(Burnizko ziriekien egindako atea du kartzelak. Ateondoan kartzelzaiña krisaillua aldamenan duela. Argi motela, nabarra. Atearen ziri artetik frailea ikusten da eta bere aurrean belauniko Semeno bere pekatuen aitormena egiten. Ez ditu zaindariak dagoen tokitik ikusten. Fraileak eskuak askatu diozka Semenori eta, gonak jasota, gorputzean bildurik zekarren soka luzea askatu du eta Semenoren atzetik gorde. Jaikíta atera dator)

FRAILEA

Tira, gizon, iriki aidazu atea.

(Kartzelzaiñak krisaillua artu eta urbiltzen zaio)

ZAIÑA

Egin al dezute..?

FRAILEAK

Onek egin ditu bere egitekoak.

ZAIÑAK

Biar goizean urkatuko omen dute...

**FRAILEA**

Gizarajoa...

(Kartzelzaiña, krisaillua eskuan, atea itxizten ari dala, eldu dio fraileak atzetik, eta, belauna bizkarrean sartzen diola, etzan du lurrean aoz-gora. Semeno datorkio laguna eta bien artean lotu dute. Krisaillua erori da lurrera eta argia itzaldtu. Baztarrak illunduta. Zapi bat ipiñi diote aoa estaltzeko, ta barrura sartu dute Semenoren orde. Kartzelako atea itxi eta ateako giltza jaso dute.)

Leioa eskubitik daukagu, Semeno. Bizkor ibilli.

SEMENO

Lotu dezagun soka kartzelako atean. Nora begira dago leio au?

FRAILEA

Mendi aldera. Ariztian ditut zaldiak.

(Fraileak bere kapuzai luzea kendu eta eskubiko leiotik beera dijoa sokatik zintzilik. Semeno zai dago noiz bere laguna lurrera iritxiko. Lurrengaiñean kartzelzai-

ña biraka dabil, loturetatik bere burua askatu nairik. Semeno urduri leiotik begira, lagunak seiñalea noiz joko... Zurubian gora argia dator eta Axari maldizioka. Axari agertzearekin batera Semeno izkutatatu da leiotik beera. Presondegiko atetik kartzelzaiña falta dala ikusirik oska asiko da:)

AXARI

Eneko! Eneko! Nun zera?

(Aurrera doa aterañio eta barruan kartzelzaiña ikusten du lotuta) Zatoz ona biraka gorputzari eragiñaz... Orrela... Onuntzago oraindik... (Aistoarekin loturak ebagitzen dizkio eta aoko zapia kendu)

Zer da au...?!

ZAIÑA

Leiotik iges...

AXARI

Aspaldi..?

ZAIÑA

Oraintxen, zu agertu zeranean...

AXARI

Madarikatua..! Ez dik alde egingo urde orrek..! Ezta fraileak ere..!

(Axarik ez du astirik artu kartzelzaiñari ateak irikitzeko. Zurubian dijoa garraxika) Jauna! Jauna! Jauna!

**27/-Gazteluko gela berbera. Eguna aurrera doa.**

OFF/. Axari kartzelara joan dan ezkeror emen daukagu gure jaun au oso kezkatu-rik bere buruarekin eztabaidan:

T. JAUNA

Bai, zorrak ordaintzeko garaia elduko zan... Bizkorra, leiala, zintzoa, oberik eziña orain arte. Biotz errea agertzen du aldietan; baiña, bere saria irabazita dauka... Lorek ere etxearen alde zerbait egin bearko du...

Axariarekin ez duela nai..? Eta, zer egingo diogu, ba..? Gogozkoak ez ditugunak ere egin bear izaten dira mundu onetan... Ateraldi gogorak ez baditu gero Lorek..! Semeno il bear degulako negar..?!

(Asarre)

Eta zergaitik gure alabak maitatu bear du gure etsaien semea..?! Zoratu egin zait. Zergaitik..? Baiña, zergaitik..? Zergaitik, ordea..!

(Bere buruari eskuekin euzten dío. Burruka larria darabil bere barnean) Kezkatu-rik nauka bere samiñez... Amarik gabe geldi-

tu zan aurtzaroan eta arrezkero neroni izan nazaio aita eta ama... Bera det nere posik aundienar..Beste seme-alaberik ez det... Neronek ere gogorra egin diot nere aurretik bota dedanean... Berotuta nengoen eta ez nekien zer egiten nuen ere...

(Axari sartzen da jaunaka)

Zer dek?

AXARI

Madarikatu alenak! Infernuak eramango al ditu aurretik fraile guztiak bizi-bizirik! Gudariak azkar..! Zaldiak prantatu bear dira..!

T. JAUNA

Baina; zer dek..?

AXARI

Iges egin dutela biak!

T. JAUNA

Ara, or dator kartzelzaiña. Berak argituko dizu nola izan dan. Ni banoa aien ondoren. Ez dute, ez alde egingo.

(Axari badoaz arin-aranga eskeilleretan beera gudari birekin, zaldien billa)

T. JAUNA

(Aurrean bildurturik dagoen kartzelzaiñari)

Zer gertatu da?

ZAINA

Iges egin dutela biak...

T. JAUNA

Orrenbeste banekien nik ere...

ZAIÑA

Presoa aitortu ondoren, fraileak irten du barrutik eta atea itxitera ninjoala, atzetik eldu dit eta bien artean lotu naute...

T. JAUNA

Zergaitik ez dek garraxirik egin..?

ZAIÑA

Aoa estaltzen zidan eskuarekin; nik ortzaka ere ekin diot atzaparretan, baiña alperrikakoa izan da, ez du bere eskurik nere aotik kendu lotu nauten artean... Gero leiotik iges egin dute...

T. JAUNA

(Kartzelzaiñari)

Zoaz etorri zeran bidetik.

(Bere kolkorako)

Ederra egin diagu... Lore dala eta ezdala, ia xamurtu zitzaidan biotza... Oraingoan biak urkatu dizkiat, frailea eta Semeno.

Tiebasko

**28/-Gaztelu-ataritik mendira. Arratsaldez.**

OFF/. Axarik dozenerdi bat gudari bildu ditu, zaldizkoak eta badoaz gaztelutik igez egin dutenen ondoren...

(Gaztelutik basoan sartu arte) (Euren aurretik Frailea eta Semeno ikusi...)

**29/-Lazkanoko gaztelua. Epai-gela. Egunsentian**

OFF/. Garzi Lupiz, Lazkanoko Jauna, goiz jeikita dabil, Semenoren berrien zai. Leiotik begiratzen du tarteka. Urduri dago. Gudari taldea eme dago gazteluan Ataungo bideari begira. Bi zaldun datoz eta goiko almenatik abixoa entzuten da:

Badatoz! Badatoz!

Gaztelu osoa esnatu da. Jeitxi da Garzi Lupiz atarira morroi, neskame eta gudariek. Emen dira zaldunok. Zaldirik jeitxi diranean aitak semea besarkadutzen du.

**30/-Gaztelu-atarian. Eguna argitzen.**

**GARZI (L. Jauna)**

Ongi etorriak Semeno eta Garzaiatz. Epai-maia antolatu berriro. Epailleak bildu eta ekarri Otxoa ere.

(Auek denak morroieri dietza. Gero Semenori)

Onik zatoz? Bizirik, beintzat. Nola tratatu zaituzte Tiebasen?

SEMENO

Gaizki eta ondo.

GARZI

Nola? Nola? Gaizki, bai; baiña, ondo zeinek an?

SEMENO

Alabak. Badu bat, ille gorri eta azal beltzarana...Aretxek ondo.

GARZI

Arritzekoa da kabi aretan maitasun lorerik erretzea...

SEMENO

Ba, alaxe gertatu da, aita.

OFF/. Badoaz guztiak gelara, goiko solairura. Bitartean dena da Semeno agurtzea... eta bizkarrekoak ematea. Maiekoak beuren tokiak artu dituzte.

**31 /.-Gelan.**

GARZI

(Gudariei)

Ekarri Otxoa.

(Badakarte bi gudarien erdian) (Maiaren

ertz batean Garziaitz eta Semeno lekuko bezela) (Beri esaten die)

Ona emen salataria ote dana. Zuek Tiebastik berririk ekarri dezute?

SEMENO

Gaztelu artako ordezkariak esan zidan Albitxukoa zala salataria; baiña, nik ez nion geiegirik zinistu, asieran beintzat; gero, ordea, an ikusi nuen onen semetxo bat. Bertako alabak erakutsi zidan.

GARZI

Bai, aitortu du semea lapurtu ziotela gau batean, zu arrapatu baiña bi egun aurretik.

SEMENO

Nik ez dakit egia zer izango dan. Albitxukoa zala salataria, ori bai esan zidaten eta onen semetxoan an dala, ori ere egia da.

**GARZI**

Emen baditugu beste bi gauza susmoa sortzekoak: diru-poltxa eta Tiebasko ezpata bat.

SEMENO

Tiebasko ezpata badezute, egia da ango ordezkaria Albirxu baserrian izan dala berak aitortu bezela.

GARZI

(Garziaitzeri) Ik badek ezer esateko.

(Oitura bada euskaldunen artean senitarte-koak zuka itz egitea, emen aitak semari egiten dion bezela) (Garzik Semenori, alegia).

GARZIAITZ

Ni lenengo Tiebasko gazteluan sukaldera sartu nintzan, limosna eskean eta an berriketan ari giñala umetxo bat ikusi nuen eta Lazkanokoa zala esan zidaten. la zetarako zeukaten an, galdetu nien? Nagusia engañatu ez zezaten...

OTXOA

(Semenori) (Triste eta zearo joata)

Nik ez zaitut salatu, Semeno, inñundik ere ez.

GARZI

Ik salatu ez badek, nork salatu dik..?

OTXOA

Nik orixe ez dakit; baiña, ni ez naiz izan...

GARZI

Susmo osoak iregan dituk. Emen ez dago besterik.

(Maikoeri)

Proba geiago bear al dituzute..?

MAIKOEK

Ez, jauna.

GARZI

Biar gorpu izango aiz Tiebasko pagadian. Nere eskutik urkatuko aut, jakin dezaten jakin, Lazkanoko Jauna nor dan. Ondo esan al det?

MAIKOEK

Bai.

**EZKER-ALDEKO JUEZAK**

II bedi Otxoa traidorea!

DENAK

II bedi!

(Otxoa daramate bultzaka gudariek, aurgiegia malkoz, lear eginda...)

OFF/.Lazkanoko Jaunaren asarrea ez da baretu, bere semea bizirako lortzeagaitik. Semeno urkatzeko asmoa bazeukaten eta orixe ez dio Tiebasko agureari barkatuko sekulan. Ez orixe. Bere semeari lepotik elduta, badoa gorrotoa asetzero. Marmarrak bukatu dira eta Katagorri gelditzen da bakarrik.

KATAGORRI

(Beazunezko irriparra ezpafiñetan)

Bete diat nere gogoa eta biar goizean urkatuko dute... Biar goizean... gaur bertan izan balitz obe!

(Ixil-unea)

Ni orrela arrapatu banindute..!? Baiña, nik burua argi. Eta, gureak Tiebasko gaztelua burrutatu eta ni naizela jakingo balute..? (Ezpañetako irriparra izoztu zaio)

Aitzakiren bat ipiñita, alde egin bearko det nik emendik...Ni izan naizela jakiten badute, ez nator geiago; bestela, berriz, emen izango nauzute berriro... Agur Otxoa, emendik aurrera ez diat ire itxalirik eraman bearko... Putreak ire aragiak janda, ezurak zuritzen diranean, orduan joango nauk Tiebasko pagadira iri agur egitera... (Alde egiten du gelatik)

MORROI 1

(Gela txukuntzera bi morroi datoz, asierakoak)Esaten nian nik, ez dagoela inñorekin fiatzerik. Otxoa oker bidetik zebillega esan zidan aurrez Katagorrik.

MORROI 2

Berarekin ere ez zegok geigi fiatzerik. Orrek bi arpegikera zeuzkakt

MORROI 1

Nik ez diot bat besterik ikusten.

MORROI 2

Or uzten dizkik Otxoak umeak azitzeko. Ume errugabeak. Ez zaidak buruan sartzen aita errudun danik. Ain ona eta jatorra oan..! Ain zintzoa..!

MORROI 1

Ona, zintzoa eta jatorra..! Arrane-arranea.! Oren zintzotasunak noraiñokoak diren ikusita zeok. Juan-Zuri, besterik ez.

MORROI 2

Emengo benetako Juan-Zuri Katagorri dek...

MORROI 1

Irudipenak...

(Adar-otsa aidean)

Gure Jaunaren asarrea baterenbateg ordainduko du. Tiebaskoak astinduko ditu...

MORROI 2

Tiebas urruti-xamar dago eta bien bitartean ez zaizkio etsaiak faltako...

**MORROI 1**

Tiebasen ezer egiten ez badute, Onako torrea erreko omen dute Burundako sakonean...

MORROI 2

Burundako baillaran ganadurik ez da faltako bei eta zaldi...

### **32/-Lazkanoko gaztelu aurrean. Illar-gibete.**

OFF/. Adar-otsa berriro Lazkanoko inguruetan. Gudariak datoz alde guztietatik oñezko eta zaldizko. Illunabarrarekin batera bildu dira osteak gaztelu-fortalezara. Orts-garbi eta illargi-bete. Kantu zaarrak diona:

"Argizadi ederra  
argi egidazu  
Naparroko bidean  
ioan bearra nauzu..."

Semeno eta Borjaren erraiñuak alkarizketan baztar batean osteak nola doazen begira. Joanik dira eta geroak zer ekarriko duen, jakiteko gaude. Gauza onik ez: sotiña eta negarra, odol-ixurtze eta eriotz-neke mingarriak. Anai-arteko burruka. Senide-arteko eriotz. Iñoiz eta gaur. Beti berdin euskaldunen historian zear...

### **33/:"Cámara de Comptos". Iruñea. Gauez.**

SEMENO

(Semeno eta Borja alkarizketan) (Liburutegi zaarra) (Semenok eskuetan liburu incunabile bat du)

Tiebasko gaztelurik ez genduan menperatu, baiña bai galera ederrak egin Burunda eta Aranaz balleretan...Eriotzak egin eta ganadu ugariak arrapatu. Orrenbestez nere aita Garzi baretu zan, baiña naparrek ez ziren bat-ere baretu.

BORJA

Eta, zer egin zuten?

SEMENO

Zuek egin dezutena: gure aurka etorri. Ona ser dion liburu zaar onek: irakurri zak.

BORJA

Onela asten da: "Compto de Johan Garsia de Reta, Merino de Pamplona, Johan Iñiguez de Urssua Notario de la Curia, y Sancho de Licaracu sirviente de armas, diputados por el Señor Rey a Ipuzcoa contra los de Lazcano..."

SEMENO

Iru zaldun oiek, gudari oste aundi baten buruzagiak, bialdu zituan Erregeak Ipuzkoara lazkanotarren aurka...

BORJA

Bai, emen dakartzki xeetasun guztiak: Milla eta larogeita amasei gudari oñezkoak, ogeita amazapi zaldunak bakoitza bere oñezko lagunarekin... Bumizko zoiñekoak gudarientzat eta fortalezaren ormak apurtzeko, "ingenios de batir", aariak, alegia.

SEMENO

Segurako errian ipiñi zuten euren kuartel jenerala: Alsasutik Zegamara eta emendik Segurara. Zuek ere berdin jokatu dezute: zuek Ataundik eta beste osteak andik sartu dira Beasainera eta Olaberriatik Lazkanora... Burruka azaroan asi zan, 22an, urtea 1330... Tiebastik etorri eta urtea baiño lenago...

BORJA

1331an Garssia de Aguirre bialdu zuten Panplonara Gobemadoreari albiste au ematera: "quod navarri expugnaverant for de Lazcano": naparrek, alegia, Lazkanoko fortaleza burrukatu zutela...

SEMENO

Orra gure etxearen ondamendia, ire lagun naparrek egiña. Baiña, gu mendean ego-

teko ez gaituk jai. Andik lau urteetara,  
1335an, zer egin genduen badakik..?

**BORJA**

Ez dakit ezertxo ere.

SEMENO

Nere anai Lope-Garzi, Lazkanoko Jaun  
berria, izendatu zuten Gipuzkoako Kapi-  
tan Jeneral, Kastillako Errege Alfonso XI  
garrenaren mendean...

BORJA

Bai, ori badakit. Garibay historiazaleak  
esaten du ori.

SEMENO

Nere anaiak, Kastillaren laguntzarekin,  
gipuzkoarrak bota zitun Naparroan zear, i  
orain Gipuzkoara etorri aizen antzera.  
Zenbait inguru zanpatu ondoren, Pamplo-  
nako Merindadea erre eta kiskaldu gen-  
duan. Ansa gaztelua menperatu eta izuga-  
rrizko aberastasunekin, etxera berriro...  
Orduko zaulietatik il nintzan eta arrezkero-  
ko berririk ez dakit, i gure artera etorri aizela  
besterik.

(Ke-artean desagertzen dira)

### **34/: Lazkanoko Beneditarren aldara.**

**Lañoartean.**

(Semenok eta Borja) (Aldaran Iñigo Loiolako  
Amadisen antzera jantzita)

BORJA

Semenok, asarre bizian ekin diak napparrekin  
etorri naizelako; baiña, ez dek artarako  
arrazoirik.

SEMENO

Ezetz? Ez al diat naiko garbi erakutsi gure  
kondaira osoan napparrekin etsai ibilli  
gerala..?

BORJA

Zuek, ordea, Kastillan aldekoak ziñezten.

IÑIGO

(Aldaretik paje-jantziekin)

Ori, ori! Semenok arrazoi!

(Laiño-artean bakoitza bere kutxara eta  
Iñigo sotanarekin)

### **35/-Lazkano. Beneditarren biblioteka. Gauoko amarrak.**

IDAZLEA

(Lo zegoen idazlea esnatzen da. Poltxikoko  
erlojuari begiratzen dio) Amarrak! Ez det  
lo gutxi egin... Oraintxen izango dagerra-  
ren berri ematea.

(An inguruan dagoen radioari eragiten  
dio)

RADIOA

Radio Nacional de España. Camino de la  
victoria. Parie de guerra:

El día de hoy aviones rojos procedentes  
del mar, a las órdenes de José Antonio de  
Aguirre, han destruido e incendiado Ger-  
nica. Nuestras tropas prosiguen su avan-  
ce incontenible hacia el cinturón de Bil-  
bao (Marcha Real emeki)

(Kamara Picassoren **Gernika** laukira)  
(Onen erdian agertuko da **AMAYA** itza).  
Eta. NOIZ ARTE?

SEMENO

Baiña, napparren kontrakoak..!

BORJA

Ni etorri naiz Kastillaren alde, zuen odole-  
koa naizelako.

SEMENO

Zer dala-ta napparrekin buru-bat eginda..?

BORJA

Zuen aurka etorri naiz Kastillarekin bat  
egin nai ez dezutelako...

SEMENO

Baiña, zergaitik napparrekin batera gure  
auka.?! Orixe ez diat sekulan barkatuko!



# ANDRES DE MAÑARIKUA ETA NUERE SARIA

Maiatzaren 31'an, Bizkai'ko Aldundian, "Andres de Mañarikua eta Nuera" sari emotea ospatu zan.

Sari au orain urte bi ipini zan euskal kultura alorrean, euskeraz nai erderaz, lanik mardul eta alegintsuena erakusten dauanarentzat.

1986 urtean, ortarako batzordeak, Leopoldo Zugaza jauna aukeratu eban sari mezigarritzat.

1987'n Aita Santi Onaindia izan da orretarako aukeratua.

Saria milloi bat pesetako da.

Sari banatze egunean, Alberto Pradera jauna, Bizkai'ko Aldun nagusia zan maiburu eta bere alboan Balendin Lasuen, Eusko Jaurlaritzak Bizkaia'n daukan Kultura-ordezkaritzako burua, Tomas Uribeetxebarria, Aldundiko kultura arduraduna eta Ander Manterola, sari onetako epai-maiko idazkaria eta Manu Legarreta, Kulturako idazkari orokorra.

Mañarikua jauna, osasunez makal, ez zan agertu, baiña bai bere zorion agurra biali.

Oiturazko aurkezpen, eskintza, txalo eta itzaldiak egin ziran, Aita Santi'k bere umore eta zirikada jatorrez amaitzeko.

Ainbat euskalzale eta Aita Santi'ren adiskide alkartu giñan bertan, bere lana ezagutu eta lanerako bere gar, ardura eta kezka txalotzen.

Orrelakoetan oi danez, an ziran Euskerazaintza eta Euskerazaleak'eko ordezkarriak.



# BALENDIN BERRIO.OTXOA BERTSOLARIEN ZAINDARI

1. Danok dakigu gure Balendin  
Elorriotarra zala,  
dantzari trebe, pelotari ta  
bertsotan be ez makala.  
Jainkoaz baizen bere Erriagaz  
gizon zintzo ta leiala,  
Bizkaian bear gendun santua,  
euskaldun ta naturala.
2. Noizbait eldu zan gure Balendin  
gizon aundi izatera,  
praile jakintsu, mixiolari  
eta gotzain jaun, gainera.  
Baina ez eban galdu egundo  
lendik eukan izakera:  
santuago ta maiteago zan  
Balendinentzat euskera.
3. Bere amatxok erakutsia  
arturik eukan gogotan:  
"Noranai, seme, joan zaitez baina  
euskaldun izatekotan".  
Euskeraz berba, euskeraz otoi,  
bardin idatzi askotan...,  
Indietatik bere amari  
idazten eutsan bertsotan.
4. Buru biotzez euskaldun danak  
maitasun bi bear ditu:  
Jaungoikoa ta Euskal Erria,  
ez gero oker aditu.  
Elorrioko Balendin onen  
jokabidera begitu:  
ez zan izango santu osoa  
biak maite ez balitur
5. Guztiok dogu geure santua,  
sakristau ta zapatarri,  
bertsolariak be bear dabe  
nok entzun euren eskari.  
Orra Balendin Berrio-Otxoa  
bertsolarien Zaindari,  
euren agotik iraun dagian  
Euskal Erriak kantari.
6. Goiko Jauna ta lurreko ama  
maite ebazan batera,  
biekaz bertsoz jarduten eban  
seme on baten antzera.  
Maitasun baten lotzen ebazan  
sinismena ta euskera,  
ez eban bata, besteagaitik  
zetan bota bazterrera.
7. Sarri askotan bertsolariak  
estu dabilta, gaixoak,  
puntu ta tema ezin eratuz  
nai baizen goxo bertsoak.  
Besterik ezta, argitzen ditu  
ardo-xurruta goxoak;  
gaurtik badabe zeinek lagundu:  
Balendin Berrio-Otxoak.
8. Lendik daukazu irabazita  
Balendin, zuk zeru goia,  
eldu da orain guztiok zuri  
santu deitzeko sasoa.  
Bertsolariak dauke orretan  
sekulako grazi doia:  
Eurakaz ondo portatu zaite  
ta laster dozu koroia!  
  
Betri izan da bertsolaria  
gure erriaren maixu,  
zeregin ori betetzea gaur  
ez da erreza, kontizu.  
Balendin, santu bertsolaria  
or gure gaurko abixu:  
Euskalerriko bertsolarien  
Zaindaritza zeuk artizu!
10. Aspaldi ontan bertsolariak  
egiten dabe alegin,  
berbaz ta kantuz, erririk erri  
euskera galdu ez dedin.  
Miiaka dira neke ta traba  
ta ezin biderik egia;  
E3E RTSOLARIAK ZAINDARITZAT ZE  
ARTZEN ZAITUE, BALENDINii



# EVZKEPX ZXIN.TZ?G

## EUSKERAREN ERRI AKADEMEA

IV Zenbakia

1988  
Uztaila-Irailla

### AURKIBIDEA

Orr.

Eskintza. (Barruko azalean).	
Ikako jokabidea. Pedro Puxana. ....	1 - 5
Euzkerazko izenak... Bixente Latiegi. ....	6 - 10
Aditzai buruz. ñaki Zubiri. ....	11
Elorrio'ko Salendin Deunaren eskutitzak. Olazar'tar Martin. ....	15
Nemesio Etxaniz musikalaria. Kalmel Iturria. ....	16 - 20
Lege gizona, Guda gizona, Elíz gizona. Arrinda A. eta D. ....	21 - 27
Euskera lantzen. A. Zatarain. ....	28 - 29
Matxin Burdin. Aita S. Onaindia. ....	30 - 32
Jakakortajarena olerkari. Lino Akesolo. ....	33 - 37
Berastegi. A. Zubikarai. ....	38 - 40
Jakakortaxarena'tar Txomin. Gaztañaga'tar Jesus. ....	41 - 43
Berastegiko On Txomin Apaiza. Sukia tar Jose Mari. ....	44 - 45
Erlezaintzako iztegitxo. Jakakortaxarena'tar Txomin. ....	46 - 49
Liburu azalak. ....	50
Burgos aldeko eizak. Jakakortaxarena. ....	51 - 52
Sorgin iaia. (Atzeko barruko azaiean).	
Jakakortajarena (Atzeko azalean).	

**Zuzenbideak:**

**GETARIA 21 - DONOSTIA**  
**C. LARREATEGI 14 - BILBAO**

# AKAKORTAJARENA'tar TXOMIN



Zenbaki onen zati bat Txomin Jakakortajarena'ren gorasarrez idazten degu.

Orduak ez dute eten Txomin'en lanerako kemenik. Kale artean, eguzkirik artu ezinda, itzalpean geratu ziran eguzki-orduariekin dabil Txomin'en bizitza. Ordurik zeaztu eziñik, ordu guztiak berdin, eta danak lanaren kerizpean mugatuta.

Otxandio'ko orduarian irakurten da: Gure egunak kerizpearen antzera dijoaz. Baiña esaera ori eguzki-orduariei irri egitea bezela da.

Ba dago Getxo'n zeatzago bat. Eguzki nai itzal, orduen legetzat diona: Danak jo, azkenak il. Bizitzako legea da, baiña bakoitzak bere erara artuta.

Ordu guztiak jotzen dute. Lanean jo edo denpora-pasa jo, or dago aldia. Txomin'en orduak antxiña asi ziran jotzen edo betetzen. Ia zazpireun milla ordu igaro dira jaio zantetik. Ezin ukatu, Jainkoaren legea dalako, alako baten azkena elduko dala. Baiña erleen antzera, Txomin, biziari ezitia sartzen joango dala ziur gaude. Ezitia sartu ta lortzeko loretan. Beretzat biziaren lorea euskera da ta Euskalerrria, eta azken baten Jainko berberaren abaraskako lana.



EUSKERAZAINTZA

Legerako Gordetza: BI - 1928 - 87

Konponketa: Flash Composition. Bilbao.



# IKAKO JOKABIDEA

Ikako jokabidea dala-ta, EUSKERAZAINZA aldizkarirako lantxu bat egiteko eskatu daust Augustin Zubikaral ondarrutar idazle ospetsuak.

Ni-neu arlo onetan aitu-aitua ez banaz be, gogoz bialtzen dausat nire jakite urriaren esi medarretara mugatua dagoken lan bat, norbaitentzat jakingarri edo argimolle izan daitekela-ta.

Bizkaiko euskalkiari, batez be, lotuko nakio, ezagutu be, ondoen berau ezagutzen dot-eta. Azkue izango dot maixu eta gidari.

## IKAREN EGOERA GAUR

Bizkaieraren barruti-barruan ikako jardunbideak daukan luzera-zabalera eta ugaritasuna edo murriztasuna zeatz-meatz azaltzeko ez naz gauza. Iker-lan au oraindiño egin barik daukat eta beste iñon be ez dot ikusi berau burututa.

Badakit, jakin, erri batzuetan gaur-gaur be bizi-bizirik dana ikako berbetea. Beste leku batzuetan, ostera, erabilli, bai, egiten da, baiña gutxiago. Eta badira erriak ikako adizkirik aitatu be egiten ez dabenak. Beste erri batzuetan adizki bat edo beste baiño ez da entzuten, esate baterako, Gernika ondoan daukagun Gautegez-Arteagan. "Aita etorri dok edo don", "au euk egin **dok** edo don", eta onango beste esakun batzuk. Geiagorik, ez. Baiña gutxiago edo geiago, eskualde batzuk kendu ezkeru, bizkaieraren zabalera guztian entzuten dirala esango neuke ikako jokoak.

Niri-neuri, neure bizitzaldian bizi izan nazan errietatik, biotz-zirarrarik aundiena egin daustan ika jardutea - eta zuka be ortxe-ortxe - Angiozar-koa izan da. Bederatzi urtetan bizi izan nintzan Bergarako auzo aretan. Amaikatu bidar egon izan nintzan adi-adi, agoa zabalik eta adurra eridala, ango gazteai, neska-mutillai euren artean ika berbetan entzuten. A bizitasuna, a izkeraren jasa eta gatza, a adlzkien erabillera (dana ika), a ltzen ugaritasuna, a euskera zoragarria! Alnbat aldiz entzun edo irakurri izan dot euskerarik jatorrena Tolosakoa dala, eta, Bizkalan, Marklña aldekoa. Bai? Niretzat edozein lekutako euskera da jatorra, euskera izan ezkeru. Eta zein neurri erabilli bear da eskualde batetako euskeraren jatortasuna neurtzeko? Adizkien erabillera?, deklinabidearen okerrik-eza?, izkeraren bizitasuna eta gatza? Ba, gauzaok neurritzat artu bagengiz, kostako litzakio Tolosako euskerari, edo Markiñakoari, edo beste nonongoari Angiozar-ko euskerari jatortasunean irabazten. Bai, kostako litzakio. Bereak eta bost egin bearko leukez.

Orain ogei urietako kontuak dira. Gaur-egungo barririk ez dakit, ogei urte egin-egiñak dira-ta andik urten nebala. Alan be, umeen eta gaztean artean euskera gutxitu eta atzeratu egin dala daukat entzutea eta gaztelera aurreratu. Guzti au bidenabar diñot.

## ZERTAN DATZA IKAKO JOKABIDEA?

Jakingarri au Azkuek argituko dausku: "La familiaridad de la conjugación consiste en hacer que la persona i, "tú", con quien uno habla Intervenga afectuosamente en flexiones que no son tuyas, de segunda persona, como lo son, por ejemplo, ator tú vienes, daramak (h.) lo llevas, natorkin yo vengo a tí (muj.) (Morfología Vasca, Bilbao, 1923, 517, 518 orr.).

Au da:

I, bigarren pertsonako izenorde ori, bereak ez diran adizkietan, maitez, biotzez edo txeraz ("afectuosamente") tarteko egiten da. Izan be, bitxiak dira begiratu batez egite-erazko orain-aldian darabilguzan ikako jokoak:

(Ni etorri) nok/non (nona)

(i etorri) az/az

(a etorri) dok/don

(gu etorri) gozak-/gozan (gaittuk / gaittun)

(areek etorri) dozak / dozan (dittuk / dittun).

Azkuek esanaren arabera, bigarren pertsonako jokoak (az) ez, besteak izango litzateke ikakoak, az adizkia bigarren pertsonari berez-berez dagokiona da-ta.

Adizkietan gauza arrigarri bat daukagu: aditz laguntzaillearen aldakuntza.

Ots:

Az adizkia izan igarogatzeko (intransitiboko) laguntzaillearen jokoak da. Beste guztiak, ostera, ukan (edun) igarokariko (transitiboko) laguntzaillearenak. Igarogatzeko jokoak izan eta laguntzaille igarokarla erabili. Benetan arrigarria! (Obeto: euskeraren joskerari gagokiozala, ez da arrigarria, baiña ez noa sakonera jotzen, luze ingo litzakit-eta).

"Naiz en trato familiar se hace nauk (m) y naun (f), contraldos en nok y non (B)... Nintzan, yo era, se convierte en nindukan (m) y nindukan (f). En dialecto B la o de nok y non figura por analogía en las flexiones del pretérito imperfecto. Familiaren de nintzan, yo era, son nintzoan y nintzonan; de zan, él era, zoan y zonazan; de gintzazan, gintzoazan y gíntzonazan; de ziran, zoazan y zonazan" (Morf., 517 orr.).

## ZER DALA-TA LAGUNTZAILLEEN ALDATZE AU?

Azkuek dirakuskunez, izan laguntzaille igarogatzak ez dauko ikako adizkirik. Izan, dirausku berak, "sustantivo absoluto" da, eta ukan, barriz, "sustantivo relativo". "La familiaridad de este sustantivo (izan) consiste simplemente en la sustitución de sus flexiones por las de sustantivo relativo (Morf. 517 orr.).

Bizkaleraren barrutiari bagagokioz, leen-aldian ikako jokotzat agertzen eta erabilten diran adizkiak (nintzoan / nintzonan, zoan / zonan, gintzoazan / gintzonazan, zoazan / zonazan) ez litzateke berez ikako jokoak izango, zukakoak baiño, orain-aldiko nok/non, dok/don... jokoetako o erantsiz zerbait aldatuta, izan laguntzaille igarogatzak ez dauko-ta, Azkuek diñoskunez, ikako jokorik. Gipuzkeraz, adibidez, leen-aldiko ikako jokoak nindukan/nindunan, eta abar dira, au da, ukan laguntzaillearen eta Azkueren esanez, "sustantivo relativo" dalakoarenak.

## IKAKO JOKOAK BITARIKOAK DIRA

Bitarikoak, bai. Batzuk i izenordeari (bigarren perisonari) dagokiozak.

Au da:

izenordea esaldiaren NOR, NORK edo NORI danean, sortzen diranak.

Adibidez:

euskalduna az (Nor).

I aitari gaur etorri akio (Nori).

Lan au euk egln dok/don (dona) (Nork).

Ik eure lagunari etxea saldu dautsak (deutsak) (Nor-Nori-Nork).

Jokook jator-jatorrak dira, eta zaarrak, euskerak antxiña-antxiñatik erabili dituenak.

Beste ikako joko batzuk, ostera, ez bigarren pertsonari, leenengo eta irugarren pertsonai (singularra eta plurala) dagokiezanak dira, bereak ez diran adizkietan i ize-nordea etxeko egin dalako. Azkuek dirauskunaren arabera, jokook sasikoak dira (au geroago ikusiko).

Bereizketa edo sailkapen au guztiz garrantzizkoa da, ikako erabidearen zer-izana artez ulertu gura badugu. Azkuek ikako jokaerari damotson egurra (au be geroago ikusiko), bigarren saillean agertzen diran jokoendako da, ez leenengo sailleko edo bigarren pertsonaren adizkiendako. Au kontuan izan begi irakurleak, bein eta barriro diñot.

## IKAKO JOKABIDEAREN BEREZITASUNAK

Ikako erabidearen ezaugarri dan **i** orl bereak (bigarren pertsonarenak) ez diran adizkiai zelan itsasten edo eransten jake.

Emen be jakinblea Azkuek damosku.

"La i familiar se aplica o por incorporación (convirtiendo a **n** en ñ, a **d** en **dd** y a en **II** : **ñagok**, **ddagok**, **liegokek**) o por mera agregación, mediante la vocal epentética **a** (algunos sin epéntesis) : **naiagok**" (Morf. 588 orr.).

Izketan diardugunean, izkidea zeln gizakumea zein emakumea izan daitekenez, eta **-n** ezaugarrien bidez egiten da bereizketa: **doK** eta **doN** eta abar. Ezaugarri bikotx au ikako joko jatorral be badagokie.

## IKAKO JOKOAK ZEIN ADITZ-ERATAN (modo verbal) ETA ALDITAN (tiempo verbal) ERABILTEN ETE DIRA?

Ikako jokook naiz igarogatxean naiz igarokarian, naiz laguntzailezko aditzean naiz sintetikoan entzuten dltugu. Adibidez:

(ni etorri) nok/non (nona) (igarogatxa eta laguntzailleduna).

(neuk egin) joat/jonat (Igarokaria eta laguntzailleduna).

(neu) ñatok/ñaton (sintetikoa eta igarogatxa).

(neuk) jakarrat/jakarran (yo lo traigo) (sint eta igarokaria).

Aditz-erak eta aldiak dirala-ta, egite-eran (orain-aldian eta leen-aldian), baldin-eran eta ondoriozkoan, eta aal-eran ikusten dira. Ez aginteeran (inperatiboan), ezta gurarizko eran (subjuntiboan) be.

Esan dogun au —irakurleak gogoan izan begi— ikako bigarren sailleko adizkiai dagokie, ez leenengo sailleko edo i ize-nordeari dagokiozanai, jokook adltz-era eta aldi guztietan darabilguz-eta, euskerarentzat jatorrak diran ezkerok.

## NOIZ-EZKEROKOA ETA DA IKAKO JOKABIDEA?

Barriro esan: leenengo sailleko adizklak (bigarren pertsonarenak) aspaldi-aspaldi-koak dira, beste edozeln adizki (**naiz**, **dot** (**daut**), **nator**, **gatoz**), eta abar bezain zaarrak. Bigarren sailleko ika jardutea, ostera, ez dala ain zaarra, dirausku Azkuek.

Lau arrazol dakaz bere esan au egiztatzeko.

Leenengoa: Erromatarren Agintaldiaren azkenerantz, zu izenordea batena baiño geiagorena zala, eta aldi aretan asi zirala "tú"ren ordez "vos" erabilten. Onen ondorioz eta latinkumeen eragiñez, zu (vosotros) izenordea, bere jatorrizko lekua itxi eta, lapurretan egiñez, I izenordearen etxean sartu zala, eta beroni ostiko bat emonez, kanpora bota.

Au da: berez batena baiño geiagorena (plurala) zan izenordea, batena (singularra) egin zala. Orduan askorentzat edo pluralerako beste izenorde bat asmatu bear: zuek izenordea. Eta zer da erromatarren Agintaldiaz gero igaro dan aldia, euskera-aren bizitzearen ondoan?, Itanduten dau berak (Morf., 591 orr.).

Bigarren arrazoa: Ikako jokabidea oraintsukoa ez balitz, zukakoa bizi be, ez litzatekela gaur bizi izango. Pertsona guztiekaz ez dogu ika egiten. Gaur bertan be, ika diardugunean, "zuek etorri zarie (zuka) esaten dogu. Aginte-eran eta gurarizkoan (inperatiboan eta subjuntiboan) ez daukagu ikako adizkirik (bigarren saillekorik). Menpeko esakunetan be (oraciones subordinadas), gelenetan beintzat, ez dogu ikako adizkirik onartzen. Azkuek berak dakarren adibidea aitatu dot "Txotxo, ez eiok iñori aterik zabaldu, zer dakarren edo zetara datorren edo nor dan yakin barik" (Morf. 595 orr.). Eiok adizkia ikakoa da, baiña besteak, zukakoak. Onez auxe adierazoten dau: ikako jokabideak aditzaren barruti osoa ez dauala bereganatu. Azkuek aonelan: "Lo cual quiere decir que la conjugación familiar está en latente elaboración, habiendo comenzado por lo menos un siglo atrás su lento y constante trabajo de perforación en flexiones conjuntivo-subjuntivas" (Morf. 593 orr.).

Leku batzuetan, bai, entzuten dirala dirudi esaldi menperatuetan be ikako jokoak. Kirikiñok bere ABARRAK izeneko liburuan badakaz ikako adizki batzuk menpeko esakunetan. Baiña geienetan, bestetara jazo oi da.

Irugarren arrazoa: Ikako jokabidea sortzez eta jatorriz euskerarena balitz, talde bati berba egikeran be erabilliko gendukela, diñosku Azkuek. Eta, gorago esan dodanez, bati baiño gelagori berba egikeran zuka egiten dogu.

Laugarren arrazola: 1 izenordea sasiko egin zan, zu izenordeak aren lekua —bigarren pertsonarena— bidegabez artu ebanean, errespetudun pertsonai itz egite-araon. Ori dala-ta, dirausku Azkuek, ikako jokabidea ez bakarrik oraintsukoa, gaiñe-  
ra, izkuntzan izan dogun aren sarrera umekerl edo mutikokeri baten antzekoa be bada. Alderdi batzuetan ijitoen izkuntza, motzailleen berbetea, berbeta motza (zatarra) dala esan oi dabe.

## IKA ETA ZUKAREN ARTEAN GORA-BEERAK

Ikako jokabidea (bigarren saillekoa) euskal aditzarentzat guztiz kaltegarri izan dala diño Azkuek, eta zorrotz esan be. "Nuestra ciertamente apreciable y sobradamente decantada conjugación familiar ha producido tales desaguisados en la corte del auxiliar, que valiéramos más no hubiera nacido" (Morf., 573 orr.). "El dialecto en que más desaguisados ha cometido esa i de la conjugación familiar es el bizkaino" (Morf., 577 orr.). "Hoy, si estuviera en mi mano... propondría yo su radical eliminación, y entonces "vengo" babría de ser siempre, como lo fue, nator, vienes ator, viene dator, venís vosotros zatoz (el zatoze y zatozte) no tendrían razón de ser"... (Morf., 596 eta 597 orr.).

Epaiketa gogorra, gero!

Gorago esan dogu zu izenordea, berez plurala dana, bere barrutik urten eta iñoren etxera aldatu zala, ots, i izenordearen etxera, eta etxe onetan lapurretan eginda, bertako jabe ezln zala, eta an txairo-txairo bizi zan i izenordea kanpora bota ebala.

Baiña bere etxetik kanpora jaurtia izan danak nonora joan bear, eta i izenordeak be bereak ez ziran adizkietan egin eban abia eta adizkiotan ostatu artu, berezko adizki



jatorrak ziranetan triskantza itzela egiñez. Eta triskantza au, bizkaierari gagokiozala, aditz igarogatxean eta NOR-NORIdun adizkietan egin eban, batez be.

Ikus dagiguzan, adibide laburrez, bizkaieraz gaur-egun darabilguzan adizki batzuk:

NIRI	ZURI
(zu etorri) za-IA-taz.	(ni etorri) na IA-tzu
(a etorri) JA-t.	(a etorri) JA-tzu.
(zuek etorri) za-IA-taze.	(gu etorri) ga-IA-tzuz.
(areek) etorri) JA- taz.	(areek etorri) JA-tzuz. Eta abar.

Adizki jatorrak, Azkueren eretxiz, urrengook izango litzatekez:

NIRI	ZURI
(zu etorri) za-KI-daz	(ni etorri) na-KI-zu.
(a etorri) da-KI-t	(a etorri) da-KI-zu.
(zuek etorri) za-KI-daze	(gu etorri) ga-KI-zuz.
(areek etorri) da-KI-daz	(arreek etorri) da-KI-zuz. Eta abar.

Zer egin dau i izenordeak bereak ez diran adizkiotan? Iñoren etxean sartu eta datibo-aurreko —KI— izkia edo morfema bere etxetik jaurti eta, aren ordeaz, berak bertan ostatu egin. Orra adizkion triskantza, orra ondamentia. Azkuek aonelan: "Como este elemento reflexivo ki se manifestó hurafío con el intruso i y desaparecía cada vez que éste quería ponerse a su lado, el intruso se ha vengado de él quedándose en sus flexiones disfrazado de respetuoso" (Morf. 574 orr.).

Kalte au bizkaierazko igarogatxean egin dau i izenordeak, adizkiok ondatuz eta itxuraldatuz. 1 ori or sasikoa da, arrotza, erbestekoa, iñoren etxean abia egin dauana.

## ETA IGAROKARIAN BE BAI

Ikako erabldeak bizkaierazko aditz igarokariari (transitiboari) ez dautso ainbeste ikutu, baiña zerbait bai. Entzun dagoigun Azkueri: "En Oñate, Anzuola y algunos pueblos de la comarca bergaresa la i familiar se atreve hasta con el reflexivo tsi, incorporándose al objetivo d y eliminando este elemento de reflexión. Por "berak egin dautso", dicen allí "egin xao" unos y "egin jao" otros". Neuk be, Angiozar-en bizi nintzanean, ainbat blder entzun neban errian (Angiozar-en) jao adizki bitxi ori. Zer ete zan eta iñork ez eustan arrazoibiderik emoten. Azkenik, Azkueren Morfologian aurkitu neban argibidea. (Ikus Morf., 575 orr.).

Azkuek dirauskunez, badirudi ikako jokabideak bizkaierazko igarogatxean egin dauan antzeko zarraskia, gipuzkerazko aditz igarokarian (transitiboan) egin daua. Entzun berari: "Origen probable de este núcleo i parece ser la conjugación familiar... Son tan repetidas y corrientes entre gente del pueblo estas flexiones egin dik y egin din, diat, dinat, diagu, dinagu, ditek, diten... que por contagio ba quedado esa di como base de las flexiones del recipiente diogu, diot reemplazando a dautsagu o daraugu, dautsat o daraukat, daust o daraut" (Morf., 570-571 orr.).

Ona lanonetan ikako jokabidearen inguruan nabarmentzen diran ainbat jakingarri edo arazo, barrura jo barlk, galn-galñetik azalduta, Irakurlearentzat ikasgai edo aztergai izan leitekezanak.

Pedro Puxana



# EUSKERAZKO IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN

## BEDERATZIGARREN MENDEKO LAU IDAZKI

(1)

Zortzigarren mendeko bi idazki aztertu genituan Aldizkarl onen 1º, 2'n eta 3'n zenbakietan. Iru gauza erakutsi zizkiguten larruki aiek:

- Gure Euskalerrriaren askatasun osoa;
- Kristautasuna eta kultura, guri, iparraldetik etorri zitzaizkigula, egoaldetik balño geleago. Ez da arritzekoa, garai artan Euskalerrriaren ipar-muga, Garona'z aruntz, Dordoña ibaiaren aranean zegoala gogoratzen ba'dugu;
- Asia zala, seguruaski, ordurako, euskal toki-izenak laterazko dokumentuetan laterara biurizeko oitura negargarria. Ala, adibidez, **ARRIETA** edo **ARRIOLA**, "Pedroso biuriu zutela.

Gaur ikerizen asiko geran larrukiak, 807'garren, 828'garren, 856'garren 863'garren eta 864'garren urieetakoak dira.

Aurreneko Dokumentuan, Eugenius apaizak, berak eta bere iru lagunek, beren buruak eta dituzten gauza guztiak, Taranko'n zegoan Emeter eta Zeledon Doneen lekaidetxeari eskeintzen zikiotela dasaigu.

Gauza oien arieen, beraiek, oiñarrietatik gora, beren eskuz egin zituzten bi jaurretxeak ematen zizkieten Taranko'ko lekaidetxe ari: "nostras propias ecclesias Sancti Andree apostoli et Sancti Felicis que manibus nostris extirpe radice fecimus in territorio Area Patriniani".

"Nostras propias" esaten diete eliz aiei gure Eujenio'k eta bere lagunek. Bein baiño gelagotan agertzen da ori garai artako larrukietan. Beraz, Eliz bat eraikitzen zuana, eliz aren jaun eta jabe izaten zan oso-osan.

Toki-izen auek damaizkigu 807'garren urteko Azaroaren 11'ean idatzitako larruki onek:

**TARAÑO, PANDO, NOZETO, AREA PATRINIANI, ROIGO, ROIO.**

So-dagiegun arinkl bost izen zar oiei:

TARANKO— Len ere, zortzigarren mendeko larrukiak aztertzerakoan aipaturik utzi genduan Mena Aranean dagoan erri orren izena. Osotu dezagun gaur orduan esana:

Kerexeta'k, euskal abizen bezala bizirik dagoala, diosku, TARANKO abizena. Eta Elorrio'ko 1053'garren urieko dokumentu batean agerizen dan TURANKO'ren aldaketa bat izan daitekeala.

Ori orrela balitz, pozik emango nuke nik beste urrats bat aurrera: "KO" atzizkl bat dar Eta "KO" atzizki ori "GO" biurtzen da "N" izkiaren atzetik.

Ortaz euskal idazkera jatorrean Turanko'k, TURANGO bear luke. Aide ote ditugu bá lau lzen auek?: TARANKO = TURANKO = TURANGO = DURANGO?

Orra or, Bizkai'ko gure Durango, Mena Araneko Turanko zarrarekin aideturik!

Lopez Mendizabal'dar lxaka'rentzat berriz, Taranko'ren lenen "T" ori, "protetikoa da, "eraskiña", "A" izkiak bere otsari indar emateko sortarazi duan "kontsonante" edo izki laguntzaillea; geiagoko esan-nairik ez duana. Orrela, gure lxakarentzat, Taranko, ARANKO izango litzake; eta nere ustez, orrela izatekotan, Aranko ori, ARANGO genuke euskera egokian.

"ARANG" mamizat daramaten euskal izenak asko dira, ARANGIZ adibidez; eta "ARAN" daramatenak askoz eta askoz geiago.

Gabiltzan ordea zuzurki, eta ez dezagun ziurki ezer aldarrikatu, arri labaiña bait da etimologiaren arrla.

MENA— Izen ortako aranean dago Taranko, eta aran ori, gaur, Bugos'ko Probinzian daukagu. Bere jatorriz ordea bete-betea euskotarra dugu: Enkarterrien zati.

Antziña iru enkarterri bereizten ziran: Santanderkoak, ("Las Encartaciones de Santander), Bizkai'koak; eta Burgos'koak ("Las Encartaciones de Burgos").

Gure larrukiaren denbora aietan eta baita askoz geroago ere, Burgos'ek ez zuan lurralde aietan zer ikusirik. Ez zan oraindik Burgos'ik. Izen au IX mendearen azkenean eta X mendean asten da idazkietan agertzen, eta ez gaiñera oso idazki fidagarrietan.

MENA euskal izena dala, ez da zalantzazko gauza. Aran artatik ez urruti, Araba'ko AIALA aranean bada gaur ere MENAGARAI izeneko erri polit bat. Eta MENAKA bat, Bizkai'n. Eta balta "MENA"z osotutako itz eta abizen ugari ere Euskalerriazear.

Zer esan nai duan? "Mea" eskierki; gazteleraz "vena de mineral". "MEA" itzetik dator euskerazko "MEATZA", gaztelerazko "mina".

Lopez Mendizabal'entzat berriz, "mena", "larre", "basa- belardi", litzake, "M" protetikoaz eta "ena" "ana" "una'z" eraturako itza. Azkeneko iru itz oiek berriz, gaztelezko "gamon" esan nai ornen dute. Ez dakit nondik atera duan ori Lopez Mendizabal'ek. Azkue'k ez die bere iztegian —iru itz oiei— orrelako zentzurik ematen. Orrek ordea ez du ezer askorik esan nai, Azkue'ren iztegiak, fitologia eta zoologia, ots, belarritia ta aberiztia, ez bait ditu ia-ia ukitu ere egiten.

Ba dute or gure euskal akademiek lan eder garantzitsua! Belar, belarkl, pizti eta mozorroen izenak, gure belaunaldiko euskaldun zarrekin batera, oso-osoan galduko bait dira.

MENA beraz, Lopez Mendizabal'entzat "Gamonal" izango litzake. Ez dut uste zuzen dabillenenik.

PANDO— Mena Aranean dagoan erria au ere. Bada Karrantzan ere beste Pando bat, eta asko Santander'en Asturietan eta Galizi'ren iparraldean. Ez du orrek, denak lzen bat diranik adierazi nai. Berdinatasuna eta batasuna bi gauza ez berdiñak bait dira.

Pando abizena lez, bizirik dabil oraindik gure artean. Bada Pando'ren lenen "P" ori protetikoa dala dionik; ortaz, PANDO, ANDO izango litzake.

"Ando" eta Anda", "larre" ornen dira euskeraz. Ez datoz Azkue'ren iztegian.

Dana dala, "ANDO"z eta "Anda"z asten diran izenak asko ditugu: ANDOLLU, Araba'n ANDONEGI, Gipuzkoa'n, ANDAGOYA, Araba'n, ANDAGARAI, Laburdi'n, ANDOSILLA, Napparroa'n eta abar. Eta Baita ANDA izeneko erri bat ere Araba'ko Kuartango'n.

ROIGO— "In illo termino inter Roigo ad roio" dio larrukiak.

Lendabiziko Irakurketan ez zaizkit lur-izenak idurltu, adjetibu edo izen-laguntzailleak baizik. "Roio", "gorri" da, gaztelera zarrean, baiñan "roigorik" ez dut ez erdiaroko lateraren ez gaztelera zarraren iztegieta aurkitu.

ROIGO beraz leku izena dugu inñolaz ere. "A" galdutako "Arroi-go" edo "Arroi-ko"ren bat ote da? Euskerak, abotsizki edo bokal baten aurreko "R" ren aurrean "A" edo "E" artzen duan bezain errez galtzen bait dituzte erderek bi abotsizki olek

"GO" atzizki toki-aderazlaria dalarik, "Arroigo", "Arritza" ote?

ROIO ere leku-izen dugu seguruaski. Lenen-izki edo inzial txikiarekin dator larrukian, baiñan orrek ez du ezer esan nai, ortografiari dagozkionetan oso traketsak bait ziran lumalari zar alek.

"Roio" adjetibu edo itz-laguntzaile zalakoan, uste izan nuan gure lumalari onek lateraz idaztean euskalkeri bat egin zigula. "Gorri", euskeraz, margo baten izenan galñera, "uts", "arrats", "soil", (gaztelerazko, solo, "puro" "totalmente") esan nai duan itz-laguntzaillea ere bai bait da.

Orol, "aste gorrian", "en pura semana", "negu gorrian", "en pleno invierno"; larre gorrlan abarra" esanaz asten da Iparraldeko kanta zar bat, "en áspero páramo una perdiz".

"Arrigorrlaga", lugar de mucha piedra", da; eta "Arrigorri", "puro pedregal".

Gipuzkoa'ko Aizgorri'ri, guk Gipuzkoa'n, AIZKORRI esan ol diogu beti. Eta galde bat datorkit orain bat-batean gogora: "GORRI", — bigarren zentzu ontan—, eta "KORRI", itz bat bakarra ote dira? "Gorri"ren "G", izki latz baten atzean "K", edo "korri"ren "K" Izki legun baten atzean "G"—, biurtzen ote dira? Arrigorri— Aitzkorri?

Ortaz, gure larrukiko esariak, en puro pedregal esan naiko zuan: "aritzza gorrian", edo "arizkorrian".

Baiñen bi itz aiek, — "Rolgo"ta "Rolo"—, ez dira itz-laguntzailleak. Zer ote dugu bá ROIO? "A" galdu duan ARROIA bat "ARROIO" biurtua? Izan ere, Euskalerra izandako lurretako Arroyo abizen geienak ARROIA bait dira. Bada Araba'n gaur ere ARROIABE izeneko erri bat.

NOZETO ez da toki izena. "Noz", "intxaurrondo" da, eta "nozeto" "Intxaurrondo txikia". Ba dut ala ere zalantza bizia! "Noz" ez da bá laterazko itza; ezta erdiaroko laterakoa ere! Gaztelerazko itza da. Baiña 807'an bere jaiotzatik urrun zegoan oraindik gaztelera! Larruki au, geroago aldatua izan ote zan? Jakiña da bá Kuku-lla'ko larrukiak, batez ere zarrenak, —eta au zaarrenetakoa da—, arras aldatuak izan dirala.

Nozeto sicco" esaten du larruklak: "Intxaurrondo legorra". Toki aren izana INTXAUSTI LEGOR edo orrelako zerbait ote zan?

AREA PATRINIANI, leendik esana daukagu Billarkaio dala. Eta "Arkaio" orren aurreko "Villa" ori erdera dala esan nuala uste dut. Ez ote da, ordea. euskera? BILLA maiz agertzen bait zaigu, euskaldun lez, euskal itz jatorretan: **SORABILLA**, Gipuzkoan, **ARRIBILLAGA**, Naparro'an...

Bi santu-izen bakarrik ematen dizkigu larruki onek: "...ecalesias Sancti Andre apostoli eta Sancti Felicis".

Ander, Elelz osoak, orduan ere, begirune aundiz artzen zuan donea dugu.

Felis, ere Eliz osoaren santua zan. Ez dugu beraz larruki ontan done bisigoten aipurik. Bisigoten, —eta alen ondorengo ziran mozarabeen—, kulturatik urrun aurkitzen zan beraz, bederatzigarren mendearen asieran ere, Euskalerria.

Giza-izenak, bost dira: Eugenius, Balastar, Gersius, Nonna, Vitulo.

NONNA, euskal izena da. Orrela zeritzan Freula l'ak Euskalerrian katigu artu eta gero emazte egin zuan neskatil arek; eta izen ori aurkitu genduan 759'ko lekaima alen artean ere. Bi "NN" ak "Ñ" agoskatzen zirala gogoan artzen da'duzu, NOÑA zan andre aien izena. Izen ori, orduango lumalariak, batzuetan NONNA, beste batzuetan NUNNA, eta balta, maiz aski, MUNIA ere idazten dute. Ez dagola dokumentu zarretan gelegi flatzerik! "NI" ere "Ñ" bait ziran..., MUÑA dugu Asturietako erregin euskaldun aren izena, eta bait larruki ontako andrearena ere.

BELASTER'ek badu euskal uaaia. BELASKOTAR ote?

"BELASKO", Araba'n izen arrunta, "belearen unea" da, "ollasko" olloarena dan bezala. Bazan Euskalerrlan gizakumei abereen izenak ipintzeko oitura.

VITULUS, txokorra da, lateraz. Abere-izena au ere. ZEZENKO'edo orrelako zer-baiten itzulpena izatea ba daiteke.

GERSIUS, itxuraz germanlarra da. Akitani-aldetik etorritako izena, agian. An bait zegoan Baskonl'ko Dukaterria, jendez euskalduna, naiz agintez, orduan, frankiarra.

Zergaitik ez dedan esaten bisigotengandik etorria izan daitekeala? bisigotekin euskaldunak ordurarte eta baita geroago ere borroka besterik izan ez zutelako. Aldizka bada, ere, goxoagoak izan ziran frankitarrekingo gure arremanak.

EUGENIUS, laterako izena, krlstaudi osora zabalduzik zegoana.

Ikus dezakezunez, giza-izenen azterketak ere, kulturaz, bisigoten mundutik at zegoala Euskalerrla, erakusten digu.

Larrukl onek ez du erregean aipurik. Ez ta ondorengoak ere. Ondorengo au, 828'koa dugu, eta Armentarius izeneko apaiz batek bere burua eta bere ondasunak Taranko'ko Emeter eta Zeledon'en lekaidetxari eskeintzen zizkiola adierazten digu.

(Ikus dezakezunez ospe aundia artu zuan, Mena'n bi mariiri euskaldun alen orne-  
nez eraikitako lekaidetxe arek).

Toki-izen bat bakarrik ematen digu; CELLA: "iuxta via que vadit ad Cella. Bi "LL" ak "L" esaten zituztelako Cela da izen ori.

ZELA bat, bada Gipuzkoa'n, eta abizen lez, ezagutzen ditut nik ZELAA, ZELAETA, ZELADA ETA ZELAGA. Lopez Mendizabal'entzat, "Zela", "azela"ren aldaketa da, eta "Iarra", "sasla", esan nai du. Kerexeta'k berriz, "Zelala" ren aldaketa dala dio, eta aipatzen ditu "zela"tik sortutako izen geiago: ZELAKOETXEA, ZELAGARAN, ZELAEDER...

Bost giza-izen ematen dizkigu larruki au idatzi zuan apaiz arek. Berea, Armentarius, eta lekaidetxe artako abatarena Erbigio, eta iru lekuko edo "testiguena": AVIMARA, TELLUS eta BANDALISCUS.

ARMENTARIUS, lateraz, "aberezaintzalllea" da. Abereen izena, edo belntzat abereekin zer-ikusirik baduana osteria berriz, gizaseme euskaldun baten izen lez!

ERGIBIUS, izen germaniarra da. Iparretik jexia eskierki. Ez da beintzat bisigoten done-zerrendan orrelako izenik agertzen. Berdin, AVIMARA.

BANDALISCUS. Lateraturik dago. "BANDALITARRA", esan nai du; eta badirudi lateraz "vandali" esan zitzaizen germaniar basati gogor aiekin zer-ikusirik izan dezakela. Izen atzerritarra izateak ordea, — ez orduan ez gaur—, ez du esan nai izen atzerritar ori daramana atzerritarra danik. BANDALISCUS, gaiñera, gizaseme euskaldun aren izengoiti uts izatea ba'leike. Izengoiti edo gaitzizenak bait dira, gero denborarekin abizen erasentsu bihurturiko izen asko.

TELLUS—. Euskaldunen artan arras erabilia izan zan izena. Ez dirudi, jatorriz, euskalduna.

Doneen izenik berriz, aipatutako bi euskaldun aientaz kanpo, ez digu bat bakarrik ematen.

A! Leenago larruki ark, ematen zigun Felix Donearen izena. Esan dezadan, krisitandi guztian izan zirala izen doneak baiñan gure larrukikoa, euskalduna dala. Errioxa'n jaioa, eta Billbio-Mendian bakartasunean bizia. Mendi aren oiñean aurkitzen da SANFELICES deritzan erria. "San Felices" ori, "Santi Felicis" duzu, oker gaztelera-tua.

Euskaldunen aberastasuna, jakiña, len azterturik dauzkagun dokumentuek ematen zizkiguten gauzek osotzen zuten orain ere.

Ikus gizakume auek lekaldetxe menatarrarl emandako ondasunak:  
Aloorak, sagastlak ("mazanares"), beste zugaitz zitu-emaille batzuk ("cetera pomifera"), belardiak ("defesas"), eta etxeak ("nostros domos"). Eta burni meatzak!  
("In illa ferragine").

Bi dokumentu auek errege baten aipurik ez egiteak, IX mendearen asieran, euskaldunak iare eta beren buruaren jabe zirala adierazten digu. Iare! Baita autrigoiak ere, gaur Burgos'koak diran lurraldeetan.

807'an eta 828'an ez zan oraindik Iruña'n Erregerik. Beste Euskal-Erriek bezala, Batzar Ñagusietan jaurtu ego gobernatu oi zuten orduan naparrek beren lurraldea. 850'ean, "Erregerik gabe mauritarra garaitu zuten naparrek, gogoak eman zielako, "porque les plugo", aukeratu zuten, beraiek adierazl zigutenez, Errege bat": Eneko Aritza.

Zoritxarrez egin zuten aukeraketa ori! Erregeek, Jaunek, eta jauntxoek, orduan eta gaur, on baiño gaitz geiago egin bait diote Euzkadi'rl.

Jauntxoek, beren onturreari begirutzen diote geiago, Euzkadi'ren onturreari baiño. Eta ori esatean, bai noski, gaurko gure jauntxoak dauzkat begien aurrean. Euzkadi beren buruak baiño geiago maite izan balute, ez bait zuten sekulan Eusko-Alderdirik zatituko!

Dana dala, 807'an eta 828'an, II Alfontso, errege zan Asturietan. Muña neskatiñ autrigoia euskaldun aren semea ain zuzen.(1).

Bi urte oletako larruki auek aren izenik ez aipatzea, Euskalerrriaren sarkaldeko muturra ber-bera ere aren mendetik kanpo aurkitzen zala erakusten digu. Eta azterturik dauzkagun bi dokumentu zaarrago aietan aurkitu genituan Asturietako erregeen aipamenak, gero bi dokumentu aleñ erantsitako gezurkeri ustelak dirala.

(Jarraituko du)

Latiegi'tar Bixente

*(1) Autrigoia deitzen diot neskatiñ ari. Badakit III Alfontso 'ren "Kronika" k neskatiñ ura arrabarra izan zala, adierazi nai digula: "silone defuncto omnes magnati palati cun regina Adosinda in solio paterno Addefonsum constituerunt in regno. Sed tius eius Mauricatus, ex principe Adefonso maiore de sura tamen natus, superuia elatus intumuit, et regem Adefonsum de regno expulit; qui fugiens Adefonsum Alabam petiit, propinquisqui matris sue se contulit"*

*Euskeraz: "Silo (erregea) illik, jauregiko aundikiek eta Adosinda erregeiñak Alfontso eseri zuten aitareñ errege-aulkian. Maurecato osabak, ordeñ naiz mirabe baten bidez Alfontso lenegoaren semea izaki, puztu zan arrokeriz eta jaurlarizatik jaurti zuan Alfontso erregea. Oñek, igeska, Araba'ra jo zuan, eta bere amaren aideen artean aurkitu zuan babes".*

*Orri batxuk goraxeago, Kronika berak, neskatiñ ura "baskoia" zala esaten digu: (Froila erregeak) "baskoi eraultzan jeikia menderatu zituan. Aientartetik artu zuan emazte, Muña; eta onengadik izan zuan Alfonso semea": "Vascones reuelantes superauit. Uxoremque sibi Muniam nomine, exinde unde et filium Adefonsum genuit".*

*"Vascones" erromatarrentzat, naparrek izan ziran, ez arabarrak. Atzerritarrek ordeñ ez dute beññere gure erririk ondo ezagutu. Erdiario garaiean, gaiññera, Araba gaur baiño askoz zabalagoa zan. Bereak zituan, Najera 'z gora, Errioxa guztia, Bureba, Auka-mendia, Auka ibairen arana, eta lbero-ibaietik iparreruntz, gaur, Loza eta Mena aranen antzera, Burgos'enak diran lurraldeak.*

# IRAZKINTZA

"IKERTU" "AZTERTU" "BILLATU" TA "ARAKATU"

## ADITZAI BURUZ

Ona emen esangura bardintsuko lau aditz. Euskeraz askotan jazoten dan gauza da ori, eta izan be, gure izkuntzari zeaztasuna kentzen dautsan oparotasuna.

Zoritxarrez, euskerea elerti-alorrean garapen urrikoa da, irakurle gitxi dogulako, eta idazleak aren baten, sasi-idazleak alde batera itzirik. Eta garapen urri orreri geitzen ba'dautsagu, askotan itzen esangurea lainotsua dala, lengo akatsari beste eragozpen bat erasten dautsagu.

Azken aldiotan ikusi dot "IKERTU" aditza, jakintzaren alorrean zear jargibide edo ezaguerak lortzeko egiten diran aalegiñai, esaten yakela. Ez dot oso txartxat emoten, balña nik aditz ori beste zentzunez erabilten ikusi dot; lagun edo geiso bateri etxera edo geisotegira egiten yakon ikustaldia, alegia. Gogoratu dagigun, Arana Goiri'tar Sabiñ'en izendegian IKER eta IKERNE agertzen dirala "VISITACION" izena adierazoteko.

"AZTERTU" aditzari buruz, gogoratzen naz, gazte nintzala erabilten zala, ikastaroa amaituta, Irakasleak ikaslearl egltten eutsan ariketea, baimen-agiria lortzeko gai zan ala ez egiztatzearren. Baita be, edozein gai zelakoa zan jakiteko, au da, erderazko "EXAMINAR".

Argiaren billa edo ezaguera barrien billa egiten diran ekintzak edo emoten diran urratsak adierazoteko, nire ustez badogu aditz egoki-egokia. Egia edo argiaren billa joate ori nik "BILLATU" aditzaz bereiztuko neuke, benetako billaketea dalako.

"Arakatu" itzari sen zeatza emoteko, lengo adierazpenak ikusita, badau nire ustez oso ondo mugatzen dauan esangurea, eta auxe alegia: gauza edo gai bat idoroteko egiten dan ekintza. Esaterako: "gela guztia arakatu neban galdutako dirua aurkitzearren" edo beste au: "Izarlariak ortzia arakatu eban izar barrien billa". Argi da, beraz, erderaz esaten dan "REGISTRAR" dala.

Aurrekoak esanda, ona emen esondatzen edo proposatzen dodazan adierazpenak

IKERTU = VISITAR  
AZTERTU = EXAMINAR  
BILLATU = INVESTIGAR  
ARAKATU = REGISTRAR

ZUBIRI'tar iÑAKI

LHi

*ir ma á gor « e Ó uz ^ .:*  
*f t /'art' d tz. /3P f'GJ> 6W2/1 dAt9Z %i tt z áiizt'*  
*li /gint1zf2 lwrozacil^l^r (Mfrme J^uala ^V^i-7^ Ji z"*  
*9l^it `viau √t' &u.21a,tt af(?) (\*rrtÍqyl &l2 .*

# ELORRIO'KO BALENDIN DEUNAREN ESKUTITZAK

## OITURA ZARRA

Euskaldunok aspaldiko oitura zarra ta kaltegarria dogu idazteari dautsagun gorrotoa. Ez gara idazten zaleak, eta idazten ba'dogu be, erderaz egiten dogu ori, euske-rea idazteko izkuntza ez ba'litza lez.

Eta ez da besteen pekatua, gutariko bakoitxarena baiño. Gure gurasoak ez ekien erdera askorik, baiña ikastetxean etxetik urrin gengozanean, euren eskutitzak erderaz eginda etorten jakuzan. Erdera txarra ta ulergaitxa zan, baiña erderea. Burura etorri be ez euskeraz idatzi bear zanik.

Ez eurak bakarrik, geuk be idazten geuntsenean, erderaz idazten geuntsen eta berba beti alkarragaz euskera egin arren, ez geunkan ezelako lotsarik lumea artzen genduanean erderaz eurai egiteko.

Ondo dakigu, gaiñera, kondaira gaiak kontuan artu ezkeru, gaztelako erregeak baiño be lenago asi zirala Euskalerriko Erregeak latinkumeak ziran izkuntzak edo "erromantzeak" erabilten. Naparroako kortean lenago asi ziran erromantzezko edestiak Gaztelan bertan baiño be. Gaztelarrak oraindiño latiña erabilten eben, baiña naparrak Aragoiko lantinkia.

Nondik ete dator euskeraz idazteko nagikeri ori? Zergaitik izan ete da euskaldunok geure erara idazteko izki edo irarkirik be ez eukitea eta latinkumeak izan dabezan irarkiak artu-bearra? Fenizio'tarrak izan ei ziran idazketaren irakasleak eta bear ba'da guk aldi aretako gizon jakitun orreikaz artu emon gitxi izan genduan. Dana dala, itxas-ontziak egiten be eurak irakatsi el eben eta euskaldunok lan ori egiten ondo ikasi genduan.

Zori txarrez, idazten berandu ikasiak gara. Gure lenengo liburua 1545'eko Etxepare'rena dogu, eta gaiñera idazteko nagiak gara. Ez dogu aitzu bear arlo onetan gure eskola-maixuak erdeldunak izateak izan dauan ikutu aundia.

## EUSKERAZKO ESKUTITZAK

Ba-dira, ori ta guztl be, antxiñakoak diran eta euskeraz idatzita dagozan eskutitz batzuk. Zumarraga'tar Juan'ena dala bat jakin dogu antxiña ez dala, eta, ziur ez da eremu onetan zugat bakarra.

Orrexegaitik da ain pozgarria gutzat Berrio-Otxoa'tar Balendin Elorrio'ko Santu barriaren jokabidea. Ez euskalzaletasunak eraginda, bear-izanak eraginda idatzi ebazan Balendin'ek bere eskutitz batzuk euskeraz. Bere amak erderarik ez ekialako.



Berak diño ori euskeraz egindako azkenengo lez agertzen dan eskutitzean eta gainera arean be lotsa barik diñotso amari XXV eskutitzean: "Alcar ceruan icusten garianian erdera verba egin bearco dogu cergaitic eusqueria ya astu da". Eta jarraian erdera mordoilloan eglten dautso berba.

Zergaitik edo agaltik or daukaguz Balendin'en eskutitzak euskeraz idatzita, eta guk dakigula beste euskal-idazle santurik ez dagoan ezkerero, ondo izango litzake santu barri au euskal-idazleen zaindari lez izendatzea.

Gitxienez, euskal-idazleak santu barri oneri omenaldi bat zor dautsoela uste dogu. Eta, oraintxe, santutzat artua izan dan aldi onetan da omenaldi orl eglteko sasoirik egokiena.

## **ESKUTITZEN ARGITALPENA**

Liburu txiki baten argitaratuta daukaguz eskuartearen Berrio-Otxoa'tar Balendin Santuaren eskutitzak.

Argitalpen au 1927'an egiña da, Balendin'en jaiotzatik eungarren urtea ospatzeko eta argitaratzaillea Tonkin'en Balendin'en ondorengo zan eta Muñagorri'tar Pedro izena daroen gotzaiña, eta Bergara'ko Agurtza Deuna'ren argitaletxeak argitaratua da.

Sarrera iuzea egiten dautso argitalpenari Ardantza'tar Toribio lekaide domekatarak, santuaren bizitza labur-labur azalduz eta aldi aretan Gaztelz'ko Gotzaiña zan Fr. Zakarias'en onartze-eskutitza dauko sarrera-arrean.

## **ZENBAT ESKUTITZ**

Liburutxu onetan datozen Balendin Deunaren eskutitzak guztiz 55 dira eta euretatik 14 euskeraz eta besteak gaztelerez. Bat dago erdia euskeraz eta erdia erderaz.

Eskutitzen buruetan zenbakiak ipintean oker batzuk dagozela esan lei. Zenbaki batzuk bitan agerizen dira.

## **NORI IDATZIAK**

Euskeraz idatzitako eskutitz guztiak bere amari idatzia dira. Aitari idazten dautsonean, erderaz idazten dau. Bat bakarra agertzen da gurasoai idatzia eta euskeraz.

Ortik atera lei zergaitik idazten dauan euskeraz, ez euskerearen maitasunagaitik, amak erderaz ez ekialako baiño. Eta aita erderaz eskolatuazan ezkerero, oneri erderaz. Ortik, baita, arazo onetan eskoleak daukan indarra.

Aztertu dagiguzan orain, apur bat astiroago, eskutitz onein euskerea, gaiak, berezitasuak.

## **ZELAKO EUSKERA**

Ez dogu aitzu bear euskerearen kondairan Arana'tar Sabin eta Azkue'ren aldiak izan eban garrantzia eta kontuan artu Balentin Deunaren eskutitzak lenagokoak dirala.

Idazkerea edo ortografia erderearena bera da. Gaur arrigarria egiten jaku, baiña olantxe idazten zan orduan. Or agertzen da zelako menpetasuna ezarri dauskun beti erdel-jakintzak.

Ez dot isillik itzi bearco, Balendin Santuaren eskutitzetan ziurtasun aundi bat agertzen dala. Beti idazten dau bardin, Arau argiak eta ziurrak daukaz. Ori orduan gauza aundia zan, beste idazle askok olako zluertasunik ez dabe agertzen.

Ba-dagoz, jakiña, erderaz idazkirik ez dauken izki batzuk, esaterako gaurko ts/tz eta gaurko x. Zelan idazten dauz Balendin'en izki oneik? Ts/tz idazteko tc ipinten dau, esaterako sortci, eta z izkia ez dau ain ugari erabilten.

Joskerari buruz jakiña da euskerearen kondaira-zaleen artean' Sabln eta Azkue'ren aurreko idazlerik geienak joskera oso okerra erabilten ebela, baiña onetan be txalogarrla dogu Balendin Santuaren jokabidea, Balendin'en euskerea geletan joskera-arloan zuzen-zuzena da. Ba-dagoz, jakiña, orduan idazleen eta itz-egilleen artean zabal-zabal ebiltzan oker batzuk, bear ba'da bere amaren eskutitzetan aurkituko ez gendukezanak, esaterako "carta bat...zeinetan...".

Izendegiari begira, Sabin'en barri-aldiaren aurreko idazleak oso erdel-zaleak zira-la geienak, gauza jakiña da, eta onetan Balendin gure santuak bere aldiari zorra ordaintzen dautso. Desioa, trabajua... eta olako asko eta asko aurkitzen doguz bere eskutitzetan.

Abostegi-arloan Sabin'ek artu eban bide bat eta Azkue'k beste bat. Esaterako Sabln'ek "etxia" esango leuke, Azkue'k ostera "etxea". Onetan Azkuek urten eban nagusi eta bere erri-neurria artu dogu idazleak. Balendin Sabin'en neurrian dago, bere-berea eban Elorri'ko izkuntzak edo izkereak eskatzen eutsan lez.

## **DARABILTZAN GAIAK**

Labur-labur esateko, eskutitz oneitan Santuak darabiltzan gaiak fededun seme on batek bere amagaz erabili leikezenak dira.

Baiña ez da aitzu bear Santuak biotzaren ardatzean daroan gaia zeln dan: Aita eta ama baiño lenago, berak munduan daukan egitekoa betetea dala. Ori bere eskutitz guztien oiñarrian agertzen dan gaia da.

Gaiak zeatzago bereizteko, lau bidar diñotso amari zer eta zelan jaten dauan, beste lau bidar eskatzen dautso sosieguz bizi daitela eta osasuna zaindu dagiala, bostetan gitxienez eskatzen dautso bere nai Jaungoikoarenagaz bat eginda euki bear dauala, baten salatzen dauz bizkaitarrak ondasun edo diruzale lez, sarritan gogorazten dauz Andra Maria ta Agurtza Deuna, gero esango dogun lez.

## **BEREZITASUN BATZUK**

Ba-dira eskutitz oneitan irakurle batzuntzat arrigarri izan daitekezan gauza batzuk Esaterako Elorri'ko Balendin Santuak bere amari zuka berba egin barik, berorika egitea.

Jokabide au ez da Balendin deunaren berezitasun berezi-berezia. Arratia'ko erri batzutan, esaterako, aitari eta amari, gaur elduak diranen aldetik berorika egiten jake berba, ez ostera gaur gazte diranak, oneik zuka egiten dautse. Beste lurralde batzutan ostera berorika ori oso arrigarria da seme-alabe ta gurasoen arterako. Ez da erabilten abadeai eta ikasketa luze-sakonak egin eta olakoal dagokien egoera daukenai berba egiteko baiño, eta berbabide au be gaur galtzen doa eta arin joan be.

Berez euskerazko "zu" erderazko "vos" edo "usted"en maillakoa da eta plurala edo askorena izan be, baiña mailla ori galdu egin da. Erderazko "tú", euskerazko ika jokoaren maillan dago, baiña ika au Bizkai'ko erri batzutan, Ondarroa'n esaterako, ez da erabilten eta beste erri askotan be galtzen doa egunerik egunera. Ika itzaltasun gitxiko izketa lez, morroiái eta olakoai itz egiteko era lez artzen da. Ori argi agertzen, esaterako, Kerexeta'ren Euskal Biblian.

Beste berezitasun bat, noizbelnka Gipuzkoako aditz-jokoak erabiltea da. Eskutitzak bizkaiera garblan idatziak izan arren, noizean bein det eta dute agertzen dira. Ez ete da Elorri Gipuzkoaren mugaklde izanik, sarritan entzunak dauzalako?

Eskutitz oneitan bertsoetarako jokera bizia ikusten da. Batzutan bertsoak eta lerro laburretan idazten dauz, baiña sarritan eskutitza lerro luzeetan idatzla izan arren,

neurria ta azken-bardiñak edo "rima" edo puntua argi-argi ikusten da. Orrelakoa da esaterako 59 orrialdean dagoan eskutitz osoa. Ogei ta bigarren eskutitza da, euske-razkoen artean azkenengoa.

## BESTE GAI BATZUK

Len aitatu doguz santuak amagazko alkar-izketan agertzen dauzan gai arruntak, baiña idaz-lantxu au amaitu baiño lenago ona emen gaien zerrenda luzeago bat:

—Alkarren alde otoitz egitea. (Sarritan agertzen da).

Eriotza ona izatea eta zerua irabaztea. (Au be sarritan).

—Amari agurrik egin barik joan izatea be aitatzen dau birritan beintzat, eta jokabi-de ori zuritzeko, San Luis'ek amari agur egin eutsala dino, ez ostera San Luis Beltran'ek, eta Santo Tomas lekaide izan gura ebalako bere etxekoak espetxean euki ebela diño.

—Bere lagunak santuak dirala be sarritan esaten dau.

—Ama lo dagoan artean gaberdian egiten daben otoitza asko goratzen dau.

—Monika Deunaren egunean eta Pazko-egunean amari zoriona opa deutso.

—Ama asarratuta ete dagoan agertzen dau iru bidar-edo.

—Eskutitzak zelan eta nora bialdu esaten dautse.

Indietara lur billa joaten dirala guraso askoren semeak baiña bera beretzat eta besteentzat zeru-billa doala diño.

—Itxasoaren erditik eta sosiegu aundiaz idazten dauala.

—Ontzian diran euskaldunakaz euskeraz berba egiten dauala.

—Ontziko nagusia Bermeo'tarra dala.

Sarritan esaten dautso bere amari eta beste senideentzat be bai, Andra-Mari-zaleak izateko: Agurtza sarritan esan, bere "anparua" eskatu, Andra Maria ederra dala eta osasun-emoille dala gogoratu, beragaz eta gure artean adiskidetasuna bear dogula.

—Tonkin'en daukan etxea "palaziva", zelakoa dan zeaztutena dau: laztozko teilla-tua...

Labur esateko, sendi giroa bizi-blzi agertzen daben eskutitz etxekoiak dira, bizitzarako ta eriotzarako, Jaungolkoaren naimenagaz ondo alkartuta biziteko onurik ederrenak emoten dauzala.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

**K<sup>g</sup> CV**



# NEMESIO ETXANIZ MUSIKALARI

Auxe da itzaldi labur ontarako eman zaidan gala. Baten batek, bere ezjakiñean, galde lezake: Nemesio Etxaniz euskal idazle oparo eta fiña, olerkari on eta goren-goa, ori bai! Baiña Nemesio Etxaniz musikalaria? Nundik nora? Eta nere erantzuna eta zuetako asko edo geienenea, auxe da: Bai, jauna! Nemesio Etxaniz musikolari. Eta ez nolanaikoa. Musikalari fiña noski. Ez noski orkestarako lanak asmatzen dituzten oietako, ez organu edo pianorako edo beste edozein musika-tresnatarako lanak egiten dituzten oietakoa, ez lau edo sei abotsetako kantuak sortzen dituzten oletakoa. Baiña bai musikalari ona, musika-sena berezia bere baitan zuena, eta artara jarri ezker ere, lan obeak eta sakonagoak egin zitzaakeena. Nemesio Etxanizek ez zuen ez armonia, ez kontrapunto edo fuga edo konposizio ikasketarik egin. Ikasketa olek egin izan balitu, a ze nolako musikalaria irtengo zitzaigukeen! Baiña belarri ona zuen, abotsa aundia ez baiña oso polita, eztarri fiña eta batez ere, leen esan bezela, musika-sena aparta.

Nik ontan eta beste gauzatan Salbatore Mitxelena eta Nemesio Etxaniz gogoz eta espirituz kidekoak bezela jotzen ditut. Biak izan ziran euskal idazle jator eta joriak, bi biak euskal olerkari gorenetakoa, bi biak kantari fiñak. Eta biak zuten bein eta berriz aipatzen dedan edo ari naizen musika-sena berezi ori. Ori ez bait du norberak berebanatzen, ori goitik datorren doai berezia bait da. Orregatik izango-edo ziran elkarren artean ain lagun miñak eta elkar ain ondo konpontzen zutenak. Batak besteari euskal lanak egin ahala erakusten zizkioten elkarri. Bein baiño geiagotan ikusi izan det nik Salbatore Mitxelena bere olerkietarako musika doñuak asmatzen eta berekaxa abesten. Orrela ibilliko zan noski gure Nemesio Etxaniz ere bere baitan doñu berriak egosten. Orain dala gutxi esan zidan apaiz batek, Nemesiorekin egiten zuen ibillaldi bakoitzean, bere musika doñuak asmatzen eta abesten aurkitzen zuela.

Ba!, guk denok aspalditik ezaguna genuen On Nemesio euskal idazle eta olerkari bezela. Ni Arantzazun bizi nintzala eta "Arantzazu" aldizkarian lanean niarduela, la illero bidaltzen zizkidan bere lantxo txukun eta garbiak, gure aldizkarian agertarazi genitzan. Badu bat oso jakingarria. 1952 urteko maiatzeko zenbakia, !a osoa, bertsolariari eskeiñi genion eta lan bat eskatu On Nemesiorl. Oso lan ederra bidali zigun "Bertsolaria, erdi apaiz" Izenarekin. Orkoak dira onako itz auek: "Doal ederra, Jaunak bertsolariari ematen diona gure errian. Beste giza-emakumeok !tz-totel eta mutu gelditzen geran gaietan, bertsolariak onelako adimen zorrotza eta begi azkarra agertzen digu. Zerutik datorkio doai ori: ez gaitzerako, ez kalterako; baizik Jaunaren doal guztiak bezela, gure erriaren onerako...Euskaldun erria bertsozalea degu. Kantuak eta puntuak ederki botatzeak eztitan jartzen du gure errla. Emaigun ba zeruko erakutsia bertsoan, eta Jesusen bidea zuzen artuko degu orlan. Or dezu, berisolari

lagun, zure lana, zure egiteko nagusiena. Erria alaituz, jaso itzazu oitura onak...Orretarako batez ere eman dizu Jaunak bertsoarako doal alal orl. Or da zure zure aunditasuna: or zure goltasuna". On Nemesiok ere doai eder eta bereziak izan zituen zerutik ixuriak. Eta doai o!ez baliatu zan gure erriaren alde ainbat eta ainbat lan eder egiteko.

Baiña, alako batean, denok arri eta zur, denok zearo txundituta eta arrituta utzi ginduen. Ez al zan ba atera "Kanta kantari" zeritzan liburu berri batekin? Eta ez al zituen bada bertan jaulki, beste doiñu jatorragoen eta guretarragoen artean, alako foxak, habanerak runbak, tangoak, pasodobleak eta abar? Zer da au? zioten askok; alako atzerritar doiñuak euskeraz? Eta apaiz batek asmatuak gaiñera? Ez al ditu, bada, urte luzeetan zear Elizak "dantza lotuaz" batera, diñu oiek ere gaizki ikusi eta gaitzetsi? Eta nolako dioñuak gaiñera: ez bait ziran orduan, esate baterako, runbak eta tangoak edozer gauza!...

Oraindik orrelakorik!...Neroni ere arrituta gelditu nintzan zearo. Eta Arantzazura joan zan batean, alaxe esan nion aurpegira. Baiña gero, "Arantzazu" aldizkarian liburuaren azalpena egiterakoan, leunago azaldu nintzaion. Ona emen orduan nik nioena: "Au bai langille porrokatua" Bi urte auetan lau liburutxo argitara eman ditu. Igaz "Nola idatzi euskeraz" eta "E<sup>g</sup>intza Katolikoatzaz ikasbidea". Aurten "Kristau ikasbidea bertsoan" eta "Kanta kantari". Eta danak euskera eder eta txukunean egiñak. Idazlari trebea degu Amillaitz jatorra. Onako liburu au oso polita dezu. Iru kanta mota dituzu bertan: aur-jolasak, maitekantak eta izadi-abestiak. Bertsoak euskeraz egin izan diran egokienetakoak dituzu. Doiñuak, guztiak entzungarriak. Maitte-kantaen itz batzuk gordiñegitxoak dirala? Baditeke. Dana dala, kanta oiek euskal olerkari eta musikalariei bide berri bat erakusten diela esan bear degu. Nola erantzungo ote diote? Ori (Arantzazu, 1951, azaroa) geroak esango. Auek ziran nere itzak, orduko nere itzak. "Itz batzuk gordiñegitxoak": zer esango ote genuke gaur entzuten diran kantuen ainbat eta ainbat itzez? Nola aldatzen diran aldiak, alajaina!

Nemesio Etxanizek oso ederki zuritu zuen bere burua alde z aurretik. "Kanta kantui" liburu 1951 urtean azaldu zan, Bilboko Ordorika anaien irarkolan argitaratua. Euskerari bide berriak irekitzea izan zan bere asmoa. Asmo eder eta jatorra benetan. Eta bere asmo ura oso ondo bete zuala esan bearra dago. Eta asmo txalogarri onekin batera, beste asmo bat ere bazuen; berak adierazten du oso poliki liburuaren itzaurrean. Onela dio: Nik, gure musika-zaleak, batez ere konpositore edo eresgille dlanak, eta olerkarlak esnatu nal nituzke. Ona zertarako. Gaurko gazteak, zine, dantza ta irrati bidez, beste musikaide batzuek artzen dizkigute egunotan. Guri nalgabe eman arren, musika merke ori gazteon biotz-jabe egin da, ta gure euskal-aide ederrak baztartuta, kanpoko aide berrietara dijoakigu euskal gaztedia. Aide berri oiek gañera, erdal-itzez jantziak datoz, eta gure mendietan, azkenengo baserrietara-ñoak, kantuetan ere, Euskera zokoratzen ari zaizkigu. Gure izkuntzari datorkion kalte berrl au, nolabait atzeratu nairik nator. Nola? Gure kanta zarrak berriro arglitaratuaz? Ez, noski. Kanta berrietara zaletutako gazteak, gure kanta zarrez gogaitu, aspertu egiten dira. Erri-kanta oiek, zinetakoen aldean, motzak, gexak, gatz-gabeak dirala, uste dute" ...Nere liburu onek lur berri au urratu nai izan du beraz". Auxe da garaian garaikoa, aldian aldikoa izatea! diot nik orain.

Eta geroxeago, hauxe dio: "Ai, baiña nere zorigaitza! Euskalzale ta moralista "zorrotzen" madarikapen danak nere gain ikusten ditut. Tango, rumba ta foxak euskeraz, alajaina? Utikan, inpernuko asmaketa ori! Euskal itzak, euskal-aidetarako bakarrik bear ditugu. Kanpoko aide oiek euskeraz jaztea, gure izkuntza kutsatzea litzake. "Eta erantzuna berberak ematen du: "Zaude, arren adiskide: ez dezagun burrukarik alkarrekin... Zuk eta nik ezer egin gabe ere, tango ta abar abestuko dizkigute gaurko gazteak. Erbesteko kanta oiek, lizunkeri-itz asko sartzen dizkigute gure gazteen artean. Erri guztietan gañera, kanpotik sartzen zaizkien kantei ere, erriko izkuntza ezartzen die; onela, erriak bertako izkuntzan kanta ditzan. Guk zergatik ez

degu beste ainbeste egin bear?" Eta gero kontatzen digu nola kantu berri oiek argitaratu baiño leen, aproba bat egin zuela ementxe, Azkoitian bere ardurapean artutako gazte-talde batekin. Kantuak erakutsi eta erriko antzokian abestu. Eta erriak bete-betean artu zituela galñerutzen digu. Erri aurreratua eta aurrerazalea nunbait Azkotiko erri au. Bearbada orduan abestu zutenak edo zutenen batzuk ementxe egongo dira itzaldl au entzuten. Zorionik beroenak niketz.

Liburuaren itzaurrean ez ezik, argitaratu ondoren "Arantzazu" aldizkarian idatzi zuen lan batean alpatu zuen gai au bera. "Gaztediaren jaikia" du idazpurua idazlanak. Eta onela dio bertan: "Bide zabalagoak artu bear baditugu gazteei eskua emateko, zenbateraño zabaldu ditzakegu bide olek? Noraño utzi bear diegu gazteei gaurko oitura lasalagotan? Nere kanta-liburu berria azaldu dedanean, ezpai ori bizi-bizi esnatu da. "Zer da kanta kantari ori? diote estu zaleak. Liburu ortako kanta batzuek gordintxoak dira gure errirako. Euskeraz orrelakorik eztegu bear". Beste batzuek berriz: "Bazan ordua, diote, orrelako zerbeit euskeraz sortzeko!". Ta bien artean eskuak burura eramanda, emen naukazue nori entzun asma-eziñik".

"Kanta kantari" liburuak ildo berriak ireki zizkion euskal kantagintzari. Eta ildo berri oietatik, bide berri bat sortu zan. Eta bide berri ori geroago bide zabala eta bidetxior asko izan zituena biurtu zan. Nemesio Etxanizen liburuaren ondoren, eta bere kanta berrien ondoren, Iparraldetik txori kantari berri bat, urretxindor berri bat azaldu zitzaigun, beste era batera euskal kanta berriak asmatu eta abesten zituena: Michel Labeguerie ezaguna, alegia, bere bi diska zoragarriekin. Eta gero besteak, gazte asko eta asko arrapaladan: "Ez dok hamairu" osatu zuten kantariak, Oskorri, ezagunenak-edo aipatzekotan. Eta beste ainbat eta ainbat. Ez dago izenik ematerik, bukatu eziña bait litzake zerrenda. Baiña talde bat aipatu nai nuke nik emen, erri ontakoa bera, Azkoitikoa bai: "Los Contrapuntos" taldea ain zuzen ere, ain kontzertu edo musika-salo eder eta zoragarriak ematen zituena. Nemesio Etxaniz, ezpairik gabe, euskal kantagintza berrian, aintzindari izan genuen. Eta au ez det nik bakarrik aitortzen. Kantariak berak ere aitortu izan dute. Ona emen adibide bat, besteak beste. 1977. urtean, JAKIN aldizkariak zenbaki berezi bat eskeñi zion euskal Kanta berriari. Eta bertako lenengo idazlana Gorka Knbr kantariak egiña da. "Euskal Kanta Berriaren Historiaz" du titulua. Eta antxe itz auek esaten ditu: "Ez da ahaztu behar Nemesio Etxanizek eduki zuen garrantzia. 1951. urtean "Kanta kantari" kantutegia argitaratu zuen. Oilar goiztarra benetan. Letek "Garala" aldizkarian idatzi zuen idazlan batean, garrantzi handia ematen zion Etxanizen lanari. Bebarbada, bere kantutegia argitaratu zuenean, ez zuen Etxanizek bere kreatibitateak merezi zuen erantzunik jaso, baina borren lana ez zen alferrikakoa gertatu, bandik urte batzutura beste batzuk hartu bait zioten segida baren ideiari, Euskal Herriko egoerak planteatzen zituen beharrel bobekiago erantzunez". Orra argi eta garbi aitortua. Nemesio Etxaniz, bada, aintzindari izan genuen euskal kantagintza berrian, bide berriak urratu zituelako.

"Kanta kantari" liburuak hiru atal ditu. Lenengoa: "Aur-jolasak", sei kantuek osatua. Bigarren, "Maite-kantak", emezortzi kantuekin. Eta irugarrena, "Izadi-abetesiak", berderatzi kantu azaltzen direlarik, geienak euskal kanta zaarrak itz berriekin agertuz.

Bigarren atala izan zitekeen eta izan zan eztabaidagarriena. Baiña urak bere bidea urratu zuen eta gauzak aurrera jo zuten. Ez noakizue emen kantu berri oien azterketa teknikoa egitera, ezta gutxiagorik ere. Ez bait det uste ospakizun onen antolatzaillileen asmoa orixe danik. Auxe bakarrik esan nai nuke. Nemesio Etxanizek meritu aundia izan zuela eta trebetasun aundia erakutsi zuela kantu berri oiek asmatzean. Ez bait da txantxetako gauza musika erritmo — orduan berriak, orain naiko zaarrak — berri oiek dituzten doinu berriak sortzea: foxak, runbak, tangoak eta abar. Kantu doiñu bakoitzak bere erritmo berezia du, bere konpas eta neurri bereziekin, eta ori asma dezakeena ez da edozein. Pianoa eta beste musika tresnak jotzen dakizkigunoi ere kosta egiten zaigu naikoa erritmo berri oletan sartzea. Neuri

beintzat. Orregaitik, musikalarri bezela, txaloak jo bear zaizkio eta txapela erantsi bear zaio On Nemesio zanari.

"Kanta kantari" liburuak bigarren argitaraldia izan zuen. "Lur berri billa" bere liburu ezagunaren barruan. Eta leendik asmatuak zeuzkan 33 kantuel beste 33 ainbeste abesti berri erantsi zizkion, 66 kantu osatzeraiño. Argitalpen berri onen itzaurrean, itz auek jaukitzen ditu On Nemesiok: "Amasel bat urte dira KANTA KANTARI liburu argitaldu nuala. Liburu arek, euskera kanta berrietan sariu izan zuan. Lenengo aldiz, euskal itzez jantziak agertu ziran pasodoble, fox, rumba, tango ta abar... Nere asmo ura kaltegarria iruditu zitzaizen batzuei; baiña geroa, nere asmoa ontzera etorri da. Gaur, gazte talde batek jaso du nere orduko lana ta kitarrez ta auspoz lagunduta, or atera zaizkigu Euskalerrri osora, abesti berriak arrotzen...Kanta berriak ere gure erriarl bearrekoak zaizkio. Izkuntzak indartsu bizi nai badu, sail guztiak artu bear dltu, zaarrak eta berriak. Bestela, euskerak artu nai ez duan lurra, erderak jango dio. Futboleak jokatzeak, eztu pelota jokia galdu. Biak batera era° man ditezke aurrera. Onela kanta zaar eta berriak ere. Batak ez dio besteari kalterik egingo". Arrazoi osoa zuen On Nemesiok. Geroak ere arrazol eman dio. Or ikusten ditugu, esandakoaren lekuko. Kanta kantari liburuan azaldu ziran kanta berri batzuk erritar kanta blurturik. Nork ez ditu ezagutzen eta kantatzen arako "Antoni, Antoni", "Ai, Peru! Alabak ez dira aingeru", "Txa, txa, txa, gure neska motxa" eta beste ainbat? Oraindik orain, auxe gogoratzen zuen DEIA egunkarian gure lagun eta idazle jator dan Augustin Zubikaral jaunak. Gure kanta zaarrak, gure erritar kantak, nola sortuak izan dira? Batek daki. Baiña kanta zaar oiek ere izango zuten beren egille eta asmatzaillea, ez ziren gure erriarengana odeitatikjetxiko noski. Eta meritu orixe dute kanta zaarrek, batek asmatu eta erriaren biotzean eta muiñetan txertatuak eta itsatsiak gelditzen dirala. Orrela gertatzen da On Nemesioren zenbait kanturekin ere.

Beste liburuxka bat ere aipatu bearra dago, bertsotan eta kantuz asmatua bait da: "Kristau ikasbidea bertsotan" du izena. 1951. urtean argitaratu zan, Kanta Kantari liburu baiño leenago. On Nemesio berberak egin zuen liburuauren aurkezpena "Arantzazu" aldizkarian (1951, arrila, 280 or.). Onela zion: "Urte galgarri auetan, badegu naikoa lan gure aurrei Kristau Ikasbidea erakusten. Alde batetik, era askotako dotriñak ditugula: onek, dotriña zarra bear duala; arek, dotriña berria naiago; emen, euskerazkoa; an, erderazkoa. Bitartean, gure aurrok Kristau Ikasbidea erdizka edo bat ere ikasi gabe gelditzen zaizkigu. Negargarria benetan!... Bitartean zerbait asma bear, eta orra zer asma nizun: Dotriña txikia bertsotan jartsea. Euskaldunok oso bertso ta kanta-zale gera, ta kantu-bidez dotriña gure aurren ezpañetan eta biotzetan sar zltekela, bururatu zitzaidan". Eta bururatu eta egin egin zuen berak. Benetan aurrelaria genuen gure On Nemesio! Neuk egin nion aldizkarian berian azalpen labur bat. Onela nlon: "Dotriña erakusteko modurik ederrean auxe! Bertsotan eta kantari! Bertso eta kanta-zale porrokatuak ornen gera euskaldunok. Batez ere, umeak esango nuke nik. Zoaz edozein erritara eta an ikusiko dituzu euskaldun umeak beren jolasetan kantari. Ta Jaungoikoari eskerrak ala dalako. Oi! bere ume txoak kantatzen ez duten erriaren tamala! Ez du alaitasunik, pozbiderik... Liburuxka au umeentzako egiña da. Eta oso poliki egiña, gaiñera. Orixe dituzu kristau-ikasbi-dearen erakuspenik jakingarrienak: Gurutze Santua, Kredoa, Aita gurea, Aginduak, Sakramentuak, eta abar. Bertsorik egokienak. Doiñurik politenak. Gure Parroki, eskola eta famili guztietan ikusi nai genduke liburuxka eder au. Zorionak Amillaitz jaunari. Ori da apaiz bezela jokatzea! Ta bigarren eta irugarren maillaen zai gelditzen gerala jakin! Ez det uste mallla oiek argltaratzera iritxi zanik. Liburuxka ortakoa da onako kanta polit au, aspaldiko txistulari doiñu ezagun bati Gurutzeari dagozkion itzak erantsirik: "Jaungoikoari eskerrak..."

Orain dala amar urte Ameriketatik Euskalerrira itxuli nintzanean, oso eroria, zapuztua eta lur jota aurkitu nuen On Nemesio. Urte aietan edo obeto esan, aurreragokoetan, euskeraren gertatu ziren istilluak eta goraberak zirala nunbait. Urie artan

omenaldi bat eskeiñi genion Salbatore Mitxelena bere lagunari, aren "Idazlan Guz-tlen" lenengo tomoa azaldu zala-ta. Iru itzaldi eratu genituen Donostian, Aurrezki Kutxa Probinizialaren aretoan. Iruetan izan zan On Nemesio eta iruetan parte artu zuen Bere Mitxelenarekiko adlskidetasuna azalduaz eta agirian jarriaz. Lenengo egunean, Mitxelenaren lenengo tomoa eskeiñi nionean, auxe esan zidan bere umore onez berak zeukan eta, ironi punta arekin: "Nik askotan esan oi det erderaz: Los vascos padecemos de lapurditis aguda". Ta bukatzera noa, Itzalditxo au, nere itzez baño geiago Nemesio beraren Itzez osatua izan da. Baiña ala obe. Ospakizun onen elburua berari omenaldia eskeintzea bait da. Eta omenaldirik ederrena bere itzak entzutea.

Zorionak Azkoitiko erriari bere seme aundi oni omenaldi au eskini diolako.  
Eta milla esker guztioi.

Karmel Iturria

(N. Etxaniz'en omenaldian Azkoiti'ko Udaletxean esandako itzaldia).







# LEGE-GIZONA, ARMA GIZONA, ELIZ-G IZONA

## LEGE-GIZONA; GIZA ESKUBIDE GUZIEN ZAINDARI ETA IAGOLE

"Giza-eskubideak gaurkotasun osoa dute Espaiñian" (Ilbeltza, 1978). Zer eskubide Askatasunean bizi aal izatekoa, guztientzat berdin. legearen babesan. Gure artean Fueroa zen eskubide oien eusle eta zaintzaille. XV eta XVI'garren eunkietatik aurrera euskaldunek, ez itzez bakarrik, baita bizitzaz ere, giza-eskubide guzi oiek izan dituzte Euskalerrian.

Berdltasuna bazan gure artean, guziak bait ziran odol-garbiko aitorensemeak eta eskubide berdiñekoak. (Berditasun ori zala aitzaki, debekatuak zeuden tokien tokiko zaldungo-agiriak edo tituloak-títulos de nobleza).

Askatasunak, bere indarrez, defenditzen zuan gizon euskalduna, Fueroaren bidez, Estaduaren eta Gizartearen aurrean, eskubiderik gabe atxilotua izan ez zedin. Juezak berak ere, naiz-eta gizona errudun arkitu, ezin lezake berez glltzapetu, alik-eta 30 egunen plazoan Gernika'ko Arbola azpira deitu arte.)

Gizartearen aurrean iñoren eskubideak defenditzen zeatzena Bizkaiko Fueroa da eta eskubide oien irudi eta ispillu, Gernika'ko Arbola. Euskalduna, ordea, ez da bakar-dadean bizl dan gizakia, erriz inguraturik baizik. Bereak zaintzen ditun bezela, iñorenak errespetatzen salatuko da (askatasunari buruz ari gera) orregaitik erri olen esibarruan, muga-barruan, ez da sartuko sekula, artarako eskubiderik ez duelako. Errespeto onen irudi eta ispillu Malato Arbola degu, Bizkaiko mugan: Gernika'koa euskaldun askatasunarena dan bezela.

XVII'en eunkiaren asieratik, gure antxiñako eskubide auek (European oraindik berri-berritik aintzakotzat artuak izan diranak europarrentzat) Borbon erregek arrisjuan jarri zituzten, errietako aalmen guziak beuren esku nal bait zituzten. Auen askatasun eta agintaritzako politikoari buruzko pentsakera eta euskaldunena, biak ziran aurkako: bata, bestearen alderantzia. Ori dala-ta, Erregearen Ordezkoen eta Madrid'eko Administrazioaren itz-eta-bitzarekin etengabeko burrukeetan ibilliak dira gure Junta Jeneralek, Euskal Agintaritzak esana du eta esan au egi biurtu da arrezkero: "pakerik ez da izanen alik-eta Euskalerrinari bere aalmen bereizi guziak biurtzen ez zaizkion artean".

Lege-gizon edo letrauen eginbearra, eskubideen alde jokatzea izan da beti. Lege-gizonarekin batera eskribaua ibilli oi da. Onek egiztatzen ditu auzitegitako erabakiak eta gauzak. Gerora agertuko dan notarioaren lana, auzitegietatik kanpoko arazoak egiztatzea izanen da. Erregearen eskribau eta notarioek Erreiñu osoan egin zezaketen beuren lanak. (1456'ko Urrillaren 31'an Miranda de Iraurgi (Azkoiti) erriaren atea-tan, Aide Nagusiek Gipuzkoako Konsejuari egiten zion desapioaren kartela jartzeko baimena Martin Perez Beltranza, Erregearen Notarioaz, eman zuan. Lesseps injenieru famatuaren familikoak ere notario errealak ziren Baiona'ko urian.) Gizalegeko eta gaiztakerizko (civiles y criminales) auzietan juezarl dagokio legez erabakia.

Eskuz idatzita Iturriza'k dituen liburuetatik bosgarrenak (153 orrialdean) amabi juez-mota aitatzen ditu Bizkala'n. Auek: El Prestamero Mayor. Los Cinco Merinos, Los Cinco Alcaldes de Fuero, Los Cinco Alguaciles o Sayones de Junatas, Los Alcaldes de las Villas, Los Prebostes, El Juez Mayor de Vizcaya, El Corregidor, Los Alcaldes de Hermandad y de las Ferrerías, Los Fieles de las Anteiglesias, Los Tenientes, Los Diputados.

Aiuntamiento bakoitzak ba zuan "escribano fiel" zeritzan idazkaria. (gure zenbait errietako eliz-atarietan "Piel-arri" deritzan arrizko mai aundi bat egon oi da— "la piedra del Fiel", del "escribano Fiel"—), bere galñean batzarren aktak jasoteko.

Bost urie oso Kanonak eta Legeak ikasten, eta ondoren beste iru urte ekiñean bear ziran Lege-gizona sortarazteko: "bost urte entzule bezela eta beste iru laguntzaille bezela". Gaiñera, odol garbikoak eta Erreinuan sortuak. (Nafarroa'kin ari gaituzu)

1090'an Huarte-Arakil'en Korteak izan ziren eta arrezkero Nafarroa'ko Erregeek, "zuzen jokatu dutela" zin egiten dute. ("que tendrán a derecho"). Baiña, bal Jau-naek eta bai Erlek protesta ugari egiten dute "erabaki oker eta auzia eramateko era okerregaitik" ("por malos juicios y mala forma de pleitos"). Ori dala-ta, Santxo Ramirez'ek "auztegiko arazoak zuzentzeko" ("emendar las cosas de justicia") asmoa artu-ko du.

Nafarroa'n bezela, Euskalerrri osoan ere, baziran, lege-gizonak beurori aurkeztutako arazo guztietan auzl-gaia ikusten zutenak (ven el pleito en toda cuestión que se sorneta a su consulta). Bilbao'ko Legediak ere aitatzen ditu: "naiz-eta auzi-gaia oso zailla eta gaitza izan, eurak aurrera eramaten dute, sekula amaitzeke" (los hacían inmortales).

XVI eta XVII'garren eunkietan Bizkai'ko Junta Jeneralek eta Errejimientoek eskribauen numeroa gutxitzeko alegiñak egiten zituzten beti, "Naastea eta burruka besterik sortzen ez zutelako"; ordurako, Bilbo Zarreko Eskribauen Kofradiko Santxo Santxez maiordomoak zlozez (bera ere eskribaua) ugari baiño ugariagoak zeuden Bilbon eskribauak, egunero ugariago. Eta, auzoak ontzat eman ezkerro, neurri bat jarri bear zitzaizela numeroko eskribaueri ("escribanos de número"). (Gipuzkoak Belate'ko burruka-aldian eman zlon laguntzaren ordeaz, —Juana Nafarroako Erregiñak baimena eman zion Probintziako Consejueri numerozko eskribauak presentatzeko—.

XIII'garrenean, berriz, Balona'ko errian auziak zituztenak kexaz dabiltzaz, bear aiña lege-gizonik ez zegoelako "eta gaizkilleek lege-gizonik izateko eskubiderik ez zutelako).

Gipuzkoa'ko Probintziak, bere Junteetarako, lege-gizon bat aukeratzen dute Fue-roen araura ("y conforme a Fuero"). "Legearekiko auzi asko (muchos casos que consisten en derecho) agertzen bait dira Junta Jeneraleetan bereiziki. Bera izaten zan Junteetan mai-buru. Bat eta bera naikoa. Besterik ez da bear, ez-eta Prokuradore bezela ere, "etortzen diran bakoitzeko, euren Probetxurako, eztabaidak eta burrukak besterik sortzen ez dutelako. (Ezta Juntek biltzen diran errietara agertzerik ere ez dute "eskribuz beuren iñoren aldeko mintzaira agertzeko ez bada" (presentar su alegato por escrito). Agindu au Tolosa'ko Junteetan desegin zan 1851'an eta arrezkero Junteetan beuren buruak aurkesteko aalmena izan zuten. Baita prokuradore bezela ere.

Araba'n errietako, gizon libreak eta aundizkiak epaitzeko maia giza-aberatsek eta Erregeak osatzen zuten. "Armeria" izeneko aberatsen jaureglak gaizkilleen iesleku eta babes izan oi ziran; eta ori, legez. Baita elizak ere. (1561'an, Elgoibar'ko Junte-tan, asarre agertu zan Segura'ko Kontsejua: alkateak bi emakume zitun erriko kartze-lan preso artuak eta eliz-gizon batek, giltza paltsoekin ateak iriki, eta elizaren babe-sean jarri zitun).

Juramentu-elizeetan ((Iglesias Juraderas) egiten zun Bizkaiko Jaunak Fueroak defenditzeko bere juramentua eta ziña. Eliz oietara etorri oi ziran, beuren ziña egitera, auzirik zutenak eta errudun emanak (acusados de crimen). Estibalitz, Larrabezu, Gernika, Bermeo, Arrasate'ko (Mondragoe) Magdalena eta Oiartzun'go San Esteban Lar-taun'go ziran eliza oiek.

## ARMA-GIZONA, PAKEAREN OIÑARRI ETA GERIZA

Euskaldunak gizajo-paketsuak dira asarre ez diranean". IKusten danez, maiz izan ditugu asarre, guda-faltarik izan ez bait dute. Alaz ere, gudarako gogo gutxi agertu du beti euskaldunak.

Anibal'ekin pakeak eginda gero, berarekin joan ziran zenbaitzuk, Alpes-mendien zear, Erroma'raino. Ondoren, berriz, erromatarrekin batera munduko baztar guzietan zabaldu ziran, lejonario bezela. Etxean franko eta godoekin burruka amorraturik; ez zan falta izan. Frankoak ifarretik eta godoak egoaldetik; erdian, euskaldunak burnia txingudi eta maillauren tartean bezela. (Oietako ekintza baten oroigarri da frantsesen "Erroldan abesti" zaarra). Mairuen aurkako burrukan ere parte artuko dute gogoz. (Lazkao'ko Amador jauna izan zan, 1340'an Salado ibaiaren inguruko burruka-aldian, gipuzkoarren buruzagi. Ori zala-ta, Erregeak Cazorra'k Alkaide eta Governadore egin zuan eta "Caballero de la Banda" izendatu. Granada'ko mairuen aurka burrukatzeko 1431'an Bizkaiko Enkart-erriitik urten zuten Otxoa de Salazar eta bere senlde eta aideek. Juan Alvarez de Avellaneda izan zan Erregearen Alferzea, eta Banda'ko Iku-rriña (Pendón de la Banda) Pedro Ayala eskuetan egonik zan. Erregeiñak Gipuzkoa-rreri eskatu zlen Gibraltar'eko itsas-ate-estua eta Granada inguruko Itsaso zabala zaintzeko, "esagutzen bait degu zuen itsaroako abilidadea eta gureganako leialtasuna". Gipuzkoak, bere kontura eta bere bizkarretik, iru galeoi aundi bialdu zizkion. (Gerra amaitu zanean, berriz, Granada'ko azken errege mairua euskaldun ontziak eraman zuten Berberia'ra.)

Euskalerrriak ba zuan bere gudarostea; baiña, lurraren defensarako bakarrik. Gizon aberatsek (ricos-hombres) eta Erregeak osatzen zuten guda-arazoetako Nafar-baztordea. Zaldunak-aeuk ziran Aide Nagusien artean (nobleza) bigarren maillako-beuren zaldia eta armak gertu eduki bear zituzten Erregearen deiari bereala erantzuteko. Baiña, gudaroste bereizia, egunerokoa, oso zan eskasa eta txikia.

Nafarroa'ko odol-garbiko aitorensemeak (hidalgos) libre eta kitu dira ("libre e quitos"); baiña, kanpotik etsairik sartuko balitz mugen barrena. orduan Erregearen deiari erantzun bearko diote, iru egunez bakoitzak beuren kontura. Egun oiek bete ondoren, Erregearen (edo deia egindakoaren) bizkarretik bear zuten izan eta ez bestela. (Juan II, 1416). Kalekume xumeak (villanos), berriz, gerratean, esandakoa bete bear zuten denbora-neurririk gabe. Gudarik ez zanean, etxe bakoitzetik batek erantzun bear zuen.

Arabarrak, kanpaia entzutean, arma eta guzi erantzun bear zioten deadarrari. Baiña, pake garaian ez zuten soldaduzkarik. Gerrarako deia Junta Jeneralak egin oi zuan eta berak izendatzen zitun Terzio bakoitzeko buruzagiak eta ofizialak. Diputadu Jerenala zan indar guzlen berezko buru eta bere ardurapean zeuden Probintzi guziko gudarostearen bideak, geraldia eta ostatuak.

Bizkaiko Jaunaren gudarako deiari erantzutera beartuta zeuden bizkaitarrak itsasoz bezela legorrez ere Fueroen agindura. Baiña, Fueroak dionez "Malato Arbolariño duban eta soldatarik gabe"... "andik aurrera, berriz, bi illebeteko soldata eman bearko zaio gudari bakoitzari Ateetaik onuntz (aquende los Puertos). Ateetatik aruntz balitz, iru illebeteko soldata... Baiña., soldata olek aurretik eman ezik ez dira sekula Malato Arbolatik aurrera sekula joan". (Tt. I, Ley 5). Onela dio Gipuzkoa'ko Fueroak: "Guda arazoetan Erregeari serbitzean lege zaarra eutsi". Agindu zaarrari au da: "Probintzi onen mugeetatik ez dadilla iñork urten Erregearen agindura, ez itsasoz eta ez legorrez, aurretik bear dan soldata jasotzen ez bada".

Gudarako izena ematea bakoitzaren erri-Kontsejuan egin bear zan: "Joan dedilla bakoitza bere erriaren ikurriñaren azpian, naiz zaldun naiz Ordenes Militares'koak izan, naiz Inkisizioaren Familiarrak". (1596'an etsaien eraso-aldi baten bildurrez, eibartar askok mugara jo zuten. Urrungo urtean, 1597'an Azkoitia'n zeuden Junta

Jenelarak eta bertan Eibar'ko ordezkariak bere keixak agertu zitun, eibartarrak, bere berotasun artan, soldaduzkarako izenak erritik kanpora eman zutelako. Orrelakoak, andik aurrera, milla dukaten zorpean izango zirala.

"Gipuzkoa mugan dagoen Probintzia danez-Fueroak dio-Errepublika militarra da, bere lurra defenditzeko beti prest. (Fueroak, Erriaren Eskubideak eta Lurra zaintzeko euskaldunak burrukan sartu diranean, beti bete dute Butron-etxearen esaera: "Aerioagaz Aginka". Jokabide au agertzen du Aita Vitoria euskaldunak Nazio-arteko Eskubideen (Dercho Internacional) sorizailleak, onela esaten duanean Ameriketara arrapatzen diran lurra indioenak dira; inork ez du lur oiek kentzeko eskubiderik naiz eta indioak benituak izan eta gainberatuak; Erljio-burrukarako eskubiderik ez dago. Berdin jokatzan du Farnzizko Xabierrek Indietan, Goán Portugalek egiten duanari buruz: onek eskubideen aurkako egintzak salatzen ditu. Renteria izeneko euskaldun batek erakusten dio Las Casas jaunari indioen defendari asiera ematen...

"Gudariak biltzen diranean, erri bakoitzeko Ikurriñak ateratzen dira, alkateak buru dirala; auek bait dira berezko buruzagiak..." Probintziak, bere lurren defentsarako, koronela izandutako du eta onek ez du Erregearen onartzearen bearririk" (Tit. II, Cap. XI) (1542'an Gipuzkoa Laburdi zear sartu zanean, Felipe de Lazkano zan bere Koronela). Erriko gudarien dan Koronel au Gudarako Diputazioaren mende dago bakarrik eta eregearen beste Jeneralekin artu-emanak mailla berean ego ol dira, eurentzako menpetasunik gabe ("por vía de aviso y no por orden"). ("Guardia" izeneko etxean, Gabiri'ko Alegia'n, egon oi ziran Azeria'ko ikurrin, arma eta kapitanean insiniak).

Gudarostea erretlan oiñarrituta egoteak gauza auek eskatzen zitun: erriek armak erosi gudarieri bere eginkizuna erakutsi... 1793'an, Frantzia eta Espaiña'ren arteko burrukan, gerra-aurreko urduritasun artan, Markiña'ko erriak sei arrua polbora eta 6.000 bala erosiko ditu. Frantzes gudarosteak datoz Alduides, Biriatu eta Bera'n zear... Orduan, Markinakoez gaueko zaindari-erronda eratzen dute erriko mutillen artean, eta gaueko guardi ori obeto egin dezaten, bakoitzari kuartillo bat ardo eta ogi zati bat ematen zaizkie. Frantzesak aurrera datoz. Abustuaren lenengo egunean Ondarrabi artzen dute eta laugarrenean Donosti. Ona zer eskatzen dio Markiña'k Bizkaiko Diputazioari: 40 fusil, 20 baloneta, 50 ezpata-luze, lau karutxo-kaja, milla fusilarri... Billabonak, berriz, soldataz gain, mutil bakoitzari txamarra, galtzerdi, oiñateko eta txapela emango die... Oitzen'goak enkargu auek egingo ditu: 60 txamarra, 60 prakka, 60 manta eta kapela luzeak (sombrosos de copa larga..."para que se sirvan alternando") eta erriko dirutik amar kuarto soldadu bakoitzari.

Gudari talde auentzako saloak izan oi ziran erri eta eliz-jaletako alardeak eta gudari-errebistak... Gudakizun sonatuen oroigarriak dituzu, beste aldetik, Ondarrabi, Irun eta Anzuola'ko gudar-agerketak eta erakusketak... Tolosa'ko "bordondantza", Elorrio'ko "errebonbilloak", Torralba'ko "Juan Lobo"renak eta abar.

Probintziatik kanporako arma-serbitsuak bere borondatez bakarrik egin oi zitun gipuzkoarrak. (Caro jaun Jeneralak, berak zeraman gudarosterekin batera jokatu aal izateko, Gipuzkoa'ko Terzioa Probintzia'tik ateratzeko eskatu zuan. Probintzia'k erantzun zion ezetz, ori ez zala Fueroak agintzen zuena, ezta Korteetakin egindako itunarekin konforme. Jeneralaren erantzuna, giputxeri ogia eta errege-soldata kentzea izan zan eta gudaketa tokitik aldendu. Alaz ere, alarma faltsoz, gudarieri turuta "jenerala" jo zietenan, gipuzkoarrek izan ziran burrukarako lenen prestatu ziranak. Bai orrelako prestakizuna ondo goratu ere Jeneral arek).

Muga-aldeetik estutasunik bazan, orduan Gipuzkoak Bizkai, Araba eta Oiñati'ko erriari laguntza eskatzen zien. (1638'ko Ekainaren 11'an Gipuzkoa'ko Guda-Diputazioak Bizkai eta Araba'ri laguntza eskatzen die eta, bide batez, bere protesta agertzen du Erregearen biltokietatik Gipuzkoa'ri ez polbora, ez soka, eta ez balarik ematen ez ziotelako. Amar egun beranduago, Ekainaren 21'an, Bizkaiari idazten diote len-ballen bialdu ditzan aal dituzten gudari geienak; eta, Araba eta Oiñati'ri idazteko erabakia ari ere bai. Nafarroa'ri ez diote ezer eskatzen, bera ere larritasun berdiñean arkitzen dalako: Doniane Garazi'n (San Juan de Ple de Puerto) eta bere inguruetan etsai-

gudari talde aundiak bait zeuden andik jotzeko prest. Diputaduek, Korrekidoreak eta Probintzia'ko Idazkariak osatzen zuten Guda-Diputazioa. Beuren erabakiek era bateko indarra zuten bearkizuna sortzeko.

## **ELIZ-GIZONA MEZUDUN ETA ARGITZAILE**

Nafarroa'ko Korteak iru maillatan zegon eratua: nobleak, eliz-gizonak eta erria. Nobleak ("ricos-homes, infanzones y caballeros") 55 aulki zituzten; Eliz-gizonek, 10; Erriak 27.

Nafarroa eta Zuberoa'n bai, baiña beste eskualdeetan (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Laburdi) ez da eliz-gizonik ikusten. Agintari-Junteetan ikusten. (Apaizik ez dedilla Junteetan Prokuradore izan, bere eliz-mezuari ez bait dagokio politika arazoetan sartzerik"...Gipuzkoako Fueroa, Tit. 26, Cap. IV).

Kalaborra'ko Gotzaitetik bere mende zeuden apaiz euskalduneri berdin-berdin agintzen zaie "ez-eta pakea aitzakitza artuta ere" eta gogorki debekatzen die Errepublikak gobernuko arazoetan sartzerik.

Labayru idazleak dionez, Gotzaiek gizaldietan zear ez dute gure artean aginpiderik izan, ez bait zieten erririk-erri ibiltzen uzten, elizak bisitatzeko eta antolatzen. Arrazoi au jasoten du: "zenbait zaldun eta aundiek eleizaren amarrenak, eskubiderik gabe eramaten zituztelako".

Arrazoi ori berbera agertuko diote Erregeari, Guakalajara'ko Korteetan, zenbait Gotzaiek: "ez dala zillegi, alegia, apaizen lanak ordalintzeko jasotzen diran amarrenak, eliz-gizon ez diranak eramatea". (Divlsero) zerlitzan elizako patroiak jasotzen zitun parrokiako amarrenak oso-osorik. Arriaran'go bikarioa izandatzea Villafranca de Gaita'go Kondearen esku zegoan, bera bai zan parroki orren patroia "divisero". Eliza ortako Benefiziadoek ez zuten amarrenik artzen; patroiak ematen zien 20 dukat dirutan, lanen orde. Yarza eta Amezketa etxeen jabe zanez, Granada de Ega'ko Kondeak eramaten zitun amarren guztien erdiak (patroia "semi-divisero" zalako) eta beste erdiak (Beasain'en) eleiz-gizonek.

Iturriak dio Eliz-kanonetatik ikusten datorren au: Aita Santi Sinplizoren garaian (470 urtearen inguruan) amarrenak lau zatitan banatzen zirala: bat Gotzaintzat, beste bat eliz-gizonentzat, irugarrena beartsuentzat eta laugarrena parrokiak dituen beste gastuentzat.

Gure arteko Aide nagusiek ez zuten orrelako erdibiketarik nai. Eurak bakarrik ziran guztien jaun eta jabe. Orregaitik ez zuten Gotzairik tartean gura. Amarrenak zaintzeko eurak ziran naiko; balta ere menpekoak zuten erabiltzeko euren bizian eta aziendetan.

Aide Nagusien aurka jeiki ziranean, Erri-billek guk esandakoen antzeko arrazoiak esaten dituzte: ildakoen alde elizara eramaten zituzten ofrenda aiñako gauza guziak kentzen ornen zieten lapurretan bideetara irtenda. Orrezaz galñera, elizarako amarren eta bestela eskeintzeetan ere nal zuten guzia egiten ornen zuten. (Ofrendak ez ziran nolanaikoak izaten: primerako maillan, idia; bigarren goan, aria eta abar).

Eleiz-kabildoa Benefiziadoek osatzen zuten. Olen artetik batek, Bikarioak, sakramentua banatu eta mintzairak egin. Besteak elizkizunetan laguntzaille ziran eta koruan parte artzen zutenak. Baita dotriña ematen eta konfesoak entzuten lagundu ere, konjuroak egiñ eta abar.

Benefiziadoek, berez, amarrenetatik bizi ziran (arto, gari, sagar, bildots, txala) eta aldara-oiñetan eskeintzen ziran ofrendetatik (ogi, argizari eta abar).

"Patrimonial" zerlitzan Benefizioetarako eskubideak, "pilongo" zerlitzanek zituzten bakar-bakarrik (errian sortu eta elizako "pila" edo pontean bataiatuak zirenak) eta amarren-amailleen ("diezmero") seme edo billobak. (Oiantzun'go baillaran, 1787'an, 3.341 biztanle bizi ziran; bere parrokiak, berriz, Bikario bat eta zortzi Benefiziadu).

Amarrenetatlk laurdena Gotzaltzegira bialdu oi zan. Elizado patrolari zegokion elizako tresnak prestatzea: kalizak, ornamentuak, kanpaiak, organua, liburuak mezarako eta korurako, eta elizkizunetarako bear ziran beste zer guziak.

Patroi ori erria bera zanean, orduan Bikarioa erriko semea, errian sutegia zuten etxeko semea, bear zuen izan. Beste Benfiziadoak aukerratzeko maia Alkate, Bikario eta iru Benefiziadu zaarrenen artean osotzen zuten. (Iruña'ko Gotzaitegiak Tolosa'ko erriari 1803'an).

Aiuntamientu eta Kabildoen arteko asarreak ugariak izan oi ziran: alditan "amarrenen banatzea" zan altzakia; besteetan, berriz, bata bestearen arazoetan sartzen zala-ko. (Erriko Agintariek doaz Gotzaiarengana, onek errian dagoen konbentukoeri indar egin ditzen prozesioan parte artzeko...Beste aldetik, berriz, eliz-gizonek bere kasa ardoa saltzeko taberna iriki dute. Aitoa ereiteko girorik ez dagolako, alkalteak errogatibak antolatzen ditu; baiña, Bikariorari eskabidea egin ez dlolako, errogatibariz ez... Erriko Agintariek billatzen eta ordalntzen dute sermolaria; baiña, Bikarioak, gosete batean, gariak arkitzen...Aluntamientuak dabil elizako limosnak kontrolatzen...eta, bitartean eren-aldiko sugarra errian agertzen danean, Gotzaiak lortuko du arruak bat kina sugarra sendatzeko... Agintariek elizan jaun da jabe dabilzelako, eliz-gizonek protesta bizian dabilta; Aiuntamientoren erantzuna, aldara nagusiaren bi egaletan erriko arma-arriak jartzea izan zan...)

Erri-gobernuko arazoetan ez sarizeko eskatzen zien Gotzaitegiak apaizeri eta beste aldetik Agintarieri, elizakoetan ez sartzeko...Ez batak eta ez besteak ez zioten kaso aundirik egiten...Baiña, asarreak ez ziran luzarokoak izaten. Gaur asarre bizian eta biar alkarrekin dantzan. Ala gertatu zan Oartzunen: aurretik asarre zebiltzaten Agintari eta Benefixiadoek, alkarrekin dantzan ikusten ditugu erriko enparantzian San Juan eta San Pedro-jaietan.

Arazo auen inguruan ez zan tranpakeririk falta: apaiz-jantziak gainean eta koriotxoa buruan ibilli oi ziran bat baiño geiago,beuren buruak tribunaletatik gordetzeko. Apaiz bezela agertzen dira, apaiz ez diralarik, dio Bilbo'ko Ordenantza batek 1385'an: "Abren y facen coronas e gana e procuran titulos deziendo ser hordenados de algunos obispos no sayendo ello asi verdad". Eun urte beranduago ere alagertatu oi zan Fernando el Católico erregearen agindu batek zionez: "que no se les ampare a ninguno de los tonsurados de prima que se les encontraré con hábitos lacayos e bandidos"

Alaz ere egiazko Kristautasunaren kutsua nabari da Erriaren ekintza eta taju guztietan: langille, itsas-gizon, merkatarl, Erriko legedi, Junta Jeneral eta beste errietako agerpen guztietan, neurrl baten barruan, kristautasuna agertzen da garbi-garbi.

Cordoba'ko San Eulojio igaro zan Euskalerritik zear. Iruña'ko Gotzaiari karta bat blaltzen dio, 889'garren urteko Azaroaren 15'an, Galmiro Enekones gizon ospetsuaren eskuz. Onela dio eskutitz artan: "Leyre'ko monasterioan egun askotan egona naiz; berian gizon ugari ikusi ditut Jainkoaren bildur-maltasunean bizi diranak...andik Pirinee mendien egaletan dagoen (San Zakarias) monasteriora jo nuen...bere argia Sartalde guztian argltzen du...eun lekaide baziran bertan, era guztietako birtuetan beuren argla zabaltzen zutenak...Jesukristo berberari egingo zioten arrera ona egiten zigute bestera eltzen giñanol...

Errietako eliz-gizonak ez ziran ain santuak izaten. Apaiz eta eliz-gizonen arteko oitura zan legezko eme bat (concubina legal) berekin izatea, eskontza onartu baiñan ez bete (sea obedecido pero no cumplido") (Tit. 41, Cap. 11).

Apaiz, eta eliz-gizonentzako Legedi bat antolatzern dute Santiago, San Anton eta Begoña'ko Kabildoeak 1488'ko Abenduaren 10'an. Onela dio 24'garren legeak: "amar marabedi multa lzango du Jainko eta Andra Maria'ren aurka itzik esaten dunak".

Galtza gabe meza ematera joaten diran apaizak badira Nafarroa'n 1421 'ko Ilbeltzaren 12'an Villaespesa'ko Francés jaunak Olite'n egindako testamentjan onela dio: "abestuko duan kapellaua bizitz onekoa izan dedilla...eta oneski jantzita eta ez bernak

bistan ditula meza ematendunik ("et non celebre sin clazas tendiendo las cambas desnudas").

Apurka-apurka, ordea, bizi-berria sortzen da bai errian eta bai apaizgoan. Kristau-berritze onen bidez XVII'garren eunkian apaizak bere lanera lotuta ikusten ditugu. Errla eta apaizgoa alkartuta blzko dute Krlstautasuna ogeigarren glzaldirarte. Larresoro'ko Apaiztegia Baiona'n sortzeak eman zion berebiziko bultzada erriaren kristau-bizitzari. Egia da Port-Royal elizan Jansenisten erruari arre-eta-arre eutsi ziona, Saint-Cyran euskalduna izan zala; baiña, egia da baita ere, Betbarram ingurua Jansenisten kutsutik garbitu zuena euskalduna zala; Mikel Garikoitz, alegia. Danetarakoak zeuden: Albret'eko Juana, protestanteen eutsigarri alde batetik; bestetik, berriz, Malen neskaitilla (Larralde'ko Lorea) Eukaristiaren aldeko mariri.'

Loyola, Xabier, Asensio'ko Martin, Berriotxo eta Lizardi aintzindari dituztela, ordo munduan zear mixiolari oste osoak, Euskalerrriaren mundoan-zearko ekintzarik aundiena osotuz. ("Eman da zabalzazu munduan frutua...")

(Europa'ko baztarretan ez da-dio Pierre Lhande'k-azkeneko lau gizaldi auetan, bere biztanleen neurrira eta proporziora, Euskalerrria'k aiña mixiolari eman duen erririk).

"Loiola'ko lñigo'ren galtzairuzko itzak dira,

Baiona'ko Saint-Cyran'en galtzairuzko itzak dira".

gero, Lesseps baionarraren ikurrin biuriu zirenak:

APERIRE TERRAM GENTIBUS

Jentilleri Lurreko ateak Iriki.

Arrinda, Anes eta Donato



---

# ::EUSKERA

# LANTZEN :

---

251. Difusión cultural (Acción) ..... JAKINTZA EDAKETA  
(Efecto) ..... JAKINTZA EDAPENA  
(Capacidad) ..... JAKINTZA EDAMENA
252. Permiso de circulación ..... ERABILTZE-BAIMENA
253. Cencerrada ..... TZINTZARRO TSA; ZINTZARRO TSA
254. Frutos del trabajo ..... LANAREN EMARIA
255. Impreso ..... IRARKIA  
Impreso (formulario para rellenar) ..... GALDE-ORRIA
256. Puesto de trabajo. (Colocación) ..... LANBIDEA
257. Electricidad ..... TXIMISTA  
Electrología ..... TXIMISTAIZTIA
258. Interviú ..... GALDE-IZKETA
259. Pleno (del Ayuntamiento) ..... UDALAREN ORO BILLERA
260. Paseo (urbano) ..... EGURASKALEA
261. Aborto ..... AURGAI-ILTZEA
262. Reconversión ..... EGOKITZEA; BIRREGOKITZEA
263. Impuesto sobre la renta de las personas  
físicas. .... NORBANAKOEN IRABAZPEN ZERGA
264. Salto cualitativo ..... IÑARDUKERA-IRAULPEN A
265. Recuperación. (volver a tener) ..... BIRRESKURATZEA  
(volver a ser dueño) ..... BIRJABETZEA  
(recobrar, reembolsar) ..... BIRREROSTEA  
(recoger, volver a coger) ..... BIRRARTZEA  
(trabajar el tiempo perdido) ..... ORDAIN-LANA  
(alcanzar al adversario que se había adelantado) ..... ATZEMATEA
266. Transporte ..... LORRA  
(Acción de transportar) ..... LORRETA
267. Mediano. (Intermedio, ni grande ni pequeño) ..... ARTAIÑA
268. Desaparecer ..... EZKUTATU  
(Desaparición) ..... EZKUTATZEA; EZKUTAPENA
269. Ventaja ..... OBETASUNA  
(superioridad, excelencia o condición favorable, sueldo, valor añadido,  
ganancia anticipada para compensar la superioridad) ..... OBARIA
270. Vida activa ..... ARAZO-BIZITZA
271. Fuerzas políticas y  
sindicales ..... ALDERDIAK ETA LANGILLE ALKARTEAK
272. Oportunidad ..... EGOKIERA; ABAGUNEA
273. Nos concierne (también a nosotros) ..... GURI ERE BA DAGOKIGU  
Nos toca, nos coge (también a nosotros) ..... GU (ERE) ATZITZEN GAITU
274. Poder adquisitivo ..... EROSMENA
275. Ley de Régimen local ..... ERKIEN ETA IRIEN EGITAMU-LEGEA
276. Fraude fiscal ..... ZERGA-IRUZURRA
277. Terremoto ..... LURR-IKARA  
Maremoto ..... IZOLDEA
278. Contratación de la obra ..... EGITE-ITUNTZEA  
Contrato de la obra ..... EGITE-ITUNPEN A



279.	Rueda de prensa .....	BERRILARI-BILKETA
280.	Cargo público .....	BERETERGOA
	Alto cargo, mando .....	BURUZAGIGOA; AGINTARIGOA
281.	Impuesto del valor añadido .....	SARI-GEITZE-ZERGAA
	Impuesto del valor añadido .....	GEI-SARI-ZERGAA
282.	Paso a nivel .....	TRENBIDE-ZEARRUNEA
283.	Mobiliario escolar .....	ESKOLA-ALTZARITZAA
	Mobiliario escolar .....	IKASTEGI-ALTZARITZAA
284.	Biblioteconomía .....	LIBURUZAIN-JAKINTZAA
285.	Creatividad .....	SORMENA
	Creativo .....	SORGARRIA
286.	Preaipitaciones atmosféricas .....	EGURATS-JAUSKETAAK
	Precipitaciones atmosféricas .....	EGURATS-JAUSPENAK
287.	Biberón .....	EDOSKAIA; EDOSKITZE-BONBILLAA
288.	Cooperación (Colaboración) .....	ALKAR-LANA
289.	Pliego de condiciones .....	ITUNBEN-BALDINTZAK
290.	Curso intensivo .....	IRAKASTALDI LASTERRA
		IRAKASTALDI ZALUA
291.	Boletín de inscripción .....	ZERRENDAPEN-AGIRIA
292.	Incoado .....	EKINBERRIA
293.	Departamento de control financiero .....	DIRUZTAPEN-ZAINKETA-SAILLA
294.	Identificación fiscal .....	ZERGABURU-EZAUGARRIA
295.	Liquidación de cuentas .....	KONTU-GARBIKETAA
296.	Base imponible .....	KOPURU ZERGA KORRA
297.	Chapuzas .....	LARDASKAA
	Chapucero .....	LARDASKATZAILLEA
298.	Bermeo está en Bizkaia .....	BERMEO BIZKAIA'N DA
299.	Culto a la personalidad .....	BURUZAGI-GURKETAA
	Culto a la personalidad .....	NAGUSI-GURKETAA
300.	Recorrer diferentes calles .....	ZENBAIT KALETAN IBILLI

**Zatarain'tar A.**



## "MATXIN BURDIN"

Jose Hernandez Argentinarr idazle trebea. Estantzi baten emon eban bere gaztaroa. Militar izan zan, bulego zeregiñetan lan egiña ta politikan gogorjokatua. Idazle lez 1872'an El gaucho Martin Fierro argitaratu eban, poema epikulirikua, zortzi silabako bertsoetan; bosteko estrofa soillean bertso-lerro jaral bat jarten dau geienez. Onela:

—(uts)  
( a)  
  
—(a)  
—( b)  
—( b)  
( a)

Zati bi daukaz, eta beronen bigarren zatia sei urte geroago atera aban eta La vuelta de Martín Fierro eritxonr Lenengo ta bigarren zatiko bertsoak, danak daukazuz neurri ta rima joku bardiñean eunduta. Pertsonai bakoak bere bizitzako goraberak edesten ditu, eta Martin Fierro bera da poema guztiari batasuna dakartsona.

Len-zatiaren aria: gautxoak bere ibillaldiak eta naigabeak kontatzen dauskuz, beste gautxo batek, Kurtz izenekoak erantzuten dautsola ta azkenez arat-onat dabilen zarpail bategaz alkartzen dana. Batasun gitxiagoz dizdiz dagi poemaren bigarren zatiak: gautxoaren seme nagusiak diardu itzari, Martin Fierro ta beste gautxo batzuk be tarteko dirala.

Artiste eme dogu Jose Hernandez bere poema luze interesgarrian, poeta zeatz irudimen azkarreko, zer dagian ondo dakiana 1193 aapaldi daukiez zati biak, beti baikor ta eder, arnas-estu bageko.

Ona azkenengo estrofa, 1193'garrena:

Ez baiña iñor gaitzikortu  
ez dut gogaitzen iñor nik,  
orrela abestu ba'dizit,  
egoki arki nulako,  
ez da iñoren kalterako  
danen onerako baizik.

Eta azken oarrean irakurten dogu: "Gizonki jokatu du Matxin Burdin'ek bere bizian barna, bidegabekeriak ontzat emoten dituan gizartearen buruzki, lazarrika datorkion agintari salkor guzien aurka, burruka ezberdin batean beti eman du aurpegi eriotzinkan arki arren, ez da kikildu, ez ezbearrak ere biotzildu".

Erdal egillea

Jose Hernandez, liburu onen egillea, Argentina'ko San Martin errialdean jaio zan 1836'an eta Frantzisko Kortabarria apaizak bateatu eban Buenos Aires'en bertan. Garal atan politika giro guztiz txarra egoan Argentinan. Gazte zala il jakon ama eta aitaren lanetan jardun eban emeretzi uriera eldu arte, panpa edo landa zabaletako lanez eskolatu ta geutxoen oiturak ikasiz.

Aita Ataun'ek liburuaren atarian onela: "Artu-eman aundia izan zuen ere bazter aietan ugari zebiltzan auskaldunakin. Bere buruaren jabe egini, aita utzi eta gudari sartu zan. Urrena gudarigoa utzi eta politikari eman zion, eta politika-giro naasi artan gorabera aundiak izan zituen matxinada guztietan zerikusia bazuen".

Idazti onen len-zatian, Matxin Burdin'ek, ona bait zan, bere atsekabe ta lorrak jalkitzen ditu kantu doiñutsuetan: bere ta gautxoek bizibide baketsua ta iñoizka odoltsua. Gudari eroan dabe, eta "gudaritzako ezbearrak, bidegabekeri eta zigorrak agertzen ditu. Alako batean, Matxin Burdin gudaritzatik igesi joan, eta batetik bestera ibiltzeari eman zion. Bide artan zenbait burruka eta gizon-iltze izan zituan. Bere kideko beste bat, Kurtz izenekoa, alkartu zitzalon, eta biak indigizon artera iges egin zuten".

Matxin Burdin kristiñauen lurraldera biurtzen da. Eta gero berak eta bere seme biak indioen artean izandako zoritxarrak azaltzen dabez. Ba-dabe zer esanik! "Beroian kideko beste bat azaltzen da, Biurria izenekoa, eta onek ere baditu bere esatekoak. Azkenik, alabearrez edo, edu da saillera beste gizon bat, beltza, kantari on ustekoa eta Matxin Burdin'ekin norgeiagokoa egin nai itxuran. Bertatik ekiten diote azken garratzeko leiarl. Matxin Burdin eta bere semeak nor bere bidetik ibilteza erabakitzen dutelarik bikatzen da bertso-liburu ederra".

Eta nortzuk ziran indi-gizonak? Bertakoak, noiztik ez dakigula lurralde areitan bizi ziranak. Lurralde arei uste eurenaren ebanal eusteko alegiñak egiten ebezanak, eta eldu barriak aratu ziranen, etzan errez izan areik menderatzea, eldu barriok bakezko bizitza egitea al izateko. "Bideak urrundu arau, zuriak sari ziran iñorenak etziralako lurretan, beraien jabegoa artu zuten, eta bereala asi ziran alako larre onetan beiak, ardiak, zaldiak eta beste edozein abere azitzen, bideak ebakitzen, lurrak esitu eta lantzen, etxeak eta erriak jasotzen, gizarteko bizibidea zuzentzen".

Au be, jakingarri lez, lurralde areitan ainbat urte emondako Aita Ataun'ek gaiñerazten dausku: "Garal aietan euskaldun asko etorri zan alderdi auetara, eta aurrenekoekin batera eldu ziran lur barrietara, eta beraletako lanetan gogor egin zuten. Aurrenetakoak izan ziran euskaldunak landa zabal (pampa) aietan salero ki-lorreatan eta ostalaritzan. Erri barri bakoltzak bazuan bere euskal-ostatua eta pelota-lekua".

Ortaz gaiñera, abere ta ganadu zaintzen erneak eta zaldiz ibiltzen trebeak genduzan indi-gizonak; eta, jakiña, euren ekandu ta oitura berezi-bereziak eukezan; baita alako euren izkuntza berarizkoa be. Euskaldunak, besste iñork baiño errezago artzen ornen zituzten gautxoek trebetasuna eta oiturak". Izkuntzan bere etziran azkenengo euskaldunak: J. Hernandez-ek bere poema liburuan euskaldunai aotik jalgi ta arek arduraz jasotakoak.

Egiaz olerkari danak ba-daki galak edoki eio ta mataza zizonki aurrera eroaten. Jose Hernandez'ek emen legez, nunbait. Berak bizi izana kantatzen dau, bere adimena ta naimena dardarka jarririk. Zentzunetatik sartzen jakoz gelenez galak, ibilliz eta biziz gatzatuak, eta oneik damoskuz estrofa bizi sutsuetan, ango erdera ez kaskarrean. Asieran adierazo dogunez, beti darabil neurkera bat-bera, txairo ta atze-gingarri, zenbat eta gelago irakurri ederrago iruditzen jakuna.

#### itzultzailea

Merezi ebala deritxot poema onek euskeraz ipintea. Eta nor berau euskeratzeko? Aita Ataun'ek, itzaurrea egin eutsonak, onan: "Gaurko euskaldunen artean ez degu noski beste iñor bera baiño egokiagorik lan ori egiteko. Jalotzatik euskaldun eta euskal talde, bere aitazama alderdi auetan ibillia zalarik, txikitatiko bazuen gautxoek berri, ogetamar urte ta geiago gautxo-errian bizi da. Ikaragarritzko lana izan du, iñolaz ere Martin Fiorre'ren bertsoak euskeraz neurri bereko bertsoetan ematen. Euskal kutsu aundia arkitu ornen du euskeratzaleak Jose Hernandez'en espa-erasian, eta emen ditu bere azalpenak liburuan zearreko oar ugarietan" (A. Ataun, Atariko, 14 o.).

Ez dabil egitik aldendua. Biurpena, esan dogun aspaldietan eta neurrian, akatsik bage ta ederki burutua dago; iñork bere eritxi zorrotzeglan akatsik egozten baldin ba'dautso, euskera landuegiarena izatea Baiña emen be betiko koska: idazleak errua. Eta zergaitik ez irakurleak? Nai dogu beti idazlea beerago jastea, eta irakurlea zergaitik ez gorago? Idazlea —edozein— alik eta ondoen egiten saiatu oi jaku, olako lan eta itzulpenetan batez be. Nik ba-dot orren experientzi pizkat. Arrotz-poema bikaln bat edozelan itzuliko ete?

Txomin Kortajarena'k ezagutzen dau J. Hernandez'en erdera eta berak umetatik jakin, lkasi ta etenbarlk aotan darablillen euskerara biurtu bear dau poema blpll ori. Zer bide artuko itzultzerakoan? Mordoillo, narras, gatzbako, ala euskera giar, dotore ta garbia? Bigarrena, nik uste. Eta orrelantxe daukazu itzulpena, maisuki egiña, neurriz beti legeko ta rimaz oso aberats. Poetak, bertso zuritan barik, euskal olerki zaar neurtu ta oskide bardintsuz jardun nal dabenak, ba-daukie nun ikasl. Oraindik geiago bertsolariak: rima oparotsuz jokatu gura ba'dabe, irakur begie Matxin Burdin.

Ona, adibide legez, lenengo sailleko bederatzigarren aapaldia, erderaz eta euske-raz lenen Hernandez'ena ta ondoren Jatakortajarena'ren itzulpena:

Yo no soy cantor letrado, mas si me pongo a cantar no tengo cuándo acabar y me envejezco cantando: las coplas me van brotando como agua de manatíal.	Ez naiz abeste elaztuna, baiña, asi baikoz kantatzen, ezin asmatu bukatzen, zaartu naiteke ereslari: ura lez iturriari, neurtitza zait iariatzen.
---	--

Edozein euskal kantu zaar itxuraz daukazu estrofa, eta bardin-bardin beste 1193-rak be. Iturritik darion ura lez koplari bion bertsoak, ari bizi, atsegin. Esaera bitxirik naiko jalgi daroaz Hernandez'ek, izkera txanbeliñean damoskuz Txomin'ek aren oldozkun biurri sakonak. Jakituri sakonez —ezin daikegu ukatu— gaiñezka dago poema au.

Gerra aurretik dogu olerkari fiñ Txomin, eta nik, 1954'an, "Milla euskal Olerki eder" osatzean, 7 olerki bereak —"Maite-eziña", "Ametsak", "Ainrutxoa", "Mitxeleta", "Gure astoak", "Amandrea'ren oillo-aldra", "Burgos-aldeko eizak" sartu nebazan. Olerkari gozo, errikol ta bikintzat joten neban nik; berak, alan be, ez izan orren usterik. Batzuk, euren lanak lakorik ez dala uste, ta beste batzuk, apalegiak nunbait, ez dabe orrela pentsatzen. Jaka'k urteak geroago, 1972'an, bere MATXIN BURDIN bialduaz, eskintza au burutu eustan liburuan bertan:

Aspaldixkotik neutsun, Alta Onaindia, ordaindu gabetango zor bat aundia; naimen on bat baituzu, biotza ain guria, olerkari goi baltsan ninduzun iarria;	kezka nun larria, ain omen goitia nigan, alegia, ote zan egia.. Matxin'ek erabaki dezala auzia.
--	--

Matxin'ek daustu, bai, adierazten, ondo be ondo, poesirako zure trebetasuna. Ez izan ezpatrik!

Buenos Alres'ko "Ekin" argital-etxeak (1972) atera eban bere "Biblioteca de Cultura Vasca" salllean; "Kolonblar olerii-txorta" ta nire "Gure Urretxindorra" argitara emon ebezanak berak. 382 orrialde, ta lau eresi. Tankera biko argitalpena, bata **Biblioteca** orren oizko idazteak legez, eta bestea bardin, baiña tamañu aundiago ta askoz dotoreagoan, kolorezko ertzakin eta azal sendo ederrakin.

Marrazklak: Luis Beltran Sola. Irarkola: Amorrortu'tar Sebasten eta Semeena.

**Aita Onaindia**



# JAKAKORTAJARENA'REN OLERKIGINTZA

Txomin Jakakortajarena apaiz olerkarla nik ez det arpegiz ezagutu azken urteotara arte; baiña olerkari onen olerki-lana aspalditik ezagutu det. olerdiak plazaratzen asi zan eskerotik, "Euskaltzaleak" 1930'n asita, bere olerki-gudu eta sarlketak sortu eta gero lburutan argitaratzen asi zanetik aurrera.

Sariketa aletan nabarmendu ziran ainbat olerkari berri, Euskal-olerkaritzaren baratza ostoz berriz jazten asi zan onako olerkari batzuen eragiñez: Lauaxeta, Orixe, Lizardi, Loramendil, Etxeberria, Zaitegi eta abar indarrean zetozen euskal lirikari bide berriak erakutsi eta arnas berri biziagoa ernan naiez.

Lirika nausi sarituen itzalpean ez ziran batera azaren berengo orritzat artzekoak beste izen ezezagunago batzuk, eta auen artean bat nabarmentzen zitzaigun gutxi bezelako gatza eta bizitasuna zekarrena, batetik gertakari askoren irri alderdia jasoteko eta, bestetik, bertso arin, bizi eta txinparturtekakoak ondu eta biribiltzeko: Jakakortajarena'tar Txomin zeritzana. Orduan Gazteizko Apaizgaitegian apaizgaien ikas-turetetan genduen, eta andik bi urtera, apaizgoa artu eta orduko apaiz berri geletak bezala, Araba aldean asi zuen bere apaiz-lana, Nafarrate'ra bializ zutenean, apaiz-lanaz gaiñera, euskal lana ederki egin zuela jakin genduen, euskera il-añean zeukan Arabako erri ori berriz euskaldun egitea lortzeraiño.

Iru urtez jarraian dator Jakakortajarena jaunaren izena Euzko Olerkien sariketa aietara urte bakoitzean bialitako olerkiak biltzen zituzten liburu aietan. Lenengo urtean, 1930'koan, Irika-galak jartu ditu Txominek berak bialitako olerkietan. Iru olerki dira: "Mltxeleta", "Aingerutxoa" eta "Ametsak".

Bigarren urtean irri-bertsoetara jo du: "Gure astoak" eta "Amandrearen oillo aldra".

Irugarren urterako sariketa aien erakundeak bi sari jarri ditu: bata, beti bezelako, lirika-olerkientzat, eta bestea, euskal-giroko poematxoentzat. Bietara aurkestu da Txomin; lenengora, "Maite-eziña", alkar-izketazko olerkiarekin, eta bigarrenera "Len-euzkotarra" poemarekin. Bigarren sariaren irabazle gure Txomin gertatu da.

## AITZOL'EN IRITZIAK

"Aitzol" zan olerki gudu-aien antolatzaile nagusi eta bera da antolatzaileen iritziak adieraziz, urte bakoitzeko olerki-liburu bakoitzari Itzaurrea jartzen ziona. Lenengo urtean eta liburuan olerkari gazteteak izenpean lau olerkari izendatu zituen: Loidl, Jakakortajarena, Zugasti eta Arozena. Txomini dagokionez iritzi auz eman du: Jakakortajarenak iru olerki politetan bete goitar lenengo oliariak dakazki.

Izan ere, Txomin'en iru olerkiak olerki politak dira, mee eta txukunak gaiez, eta bertso apain eta ongi neurtuetan moldatuak. Olerkariak gai samur eta maitagarriak erabilteko gaitasuna eta joera erakusten zituen.

Bigarren urtean beste joera bat agiri duela dator: irri-gaietarako, umore on da

txinpartatsurakoa. Olerkari errikol bezala aurkestu oraingoan Aitxol'ek jende xearen giro eta gertueretatik gaiak ariu, erri-erara asmatu eta erri-olerkariaren tankera aurkestent dituen olerkarizat. Eztenkada parragarria da Txominen ahapaldi bakoitza, beste gure arieko bestoetan zar askoren maillan jartzekoa ikusten bertso auen egillea, eta Iruñako Ferietako berisoak, Ikarazketako mandoarenak, Bilintxiren betroiarenak eta abar gogoratzen dizkio. Txomin'en iru bertso auei arrera ezin ohea egin zion Barrensorok idazleak ere Yakintza aldizkariaren orrietan.

Neronek ere autortu bearra daukat orrl-bertso autatik gorde izan dedala Jakakortajarenaren olerkigintzaren oroitzarik sakonena.

Urrengo urtean, 1932 ko sariketa Henanin ospatu da. Esan dedanez bi sailletan banandu dira sariak. Lenengoan, lirikioan Loramendi kaputxino gaztea izan da irabazle, balña, urte aretako liburuan Loramendi'ren olerki sarituaren urrengo, Txomin'ek bialitako "Maite-eziña" dator eta bigarren saillean, poematxoenean Txomine-nari eman diote sari bakarra, "Len-euzkotarra" gaia zuen poemari. Gaia, nonbait, Barandiaran maisu andiaren eskolan ikasitako ipul eta elezarrak burutu diote, Aralarko sugea, Basajaunak, Terialo eta Mari'ren agerketak tartean dirala.

Oraingoan Aitzolek itz gutxitan ematen du bere iritzia. Nola nal ere, euskal literaturan aztarren sakona utxi duen olerkari baten erpala ikusi du Berastegiko semea dan olerkari orrengan. "Ez goaz, dio Aitxolek" olerkari onen berri ematera. Ezagutua zaigu. Bego oraingoz luma geldi bizi zaiguaren alormena aizera gabe. Jakakortajarenaren etorkizunak bere izena goratzera makurtuko gaitu-ta.

Urrengo sariketara ez da azalduko Txomin'en izenik ez olerkirik. Bere apaiz-lanetan asiberria dalarik, ez du aurkitu nonbait ere asti eta giro onegirik olerkigintzarako. Bein agertuko, ala ere, "Yakintza" aldizkariaren orrietan iru urte lenagoko galetan sartuta "Burgos aldeko eizak" bederatzi puntuko bertsoan moldatutako olerkiarekin. Barrensorok, Agirre tar Toma zanak idatzi zuenez, irri bertsoa ornen zan Jakakortajarenaren barruti berezia.

Orra gaur idazle onetaz daukaten gaztetako ezupide bakarra, gerrate aurretxoan, Errenderin, Tolosan eta Hernanin antolatutako olerki sariketetan sortu eta plazatutako olerkientzat daukat.

Baiña, ez; Txomin olerkaria ez zan sariketa oietan ez ur oietan sortu. Sakonago ditu bere sustriak, Gaztelzko apaizgaitegian billatu bear ditugu. An izan zuen bere olerkari-eskola eta an asi zan bere lenengo olerki aleak ematen.

## **GAZTEIZKO EUSKAL-ESKOLA ETA OLERKI-ESKOLA**

Gazteizko Apaiztegiko eskolan sortutako eta garatutako idazlea dogu Jakakortajarena idazle olerkaria.

Ango euskal eskolaren sortzaille eta bultzatzaille izan zan Manuel Lekuonaren eskolakoa degu, izan ere, onen maisutzapean landu zuen euskera eta euskal olerkia bere apaiz-lkasturteetan. Nik Lekuonaren eskua eta aztarna ikusten dala esango nuke Txomin-en lenengo bertsoetan. Beriso samur gozoak egiteko joera eta bere bertsoetako gaien billa erri girora joatea Lekuona zanaren eskolan ikaslak ez ote ditu? Bear ba da zerbaitetan garaitu du Txominek bere maisua: bertsoaren jabetasun andiangoan, puntu edo itz-erorkera ugariagoak eta beteagoak asmatzean. Nik iñoiz entzuna diot Lekuona zarrari izugarritzko erreztasuna zeukatela bere eskolako apaizgai batzuek e rimak asmatzen eta moldatzen. Ori esaten zuenean, batik bat, Txomin zeukan gogoan, nik uste. Orixe, erreztasun ori ageri zalo Txomiñi bederatzi puntuko ontzeko gazterik ekarri zuen joeran. Bederatzi puntukoak ditu "Burgos aldeko elzak" izeneko bertsoak. Eta bederatzi puntuko beste irri bertso batzuk, Gaztelzko Seminarloak ateratzen zuen Gimnasium aldizkarian ezaguerazi zituenak:

"Eiztariaren abestia" eta "Moro katuari". Gure arteko bibliografoek ez dituzte oraindiko billatu ere egin aldizkarl orretan ez beste iñon.

"Eiztariaren abestia" zortziko txikitán ondutko iru bertsoetan asi eta ogetairu bederatzí puntukoos osatu du. Eiztari batek batek bere txakurra lagun artuta erbi bat il eziñik egindako alperrikako eizaldia du kantagia.

"Moro katuá" berriz, etxeo eta auzoko guztiak bere lapurreta litxarreriez gogait egiñik dauzkan katu maltzurra. Iñork ezin du burutu arekln. Eta, azkenez, guztien birao eta alñenak dijoazkio gaiñera:

Ai, gure katu zarra,  
Moro dek izena,  
Burutik oñetaño  
beltza aiz ta dena.  
Baiña are beltzagoa  
dek ire barrena.  
Odol ordeos noski dek  
zaiñetan edena,  
katu gaiytoena  
lapur maltzurrena,  
beidatu zekena,  
al dan okerrrena,  
inpernun sartuko al aiz  
zuzen-zuzena!

Bertsoak Berastegiko euskarán egiñak dituela autortu du egilleak.

Ala ere ez beza iñork uste Txominen musa Gazteizko ikasturteetan doiñu bat bakarrekoa izán zanik: irri bertsoetarakoa. Ez. Semlnarioko aldizkarian bertán du lirika sail garbiko olerki bat. "Nere ametsetako" etxea. Ain zuzen olerki au izán, 1930'n, Iraillaren azken-egunetan, ainbat eliz-agintari, Nunzio jauna, eta beste ainbat gotzaien aurrean, Seminario berria bedeinkatu eta zabaldu zán egunean, an ospatu zen itzaldi, olerki eta abestizko jaialdian irakurri zán olerkia, Txomin Jakakor-tajarena ikasleak ondua eta beste ikasle batek irakurria.

"Nere ametsetako etxea" apaizgai baten ametsa da, ume-umetarik amestua, Euskalerriaren sinismenaren ezaugarri izateko amestua, eta egun atan olerkari apaizgalak mamaitua dakusana. Ona amets orren azkena:

Baina bein bateos banoa  
zelai ta soro barrena,  
ta nun arkitzen det luma,  
tajuz idekai dena.  
Arri batzuek aurrera  
azaldu dira lurrean,  
gero beste arri asko  
aurrenengo oien gaiñean,  
jaso zuten bat-batean  
golnen goinera lurra.  
Ta ara nun azaldu zaigun  
apaiztegi opatua!  
Emen nauka zoratua,  
ederra bait-da benetan!  
Auxen, auxen, lkusi nun  
aspaldiko ametsetan  
ta gaur dlot benetan  
etxe eder au ikustean.  
Ba da orratik fedea  
oraindik Euskalerrian!

Gymnasium aldizkariak erdal-itzulpena erantsi zion olerki orri, eta onen egillea euskal olerkari garatu eta eldu egindutakotzat aurkestu du, Euskalerriko olerkarien artean goi-maillan jarrita. Ez, Txomin'en musa ez dabil irri-bertsoetara mugaturik; badaki goragoko gaietara igoten. Ba daki poema luze samarrak asmatu eta moldatzen. Eta ori gaztezero loretsuan dala.

## ISILLALDI LUZEA

Urteak aurrera dijoaz Txominen euskal lan berririk ageriuko daneko. Gerrate zitak, 1936-n ekarritako ixillaldia, Txominek erbestera bidea artuko du. Lenengo, Eskalerrri barruan, Iparaldean, Dona-ixtin apaiz laguntzaille, eta azkenez, Argentinan. Argentinarako deia odolean darama. Ixilaldia, olerki-lanen etana, ez du orraitio osozko izan. Ez du, ez erdoiltzen utzi. Argentinako "Boletin del Instituto Americano de Estudios Vascos" aldizkarian eta Guatemala'ko "Euzko-Gogoan" emango ditu olerki eta lan batzuk, bein erbestetuaren samiña eta negarra adierazteko. bein gazetako irri-gogoari ideara emanez, bederatzi puntuko bertsoetan, H letraren auzia jorratzeko, edo ta Argentinako lagun eta laguntzaillei esker ona erakutsiz, bere erri-miña eta askatasun-itxaropena olukatzeko. Pampa-ko lurretatik bialiko du Lekuonari egin nai izan omenaldirako olerkia. "On Manuel Irakasle maiteari, Pampatik lkasle batek ornen-sarl."

Baiña lanik andiena, ederrena Argentinako olerkari baten poema andia, Martin Fierro euskerara itzultzea du. Neri ez dagokit lan onen muiña eta euskal-itzulpenaren balioa aztertzea. Beste batek artua dau egiteko ori. Baiña aipatu besterik ez det egin nai gauza bat edo azplmarratzeko.

Lenengo eta bein, Txomin'ek izan duen bigarren euskal eskola bat gogoratu digu lan orrek; Argentinara joandako euskaldunen euskal-eskola, Txominek bere etxean bertan izan zuen leen eskola ori. Or ikasten degu Txomin'en aita Argentinako zabal dietan bizi izana zala, ango gautxoekin eta ango euskaldunen euskera mintzatzen oitua. Aitak Berastegiko euskera erabiltzen ez zuela oartuta zegoen betidanik semea. Napparroa Beereko egotaldian aitari entzundako euskeraren oiartzuna etorten ornen zitzaion belarrietara. Gero Argentinara aldatu zanean, an arkitu eta ikasi ornen zuen euskeraren jatorria; bateko eta besteko euskaldunak alkarri itz eta gramatik jokaerak artuta sortutako euskera batua aurkitu zuen an. Txominentzat ez zan ori euskera batasunbidera ekarteko biderik txarrena.

Bigarren, Matxin Murrin euskerara itzultzeko lan orrek, Txomiñen olerkiguntzako errikoitasuna salatzen eta ots egiten digu. Matxin burdin poema luze ori erriko seme baten bizitzako goraberak eta laztasanak jaiki erazten dituen poema da. Txominek ez ditu jendexearen irri-alderdiak bakarrik abestu nai; beste alderdi serioagoak ere bai. Aukera ederra eman Matxin-Burdin-en poemak orretan saiatzeko. Gañera, Matxin Burdin euskal jatorria sumatu diolakoan dago.

Iruharren gauza azpimarragarria zera da: Lekuonak gaztetxotatik oartu eta miretsi zion bertsoak ontzeko sekulako erreztasuna. Ez da gero txantxetako lana sei bertsoan 1193 aapardi erderatik euskerar aldatzea. Eta nola gero aldatu ere! Erderazko poeman bezala beriso bakoitzak zortzi silaba dituela, bat ere ez gelago ez gutxiago, bigarren bertsoa, irugarrena eta seigarrena dirala, eta berdin laugarrena eta bostgarrena bata bestearekin. Olaxe zazpi millatik gora bertso osatu arte, arnasa batere estutu gabe gauzarik errezena bezala.



Bijoaz emen, eredutzat, bi abapaldi elkarren ondoan, Jose Hernandez'ena eta Jakakortajarena olerkariarena:

A otros les brotan las coplas  
como agua de manantial,  
pues a mí me pasa igual;  
aunque las mías nada valen  
de boca se me salen  
como ovejas del corral.  
Y aunque yo por mi ignorancia  
con gran trabajo me explico,  
cuando llego a abrlr el plco,  
téngalo por cosa cierta,  
sale un verso y en la puerta  
ya asoma el otro pico.

Txurrura lez aapaldiak  
sor oi zaizkie batzuri;  
berdin agi zaldak neuri:  
nereak txar etsigaitik  
ardiak antzo bordatik  
autik ol zaizkit ixuri,  
Adirazten lanak izan  
arren, neure ez-jakiñean,  
nlk mokoa irikitzean,  
egitzat jo ene eleak,  
bertso bat jalgiz, besteak  
muturra ager dlk atean.

Poema au euskeratu duenean oso, gol jarri dio gaillurra bere euskal-olerkigintzari. Beste ñor ez zan, noski, Jakakortajarenak egin duena egiteko gai. Berak euskararen eta gautxotarren maitasunez egin du. Eta erraldoi-lana atera zaio, Axularrek esango zuenez sendagaiila iriztekoa. Arrazoia eman bearko diogu Aitzol-ek esanari: geroak, etorkizunak Jakakortajarena olerki gintzaren aurrean makurtu bearko genuela. Bai, txapela erantzita makurtu bearko degu, makurtu ere.

Lino AKESOLO



# ERI-YAKINTZA

## BERASTEGI

Bein, "Etsoinberri"ren alaba bere zaldi baltzaren billa joan zan. Berea zalakoan zelaian ikusi eban bat artu eta bere gañera igo. Zaldiak bere bide bat artu eban. Leiza-zulo baten aurrera eldu eta neskatilleari jaltxiteko aukerarik emon barik, kueba barrura sartu zan. An geratu ei ziran betiko zaldia eta neskatilla.

Kontu ori gogoan dodala sartu naz Berastegi'n.

TolosaTik, Ibarra'tik zear, Leiza'rako bidean dago Berastegi. Mendi eta egi.

Organu jotzalle besamotz bat, mantxu bat, ezagutu neban nire gazte denporetan. Askok amar atzamarregaz baiño orru geiago ataraten eklan organoari.

Errian sartu orduko, Kontseju etxeak, etxe eder, zabal, lautuak, begiratzea eskatzen dau. Bertako eskudoan, erriarena dan eskudoan, San Lorentzo, edo emen esaten daben lez, Salontxo eta ermita bat igarten dira. Eta egi sakonen miña suspertuten daben esaera bat: Nobleza con libertad. Bizi bide jator baten jokera zuzena.

Aurreko mendiei begira nago: Ipoliño, Larte, Urdelar... Mendiak be pentsatu eragiten dabe.

Esnatu nadin, nirera etorri. Beste izen bat: "Kako". Ze kaku ete dakar "Kako" orrek? Ba dakie gure errietan taberna eta jatetxeei izen politak ipinten.

Ederra da Berastegi'ko parrokla. Erromaniku ate batek, oraingoa baiño beste bat egon ete elkean ezpaian lagaten dau bat. Erriko etxea, ayuntamiento etxea baiño goratxoago. Iltoki txiki bat bere ondoan.

Leiza onek be ba dauka bere entzutea. "Jaulei" etxeko alabak iru buélta emon ei eutsazan bein eta sorgin biurtu.

San Martin. Aldare nausia A. Bengoetxea'k egiña.

Ba dakie emen illen oroitzak, gomutak gordeten. Argi-zari gorria, illobietan, il-barri diranetan mankal baltz baten gañean. Zegaitik ain gorri? Goierrri'ko argizaria Beterri'koa baiño gorriago el da betl be, erantzun dauste. Emen "bildumena" deitzen dautse. Guk, txarto esanda, "rollo a".

Parroki onetan gertatu el zan.

Abadeak, erritarrel lotsa eta bildurra sartu nai. Oituretan pixka bat zuzendu nal. Gabeko parrandak eta andrazkoak. Orreik ei ziran berastegitarren pekatuak. Origaitik ez ei eban zeruan emengo iñor billatu. Garbitokian bat bakarra: Pedro Joxe. Berakatz atala baiño fiñagua, gixajoa, eta bera be...

Eta besteak? Ez asko nekatu igarten.

Jaungolkoaren zigorra eskatzen eban abadeak. Ekanduak bildurrez garbitzeko zigorra. Origaitik, azalpen txiki bat egin ondoren, Sua, Sua goiko sua eskatzen orruka asi zan. Eta sua jausi zan bobedetako zulotik.

Dardaraka egozan danak.

Su geiago!, abadeak. Eta bigarrenez be sua.

Ango ikara, bildur eta larrialdia!

Su gelago! Geiago! Alaxe ebillan abadea. Eta alako baten goitik abots dardarati bat entzun zan: Amelua, estopea amaitu da, jauna!

Eleiz ondoko atadian erriko jaunak batu el ziran berialako baten. Abadeari berari purgatorioa eskintzea erabagi ei eben.

Berastegi, gure gizaldian, bardintsu dabil bere bizilagunetan.

Gizaldiaren asieran, 1.173 lagun. Orain eun gitxiago.

Berastegi eta Eldua kontuan eukitzeko dira. Erri bat, baiña parroki bi. Nai eta berastegitarrak izan, elduarrak ba dauke euren nortasuna zaintzeko gogo. Ez dira danetara be berreun lagunera eltzen. 170 inguru. Baiña eskubideak ez dauke ze ikusirik molto eta pilloekaz. 16 baserri etxe eta kalean beste batzuk. Kale zabala.

Arro dira elduarrak euren eleizako taillu edo arteko olekaz.

Parroki au III Paulo'k 1548 uriean baimendua zan. Ala ta be la berreun urte dlra jaubetasun osoko parroki lez geratu zala: 1782 uriean.

Koro azpian dagoz baserri bakoitzari oi yakozan il-toki edo sepulturak.

Berastegi'ko kaletik la bost kilometrora egiten da auzo au.

Beragoko zulo baten Beoblta ikusten da. 1321'n glpuzkoarran Naparroa'n sartu eta Gorriti'ko jauregia artu eben. Naparrak, ordez, Berastegi'n sartu ziran. Baiña giputzak nausi.

Orduko napartar eta gipuzkoarrak eglñiko kantua oraindik gogoratzen da:

Milla urte igarota  
ura bere bidean,  
gipuzkoarrak sartu dira  
Gaztelu'ko etxean,  
naparrokin batu dira  
Beotibarren pelean...

Errian zer dagon itandu dot.

Baserriak eta basoak. Aurrean dagoz beintzat piñadiak. Baserri lanak, serra lanak eta papeleratik datorren ogi-bidea.

Eta beste berezirik... norbera osasunez joan ezkerro, sano joan ezkerro, ez. Odol txarrez edo odolaren goraberetan, zaldarrak eta antzerako min sornatuekaz joan ezkerro... erremedio erreza: Zaldar bakoitzeko bost zatko burudun ultza artu, Larremendiko San Lorentzo'ren ermitara joan, an zaldar aiña ultza laga, bertako argiontziko orioagaz zaldarrak igortzi ta itxaron odol garbitzeari.

Berastegi'ren izena, izen bardiñeko bertako jaunei lotuta billatzen dogu istorian. 1027 urtean, Naparroa'ko Santxo Erregearen aglri baten billatzen da izen au.

Gipuzkoa'ko eskudoan agertzen diran kañoiak be (ez dira euskaldun danak kañoi oneik ikurdian ikusteko zale), Berastegi etxe onetako Gartzzi Martinez koronel zala bere gudariak artutakoak dirala esaten da.

Baiña Berastegi'ko jaunak eta erritarrak ez ziran alkarregaz ondo konpondu izan.

Gertaera bat: 1533 urtean, erritarrak, gabaz, kanpai torretik sartu ziran parrokian. Berastegi'ko jaunen illobia zatartu eta eleizan eukan jarlekua apuriu eutsen.

Sutu eta asarretu zan jauna eta gora jo, erriarengana. Erritarrak, batzarrean batuta, ez eben txarto ikusi eleizan sartu ziranen jokabide ori, eta euren aldez agertu ziran:

Gauzak garrastu ziran. Errentak ipinten asi zan jauna. Bere lurretakoei eta Leizaran mendietan janaritzen ziran abere eta andik ataraten ziran basokiñel. Berea ete zan Leizaran ori? Eun urtetik gora igaro ziran burruka eta eztabaidetan.

Jauntxoaren eritziz, erritarrak, eta Elduayendarrak eurekin batuta, arro, basati, eta biurriak ziran.

Erritarrak bere errotei boikot egin eutsen eta errentak galdu eragin. Oriik miña. Bera, barriz, glzon baketsu, artu-oneko eta danen maitale zala esaten ekian. Eta erritarrei, euren arrotasunaren ordez, beregana makurtu erazituko, ogei florin dirotan pitxarra bi ardau, erralde bat okela, amabi koipe eta maiatzeko Santa-Kutz egunean asi eta Andra Mari bitarteko zapatuetan egiten ziran gaztaiak berari eroatera beartu zitun.

Orra jaunen eta erritarren artu-emona.


Ikurdi edo eskudodun zazpi baserri etxe dagoz Berastegi'n: Antzone, Ermentero berri, Jaundegi edo Jaulei, Juanso, Lizarraga, Sagasti berri eta Dendalegi (Gaztelu-nea). Eta 29 baserri etxe utsik, eteten, galtzen. Euren artean "Juanso" eskudoduna.

Onek, eta erri onetako eskudoko esakera artuta, libertado jatorrez, esatera ausartuten nabe: Zetarako eskudoak, ikurdiak, bizirik ez ba da?

Gaba egin baiño len ba nua. Sorgiñen aotan ipinten dabe emen esakera au: Gaba gabekoantzat eta eguna egunakoantzat. Elaunde'ko Katalin gutzat. Nik geitu neike: Berastegi berastegitarrentzat. Eta bake galdua billatu nai dabenentzat, or, Berastegi'n, Eldua.

Augustin Zubikarai





# JAKAKORTAJARENA'tarTXOM IN

**Apaiz, olerkari, euskaltzale, gizon arrigarri**

Berastegi erri apaínean ikusi zuan lenbizikoz argia 1906'go urtean, Jakakortajarena'tar sendian mutiko batek: orain larogei ta bi urte dituan gure Txomin aundiak ain zuzen ere. Arro ta pozik egon daiteke Berastegi, onelako seme baten kabi, eta orain beraren bizileku dalako.

## **Apaiz euskalduna**

Bera zer dan galdetuko ba'genio, zalantzarik ez daukat zer erantzungo lidakean: apaiz euskalduna. Eta itz bi oietan sartzen du bere bizitza luzea, eta ongi betea.

Andoaln'go Apaizgaitegian asi zituan ikasketak, Gero Gasteiz'koan jarraitu ta amaitzeko. Apaiz-berri egiñik, 1932'an eman zuan Meza-Berria bere jaioterri Berastegi'ko eliza ederrean.

Garai aletako oitura zanez, apaiz gazteak Araba'ko erri txikletara bidali oi zituzten. Eta gure D. Txomin nora? Salmanton errixkara ain zuzen, eta urte bi egin zituan bertan. Andik, berriz, Nafarrate errixkara, beste bi urte egiñik, igeska joateko.

Araba'ko lau urteak ez zituan alperrik galdu. Apaiz berriak oi duan su-garrez elizlanak eta elizkizunetakoak burutzeaz galñera, euskera ta Euskalerrriarekiko lanak ere gogotsu egin bai-zituan. Lekuona'tar Manuel jauna Apaizgaitegian irakasle zute-larik, "Kardaberaz Bazkuna" sortu zuten euskera lantzeko; obeto esanda, gazteek beren buruak eta aalmenak mintzatzeko landu zituzten. Bai landu ere gur Txomin gazteak!

Nafarrate errixkan aaztuxea zuten euskera. Bi urteren buruan, ordea, asko ikasi zuten eta errlan la euskeraz bakarrik mintzatzeza eldu ziran. Saiatuta, lana eglnda, noski. Gauza asko esan ditzake gure berastegiarrak, eta egunen batean idatzirik azalduko dituan uste osoan nago.

Ekaitz bildurgarria sortu zan 1936'an eta bereala jo zuan Nafarrate ere: Franco'ren gudaldia etorri zan su ta gar, euskal-kutsurik zuan guztia erretzera. Alderdi artakoak sartu ba'lira, laister garbituko zuten Nafarrate'ko apaiza. Ezkerrekoak sartu ziran, ordea, eta berekin eraman zuten andik "aurrera".

Gudari ta iltzaille izateko asmorik ez zuan izan Txomin apaizak, ezta burutik pasa ere. Zer egin? Euskal gudarostean sartu zan, baiña kapellau, bete-betean apaizlanerako. Nork esan, zenbat arazo, estuasun, arrisku, atsekabe ta lan izan zituan ia bi urte aietan! Berak esango dizkigu luzaro baiño leen; bitarieran bego ortan.

Gudaldiko erreketari igeska Frantzi aldera eraman zituzten aurtxoekin batera joan zan itsasoz, 1937'an noski, Bilbao arerioek artu zutenean. Baiña ez zan lo egon Iparaldean ere. Batetik Lartzabal errian eta urrena Donaisti'n egin zituan bere apaizlanak. Andik Ameriketa'ra egatu zan 1940'an, aurrena Uruguay'ra ta gero Argentina'ra.

Txantxetan ere 40 urte aundi egin ditu lurralde zabal eta urruti aietan, 1980'an Itzull bai-zan bere sorierriara. Argentina'ko PAMPA Izen aundiakoaren mugan, Mones Cazón errian egin zuan aldi luzea, 38 urte ain juxtu ere.

Apaiz-lanean jo ta ke ari izan zala. esan bearrik ez, alakoxea danez. Baiña aldi berean euskeraz ere lanik aski burutu zuan, gero esango dugunez.

### **Olerkari gazduna**

Gudaldia baiño leenagoko urteetan olerki asko idatzi zituan, baita argitaratu ere, zenbait sari irabazlz. Asmamen aundla, irudimen bizia ta bertsolarien glocko etorria ditu olerkigintzan.

Ikastolen inguru ibill dan nork ez du ezagutzen umetxoel entzunda, MORO KATUA olerkl bitxi ta jolastia? Zenbat nexka-mutillek ez ote dute buruz ikasi ta gero guztien aurrean antzeztu? Txomln'ek egiña da, bada.

Beste askoren artean batzuk aipatzekotan, bjoaz auek beintzat: ARDATZEAN ("Amar atso zar, bizar-luzeak..."), AMATXORI, AMETSAK, ERBESTEZALEARI, SEASKA ABESTIA, MAASTIA, KATALIN, IZARRA, EIZTARIEN ABESTIA, ITZAI ZEKENA, INGUMAK eta AMONAREN OILLOAK...

Azkenengotik zatitxo batzuk jarriko ditut emen, zein en egoki ta biziak diran adierazgarri.

"Baiña, amandrea! Jas! au kolonio!  
Oillo txar okin, zer gertatzen zalo?"

Urterdi onetan, arraultz bat ez da jalo.  
Auxen da lanbldea!  
Aletan bertan jan dute urrea...  
Atarramentua da, ba, gurea!

Egia diozu, Mattin, egia!  
Nik daukat oekin egun gorria!  
Lengoak zutela eperiitxia?  
Aitor nizun ainitzez...  
Oraingoak ere, ala bearrez!  
aizpatxoak dira, zoritxarrez!

"Katua bezela xaguaren zai,  
irrikatzen nago, arraultz bat jan nal!  
Ta amabost oilloetatik bato ez da gai  
bein erruteko gero...  
Orrela alikatzen euki ezkeru,  
katuak erron zitun onezkeru!"

Eta olerkari izan ez ba'litz, olermen edo olerki-sena izan ez ba'lu, oso nekez burutu zezakean "Martin Fierro" gaztelerazko ura, MATXIN BURDIN euskaldun blurizea. Baiña utz dezadan alor au, beste norbaitek jorratuko bai-du.

### **Euskaltzale ta jakitun**

Euskera ta Euskalerria beti maite izan ditu, eta orixe da benetako euskaltzale iza-tea. Munduan zear ibilli danean ere ez ditu baztertu, ez bai-zaizkio astun gertatu, beste askori bezala. Argentina urruti artan gogor jo zuan euskeraren alde, bere apaiz-lanek uzten zizkioten tarreetan noskl.

Antze euskeratu zuan, bada, oraintxe aipaturiko MATXIN BURDIN, ordu askoren buruan nai-ta-ez, ez bai-da txantxa edo jolasa.

Iztegi bl ere landu, burutu ta argitara atera zituan: ERDERA-EUSKERA 324 orrialde dituan Iztegia, izki oso txikiz egiña, 1964'an argitaratu zuan. Sarrera jakingarria dauka asieran. Eta urrena EUSKERA-ERDERA iztegia 1986'an argitaratua. Mami-tsuak dira aslerako SARRERAITZAK. Lodiagoa da bigarren au, 418 orrialde bai-ditu, eta besteak baiño izki txikiagoa dauka.

"Guzti-jakIn" oietako bat baiño geiagok, ezagutu gabe, muzin egin diete Iztegi bie, Euskera "garbiegia" dakarrela esanez, eta aitzaki ortan. Baiña ezagutu gabe, itzik ez aterata obe. Guztien gogoko ez ba'da ere, lan izugarria danik ezin ukatu; ziñez txalotzekoa dala ere ez ezin gezurtatu.

Gaztetandik izan duan ametsari sendoki eutsi dio gaur arte: gazteleraren bearrik gabe; au da, gaztelerazko itzak barra-barra artu bearrik gabe, gauza guztiak esateko baduala aalmenik aski euskerak bere barnean. Eta ori ez da izan amets utsa, erdia ustela duana. Egin eta burutu egin bai-du gure "Don Txomin" aundlak amets orren muiña. Or daude lekuko, batetik Iztegi biak, eta bestetik ERLEZAINZA liburu bikoitz eta mardula.

Xede ta elburu zeatzak izan ditu bere lan izugarria burutzekoan. Galdutako euskal-itzak berriz ere lbillian jartzea batetik. Izan ere, belaunaldi batetik bestera ari bai-gera itz asko galtzen, gurasoengandik seme-alabenganako bidean, bide laburrean galdu ere, gazteek ikasi ez dituztenez.

Bestetik, berriz, erdal-izkuntzen bear aundlrik gabe, gai guztietan bear ditugun itzak, Euskerak bere barnetik sortzeko aalmena baduala egiztatu digu oraingoan. Orra izan ere, ERLEZAINZA 666 orrialde dituan liburua, ondoren bereala beste bizkia izango duana. Mintza bekigu bera:

**"Erle-idazti au argitara ematean, auxe izan da beraz gure xedea: Erderak baiño aixago, arbiago, egokiago, ulerterrezago, ark bezala itzen eske beste izkuntzetara ioan bearrik gabe, bere arrobi ioritik ateratakoekin adieraz lezazke la Euskerak iakintza guztietako gairik zaiilenak eta asmakizun berri danen izenik egokienak".**

Liburu onen bizklan, bigarren liburukian alegia, ikusi ta aztertu aal izango du irakurle saiatuak, —eta ikasi ere bai, gogorik duanak—, millaka itz dituan Iztegia, euskeratik gaztelerarakoa. Bitartean, berriz, astiro ta arretaz irakurtzen duanak, oparo ta aberats aurkituko du euskal-sena. Erdal-joskera ta gaztel-giroa dauzkanak bere buruan, lenengo orrlaldetik muzin egingo dio: ez da arritzekoa. Izan ere, uztartugaltzak bai-dira Izkuntza bien joskera ain ez-berdiñak.

### **Eta gizon arrigarria**

Bere zaartzaroen zeñien gazte dirauan adierazteko, ez al da naikoa, nexka-mutiko talde ez txiklari txistu jotzen irakatsi diola jakitea? Berastegi osoa da lekuko.

Argentina izugarriko Pampa zabalean txoko galdu bat besterik ez dan errian, eta Euskalerritik aln urruti, Iztegi mardul bi burutu zituan bezala burutzeko, norbait arrigarria dugu gure "Don Txomin". Lan-gogoa, iraupena, euskal-zaletasuna, oroimena ta auskalo zenbait doai, geiago bear dituan edonork alako lan astun eta sakona aurrera ateratzeko. Eta alaxe izan ditu berastegiarrak; bestela, erdi-bidean geldituko zan.

**MATXIN BURDIN** euskeratzea dugu beste ekintza zail eta neurgaitza.

Eta zer esan ERLEZAINZA liburu bikoitzari buruz? Itzik ez dut aurkitzen. Erle-langitza bitarteko artuta, Mones Cazón erri beartsu ta atzeratua, berritu ta aurreratu izana, ez da utsaren urrengo ekintza. Orain, berriz, erle-gaiak bitarteko artuta, gure Euskera beartsu ta atzeratua landu digu.

Izan ere, erlezaintza baiño askoz maiteago du Euskera. Orregatik landu, aberastu, zaar-berritu ta aurreratu digu beste geienen gaiñetik. Lore, erle, beste abere ta aberexka, berauen zati, atal eta alderdiak ezezik, beren aalmenak eta bizikerak, beren ugalketa, eta auskalo beste zenbat gauza ez dizkigun jalki oso-osorik euskerazko itzez.

Eta azkenik, ERLEZAINZA liburu bizkiak euskeraz landu ta argitaratzea naikoa ez dalarik, euskal-irakurleel utsean edo doan emateko bideak egin ditu andik edo emendik. Esandakoak eta esangai geldituak !tz bitan laburtzeko, besterik ez dut aurkitzen: Gizon arrigarria!

**Gaztañaga'tar Jesus'ek**



# BERASTEGI-KO ON TXOMIN APAIZA

Ez dakit nundik asi... Ez dakit zeri eldu!... Baña nola leike ori?... Berastegi ez al da ezer eta Txomin ez al da iñor?...

Bi itz-soka oien arrastoan, asiko naiz txingoan, nere urteak barkatzen badidate...

**BERASTEGI:** Napar mugako erri polita... Itxasoz gaindik 389 metrotara; mendiz inguratutako ordeka eder batean...; Berastegi ta Leizaran bi ibailetako urak musuak eta oñak garbitzen dizkiola!... Eldua-auzoa ere berea...

Aldamen erri: Leitza, Elduayen, Gaztelu, Oreja, Goizueta ta Lizartza'ra besoak zabalik luzatzen dituala...

Ballara onen izena 1027'garrenean ageri da Iruñako Gotzaltegian, Naparr-Erege Santxoren garaiko agiri batean. —Gure artzai-auzoak alkarrenganatzen asiak ziran, baserriak babes bearrean arkitzen ziralako, Aide Nagusiei aurpegi emateko: Oñatitar eta Ganbotitarren arteko burruka luze aretan...

Berastegi-Oñarri etxea oñatitarra zan... Beste etsai bat ere azaldu zitzaion.

Berastegi-ri: 1200'an Gipuzkoa Kastillako erregearen babes billa joan zan ezkerro. Napartarrak 1321-9-19 Berastegi erre egin zuten eta bere sorozelaletako izate guztiak ondaturik utzi.

Noizpait bear, eta Erri-elkartzeak emango zien baserri erriei bear zuten itzala, baiña bitartean, ezin-bide guzti orri atek ixteko, Berastegi, 1374'garren urtean Tolosa-errira bildu zan, —onen zaiñak sendoagoak bait ziran etsai oien aurka alegintzeko eta batez ere Anai Nagusien egurpetik ateratzeko, baiñan bakoitzak bere nortasunari utzi gabe,— nortasun-eraketa bat aldatzea besterik ez, beraz. Ta orrela bizi izan ziran alik eta askatasun egarriak ugaltu ziran arte.

1614-3-19'an, Berastegi'k eskatu zion Tolosa-ri bere askatasun osoa, iritasun-eskubidea eskatuaz Kastillako erregeari. —Iritasun—eskubide orregatik 73.975 erre! ordaindu bear izan zlkion Berastegi'k Erregeari. Eta orrekIn sortu ere bai bere aulkia Gipuzkoa-ko Batzar Nagusian. Eta arrezkero, gizalege bidean, Berastegi bere buruaren jabe zaigu.

Beste erri guztietan bezelaxe izan dira Berastegi-n ere gizon argi ta ospetsuak, urteen zear: Muñagorri Gotzai-mixiolari eta abar eta abar... Baiñan gaur On Txomin apalzari bakarrik ikuttuko dlogu.

**TXOMIN APAIZA:** Berastegi ori da Txomiñen jaioterria: baserri-mendien magalean exeritakoa...

Bel ta ardiz jantzitako belardi ta basoak alde guztietara... BI ibai urez orraztutako lurrak... Amorra, alngera la ezcalluak bietan jolastari!... Pago, gaztaña, artea, aritz, intxaur, sagar, keriza ta elordirik ere bai!... Udaberrian danak loretan...; baita zelai, txilardi eta otarлак ere: beren usai gozoen adierazle!...

Baña, ez orl bakarrik: lora guzti oien ur-egarri millaka erle ta txori!...

Txomin..., bitartean... mutikotzen, ikasketa ta lankidetzan...



Alta-amen ondoan jakin zuen gauza guzti oiek baiño ballo aundiagokoa zala bera: Aserarik gabeko egunetik, Jainko-Biotzean bizi-tokia zuana!... Gañera, Kristau-lkas-bide ta Berastegi-ko apaiz zintzoen giro la inguruan jabetu ere bai: Jainko orrek Bere "Erri-Eleizaren apaizgintzarako deitzen ziola!...

**Txomiñek ere na! zuan Jainkoa bere biotzean, Jainkoak bera Berean zeukan bezelaxe, beti alkarrekin izan da bizitzeko. Eta apaiz ikastera eratu zuan bere biotza. Orretarako 1920'an Andoain-go Apaizgaitegira, eta 1925'an Gazteizkora.**

Berastegi'k eman zion osasun-poza ta bizi-izatea besteen serbitzurako eskaiñirik, 1932'an, apaiz gazte On Txomin!... Apaiz betirako!... Eta 1932'tik 1936-7-18'ra arte: bi urte apaiz Araba-ko Salmanton-en eta beste bi Naparrete-n... Erabat zoraturik, poz eta alai, giza-artantzan!... Ardi-otsoak ezagutzen zituan On Txomiñ'ek,- izaten bai ziran bere Berastegi maitean ere... Baiña, gizarte-otsoen ezaupiderik ez zuan, oraiñ arte...

Anai-Gudatean, Eusko Gudarien Kapillau, guda galdu zan arte!'. Ta gero, Prantzi-tik zear, Amerikaruntz!... Ez ordea, diru billa, artzairik gabeko ardien billa!... Anai-Gudateak ardirik gabe utzi bait zuan gure Txomiñ, beste askorekin batean!... Euskal-erri maitea utzi ta morroi joan bear!... On Txornlñ'ek ez bait zeukan saltzeko bere apaiz-maitasun-sua.

Agur Berastegi... Agur sendi ta lagun bitzekoak!... Noiz arte?... Jainkoak nai duan arte!... Urrutira noake, zuen eta Euskal-erri osoaren maitasunpean, zuen izen ona munduari zabaltzera!...

Arjentina-ko mendi-errixka beartsu batean aurkitu du artaldetxoa, artzairik gabe-koa!... Aietxekin urtuko du bere biotz-apaizgo jatorra On Txomiñek 1942-1982 urteetan... Berrogei urie luze Buenos Aires Erkiko Mones Kazon'en!...

Erritxo aretantxe, alen ogi-bideak erretzu ta erutzen, Jaungoikoaren itzalpe goxoan.

Mendiko lorartean, Berastegi-ko izateak erakutsi ziona berrituz, iriki zizkien Jainkoaren gizonenganako argitasunak; baita lora aien aberastasunak ere...

Erlegintzan erakutsi ta erakutsi, Erri osoa bereganatu zuan eta baita ezti-erri biurto ere, laxter asko... Biotzak taupada egiten zion bere ardi berrien larreak goraka ikusita!...

Berrogei urte asko dira, baiña, Errixka bat mundutar egiteko bearrezkoak. Txomiñ'ek ba-daki zenbat maite duten gaur ango ardiek... Berastegi'ra ere etortzen bait zaizkio, beren eske ona azalduaz!... Ori da On Txomlñ Berastegi-koaren biotz-eder-tasuna.

Baiña, On Txomiñ'ek, Amerikan, geiago ere egin zuan: MARTIN FIERRO'ren euskaldun jantzia "MATXIN BURDIN", —itz neurtuetan dan-dana; euskerazko Iztegia, eta abar...

Bere biotz-puskarik aundiena Mones Kazon'gol itsatsi ta 1982'an itzuli zan On Txomin bere Berastegi maite-maitera... Baña zaartasunik gabe. On Txomiñ'ek urteei bizia ematen ikasi bait du erletxo ta beartsuen artean!... Oraiñ, Mones Kazon'go ezti-kutsuz jantzita, Berastegi-ko gaztetxoei txistu jotzen erakusten ari da eta Euskeraz idazten bere bizitzako joan-etorrien goora-beerak.

Ez dira egun asko, ERLEZAINZA argitaratu digula, —Mones Kazon'en bizitakoaren usia duana...

Leen esan det, On Txomin etzala Ameriketara diru billa joan, bere apaizgo ta giza-tasunaren edertasuna zabaltzera baizik: Lanera!...

Urtez jantzi ta etxeratu danean, ekin dio bere berri maite olen agermenari. Liburu jatorra benetan!: bere buru-biotz eta pultxikutik jaioa; eta amerikarrei bezelaxe utsean zabaltzen ari dana, edertasun beraren jabe gu ere egin gaitzan!...

On Txomin!: Euskal-erri osoaren izenean eta biotz-biotzez, eskerrik asko zuri!... Beste ekiñ aldi bat ere eskuetan dabilzula, ba-dakit!...

Jainkoak ordaindu deizua ainbeste lan eder ta giza-bide, zure pakezko parre-giro bikaiñ orrekin, gure mundutxo elkor au zuzentzen urte askotan jarraitu dezazun!

Sukia'tar Joxe Marik

# ERLEZAINZAKO IZTEG ITXOA

ERLEA. Eztia eta ezkoa sortzen duan mlntzegaltariko eltxoa. ....	ABEJA
SABELA. Erle soñaren atzeko atala, antxe dauzka altsarrak, ezti-parapoa eta ziztezena. ....	ABDOMEN
ARKAZIA. Gara txurikiko arantzadun zuaitza, oso eztiitsua. ....	ACACIA
ZIGARTARIKOAK. Landare eta abere batzuen bizkargin zorriak, armiarmaren idurikoak, erlearen arnas-bidetan sartuta, gaizkitu eta il egiten dira erleak. ....	ACARIDOS
ERLEZALEA, ERLEZAIÑA. Erleak zaintzen dituenak. ....	APICULTOR
OLDARKORTASUNA. Erle-zizta lopera. ....	AGRESIVIDAD; ACOMETIVIDAD
OLDARZALEA, OLDARGILLE. Erle-ziztazalea. ....	AGRESIVO; ATACADOR
KEZTONTZIA, KEZTAUSPOA. Erlea ematzeko ke-auspoa. ....	AHUMADOR
MERTXIKA, MUXIKA. Zituaritz eztiitsu ezaguna. ....	ALBERCHIGO
GEINATU. ALIKATU. Erleei jaten eman. ....	ALIMENTAR
ALIKATONTZIA. Erleei laten emateko mota askotako ontzia. ....	ALIMENTADOR
UARRADARRAK. ULEADARRAK. U ki menerako eta usnamenerako eltxoen buruko uleak. ....	ANTENAS
ERLEZAIÑA. Erleekin lan egiten duana. ....	APICULTOR
ERLEZAINZTA. Erleak azteko Langintza. ....	APICULTURA
IRUSTARBIA. Basa landare bat garautsatsua eta eztiitsua. ....	ASFODELO (GAMON)
OLDARTU, OILDU. Erleak ziztatzeko eraso. ....	ATACAR; ACOMETER
URRITZA. Urrak ematen dituan zuamua, eztiitsua. ....	AVELLANO
AIÑARRA. TXILLARRA. Txillartariko zuamuxika ezti lisko eta usaituakin. ....	BREZO
ZIATEZTIA, ZIATEZTIORREA. Eztiz, goxakiz eta uraz egindako orrea erleen alikabiderako, batez ere neguan. ....	CANDI
AURPEGISAREA, BURNISAREA. Erleak aurpegian zizta ez dezaten erabiltzen dan muxaranga. ....	CARETA PROTECTORA
GEZTERATU, SOATSI. Eztia kendu. ....	CATAR MIEL, RECOLECTAR
AZKUBIL, ERLAKUBIL, ERLASPILLU. Sei ertxokoko abau-zuloak. ....	CELDILLA
ERLAMAKUXKUA, ERLAMAOXKOLA, ERLAMAKAXALA. Erlama jaiotzeko kabla, ezkurralea bezala zintxilika. ....	CELDA REAL; REALERAS
IZUZKIA, ZURDORRAZIA, ESKUBILLA. Eskubilletxo bat aberaskatik erleak kentzeko. ....	CEPILLO.
EZKOA, ARGIZAIA, ARGIZARIA. Erletxeak egiteko gaia, erlearen soñetik sortua, gizonak argizariak egiten ditu gai orrekin. ....	CERA
EZKOIÑORRIA, IRARREZKORRIA. Laukiak abauaz ongi osatzeko erleel ematen zaien ezkozko irarrorria. ....	CERA ESTAMPADA
EKILEIARRASKA, LEIARRASKA, EZKOURTASKA. Eguzki beroaz ezkoa urtzeko leiar askatxo. ....	CERIFICADOR SOLAR.
KOBAUBA. ERLASASKI. Naparraldeko erlesaski motak erletxetarako. ....	COFAINA
ERLAULTZA, ERLETXEA, ERLONTZIA. Erleen bizitetxea. ....	COLMENA
ERLATEGIA, ERLONTZITEGIA. Eultzak dauden tokia.	

EGAZPEKO ERLATEGIA. Otzetik eta eguzki gingatik egatzaz babestutako  
 erlategia. .... COLMENAR CUBIERTO  
 ERLATALDEA, ERLARALDEA, ERLABATZA. Eultzan bizi  
 dan erle saldoa. .... COLONIA DE ABEJAS  
 ERNALDU, ARREMETU. Arrak emea estali. .... COPULAR  
 UZTA, UZTALDIA, URTABEA. .... COSECHA  
 LAUKIA. Abaua eotzeko lau xiriarte. .... CUADRO  
 EZKOMINTZAIZTOA. Abau-zuloen azala ebakitzeko  
 erabiltzen dan aiztoa. .... CUCHILLO DESOPERCULADOR  
 APIEULTZA, KABIEULTZA. Erlamak arraultzak erruten dituan  
 erlontzia. .... CAMARA DE CRIA  
  
 SOATZAIZTOA. Aintziña erlea gezteratzeko erabilten zan  
 aiztoa. .... CUCHILLO DE CORTAR PANALES EN COLMENAS RUSTICAS  
 TXIGURIA, SORGINBELARRIA. Kardabera motako landare txikia,  
 alde guztietan sortzen da, aize usoz betetako burua aziz betea  
 aizeak alde guztietara zabaltzen bai du. Lili oria, garautsatsua  
 eta estitsua. .... DIENTE DE LEON  
 MARROA, TOBOA. Antziñako enbor barrenutsazko erlontzia. .... DUJO  
 ARTEA. Zur gogorreko aritza, orrieztia dixurio. .... ENCINA  
 ERLAKUMALDIA, ERLASEMEAROA. Ugaltzeko semea erletzak  
 botatzen duan aroa. .... ENJAMBRAZON  
 ERLABATZA, ERLAKUMEA. Etxe berria egiteko erlamakin eultzatik  
 aldegiten duan erletaldea. .... ENJAMBRE  
 ITZUREA, ITZURODIA. Eztieultza erlez ustutzeko erabiltzen dan  
 itzurearte. .... ESCAPE  
 EULTZAUXEA. Eultzan erabiltzen dan eskuburnitxo, laukiak ezko ta  
 lerdamiñaz garbitzeko. .... ESPATULA  
 BEZIENA, BANDA, IZPILIKUA. Landare ezitsua. .... ESPLIEGO  
 EZKORRI-EZTENA. Zaldunak erabiltzen zuten aztaorkatxa  
 lakoa dalako larri diote erderazko izen ori. Berotuta, loretan  
 ezkorria eransteke eztenxo bat da. .... ESPUELA  
 BEREXSAREA. Golko ontzietara erlama eta erlarrak ez  
 igotzeko burnisarea. .... EXCLUIDOR DE REINAS  
 EZTIERAUSLANA. Abauak eztiz ustutzeko lana. .... EXTRACCION  
 EZTIERAUSONTZIA. Ertokirakaitz aize indarrez eztia orraziak  
 autsi gabe ateratzeko tresna. .... EXTRACTOR DE MIEL  
 ERAUSKI, ERAUTSI, ERAUSTU. Zulotatik eztia atera. .... EXTRAER  
 ARAKATERLEA. Lore, garauts, eztigai, lerdamin eta erlasemearentzat  
 bizitokiak billatzen dituan erlea. .... ABEJA EXPLORADORA  
 ERNAL-LANA, ERNALKETA. Loreak, erlama, arraultzak eta abar  
 ernaltzea. .... FECUNDACION  
 ERNALDU, ERNARITU. Sorberritzeko almena eman. .... FECUNDAR  
 ARTZIKETA, ARTZILANA. Artzizgal zenbaitek gozakizko zumuetan  
 sortzen dituzten aldaketak. .... FERMENTACION  
  
 ARTZITU, TXANTXARTU. Legamiekien oreka murtzitu. .... FERMENTAR  
 SOINKIXURKIÑA. Soinak botatzen duan usaia. Erleetan erlamak  
 dixuriona eta erleak artzen dutena kezka gabe egoteko. .... FERORMONA  
 LANDAREDIA. GARADIA. Toki baten sottutako landaretza,  
 edo loreta. .... FLORA  
 GARALDIA. GARATAROA. Tokiango lilirik ugarieneko aroa edo  
 urtaldia. .... FLORACION  
 IARIANKOR, IARIAKOR. Ezti urtsua ixurterreza. .... FLUIDA  
 OTSALARRA, MUGARDIA. Maxuxta gorri mota bat. .... FRAMBUESA

GURINTZO. AZIKONTXO. Ixurikin bat ixurtzen duten azkubil-xoria. .... G L A N D U L A

ERLAMEZNEA, ERLAMAIA, ERLAMAMIA. Eltxarral iru egunez eta erlamagaia azi arte erleak ematen dien alial berezia. .... JALEA REAL

MIXTELA. Eztia, gozalia eta ura naasiz erleentzat banatzen dan alikagala. .... JARABE

ELTXARRA. Arrautzatikjalotzen dan erle arratxoa. .... LARVA

ORANTZA, LEGAMIA. Gozakigalak aldatzen dituan tipitezabizia. .... LEVADURA

LAUSPEATONTZIA. Eztia lauspeatzeko eta ligaintzeko erabiltzen dan tangontzia. .... MADURADOR

BARAILA, BARAILEZURRA. Matxardeekin bezala gauzak iasotzeko erlearen aoko matraillezurra. .... MANDIBULA

XAKILANA, XAKIKETA. .... MARCACION, MARCAJE de la reina o de las abejas

XAKITU. Señalar por medio de una marca, pintura o número pegado. .... MARCAR

MUXIKA, MERTXIKA. Zituzuaiz ezitsua. .... MELOCOTON

EZTIXUROA, EZTI-IARIAALDIA. .... FLUJO DE MIEL O NECTAR

MUSTARDA; ZIAPE, IEBENA. Azi txikiko ezti-belarra, sukaldaritza onkaillu bezala erabiltzen da. .... MOSTAZA

BIGURA, BIGURIA. Bizkar-landaretarikoa, zuaitz-adarretan bizitzen da ale txuri batzuk sortzen zaizkiola, egaztien lanaritarako. .... MUERDAGO

IÑUTERLEA. Eltxarrak inutzen dituzte erle gazteok. .... NODRIZA

EZTIGAIA, EZTIZUATZA, EZTIMAMA. Landareak ixurizen duten ur gozoa, erleak ezti eldua egiteko. .... NECTAR

ERLAZKUMEA, ERLAZKUMA, AZKUMA. Erlama ernaltzeko edo eultza berri bat egiteko bizpairu laukiko eultzatxoa. .... NUCLEO

ERLANGINA, ERLELANGILLEA. Eultzeko eta landako lanak egiten dituan erlea. .... ABEJA OBRERA

ERLERRULEA, ERLE ARRAUTZEGILLEA. Erlamarik ezean, arrautzak iartzen asten diran erleak, aletatik arrak bakara iaio litezkela.

BEGIRAKUNTZA, OARKUNTZA. Eultza nola dabillan oarketa bat egitea. .... OBSERVACION

BEGIRATU, ZARA EMON, OARTEMAN. Nola dabillan eultza arduraz ikusi. .... OBSERVACION

BEGIÑOAK. Erleak buruan dituan begiño bakunak. .... OCELOS

EZKOMINTZAK, EZKOMITZEZTALKIA. Eztiz osatutako zuloak estaltzeko orrazeari erleak iartzen dizkieten ezko-azalak.

ABAU, ABERASKA, ORRAZEA, ABAUTSA. Abaraska iasotzeko, erleak ezkoz egiten dituzten sei ertxokoko zuloak. .... PANAL

UZTABILTZAILLEAK, EZTIKETARIAK. Eztigaia edo garautsa ekartzen duten erleak. .... PECOREADORAS



ERLEARRAKA, ERLARRAKA, ERLAZORRIA. Erleen bizkargin zorria, eztia iaten diote. .... PIOJO DE ABEJAS

ATAKA, EULTZATAKA, ATAKAZIRIA. Erleen sarraterako zuloa eta tipitu nal danerako ziria. .... PIQUERA

EZTILANDAREAK. Eztigala edo garautsa edo blak erleentzat ematen dituzten landareak. .... PLANTAS MELIFERAS

GARAUTSEZTAKETA, GARAUTSAUTSEZTAKETA, GARAUTSEZTALANA. Garautsaz loreak ernal lana. Garautsaztaketa eltxoak, batez ere erleak egiten dute, baita aizeak ere eta neurri txikian euriak. .... POLINIZACION

GARAUTSA, LORAUTSA, LORALAUSSOA. Loreen auts ernalgarría,  
 garauszillaren, garazillan sortzen da. .... POLEN  
 GARAUTSEZTATU, GARAUTSAUTSEZTATU. Garautsaz lilia  
 ernaldu, ziturik emango ba du. .... POLINIZAR  
 ERLAZORRIA, ERLAZIZA, ERLABARTZA. Arraultzatik asi eta  
 mamur biurtu arteko eltxar araldea. .... POLLO  
 ERRULEA, ERRUNZALEA. Arraultzak iartzaillea. .... PONEDORA  
 ERRUN, ERROIN. Arraultzak larri. .... AOVAR  
 LERDAMINA, LERMINA, LERDOA, LERDOKIA. Zuaitz batzuetan  
 biltzen duten lerkia edo erretxiña. .... PROPOLEOS  
 LERDAMINEZTATU, LERDAMINEZ IOSI. .... PROPOLIZAR  
 LERDAMIÑEZTATZE. Lerdamiñaz kutsaketa. .... PROPOLIZACION  
 ERRUTALDIA. Arraultzak iartzeko garaia. .... PUESTA  
 EULTZABURNIA. Laukiak berexteko zataitxoá, baita  
 gainkateultzak askatzeko ere. .... PALANQUETA DE COLMENA  
 EZTIUZTA, UZTALDIA EZTIURTABEA. Uteburuz biltzen den  
 eztitza. .... RECOLECCION Y COSECHA DE MIEL  
 ERLAMAKUXKUAK, ERLAMAKAXOLAK. Erlanderak lalotzeko  
 ezkurralea besteko azkubiliak. .... REALERAS. CELDAS REALES  
 ERLAMA, ERLEAMA, ERLANDREA  
 ERLAMAGOIA. .... REINA DE ABEJAS  
 ERLANDERA. Eultza arraultzaz betetzen duan erlama bakarra,  
 ernaldu aurretik, erlandera. .... REINA VIRGEN  
 MANDARRAULTZERRULEA. Erlemando arrautzak bakarra  
 erruten dituen erlama. .... ZANGANERA  
 MARDOKINAK, TXURRIOKINAK GORDAIKINAK. Urritarorako  
 iasotzen diran ezitiko eta garautsazko laukiak, edo ezitia. .... RESERVAS  
 ISATS, GISATS, ERRATZ. Lili orikin, landare ezititsu ta  
 ezaguna. .... RETAMA  
 ARITZA. Zura on eta gogorreko zugatz andia, Euzkadi'ko  
 basoetan nagusi zaiguna, orbela, ezkurra eta orri ezitia  
 ugari ematen duna. .... ROBLE  
 IZKAROA, ERREMULEA. Ezpaintariko landarea, osantsua.  
 Ertitxaso aldean ugaria, eskabide aundiko ezitia dario. .... ROMERO  
 OTSALIZARRA, ASPILLONDO. Lizarra lako zuaitzta ale gori-  
 gorriakin. .... SERVAL  
 ZOI AIXKOLA, ZILLARRA. Urunaleak orioa ematen du. .... SOJA  
 ERLAMANDOA, ERLARRA. Erleak baiño aundiagoko arra. .... ZANGANO  
 TANGONTZIA, TURRUNA. Ezitia atzerrira metalezko ontzi oetan  
 igorritzen da. .... TAÑQUE  
 ELARRA, IZPILLUA, SARPOTXA. Usaindun landarea, erraspillu  
 eta onkaillu bezela erabiltzen da sukalanetan eta ezti gozoa du. .... TOMILLO  
 BIZKARRALDEA, SORBALDA. Erlesoiñaren aurrekaldeko atala,  
 antxen dauzka elak eta anak. .... TORAX  
 GARATSARTEA. Erleen anketako garautsa biltzeko  
 sarearte. .... TRAMPA PARA RECOGER EL POLEN QUE TRAEN LAS ABEJAS.  
 GORGUILLA, APURKOIA. Erlesoin guzti barna zabaltzen diran  
 zain antzeko arnasbideak. .... TRAQUEA  
 IRUSTA, ERBIOINA. Ezti ona ematen duan iru ostoko euntzetako  
 landarea. .... TREBOL  
 IRUSTAGORRIA. Lore gorria du. .... TREBOL ROJO  
 MAXUXTA. Lar au ezititsua da. .... ZARZAMORA



# BURGOS ALDEKO EIZAK

Burgos'ko efi txiki  
Árlote batean,  
Bost lagun izan giñan  
Eper eįzean.  
Eguna bota eta  
Nekea soiñean.  
Xato beltzak ler egin  
Zigun atzenean...  
Idi bat malean,  
Bi intzeko ustean  
Erdel lu unean  
Sar giñan taldean,  
įEz toki txar txa era  
Ase naiean!

Sartu giñan bezela  
Zaunkaka zaku ak,  
Leio atzean kuzkur  
Atso zimu ak.  
Oillo danak kakaraz  
A antza asto izu ak,  
Oartu gabe eztira an  
Sartuko lapu ak...  
Biztante zugutak  
Yo zitun bildutak  
Bost eusko aldu ak  
Ase ezin maku ak,  
Yango genitula ango  
Txistor muturák.

Seį etxe kolokan da  
Eliz bat goitxoan  
Gabeukatz bat agerl  
Da lo zo oan;  
Obiteglrik eztu  
Elelzak alboan,  
Ezpaita iñor II denik  
Oraindik gogoan.  
Iñor ez arloan,  
Iñor ez soroan,  
Sei asto saldoan,  
Lau txe i lertzoan.  
Mandoa ilko dun aker  
Usala auzoan.

Etxe onentxonera  
Yo genun albetan,  
įGe iralñoko lola  
Atarietan!  
Galduko ez ba'giñan  
Danok loidįetan  
Ya i azi giñuzen  
Asto zar gaiñeten.  
Ez naiz ni olgetan  
Yafiko bifetan  
Ango astoetan  
Ta mando za etan  
įAsto ta guzi iraulka  
Giñan loietan!

įUra ango Aztakaren  
Ikaraga ia!  
Bi astok antxen galdu  
Zuten bizia.  
Baiñan etzan asare  
Etxeko nausia  
An ase genulako  
Zerbait yan-Isia...  
Eskatu ur garbia  
Ken dezagun loia  
Ordu betera ia  
Ornen da itu ia...  
įZato beltza anpatzeko  
Au da alderdia!

Sukaldera sartu ta  
Orma danak kear  
Txisto ik ez da an ager  
Makilla zear.  
Bilgo bildurga i bat  
Eta bi txaki zar.  
Pipe ak alda leikez  
An gaur edo biar  
Gelan ontzi ñabar  
Lotsaga l-xamar...  
Aulklrlk an ez ar  
Danak anka bakar  
įPrakak aska nal ta arto  
Soloa bear!

Atso beltz ta ttattar bat  
Aurkeztu da atera  
įEne bada arek egin  
Zigun a era!  
Eskuan txeti pertza  
Ta atzetik aldera  
Sendl polita dakar  
Gu abetaltzera...  
įUra aren yazkera!  
Zazarkin aukera  
Aren mintzoera  
Piper miña bera  
Poz pozlk botako nun  
Lisu batera.

Ontan danontzat eska  
Dugu aparía  
Nork bestela ixil-azi  
Atso itz-ontzia?  
Ikusi bazenuten  
Ura ango laña!  
Danak yan-eske ibill  
Baitzuten e ia  
Gela bat itxia  
İllun ta txikia  
Mai trinkin eria  
Ona yan-tokia  
Yaki zai ez digu ba  
Yo gaberdia?

Noizpait ager dituzte  
Gure lau eperak  
Gero piper luze ta  
Muttur oke ak.  
U ena tipuletan  
Min-min ta txike ak  
A unt oki giñuzen  
Burgos'ko pipe ak.  
Atso zar alpe ak  
Par-mu i ankefak  
Gure Yon aleak  
Galdera ede ak...  
A aultzik ez al duten  
Yartzen aketak?

Yan-usalera be iz  
 E iko elblak  
 Ate zulotik sartu  
 Ziran guziak.  
 Mordoan asaldatu  
 Zituzten txaliak  
 Etsizun atzeratzen  
 Piper min go iak...  
 Aur e uka iak  
 Ur teten begiak  
 Katu gosetiak  
 Miauka la iak  
 Inoiz an ezin egin  
 On apariak.

Bostentzat eska degu  
 Ola apal ostean  
 Muturka sar ginuzen  
 Lasto pillean  
 Baiñan zelñek lo artu  
 Alako oatzean?  
 Azkaka asi baiñan  
 An oiñak sartzean  
 Gaiñera goizean  
 Irurak aldean  
 Lo artzeko unean  
 Bela i ertzean  
 Eun kirkir zitzaizkigun  
 Asi batean.

Begiak itxi gabe  
 Yo zuten zazpiak;  
 Ontan entzun ditugu  
 Danda la iak.  
 Etzula ta gauz onik  
 Inolaz e iak  
 ¡Gure ata apuzkak  
 Etsiziran txikiak!  
 Auntz beltz ta itsusiak  
 An datoz nagiak!  
 Eleiz atariak  
 Ake az yosiak...!  
 ¡Ake ai deitutzeko  
 Eleiz-txiliak!

Mendiruntz abitu da  
 Aker beltz saldoa  
 Guri ere erne saigu  
 Itzul gogoa  
 Baiñan mendiko bel!  
 Guk yakin naikoa  
 Bide lagun yatofa  
 Dala xatokoa...  
 Ardo bila auzoa  
 Irauli osoa  
 ¡Guri an yazoa  
 Ezta aipatzekoa!  
 Danan arte ezin anpa  
 Gure xatoa.

Geroago ikasi det  
 Biaromonean  
 A entzak zituztela  
 Eleiz barnean.  
 Itzuli ez gaitzen  
 Ogei bat urtean  
 Onda ornen gendun ba  
 E ia yanean  
 Ez naiz ez arean  
 Sartuko eizean  
 Erdel lu unean  
 Urte sail batean!  
 Eiza u i egin oi da  
 Burgos aldean.

JAKAKORTAJARENA"Tar

Txomin





# SORGIN-LAIA

1

Ez ote du Euzkadi'k  
nozitu naikoa?  
Urrikiko a| zaigu  
noizpait lainkoa!  
Anai guda berri bat  
bai dugu gaurkoa,  
erderaz ito nai da  
Euskera gaixoa!  
Atzapar mordoa  
sapoztutzen doa  
Amaren lepoa...  
laxter da itoa!  
Gaizka dezagun danok  
artu asmoa!

2

Ainbat odol ixuriz,  
malko ta zotiña,  
argitara daukagu  
gaur ikurriña;  
orain ezkertar askok  
azpika...iakiña!  
girbintzale batzukin  
dute egiñik ziña:  
Amaren iazkiña,  
txukin da panpiña  
kutsatuz ziriña  
uzteko lorriña,  
odol muiñan txertatuz  
erdel gorriña.

3

Marx'en ustekizunak  
zabaltzeko era  
Euskeran ezin nunbait  
errez atera;  
iraultzaille ausartak  
nola baiña atzera?...  
ez digute ba asmatu  
euskerantokera?  
poxi bat pantzera,  
erruzka erdera,  
latin da gerker  
apur bat euskera,  
"BATU" dalazko orrentzat  
auxe da aukera!

4

Orain luberritzeko  
orlako berrotza,  
Iai berri bat sor bear  
noski ba... arrotza!  
erabat bazterturik  
euskal Iai zorrotza,  
H lako maker bat  
ar dute ordotza;  
eskuburu motza,  
ortz orde bi zotza  
mutur txit amotza,  
trakets ta zipotza,  
malo datoz sasi ta  
ota-mordotza!

5

Ezin erabillirik  
ondikozko lala,  
ez da sinistekoa  
sor dun ezpaia!  
Nunbait ez ase etsaiak  
gudan odol-naia,  
orain gorrotoz iar du  
anaiaz anaia;  
eskuxarka arraia,  
or dabil etsaia  
ba data garaia  
salatu iokaia,  
gaitz oni iar daiogun  
bertan amaia!

6

Zer duk ik Euzkadi'kin  
ARIO barrabana?...  
Beti ager bai diok  
erra bakana.  
Erraustu uken Gernika'n  
Amaren soin dana,  
iaurtiz alako H'en  
sulerkai andana!  
Xuxperture zana,  
ona onda lana  
iaurtiz bana-bana  
H'ok gugana!...  
Biotzean io nai duk  
Ama laztana!

Iakakortexarena'tar Txomin

# IAKAKORTEKXARENA'TAR TXOMIN APAIZA

Berastegi'n iaioa 1906'garren urtean.

Andoain'go Seminarioan, bost urtetako Latiña 1920-1925.

Gasteiz'ko Apaiztegi Zaarrean eta Berrian, Zuur-lakintza eta Utzizti ikaskizunak, 1925-1932.

Meza Berria, Berastegi'ko Lorenzo Deunaren Parrokian, 1932 urteko Korputz Egunean.

Araba'ko Salmanton'era apaizburu 1932-1934.

Euskera berpizteko, On Manuel'en onuaz, Gazteiz'ko Gotzaiak On Mateo Muxika'k apaizburu, Araba'ko, Naparrate'ra izendatua, 1934-1936 eta urte oietan errian Euskeraz Bakarra mintzatzera lortu zan. Araba'ra Euskera zabaltzeko asmoz, Gazteizen apaiz lagun talde bat illero biltzen zan.

Lanok guztiok moztuta gelditu ziran anai-guda sortzean 1936-1939-1976 = 40 urteko, negu beltza.

An arrapatu zuan bada gudak; prankotarrak atxilo euki zuten eta eusko-gudariak askatu eta guda guzti barna, Bilbao artu arte, "ARABA" GUDALOSTEAN APAIZ-GUDARI KAPELLAU ibili zan.

Santander'tik "MOLTON" itxasontzian, azkeneko, Bilbao'ko aurrakin, Prantzi'ratu zan, 1937 urtean.

Prantzia'n Larzabal'ko Apaiz Zaarraren laguntzaille, urte bat egiñik, ura il zanean, Donaisti'ko Apaizburu. Arnald Artzubi'k artu zuan laguntzaille, Ameriketa'ko bideak idiki arte, 1940 urteraiño.

Montebideo'ko Aragon Gotzaiak artu zuan apaiz eta Minas'ko apaiz laguntzaille izendatu.

Buenos Aires'era, Liniers'ko San Kaetano'ra izendatua izan zan apaiz-laguntzaille, 1940-1942.

Andik, 1942'garren urtean, Mercedes'ko Serafini Gotzaiak, apaizburu, Buenos Aires Erkiko Mones Kazon'era eraman zuan eta an, Euzkadi'ra etorri arte, 40 urte, 1942-1982 egin zituan, eta Eleiz lanetan, Erlezaintza erriari erakusten eta Erlezaintzako idazti au egiten, urte oiek eraman ditu.

1982'garren urtean itzuli zan bere iaiotherri Berastegi'ra eta Salbadorenean bizitokia artu eta lose Maria Setien'en babesapean zartzaro erosoia darama.

Emen ere apaiz gara ederra egiten ari da bere azken idazlanak bukatzen eta aurrai Eresertia erakusten eta txixtulari taldea osatzen.

Apaiz ta euskaldun zintzo ta jakintsu, agur!

Bexondaizula Txomin!

**Zorionak**

# E11SIÇ P ZXINT Z 7C

EUSKERAREN  
ERRI AKADEMIA

V Zenbakia

1988  
Urrilla-Gabonilla

## AURKIBIDEA

Orr.

Eskintza. (Barruko azalean).	
Baserria ta euskera. M. Oñatibia. ....	1-3
Euzkal merkataritza. Arrinda A. eta D.	4-9
Eguzkitza tar Yon. Muniategi tar Sabin.	10-14
Euskerazko izenak.. Bixente Latiegi. ....	15-20
Euskal aditza. A. Urrestarazu. ....	21-25
ORIXE abertzale. A. Lino Akesolo. ....	26-29
ORIXE'ren bertsokerak. A. Zatarain. ....	30-32
ORIXE'ren karta bat. Jakakortaxarena tar Txomin. ....	33-35
ORIXE'ren Olerkigintza. A. Santi Onaindia. ....	36-39
Salmutegia. ORIXE. M. Lekuona. ....	40-41
ORIXE'ren irizpide batzuk. Bere gutunak. ....	42-49
Albisteak. ....	50-51
Beti lagun. Orixe. (atzeko azalaren barruan)	
Nikolas Ormaetxea (Orixe) 1888-1961) Atzeko azalean.	

**Zuzenbideak:**

**GETARIA 21 - DONOSTIA  
C. LARREATEGI 14 - BILBAO**

# GURE EKUJTTZA



Orixe

EUSKERAZAINTZA'ren zenbaki au, euskal maisu zan ORMAETXEA TAR NIKOLA "ORIXE" zanari eskintzen diogu.

Omenaldi ixil eta apala, baiña biozkor eta zintzoa.

Guk uste degu maisu batentzako omenaldirik onena, bere bide eta bere irakatsietan zintzo jarraitzea dala eta onetan, ezin ukatu, EUSKERAZAINTZA'k "Orixe"ren bidean jarraitzen duanik.

Origaitik, gaurko zenbaki onetan gure lankideen lan batzuk bere azterketa, bere goramen eta bere urratsak gogoratzen datoz. Bere gutun batzuk argitaratzeko zona ere ba degu. Gutun garbi ta zeatzak, maisu batenak, batez ere euskeraren metrika eta rimad buruzko irizpideak agertzeko ezpai eta zalantzarik ez dulako.

"Orixe"ren eun-urte ospakizunetan, gure eskintza au, egunero ta oiturazko gogorapena da, erri-euskeraren alde jokutzen alegintzen geranok, noz-nai igarten degulako gure bidean "Orixe" gurenaren itzala.



EUSKERAZAINTZA

Legerako Gordetza: BI - 1928 - 87

Konponketa: Flash Composition. Bilbao



# BASERRIA TA EUSKERA

Euskaldun geienok gure oiñarria baserrian degu. Lenengo gizaldian ez ba'da, bigarrengoan edo irugarrengoan, aiton-amonetakoren bat baserrian jaio, azi ta ezia da. Orregatik noski, baserriari diogun begirune ta maitasuna.

Eta ala izan ezta ere, euskaldunok egiz maitatzeko, baserriak ba-ditu doai bereziak. Gutxiengoa izan diteke, baserri-lurak zaituz, gure begien aurrean eskeintzen diguten inguru apain, txukun eta atsegiña. Guzti ori, ez da berez sortzen; baserrietan bizi diran giza-emakumeek, goizetik gabera etengabeko lan eta nekeen ondorioa da.

Baserriak u rteen junean bizirik zaitu duan gordailurik bikaiñena, euskera da. Ni beterinarioa naizen aldetik, berrogei u rte luzetan baserriarekin izandako egunero-ko ar-emanetan, ongi asko ikusi det, zenbat eta erdera-kutsu gutxiago izan, zenbat eta erdera gutxiago jakin, orduan da euskera aberatsagoa dutela. Norbaitek esan du, baserria euskeraren ikastetxe Nagusia dala eta ala da. Aiton-amon askoren izketa entzunaz, askotan ao-zabalik, atsegiñez txundituta egona naiz.

Jauregiberri zuberoar andere agurgarriari entzun izan nion, euskalduna irakurle baiño entzule ohea zala. Euskaldunak entzunaz ikasteko egokitasun ohea gendula esan nai zuan. Ori orrela izanik, gure arbasoek itz egiten zuten euskera bikaiña, aoz-ao, gaur arteraiño gorde dute baserrietan.

\* \* \*

Ni Oyartzun'en jaioa naiz eta bertakoak aditz-joko batzuetan anka-sartze aundi samarrak egin arren, joskeran, aotskeran eta esaldietan, euskera oso aberatsa erabiltzen dute. Amar illabetetan, Azkoiti'ko baserrietan ibilli bearra geratu zitzaidan eta gero berrogei urtetan, Zarautz, Getari, Orio, Aya, Aizarnazabal eta ingurukoetan.

Erri bakoitzekoak, bere izkera ta batez ere bere esaldi bereziak dituala konturatu nintzan. Nakian euskera aberasteko, bide egokia benetan, baiña gaur entzundakoa burutik joan egiten zala eta, entzundako esaldiak jasotzeari ekin nion.

Lan au nere gain artzeko bi elburu nitun: bata, oraintsu esan duten nere euskera aberasteko ta euskera ikasten ari diran euskaldun-berriei laguntza bat eskeintzeko. Euskaldun-berriek itz egiterakoan bezelaxe idazterakoan, erderatik itzez-itzez itzulita jokatu oi dute. Euskera au beti aula izango da, baiña euskeraz ondo dakitenean esaldiak buruz ikasi ezker, pixkanaka pixkanaka, berez i rtengo litzaizkieke eta orduan, euskera bikain baten jabe izango lirake.

Ala, ekin nion lanari. Esaldi on bat entzundakoan, ala nion nereko: Bai esaldi polita! Gogoan artu bear det! Baiña zer geriatzen zan? Entzundako une berean, erdi-lotsez edo papertxo batean jartzen ez nuanean, gero etxeratutakoan idazten asten nintzanean, bein baiño geiagotan ondo gogoratu eziñik, entzun bezain ondo ez nuala jasotzen. Lotsa alde batera utzi, eta entzundako une berean papertxo

batean jasotzen asi nintzan. Baserritarrak askotan arrituta gelditzen ziran; beaienez, egunero erabiltzen zuten esaldia, garrantzirik gabekoa zan eta. Ez neretzat!

\* \* \*

Egunean-egunean esaldi batzuk jasotzen nituala, urteen junean, mordoska aundi baten jabe egin nintzan. Bein, Yon nere anai zanarekin izketan ari nintzala, esaldi-bilduma erakutsi nion; millabat izango nitun. Bere erantzuna auxe izan zan: oso lan ederra egiten ari zera, baiña aspaldiko urteetan lan ortan dabil Aita Justo Mokoroa; berarekin ar-emanetan jartzea on litzaizuke.

Ala, nere esaldi-bilketan jarraitu nuan nere aldetik eta bein, milla ta zortzireun esaldi paperean txukun jarri ondoren, an joan nintzan Aita Mokoroa'rengana. Egiten ari nintzan lanaren berri eman nion eta nere borondaterik onenarekin, nik jasotako esaldi guztiak berari eskeiñi nizkion, bera egiten ari zan lanaren barruan sar ote zitezken ikusteko, ondo zerizkionak aukeratu ta besteak baztarrean uzteko eskubide osoarekin.

Gain-begiratu bat eman zion eta egindako lana ona zerizkiola ta azterketa sakon bat egin ondoren, aukeraketa egingo zuala esan zidan. Andik puska batera, nik utzitako esaldi-bilduma bihurtu zidan, geienak onak irudituz, bere saillean sartu zituala esanaz.

Aita Mokoroa'k larogeita ambost milla esaldi jasoak dituanenez, bere lan bikaiñaren berri emanez, goraipamen bat egin bearra derizkiot.

\* \* \*

Eta orain irakurle, zurekin noa. Zoritxarrez, darabilkigun euskera, oso motela, bizitasun gutxikoa da ta erderaren bultzadak eraginda, gero ta joskera txarragoa ta gero ta esaldi jator gutxiago esaten ditugu. Euskera bizia ta aberatsa gorde nai ba'degu, esaten eta entzuten ditugun esaldi jator guztiak jasotzen alegindu bear genduke.

Euskera utsean mintzatzen diranekin izketatzen zeran bakoitzean, belarriak tente ta papertxo ta arkatza eskueran eduki. Eta esaldi jator bat entzundakoan, papertxoan ezarri.

Esaldi bat jatorra dalaren ezaugarrietako bat, erderara itzez-itzez itzulpen zuzenik ez izatea da. Adibide bezela, azken aldi ontan, nik jasotako amar esaldi idatziko ditut. Bertan konturatuko zera, nork, noiz eta nun esan duan az gain, zer eta nola esan duan jasotzen dedala.

1.—Apari baten ondoren:

Ondo? Ez! Geiegi jan degu; GEREN-GERIAN obeto.

(Eguneroko janariak janez, obeto, alegia)

Zarautz'ko Antuñano'neko atezaiaren emazteak esana. 84-X11-24'an.

2.—Jateko gogo aundia al du? Ez ba! Jateko EBAKI aundirik ez du.

Zarautz'ko Isasti'ko nagusiak. 85-V-4'an.

3.—Bei au ume-sarria al da? Bai! Urtia ASKO GEIAGO GABE umea egingo du berriz.

Zarautz'ko Argoin-aundi baserriko etxeoandreak. 81-VII-2'an.

4.—Ain urduri egoteko zer du bei onek? JAN-USAYIAN dago ta ez da geldirik egongo.

Getari'ko Mirubi'ko alaba zarrenak: 80-11-21'an.


5.—A zer mutil ederra dagon... Bai! GAZTE-AZIYA ETORRI da.

Zarautz'ko Alkortia'ko alabak. 83-III-5'ean.

6.—Biurria mutil au! —Bai eta geldirik egoten ez ba'da, TXIKITU-GAIZTO EGIN-GO det.

- Errenderi'ko Pitxu'k. 83-III-7'an.
- 7.—Pattal xamar ikusten zaitut. Jateko gogo aundirik ez, ala?  
Ez! Jateko aiña MODU bai ta jan ezin.  
Zarautz'ko Gaikoetxe'k. 85-II-12'an.
- 8.—Mutilla ez al da orain arrantzara joaten? Ez! Itsasoak ONDO ARTZEN EZ  
eta gelditu egin zan.  
Getari'ko Abeta-berri'k. 72-VI-19.
- 9.—Etxeko neskamea ezkondu ondoren:  
EZKONDU-BITARTE GUZIYAN, gure etxean egon zan.  
Aya'ko Beoate'ko etxeoandreak. 72-VI-13.
- 10.—Beiak ondo zaitzen ditualako, gaxoaldi gutxi dituala eta:  
IÑOLA ALEN gaitzari aurria artu bear zayo.  
Zarautz'ko Santarba'k. 72-VI-6'an.

### Oñatibia'tar Manu'k





# EUSKALERRIKO MERKATARITZA LEGORREZ ETA ITXASOZ

Merkataritzak dirua eskatzen du bere artu-emanetarako; baiña, emen diru gutxi zebillen esku-artean. Batez ere merkataritza gauzen trukea zan. Atzerritik onera pasadizoan etorri zan norbaitek esan zuanez, gure artean ez ornen zuen "sagarra, sagardoa eta esnea" besterik arkitu. Kanpotik sartzen ziran gausen trukerako, zer genduen guk, euskaldunok? Araba eta Nafarro aldetik ardoa naikoa eta gana gutxi. Besterik?

**Bai, lau gauza auek: burnia, artíllea, barkuak eta armak.**

Lau gauza oieri esker, gure Erria lasai bizi izan zan gizaldietan zear. Krisis-garaiak ere izan ziran: artillean Burgos'ekin, burni eta armetan estranjeriak, barkuetan Erregearen ordena batek sortua. Euskaldunak narru-gorritan gelditu zirala zirudin emezortzigarren gizaldian; ondorengo gizaldiak, ordea, osasuna ekarri zigun berekin.

Baiña, guk lan au, emezortzigarrenean bukatuko degu. Nun? Ebro ibaitik Adour ibaira.

## DIRUA

Sal-erosketak dirua ere eskatzen du. Gutxi egon arren, zer-edo-zer ba zegon; baita diru-eramailleak ere. 1331'an Etkezarreta Pedro eta Mugerza Martin "diru-eramailleak" ziran eta mandozaiak; dirua ekarri zuten Iruñatik Real Tesorería de Navarra Gipuzkoarreri zor ziona. Salbatierako alkateak baimena damaie arabatarreri Aragoiko Erreñura joateko, bertan 250 dukatakin amalau karga-olio erosteko. Beraz, dirua ba zan.

Bai duru falsorik ere. Abantoko San Mames elizan artu zuten preso Zaballa Martin, diru-falso-egillea, 1450'an eta Erriaren zubi-azpian "potzuratu" zuten ("empoza-do"). Urte batzuek beranduago, beste orrenbestegaitik urkatu zuten Iruñan Berdabio'ko baserritar bat.

Fernando Katolikoak, Nafarroa menperatu ondoren, azpikeriz menperatu ere, dirua ebagitzeko aalmena damaio, Zaragozan eta Burgosen egiten zanen pare. Auek ziran sal-erosketan erabiltzen ziran diru-motak: florines, libras, ducados viejos, nuevos y milaneses, groses, torjas, reales navarros y castellanos y doblas de la banda:

Dirua ba zan; baiña gutxi bistatzen. Onela zioten euskaldun baserritarrak: "idia merabedi batean; baiña, nun da madabedia?"

## TRUKEAN

Sal-erosketa geienak trukearen bidez egiten ziran. Orregaitik gauzek izaten zuten bere balorearen neurri bat: errotak, idiak, beste abereak, gariak... Bereteretxek, bere kantuan, eun idí emango dizkio bere etsai zan Lerin'go Kondeari. "Zazpi errota



berri" emanda ere, ez du etorri nai Ursuako jauregira Lantainaren alaba Juanak Jau bost bei" izan oi zan kastigua. Abereak egiten zuten kaltea ikats-kargaz nertuko zan. Burnia ere erabiltzen zuten diruaren orde trukeak egitean: Atuxola'ri, Bizkaiko Bedia'n, 550 ikats-kargetan eman zioten errematea. Garitan ordaintzen ziren zenbait alogera. Gure Lege-Zaarrak ematen dio gauza bakoitzari bere balioa: "Uzta erretzen duanari eriotza zor zaio". "Bost edo geiago sagar-arbola ebatitzen duanari eriotza zor zaio"...

Aberatsa ez zan diru-eskonduna, abere-askoduna baizik. Aberetik dator aberatsa. Ez da txiripaz gure Erri-historiaren xeetasunak bei, txeri, mando eta beste aberez beteak ba dagoz: Iza Martin aberatsari bi bei eta sei txerri arrapatu zizkioten; Oñaz Otxoa eskuderoak, bere jauna lagun zuela, Arraras'ko txerriak eraman zitun indarrez. Eta abar, eta abar.

XIV'garren eunkian gipuzkoarrak naparrakin asarre dabilte; merkataritza eta abereak daude bitartean. Orregaitik edo sortu ziran Iruñakin Sanguesa, Estella, Puente la Reina eta abar erri-bilduak nafarroako lurraldeetan.

Gipuzkoan berdin gertatu zen Errenderi, Tolosa, Ordizia eta Segurakin. Nafarren erasoetatik gipuzkoarrak defenditzeko sortu ornen ziran erri-bildu bezela. Nafarrak sartzen bait ziran lapurretan Oiarzunen, Geerastegin, Eldusienen, Gaztelun... gipuzkoarrek ori berbera egiten zuten Amezkoan, Burundan. Lege Zaarra tarteko zala; onela dio Gipuzkoako Fueroak: "Por quanto en tiempos passados se acostumbravan hacer muchos rovos, muertes y daños por los Navarros... que quando pareciere necesario, ressitán los de esta Provincia y hagan el daño que pudieren a los Navarros y otros estrangeros que les hicieren daño" (T. XXIV, cap. II).

Bizkaitarrakin artu-eman obeak zeuzkaten giputxek; baiña, ez beti. Lapurretak eta indarkeriak bizkaitarren kaltean zirelako jaso zuten Markina erria, giputxen aurka.

## **EUSKAL-ERRIAK ESKEINTZENZUNA**

Sal-erosketa trukean egiten ba zan, zer zuan Euskal-erriak truke orretan eskeintzeko? Ez ogi eta ez ardo. Sagarrak, sagardoa eta esnea, bateren batek zionez. Lope de Haro bizkaitarrari buruz, onela dio Fernán González poemak: "sagarretan aberats; ardo-ogitan eskas".

Donostia'ko Fueroak arraiñak, ogia, ardoa eta aragia aitatzen ditu; baita barazki, matsondoak eta beste arbola muetak ere. Estellakoan, berriz, ardiek, txerri, mando eta astoak, oillo eta usoak... baso eta oianak. Bizkaikoak garbi aitortzen du bere eskasia: "por quanto la tierra de Vizcaya es muy montañosa e non siembran ni cojen pan nin han las otras vituallas q. así puedan mantenerse". Gipuzkoak, berriz, onela dio: "producen los campos todo género de granos para el uso de las gentes, aunque no en la bundancia conveniente".

Nafarroaren bizi-moduak nekazaritzean zuan bere oiñarria. Ardoa zuan naiko ugari eta beti ala izan du. Gana, berriz, 1428'an bearzuanaren erdia bakarrik. 1695'an, ordea, idazti batek dionez, ardotik eta garitik ateratzen dute dirua; beste gañantzekoak etxerako aiña.

Araban ere berdintsu. Eziñ esan Euskalerrian ez dagoalarik ez ardo eta ez gari; sagarra bakarrik, baizik. Egia da Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi eta Zuberoari buruz; baiña, ez da egia Nafarro eta Araban buruz. Ba dakigu Benabarra beti izan zala Nafarroaren seigarren merindadea: "La Merindad de Ultrapuertos".

Sagarrak ugari Gipuzkoan: Hernaniko mendietan-zion garai artako emendik pasa zan etserritar Leon Rosmihal jaunak-sagasti ugariak ikusi ditut inun ez bezelakoak; milleka sagar-arbola ditu edozein baserritarrek.

Eta Bizkaiko Lege Zaarrak onela dio abereeri buruz: "Hay abundancia de muchos ganados y cría". (1526, Tit. 34, Ley 1). Berri au Euskal-erri osokoa zan. Bizkaiak zio-

na esan zitekean, bere aldetik, alderdi bakoitzak. Nafarro eta Araban abere geienak ardi eta auntzak ziran; beste alderdi guztietan, berriz, ardiak izan arren, beiak eta idiak ziran geien, esnetarako bezela aragi eta lanerako ere.

Artillea era ba zan; baita liñua ere eunak egiteko.

Bi itzeetan: garia edonun artzen zuten, garagarra, oloa eta artatxikiakin (mijo), alderdi batzuetan bear aña artzen ez ba zuten ere. Oietzaz gainera Nafarroan eta Araban, lentejak, babak, illarrak eta añaia (centeno). Ardoakin, olioa ere bai. Danetik zerbait.

## **FERI ETA AZOKAK**

Azokeetan agertuko dira esandako gauza oiek eta askoz ere geiago. Erri askotan egiten ziran azoka-egunak: asteoro Estellan (1164'ko Fueroan agertzen da); baita Urroz eta Monreal'en. 1461'an Huarte-Arakilen; 1491'an Seguran; 1751'an Ordizia-ko Villafrankan. Tolosan asteoro iru egun ziran feridunak...

Baionako feria aparta zan. Oso antxiñakoa. Goieritik ere joaten ziran giputzak. Arabakoak Gazteiz'en, Puente la Rá, Berguenda eta Armiñon'en Miranda de Ebroren aurka.

Beste bi feri daude oso bereziak: bata Euskalerrian, Iruñakoa; bestea, gure Erritik at: Medina del Campokoa. Medinara joaten ziran Bilbotik, Gazteiztik eta estranjeriatik ere bai. Euskaldunek ara eramaten zituzten gauzak, salmentarako, auek ziran: ardoa eta La Rochelle eta Normandiako gariak, oialak, konserbak, narruak, Ingalaterra eta Flandes'ko esku-lanak.

Feri garrantzitsua Iruñakoa zan. San Ferminetako azoka, 22 egun irauntzen-zuena. Euskal-erri osotik etorri oi ziran merkatariak. 1541'an agertzen dira ango erri auek: Urtubi, Sara, Hasparren, Doniane Loitzun eta Ainhoa. Lapurdiko "bost uriek" bere eskubideak aitatzen dituzte Iruñatik jeneroak petxarik ordaintzeke ateratzeko. Gipuzkoako Fueroak ere onela dio: "Que durante la feria de Pamplona no se hagan pagar derechos algunos de Aduana en el Reyno de Navarra a los que de esta Provincia fueren a comerciar a dicho Reyno" (Tit. 18, cap. XII).

Beste aldetik begiratu ezkeroz, bazkarietatik eta amarrenetatik alegia, emen ikusten dana da, ez zala ezer falta. 1599'an gure portuetako arraiñak zenbatzen dira onelakoak: legatza, bixigua, itxas-aingera, tramana, mielgia, atuna, sardiñak, txitarruak, merua erraya, itxas-kabra, perloia, langosta eta abakandoa, lupiñak, saburdiñak, aingera txikiak (angula?), amorraiak, izokia (salmón), antxoak eta abar.

Emen ezer ez zan falta kanpotik ekartzen zituztelako bear ziranak.

## **MUGA-BARRUKO MERKATARITZA**

Bear zitun gauza asko kanpotik ekarri Euskal-erriak. Bearkizun ori betiko lelo bat bezela agertzen zaigu lege Zaarretan eta agintarien asmoetan. Enrike IV'garrenak onela zion 1462'an: Bizkaiak ogiz, ardoz, olio, aragiz eta beste zenbait gauzez ornitu bearra du. Bizkaiko Fueroak dionez bizkaitarrak ba du eskubide ogiz, ardoz eta arraiez bere burua janaritzeko eta orregaitik egintzendu zortzigarren kapituloan, Bizkaiara datorren ontzi orok, kargaren erdia bertan saldu bearco zula. Gipuzkoako Fueroak gipuzkoarrek eta lapurtarrek ba zutela eskubidea dio, batetik bestera jeneroak eramateko" como trigo, abena, abas, zenteno, maiz, garbanzos, arbejas, vino, vacallao, grasas, rabas, sal y generalmente todo genero de mercaderias" (Tit. 19, cap. IV, 9). Oñatiarrak Arabatik ekartzen zuten gana. Arraiña Deba, eta Ondarrutik zabaltzen zan. Iru "Aduaniilla" zeuden Gipuzkoan. An pasatzen ziran jeneroak auek ziran: piparmiña, azukarra, itxas-aingira, balea, sardiña, kanela, klabillo, pikuak eta izoki gazitua (salmón). Enrike IV, estranjerietik datozten barkueri au agintzen die: ezer Donostiatik eraman nai ba dute, aurrez garia ekartzeko Donostira. Irureun mandoen medioz eraman zuten Arabatik Donostiara ogia 1522-X-6'an. Nafarroak bere uztek eskasak ziranean, orduan Bretainatik ekarri oi zun garia Doiane Loitzungo eta Baionako portuak zear. Aragia eta erraiñak ekarri bearrezkoak zitun aiek ere. Biz-

kaia Arabakin konpondu oi zan eta Gipuzkoa Lapurdikin naiz-eta españolak frantsezekin bitartean burrukan ibilli.

Iru alditan gutxienez palta izan zen garia Tolosan. Oietako bat 1615'an gertatu zan, Felipe III eta bere alaba Tolosara etorri ziranean. Jai aietarako Nafarroatik gauza auek ekartzea erabaki zuten tolosarrak: 500 fanega gari-iriña, 600 garagarrena, ardorik onenetakoen 30 karga, Canarias'tik 20 bota-ardo; proportzio berean, idiak, ariak, urdaiak, egaztiak, arraiñ-freskua, egur-ikatsa eta abar.

Arabak ba zitun aspalditik, bere artilleak Nafarroan sartzeko eskubideak. Nafarroak, berriz, bere artilleak Doniane Loitzun eta Baionan saltzen zitun; batez ere Erronkari, Salazar eta Aezkoaren ballaretatik, ballara oietan bizi bait-ziran 300.000 ardi eta geiago. Auek eramaten zuten baita-ere ardoa, erregaliza eta burnia. Burni au Nafar-mendietako oietan egiña. Orreaga (Roncesvalles) eta Benabarretik pasatzen zutena. 1295'an keixak zituzten Baionako burnigilleak Nafarroatik zetorkien iltzeen kompetentziagaitik.

Orra zenbat merkatu-arazo Euskal-erriko mugaz-barrutik. Goaz kanpo-aldekoak ikustera.

### **MUGAZ-KANPOALDEKO MERDATARITZA**

Bizkaiko Fueroak bear ziran askatasun osoak ematen zitun bituallak Frantzia, Ingalterra eta beste nazioetatik ekartzeko. Berdin dio Gipuzkoakoak ere. Ba zuan onek Errege Katolikuen agiri bereizi bat, 1489'ko Ilbeltzaren 24'koa, estrajeritik gariakin edo beste janari motaekin zetozen merkatariari eragozpenik ez jartzeko.

Araba Burgostik eta Tierra de Campos'etik ornitzen zan; larri aldietan Errioxa, Medina, Toro eta Zamora'raiño zabalduko zan jenari-billa. 1712'an kakao, azukarra eta tabakoa dabilta naastean merkatu-gaietan.

Oiñatiarrak olioa Aragoi, Alkarria eta Andaluziatik akarri oi zuten. Bakailaua eta beste zeziñetako arraiñak Irlanda eta Bretaiñatik etorri oi ziran guregana. Itxasoz geienak, danak ez ba ziran. Bizkairako, danak itxasoz, bai arraiñ eta bai beste jatekoak Bretaiñatik bezela beste Frantziako errietatik ere.

Errege Katolikuen garaian, Lekeitio eta Bermeora, itxasoz ekartzen zituzten ogi, ardo, aragi, gatza, leka-ale, olio eta ezta. Errioxan eta Gastelanian eskasia zegoelako Markiñak, 1550'an ardoa Burdeostik ekartzea erabaki zuen. Bizkai guztirako garia legorrez Gaztelaniatik ekartzen zuten, eta Andaluziatik urez; ardoa, berriz, Errioxa eta Gastelaniatik. Nafarroak 1566'an, gari-bearrean, Aragoi eta Gaztelaniatik ekarri bear izan zuan; baita ere "itxasotik". Eta, abar.

Zer eskeintzen zuten euskaldunak janari oien truke?

Tirso poeta españolak onela dio:

"montes de hierro  
habitan los vascos".

Ona lenengo eskeintza: burnia.

### **BURNIA**

Trukean erabilia eta bete eginkizuna oparo bete zuena.

Lege Zaarrean itz auek uneoro agertzen dira: "hierro por bastimentos": Jatekoen orde, burnia. Euskal burni ori munduko baztar guztietara zabaltzen zan. Legazpiakoa Gaztelania, Portugal, Ingalterra, Flandes, Italia, Afrika eta Ameriketaraiño.

XVI eunkiaren erdi-aldara Nantes urian sartzen zan burnitik %90 burni euskalduna zan. Bilbotik, Mondragoetik, Zestuatik, Balmasedatik... joana. 1152'an asi eta 1451'arie Baiona Ingalterraren menpean zego; orrela, bera gertatu zan bidea euskaldunen eta inglesen arteko artu-emanetan. Ingalterrarako ez-ezik baita Bearne eta Normandiarako burniak ere Baionatik irten oi zuten.

Indietara joaten ziran ontzi guztiek eramaten zituzten beuroen barruetan burni tonelada asko. Florenzia'ko idazti batean irakurtzen danez, gure burnia, ugari baiño ugaria irten oi zuan Bermeo, Getaria eta Donostiatik. Noraiño? Sevilla, Brujas, Lisboa, Ingalaterra... eta Barzelonara.

Arazo onetan gurekin artu-eman aundienak izan zituna, Europako nazioetan, Holanda izango zan garai aietan. Normandiara joaten ziran ontziak burniz, andik etortzen ziran gariz. Onekin batera urdaiak eta eunak ekarri oi zituzten Deba, Mutriku eta Ondarrura; portu auetan gero burni-barrak eta aingurak kargatzeko. Oietako barku batek, "Katherine" izenekoak, bere kapitana Riou de Bozec, bretoiña, 46 tonelada-gari, 500 barrika-koipe, 4 pipa-neurria arraiñ eta 18 oial zuriko piezak ekarri zitun iru portu oietara; gero bertatik 507 kintal-burni eta 6 aingura, barkuentzako, eraman zitun.

1515'an, Gipuzkoako Korrejidoreak, Debatik itxasoz irtetzera zijoan burniari era ipiñi zizkion. Probintzia aurrez-aurre jarri zitzaion Korrejidoreari: emen landutako burniak bideak libre zitula edozein Estranjeriko portuetara. Eztabaida Proirabazi zuan eta Felipe II'k eskubide ori esagutu zuan 1518'an, "en retorno de bastimentos traídos a Guipuzcoa".

Burni-meatzak baztar guztietan agertzen ziran Euskal-erriko mendietan. Goi-alde-  
tik Montory eta Santa Garazi'tik asi (Zuberoan), Bost-Uri (Cinco Villas Nafarroan), Mondragoeko Udala-mendian eta, batez ere, Zeraiñ'en. Zeraindik sortzen omen zuten antxiña-antxiñatik burni-meatza Azpeitia, Ordizia, Areria, Zegama eta Segurako ola guztiek.

Oiek orrela dirala, ordea, Bilbo ingurua zan burni-meatzetan aberatsena. Mendi osoak ziran burni-gai. Oietzaz ari zan, ziurki asko, Plinio erromatarra onela idatzi zuanean: "totus mons ex hac materia ferri est"-Kantabriako itxas-aldean "mendi osoa dago burniz".

Somorrostro'ko meatzak bertatik eta Bermeotik irten oi zuten mundu zabalera, urrez; legorrez, berriz, Balmasedatik aurrera mandoetan. Onela zion frantsez batek inglesari, burniari buruzko eztabaida batean: "Itxas-ontziak egiteko burnirik onena euskalduna da, ausitzeke okertzen bait-da". XIV gizaldiko esanak. Somorrostroko meatza baztandarrek bertakoakin naasian jartzen zuten. Erameteko, Ienengo Doniane Loitzunera itxasoz: andik legorrez Amayurretik Baztanera.

Burnia ba gendun trukerako; baita artillea ere.

## **ARTILLEA**

Euskal-ekonomian, XVIII aunkirarte, burnia eta artillea izan ziran garrantzirik aundiena izan zutenak.

Nafarroatik urteero, XVI gizaldian, ia 30.000 arrua artille eraman oi zuten La Rochelle eta Flandes'era. Nundik? Donostiatik eta Doniane Loitzunetik, urrez. Salazar eta Erronkari ballaretako artilleak, 1604'an Donostiatik irten zuten Ingalaterrako.

Gaztelaniako artillea, berriz, nafarra baiño bi aldiz galestiago, Frantzi eta Flandeserako Bilbotik, Poriugetetik eta Debatik irtetzen zuten, zazpi milla tonelada urteero. Pleitak galestia irtetzen eta merkatzearren, bueltan andik zer-edo-ser ekarri bear. Zer? Eunak eta oialak.

Burgosak leendik zeukan "Consulado" bat eta Bilbok berea lortu zuanean, bi uri aukeraren arteko asarrea sortu zuten, esportazioko eskubi guztiak beretzako nai Burgosek. Onek boikota egin zion Bilbori eta bere artilleak andik aurrera Portugaletara eraman zitun. Gaztelanian zati bat Segobiaraiño, Errioxa, Nafarroa eta Bizkaiko artilleak Debatik irten oi zuten.

Ona zerrenda bat agerpenerako:

URTEA	BILBO	DEBA	URTEA	BILBO	DEBA
1561	827,5	—	1561	158	
1562	1.356	—	1562	—	
1563	550	—	1563	—	
1564	1.396	—	1564	—	
1565	56	—	1565	—	
1566	352	—	1566	57	
1567	557	—	1567	317,5	
1568	487	—	1568	—	
1569	—	—	1569	273	
1570	256	205	1570	1.248	
1571	298	330	1571	1.405	
1572	70	14	1572	2.299	183
1573	91	129	1573	2.104	88
1574	159	250	1574	259	
1575	—	498	1575	948	786
1576	—	536	1576	649	448
1577	—	412	1577	545	83
1578	18	522	1578	276	237
1579	87	454	1579	49	

Auek Flandes'erako ziran.

Auek, berriz, Frantzia'rako.

Sakak dira neurri; Falndes'en saka batek 8 arrua zitun. Frantzian, 10.

Salazar eta Erronkeri ballarak ezezik baita Iruña, Tudela, Errioxa, Zaragozako arii-leak ere Donostitik atera oi ziran itxasora. Nafarrak beti izan dute Donostiarako joera. Errenderiak berak eskeintzen zien bere burua; baiña, nafarrak Donosti naiago eta Donostiren mende zegon Pasaia. Santxo El Sabio nafarrak eman zion Donostiari bere Fueroa eta arrezkeroz, nafarren portu biurtu nai.

Alfonso VIII kastellanoak Gipuzkoa menperatu zuanean, orduan Santxok Baionara jo zuan, nafarrentzako porturik egokiena bezela...

Gerora barkuak ugaritu ziranean, artilla baiño itxas-ontzi geiago zegon. Lenengo, Burdeosko ardoak Flandes eta Ingalterra karretzeko kontratua egiñ; gero, Mediterraneo itxasoan sartu Italiatik Flandesera merkataritza egitera. Euskal-erriko itxas-gizona itzal aundiko merkataria biurtu zan. Zer mogimendu zegon ikusteko Bilbo artu degu eredu; baiña, portu guztientzako balio du gutxi gora-bera. Ona: zertzuk flete edo pleita zeuden une berean:

artillea Flandes eta Frantziarako; burnia Valenciarako eta Malagako frutak Jerez'erako; xaboia, piper, klabo eta kanela Galiziarako; intxaur-moskatua, koipea, urraida (cobre), olioia La Rochellerako eta ardoa Gaskuñarako; konejuak, azafroia, seda, Frantziako oial gordiñak; arroza, almendark, Bretaiñako euk zurian, Flandesko oialak, datilak, India eta Irlandako narruak, gariak, zekalea (centeno)...

Barkuen ugaritasunak merkataritza ugaltzen zuen eta merkataritz onek, barkuak ugaltzen zitun. Auxe da euskal-ekonomiaren irugarren zatia.

### Arrinda Anes eta Donato



# EGUZKITZA'TAR JON GURUTZ

1875-1919

## NOR ZAN

"Gure erri maite oni bere siñismen eta ekandu onetan iraun-azteko lenen eta aurrenengo Goiko Jaunaren laguntza da; baña orren urrenego eguzkiaren azpian daukagun laguntzarik onena, geure euskerea da; laguntzarik onena Euskalerrriaren gogoia, bere izakera berezia, bere barreneko arpegiz darakusan ispillua, geure asabagandik datorkigun euskera zaar au. Izkuntza aldatzen da, baña gogoia aidatzeak, aurreragoko siñiste, ekandu ta izakeraren aldatzea beragaz daroa; augaitik Euskalerrrian, bere siñeskuntza ta ekanduei eutsiteko, bere gogoari, gogo orren mendu ta izkera bereziari eutsi bear dautsegu; baña oni eni eutsiteko, bere gogoari, gogo orren mendu ta izakera bereziari eutsi bear dautsegu; baña oni eutsiteko, euskerea galdu ez dedin, lan egin bear dogu. Gizon eta erri bakoitzak izkuntzaren bidez bere barreneko bizia agertu ta azaldu daroa; augaitik, edozein errirentzat berena, bere mendu ta izakerarena, agerpenik garbiena bere izkuntza da; Euskalerrriarentzat euskerea".

Lemoa'n jaio zan Eguzkitza abadea. Il bere bertan egin zan, Mikel Zarate'n "Bizkai'ko Euskal Idazleak" liburuan diñoskunez: "Gizon fiña zan Eguzkitza eta, idazlan asko egin ebazan eta, sakonak. Sustraira, gunera, sakonera joten dau beti. Eta augaitik, gai sakonak darabiltz geyenetan.

Teologi gaiak, Filosofi gaiak... Jakintza arloan diardu, euskaldunak eta, euskerea jakintza maillaratu nairik. Eta jakiña, euskaldun irakurleak bakarrik ulertu daikeez ondo aren idazlanak: "Garbitokiko arimaen illa Sarda y Salvaniren liburua euskera-tuta, "Andra Mariaren Loretako illa", "Gizarte Auzia", (Ugazaba ta langille arteko goraberak: Sozialismoa, komunismoa ta abar zirala ta etzirala sortu zan gizarte-azia azaltzen dauan liburua. Idazlan txalogarria, euskeraz gitxi erabilli oi diran gaiak darabiltzalako. Gaiñera, aldi aretako gizarte ta politika giroa ikusteko bere zerbait balio dau. "Kristau Ikasbidea", Teologi guztiaren laburpena. Gaiñerako lanak aldizkarietan argiratu ziran: Jaungoiko-Zale", "Ekin" "Euskera" "R. I. E. V.'n", eta abar.

Euskerea goraltzeko zenbat Itzaldi eder eta idazlan argigarri!!

## EGUZKITZA (R. I. E. V.) 1924

1924 garreneko Etudes Basques daritxon XV garren tomoan dator Eguzkitza euskaltzain jaunaren euskal izpiakerari buruzko lan argidoi sakona, onako izenburuz: "ITZ BIKOITZAK DARAKUSKUEZAN EUSKAL IZPIAKERAREN (Fonetikaren) ARAU BATZUK".

Ikasketa onen sarrerako ataltxo bat jartzen dot emen, gramatikalari ospetsuaren barri izan dagigun. "Euskerearen izpiakerari buruz, aspaldian ainbat lan ede egin

dira; baña sail au osoro aztertu ta ondo ezagutuorduko, oraindik euskalariak ekiñaldi garratzak egin bear izango dabez. Gure izkuntza onen izpiakerara osoa ezagutu ta irakasteko asmoz lan egin daben euskaltzaleak, benetan txalogarri dira: gauza ezkuturik asko erakutsi dauskuez, eta onako lanetara zale diranai, bidea iriki dautse, baña, izpiakera osoa noz-edo-bein ezagutu nai ba-dogu, gai bereziak artu ta atalka lan egin bear dogula deritxat. Gero adimen zolia ta onetarako asti ta gogoa daukazanen batek, lan berezi guztiok ikasi ta izpiakera osoa azaldu dagientzat orain berarizko lanok egitea ondo baño obeto litzake.

Beste enparauak alde batera itxirik, txosten onetarako iru igidin autu dodaz: "d-g—r", iru igidioneik itz bikoitzetan artu daroezan aldakuntzak, guztien artean ezauenenak dira ta euskalari geienak aitatu dabez; baña aldakuntza oneitzaz orain arte esan ez dan zertxubat esan daikedala dirudit eta, neure gogora etorri yatan ori zuzen ala oker dagoan, nik baño geyago dakian norbaitek ikusi, aztertu ta erabagi dagian, neure eretxia azaltzera".

Eguzkitzaren ikasketa lan jakingarri onek zazpi orrialde betetzen dauz eta banatua dator lau ekitaldi edo ataletan. Gaia ez dot aztertuko ba, ori izpiakelari batena litzake eta orretarako, jakiñez ganera asko luzatu bearra izango neuke baña, nik ulertzen dodanez, idazle on baten aurrean aurkitzen garala. Tamalez baztertua daukagula autortu bear bizkaieraren maixu jakintsu au. Mezedegarri izango litzake bai bizkaiera ederrarentzat eta euskalki guztientzat aren sakabanatuta dagozan lanak ta bear dan lez jazo ta argitalzea.

## **EGUZKITZA EUSKALTZAIN JAUNAREN ITZALDIA**

**(Doneztebe-n, 1923'garren iraillean)**

Lizarraga'ri buruzko barri-emote edo aren bizitzaren eta, arek egindako idazlanen agerpen edo zeatzasunak azaltzea, bere lagunak bizkarreratu eutsoen eta sakontasunezko jakinduri eta zeatzasun aundiz bete eban agindutako eginkizun zailla bezin garrantzitsu ori. Ona emen itzaldi asieran zer diñon:

Andere ta jaunak: "Irakurtzera noayen lantxo zarpail eta zirtzil au nere gogoz ez nuan nere gain artu. Euskaltzaindiko nere lankide maiteak poliki-poliki lepora egotzi zidanen. Ayek ori egin zutenean, batzarretik urruti nengoan ni eta egunarietan beren asmo au irakurri nuanean, nere baitan erran nuan: "Nire lagunak lanaren gaya bai, ongi autetsi dute; baña langillea, oso gaizki".

Adiskide kide oyei atsegin ematekoz, napar- seme ta apez argi batek, bere euskaraz, idatzi zituan liburuetaz itz egin bear dut; baña napar euskaldunen aurrean ortaz jardukitzea, neri, Bizkai'ko euskera edoski nuan eta bertze euskaldietan motel nagon oni, bertze iñori baño anitz eta anitz zallago zait. Ori edozeiñiek daki.

Berizalde, Euskaltzaindi ontan napar eta gipuzkoar idazle ain tzatsu ta trebe badira, ta oyetatik edonok lan au askotaz obekiago egin lezakean. Au onela dalarik, nere lagun oyeke ¿zer ari ote dira? ¿nora ¿nora begira ote daude?". "Ta, Euguzkitza jaunak onela darrai:

"AU zala-ta neri egotzitako egikizun au, euliak kentzen diran bezela, astindu ta nere lepotik jaurtikitzeko asmoz zapuztu ta asarre samar ni Joan urrengo batzarrera. Nere asmo ori azaltzen asi nintzalarik, urbil zegoan lankide batek belarrira esan zidan: "Napar apez baten lanetzaz mintzo bear zera Doneztebe'n. Ortarako napar naiz gipuzkoar euskaltzain bat zenbait egokiago izanen zala deritzazu noski; baña egokiena zein dan jakiteko gauza askori begiratu bear zaie. Adi ezazu: "Naparroa Euskalerraren sorialdean, Bizkaia sartaldean daude; Bidasoa'z emendik darabilzki-gun euskalkien artean, bata bertzearengandik urrutien daudenak, napartarrarena ta bizkaitarrarena dira: guztien arteko besarka laztan, apa gozoaren billa gabiltz aspaldi ta napar euskaldunai anai-besarka maite ori emateko, zu, Bizkai'ko euskaltzain ori autetsi ziñugun. Bizkayeraz antzetsu ta trebeago zaude noski: baña, ortarako lain ba-dakizu ta, zere itzaldia gipuzkeraz egin zenezake ta orrela egin ezkeroz, zere

euskalki ta Napparroa'koaren bitarte dagoan bertze au (gipuzko-euskalki xamur au) zure besarka laztan orren begizta, txibistin ta oropil bizi, sendo ta iraunkorra ere izan diteke".

Au entzunaz (diño Eguzkitzak) nire beldur eta kezka guziak berealaxe deuseztu ziran: aizeak edo eraman zituan. ¿Zer? erran nion:

—"Napar euskaldunei bizkaikoen besarka gozo, ezti ta maitatsua emateko; ango euskaltzalén biotz-barnetiko apa laztana napar euskaltzalei ekartzeko, Bizkai'ko euskaltzain txiki au autu nauzute?

—Ongi dago. Egikisun eder eta bikaña, lan atsegiña da ori neretzat. Gogo ta biotzez, atsegin ta poz aundiz eginen dut".

Ori erantzun nion eta oriara nator, andere ta jaunak. Euskalegun oyeke egin eta ospatzeko, aurtan Napar-iri garbi, lirain, polit-eder auxe autetsi dugu. Bere zugazti mardul, lats bizkor, ibai garden ta ur-jauzte politez; bere mendi jagi, larre ta zelai orlegiz; bere mendizka ta ibar atsegingarri oyetan, ursoak bezala, an-emenka bananduta dauden etxe zuri ta ostatu ederrez, Donestebe onek Napar-mendietako atsegintoki zoragarria dirudi.

Napar- anai maiteak, iri-polit ontara Bizkai'ko euskaldunen agurrik gozo ta eztieta dakartzutet, Euskara, gure izkuntz zar eta maitagarria, geronen izakera bereziaren agerkunik ederrera, gere gogoen asnasa ta gere odolaren bitsa bezala dan izkuntz au, piztu ta pizkortu, landu ta edertu, sendotu ta zabaldu nairik, an, goiz eta arrats, lanean diarduten guzien izenean dakarizutedan laztan samur au, otoi anayak, txera aundiz, abegi onez ta gogo beroz ar ezazute. Odolez aurride, guraso baten seme geranok, asmo ta txede berdiñaz euskararen alde lan egiteko, elkargo ta eztayak egin bear genituke. Biotz barnetik damatzutedan besarka laztan au, eztaibesarka gozoa betikoa izan bedi, bere erestuna bitarte daukagun gere anai gipuzkoarren euskalki xamur, bigun, ezti dalarik.

Bear nuan bezela, Bizkai'ko euskaltzalen izenean, zuoi agur egin eta apa eman ondoren, nere itzaldi onen gaya adierazi bear dizutet. Euskaltzaindi'ko nere lagunak izendatu zidatena, uraxe bera da: Lizarraga'tar Joakin, Elkano'ko animazai izan zanaren bizitzaz eta iaun onek euskaraz idatziriko liburuetzaz laburkiro mintzaturen natzaizute. Eta errexago uler dezazuten, gipuzkoerakin goi-napar ipar-aldeko euskera pizkatxo bat naasiren dut.

Onarte entzundakoa Eguzkitza'ren itzaldi-sarrerako itzak, berbak doguz, berak diñoskun lez, "gipuzkoarekin goi-napar ipar-aldeko euskera pizkatxo bat naasiren dut". Emendik aurrera zuzenean Lizarraga'ren bizitzari buruzko zeaztasun barriak bat emoten dauzkuzala. jaioterria, gurasoak, eta abar. Bigarren atalean idatzitakoaren barri damosku, argitalduak ta argitaldu barik gelditu ziran ainbat idazlanen barri damoskularik. Baiña ori dana alboan itzirik ba, ez dot geiegi luzatu nai ta beraz Eguzkitza beraren lerro batzuk artuta or-emen, ia amaiera damotsadan arazo oni.

"¿Nolako euskara darabil? diño— Euskarak berea duan joskeraren maiz utsegiten du: baño joskerari dagozkion oker eta utsak alde batera utzirik, euskalitzen ordez erderatiko itz arrotzak ere maizegi darabilzki, nere ustez. Ori egin zuan bakoitzean, itz berririk ez asmatzearen egin balu, nik ortaz gaizkirik ez nuke erranen; baño euskalitz jatorrak alde batera utzita, batere bearrianik gabe, erderatikoak aurrez darabiltza, ta, au, nere aburuz, iñolaz ere ezin zuzentsi genezake. Alaz ere, lizarraga'k baño obekiago euskaraz idatzi zutenak aurreko mendeetan gutxi izan dira: gaizkiago egin zutenak, anitz: augaitik, aldi artan egiten zana nere gogoan dudalarik, Lizarraga'ren euskara on xamarra dala, gezurrik gabe, esan dezaket".

Eta, jarraian onako au diñosku: "Orain, zorionez, euskaltzaleak ugaritu zaizkigun egun oyetan, euskara guk apezok galdu dugula anitzek diote. Aspaldi ontan apezan aurka egindako salakuntza ori maiz irakurri dut, eta egia errateko, irakurri dudan bakoitzean, agitz aserratu naiz. Kaskarin oyeke ¿zer ari dira? erraten nuan nere baitan. ¿Euskara guk apezok galdu dugula? baño erradazute: orain a rre apezak izan ezik, euskaraz ¿nork idatzi du? Euskararen alde lan-egin duten bertze jaun oyeke



¿nun dira? Beren euskarazko lan ederrak ¿non daude? Betoz gizon agurgarri oyek; beren buruak erakus bitzate ta guk apezok, bekaitzik gabe, guziei ta bakoitzari buru-gañetan eriñotz-burestuna ipiñiren diegu. Baña gure aurretiko euskal-idazlerik bikañenak, Axular eta Mendiburu, Gerriko ta Agirre, Añibarro ta Mogel ¿apezak ez al-ziran? Bai, noski. ¿Eta gure izkuntza zaar ontan oyen idaztiak baño ederragorik nork egin du? Guk dakigula, iñork ere ez. Au oroituz, erraten nuan; euskararen gal-tzea apezzen obena ¿nola izan daiteke?...

"Euskararen galtzean euskaldun guziak, apezak ere bai, orok beren obena dute". Beñiola gure Eguzkitzak eskur idatzitako bi liburu aurkitu ebazan Liburutegi batean... ta, iura poza diño!— ta irakurtzen asi zanean ai! zer zan a! "Gauza zakar, ezain eta itxu-orrialde osoak, aditz-laguntzallee landa, euskal-itz bat egiña bere ere ez zeukaten: goyan asi ta beraño erdel-itzez josita zeuden. Nire amets gozoak aizeak eraman zituan. Liburu zakar ayek nere etxean eukiteak ere iguin ematen zidan: luzatu gabe, urrengo goizean lenbiziko liburutegira eraman nituan, eta arrez-kero begiz ez ditut ikusi. Ikusi nai ere ez. ¡Alako iguña eman zidaten! Norbaitek eratsi ta erreko ba'litu, poztuko nintzate. Kanpion jaunak ongi erran du: soinkariak bere otarrea (saskia) uzten duan bezala, apez askok ere erdal-iztegia euskarara irauli, uzkali dute. Apezok, euskara alperrik galdu dugu. Obena guk bakarrik dugula iñork uste balu, ziñez, oker legoke. Berize enparauak, andere ta jaunak, erriko gizon eta emakumak, batez ere gure arteko aundizki ta jakintsuak, guk baño oben andiagoa dute, baña guk apezok ere, geren obena ba-dugu. Euskal-errietako apez askok, aundikeriz, beren itzaldiak erderaz egiten ornen zituzten eta Kalaorra'ko Gotzai erdaldunak euskaldun apez aundi-putz oyen arrokeri ta txandalkeria bein baño geyagotan eragotzi, gebendu bear izan zuten. Euskal-idazle anitz eta anitzek ere, mintzale ayek baño gutxiago ez izatearren-edo erriak zerabiltzan eta, ongi ulertzen zituan euskal-itzak utzi ta irakurlerik geyenentzat sartu zituzten. Au egin ezik, erriaren mallara jausten zirala uste zuten, naski: ori egin ezkeru, berriz, erria baño gorago zeudela, erriak baño geyago zekitela ... Oni euskaraz ergelkeria deritzaio; baña arrokeriak ergelkeri asko egin-arazten dizkigu".

"Bertze gauza anitzetan bezala, euskal arazoetan ere euskaldunok elkargandik urrunduta ibilli gera geyenez: etsai bezala kopet illunez elkarri begira diegu maizegi; euskaldun bakoitzak euskara osoa bere izkuntza bezala artu bearrean, berea bakarrik maitatu ta bertzeena arbuyatze onek euskarari kalte andi-izigarria egin dio. kalte au guziz kendu ezin ba'litz ere, albertzean arindu, gutxitu bear dugu ta ortarako, kalte ori ekarri digun bidea utzi ta bertze bide egokiago bat artu bear. Euskara-batasun egiñen ontan astiro-astiro, emeki-emeki ibilli bear gerala diote. Nik ere orrela uste dut: baña naiz astiro naiz bizkor, naiz emeki naiz oldarrez ibilli, urte askoren buruan baizik egin ezin genezaken lana da-ta, elkarganatzeko bide ori gaurdanik kemen eta adore andiz artu bear genuke. Emeki ibilli arren ere, ekiñen-ekiñaz, iñoiz atzera egin gabe, beti aurrera jarraikiaz, urte batzuen buruan zerbait baño geyago eginen dugu. Euskara piztu, pizkortu indartu ta sendotzeko ori bakarrik ez da aski izanen; baña ortarako bear-bearrak diran gauzen artean, ori bearrenetakoa dala deritzat". Bizkai'ko euskaldunen izenean eman dizkitzuetedan apa eta laztana betirako izan bitez: elkarganatzeko len-urratsa bedi ori, baña iñoiz gogaitu gabe, beti aurrera jarraitzeko asmoz. Aul eta en dagoan gure euskara zutiaz eta pizkortu nai ba-dugu. ¡otoi euskaldunak! gaitezen beti aiskide, beti anai, beti elkar maite. Euskara banatu, zatitu, birrindu, auldu ta eritu zitzaigun aurreko gizaldi oyetan, Lizarraga'k nonbait dion bezala, atzo aiskide eta egun etsai giñalarik, atzo besarka, egun atzaparka, atzo musuka, egun muturka ibilli gera, zoritxarrez. Emendik aurrera anai gera-eta euskaldun guzien gogoak beti anai bitez, apa ta besarka bebiltz, aingerutxoak bezala, beti musuka beude. Gure erri oni, izenez eta izanez, Euskalerrri iraun-arazi nai ba-diogu euskaldunok jaungoiko eta gizonen aitzinean, orren duin egin bear gera.

Gizonen aurrean (aitzinean) orren duin izateko, guztiok euskararen alde, elkarren leyan, asmo eta txede berdiñez lan egin bear dugu jainkoaren aurrean ere orren duin

izateko, euskararen alde; orain arte, gure siñismen eta oitura garbien zaitzalle ona izan zitzaigun euskararen alde, eginen ditugun lan orietan geren gogoak gora jaso ditzagun:

Euskalerrria guziz, osoro Goiko-jaunaren erri egitea, gure asmorik lenen eta nagusi-ena bedi, eta elbarritua dugun euskara oni, beñola eban gelikoari bezala, Jaunak erran die: "JAIKI ADI ETA ABIL".

Eguzkitza'ren euskerazko lana benetan aintzagarria da eta arduratan arizekoa eta, tamalgarria, da, aren lanak batu, sailkatu eta Mezenas'baten batek ez argiratzea, tamalgarria olako gizon langille eta jakitun, onelako euskal idazle bat erdi aztuta, baztertuta eukitzea.

Noizbait, Esnatu, itzartu, akordatuko ete da egunen baten gure Bizkai'ko erria bere lan guztiak argitaratu eta euskaldun jator au omentzeko. Ez gaitezen bada loak artuta bizi!

## **GIZARTE AUZIA**

Ugazaba ta langille arteko gora-berak. Egillea Eguzkitza-tar Jon. Zornotza'n Jaun-goiko-Zale'ren irarkolan 1935 garren urtean.

199 orrialdetan osotutako liburu onetan baño lenago EKIN asteroko izparringian agertu ziran idaz-lan oneik. Sarrerako Oa a'n onela diño: "Ekin'en 46'gn. zenbakian auxe idatzi neban: "Gai au zeatz eta osoro azaltzeko asmuz enintzan asi. Asmu ore-gaz EKIN'en idazten beste bazkide bat asi zala ba-nekian. Zeaztasunak o entzat itxi-ta, gauzarik jakingafi ta bea enak lenbailen adierazo bear zirala neritxon: origaitik. Gure lugin, a antzale ta alogereko asko be gizariekeriaren sarietan jausteko a iskuan; bear bada, beste iñoiz baño a isku andiangoan egozala-ta, andi-andiak albait laste en azaltzeko asmuz eldu neutsan arlo oni. Gero gauzak aldatu egin dira ta, lengo asmuak be beste elburu batera zuzendu bear. Arlo au zeatz lantzeko asmuz EKIN'en idazten asi zan bazkide zintzo ta langille bizko a, gitxien uste genduanean, Jaungoikoak Beregana eroan dausku (G.B.), au dala-ta, esandakoak eta esan barik itxi dodazanak, pizkabat biribildu nai neukez".

A lo osoa sallean eroan ba'neu, orain atalok alka ekin e ezago josi al izango neban: ori egin enebalako, irakurle oek utsuneak sa itxu ta bi itan esandako gauzak be bein baño sa i-ago idoroko dozuz. Ori akatsa aunditxua zala-ta, Ekin'en agertu ziran lantxuok liburu baten —guztiak era batera— argitaratzeko nagi ta muker nengoan; baña bazkide batzuk zirika ibilli yataz, eta norbere eretxia itxirik, noizean bein iñonena egitea be bidezko gauza dalako, EKIN'en jauzika ageriu ziran atalok, al bes-tean alka ekin josi dodaz, irakurle oek eskuetan dozun liburutxu au egiteko.

Jaungoikoa lagun bekigu orain eta gero.

XXXV ataletan eratur dago aldi artako politika goraberak argi eta garbi azaltzen dauzkuzan lerro jakingarrietan Asiera dator: "Benetako sozialista ta katoliku zintzo, biak batera ¿iñor izan ete daike? Gizartekeri ta Baltsakeri ¿zeri deritxogu? ta azke-nengo gaia: "Gizartera bakea, ekanduen obakuntza ¿nai ta ezkoa ete da?

Eguzkitza'ren beste lan asko eta asko sakabanatuak of izango dira aren garaiko izpa ingi eta aldizkarietan, baña ori euskaltzale askoren arteko lana litzake.

**Muniategi'tar Sabin**



# EUSKERAZKO IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN

## BEDERATZIGA EN MENDEKO LAU LA UKI

Guazen irugarren larrukira. 863'garren urteko epaillaren 15'ekoa da. Izen-buru au darama: "De decanías et baccarizas et de hereditates de monasterio Sancti Felicis de Auka, et de VIII decanias Sancti Felicis".

"Baccarizas" "beitaldeak" dirala esaten ba'dizut ez duzu geiagoren bearrik izango izen-buru guzi ori errez ulertzeko.

Alatagutziz, jakin naiko duzu "decanias" aiek zer ziran. Ona bá: erdiaroko izkeran, lekaideen artean, "decania" maiztarren edo morroien bitartez landutako lekaidetxe baten lurrari esaten zitzaion. Askotan, —geienetan—, lurra ez ezé, lekaidetxearenak ziran maiztar edo kolonizatzaillak bizi ziran etxeak ere. Lantzen zuten lurraren jabe ez ziran nekazari aiei, "dekanoak", "decani" esaten zitzaien.

Eta, baita, lekaidetxean lur eta nekazari aien arduradun zan lekaideari berari ere "decanus" esan oi zitzaion.

Larruki ontan, Sebero izeneko abatak bere burua Felix santuaren araupean jartzzen duala, irakurtzen dugu eta Done onek Oka-Mendin zuan lekaidetxeko "atañer eskeintzen diela —bere burua— zituan ondasun guztiekin: "me trado ad regulam Sancti Felicis et ad ipsos atrios sanctos".

"Atrium", "ataria" da lateraz. Beren burua lekaidetxe bati eskeintzen diotenek maiz erabiltzen duten itza: "nere burua", "orrelako lekaidetxearen atari doneari eskeintzen diot" edo "atari doneei eskeintzen diet". Polito esana. Ataritik sartzen bait da, kristau aiek penitentzi-egiteko aukeratutako lekaidetxeetara.

Auetxek ditugu larruki zar onek damaizkigun toki-izenak:

AUKA	ASSUR	PLARANO
BESCA	BRIVESCA	IUNCARIA
EGIZUZA	FAIAGO	BUSTAR
GALAFAZA	OROVI	OVETO

AUKA—. "AU", ia beti, erdiaroan "O" adierazteko erabiltzen zala gogoratzen ba'dugu, izen ori egoki agoskatzeko gerturik aurkituko gera: OKA.

Mendi baten izena da, sorkaldetik sarkaldera gaur Burgos'ko pobintzia dan lurraldea igaroaz, Ibero ibaiera doazen urak Duero ibaiera doazenetatik bereizten dituan mendiaren izena. Zuk, irakurle bein baiño geiagoan igaro duzun "Brujula" esaten zaion atea, Oka-mendian dago. Ate orrek ain zuzen bi zati egiten ditu Oka-mendiak: Sortaldeko Oka eta Sarkaldekkoa.

OKA-MENDIAK ziran, erdiaroan Euskalerrriaren egoaldeko muga. Eta Euskalerrri izan ziran Gaztela'ko lenengo erregeak, F Fernando'k, mendi aien alboan dagoan Atapueka'n, 1054'ean, IV Garzia Naparroa'ko Erregea garaitu zuan arte. Borrokaldi artan il zan Garzia.

Malzurkeriz ibilli zan Errege Gaztelarra. Beti izan bait da maltzurkeria Gaztele-  
rriak, eta bere alaba dan Españi'k, Euskalerrria menderatzeko erabili oi duten jardun-  
kera.

Oka-Mendietan, gaurko Burgos uritik sortalderuntz 37 kilometrora, bazan AUKA izeneko erri bat ere, V mendea ezkerro gotzai-erri izana. Gaur Oka esaten diogun ibaiaren ertzeko muiño batean zegoan, oraingo Villafranca de los Montes de Oca'tik urbil. Bada oraindik muño artan "Santa Maria de Oca" deritzaion basaelizatxo bat.

Mauritarrek ezereztu zuten, 713'tik 717'ra bitarieran, Oka eta bere elizbarrutia. Eta "Diccionario de Historia Eclesiastica de España"k dionez, lur aiek Kristauek birribazi zituztenean birreratua izan ornen zan IX edo X mendean elizbarruti ura. Oker dabil, VIII mendean bertan inguru artako lekaidetxe-abata bik, "abbas et episcopus", esaten bait diote beren buruari.

1079'an ezabatu zan betirako Auka'ko Elizabarrutia, urte ortaz gero ango gozaiak Burgos'era aldatu bait ziran; ordurako, IV Garzia neparra garaituta beratzat artuak bait zituan lur aiek Gaztela'ko Errege maltzurak.

OKA euskal izena danik, zalantzan ipiñi ez daitekean gauza dugu. Euskalerrrian aski ugari zabaldurik dagoan izena bait da. OKA, Araba'n erreka baten, arrate baten eta lurralde baten izena da. Bada Bizkai'n, —bazan beintzat, Madoz'en Iztegiak dioskunez—, izen ortako dorre bat Gernika'ren alboan. Bada beste bat ere, nere uestez, Markina-alboan. Eta aurrizki bezala izen askotan aurkitu dezakegu: OKARIZ, adibidez; edo OKARIZKETA; OKARIETA; OKETA; ta "E", eufemiz, "O" biurtuta, OKOTA; OKON...

ASSUR—. Bi aldiz dagergu itz ori, eta bietan bi "SS"z idatzia. Eskierki, bi "SS" oiek gure "TS" adierazteko erabili zituan idazleak. ATSUR, da beraz, irakurri bearra. Toki izena baiño geiago, giza-izena dirudi, aurreneko aldian "in villa Domino Assur" eta bigarrenean "super villa de ASSUR", bait dio gure lumalari ark.

Izen orrek esan nai duana agertzeko..., ez naiz gauza. "UR" atzizkia, ezpairik gabe euskalduna du. "ATS" aurrizkia zer izan daitekean, ez dakit. Izen osoa, ATSUR, ¿ez ote da ATZUR, ots, "AITZUR"en aldaketa? Eta, orrela, "Domino" edo "Jaun" aren izengoitia? Batez ere bi "SS" oien bitartez lumalari zar arek gure "TX" eman nai ba'zuan. Orduan "ATXUR" izango bait zan euskaldun autrigoitar aren izengoitia. Ezaguna da bá karistiarrek eta autrigoiek, "TZ", "TX" biurtzeko duten joera. Jaun bati izengoitiz deitzea dokumentu batean ez zaigu egin bear arrigarri, geroagoko abizen asko, len izengoiti uts izanak bait dira.

Ez da oiturazkoa larruki zarretan, baiñan badaiteke bi "SS" aiek euskerazko "Z" txistukoia adierazteko erabiliak izatea ere. Ortaz Jaun aren izena, "AZUR", —bas-  
koein eta bardulitarren "EZUR"—, irtengo litzaiguke. Izengoitia beti ere. Orain, gal-  
dera bat zuri, irakurle. Ugaritasuna adierazteko, bi atzizki auetan zein ote dugu gure izkuntzan zaarrena "ATZ" "OTZ" edo "ATS" "OTS"? Edo-ta, berdiñak ez ote dira?

"Domino" idatzi dedan ezkerro, esan dezadan berriro, larruki ontan itz ori jenitibu-  
eran idatzi bearrean, —"Domini"—, ablatibu-eran idatzi zuala idazle zar arek. Orrela-  
ko ortografi-akatsak baditu geiago idatzi onek, naiz aipatutako ori, egiaz, akatsa izan  
ez, ordurako sarturik bait zegoan erdiaroko lateran, tituloak ablatibu-eran idazteko

oitura. Eta orrela igaro ziran lateratik etorritako itzik geienak euskerara: ablatibutik. Ain maiz-maiz erabili oi ditugun PAKE eta LEGE, adibidez.

IUNCARIA—. Itxuraz beintzat lateraturik, ots latín-itxura emanik, agertzen digu izen au gure lumalari zar arek. Zalantzarik gabe esango nuke nik euskal itza dala. Ona zergaitik: "JUN" edo "IUN" aurreizkiz asten diran izenak baditugu Euskalerrian. Ugari gaiñera: JUNDIZ, JUNGITU, Araba'n. JUNTxiturri, Bizkai'ko Arakaldo'n. Abizenak dira JUNTZA, JUUN eta JUNDARRENA.

Guk "ia" esaten diogu, gaztelarazko "junco"ri. Naparrek, "ie"; "iuntza" erderazko "juncal" izango litzake. Orrelako izen batetik lateratu ote ziguten IUNKARIA larriki onen idazleak edo geroagoko birridazleek?

Ez. Ez dezagun alare aztu, euskeran "O", oso errez biurtzen dala "U", eta, ortaz, toki-izen ura, IONKAR edo IONKARRI izan zitezela, lateraz IUNCARIA biurtua. Orrela balitz, "ION" ori zer dan jakitea izango litzauguke gaitza.

Zailla dala etimologigintza!!!

PLARANO. Ez dut itz onen aztarnarik gure iztegietan aurkitu. ARANO izeneko erri bat badugu Naparroa'n, eta ANO atzizkia nun-nai ikusi dezakegu gure Euskalerriarren zabalera guztian. Amaika iskanbil sortutako atzizkia! Beste egun batean sartuko diogu guk agiña.

FAIAGO—. Ez dakit zer etimologi izan dezakean, baiñan ez dezagun errez, ez-euskalduntzat euki. FAIARMINALDA, amaseigarren mendean Araba'n Argomaniz'ko alor bat zan. FAIDO, Araba'ko erriska bat da, Eta Araba'ko Payueta, FAYUETA, eta FAYOETA, agertzen da dokumentu zarretan. FAYO, Karrantzako auzo bat dugu. FAIAGO au, FAIAKO ote? FAIAGA, agian?

BESGA. Ibai-izena. "BES" aurrizkiz asitako izenak baditugu bat baiño geiago. (BESA'z asten diranak zenbatu gabe, "besa", beste aurreizki bat bait da: "beso"ren aldakuntza). Iku "BES"ez asitako euskal-izen batzuko:

BESPE, Ondarroa'n. BESKU, Barakaldo'n. BESKOEITXE, Erandio'n. Eta abizen bezala, BESGE ziran, be-erdiaroan, Naparroa'ko III Karlos'en laguntzaille biren abizenak, eta BESGA, XVIII mendeko pelotari izentsu batena. Orregaitik, "Enciclopedia Ilustrada del Pais Vasco" zuzen dabil, BESGA, "apellido vasco de difiaail etimologia" dala, dionean.

BRIVESCA—. Erromateko Plinio'k aipatzen duan erria. Eta autrigoia dala diosku. Euskalduna beraz. Antonino'k VIROVESCA eta VEROVESCA esaten dio; ta Ptolomeo'k VIRUESCA, VIRDUBESCA, BURUBESCA eta VURUESCA. Oartu zaitez irakurle. Erromate apaiñeko idazle jakintsu aiek euskal izen bat idazteko orrelako zailtasuna aurkitzen ba'zuten, eta orrealako istilluk erabiltzen ba'zituzten, erdiaro illuneko lumalari jakintza-gabeko aiek izen euskaldunak idazterakoan ain baldar ibilli zirala ikusteaz, bai al gñazke arritu?

EGIZUZA—. Euskalduna dala, esan bearrik ez da. Bureba'n zegoan. Oka-mendietatik urbil. Nun, zeatz, ez dakit. "Dekani" edo maiztar-errietako bat zan. Ez naiz etimologilari-ta, bere zentzua agertzen astera ez naiz ausartuko. "EGI", toponimi edo toki-izenetan, "malda" dugu, gazteleraz, "ladera" eta Euzkadi guztian arras zabaldurik daukagu. "ZU" eta "ZA", —"TZU" eta "TZA"—, toki-izen ortan ugaritasuna adierazten diguten bi atzizki ote dira? Ortaz, EGIZUZA "toki maldatsua" izango litzake.

GALAFATZA—. Seguruaski, GALAFATZA. "TZA" atzizkia zer dan, badakit; baiñan bere aurreko GALAFA ori zer izan daitekean, usmatu ere ez dut egiten. Ez du lateraren edo gazteleraren itxurarik ere. Orregaitik, gaizki idatzia egotea baleike, edo

lenengo lumalariak gaizki idatzi zualako, edo, errezagoa dana, gero aldaketa edo kopiak egitean, —ondorengo lumalari auek ez bait zuten eskierki euskerarik jakingo—, lumalari auetako batek itz ori gaizki irakurri, ezer ez ulertu, eta okerrago birridatzi zualako. Ez aantzi Kukulla'ko dokumentuetan, —eta baita beste guztietan ere, esango nuke nik—, okerkeri asko dagola sarturik.

Danadala, euskera besterik ez bait zan orduan an Bureba'n itzegiten, itz orrek euskalduna bear du. Galdurik gelditu zaigun itza, agian. Euskarak, bai noski, itz asko izango bait ditu galduak.

Gaiñera Larrukiak onela dio: "BUSTAR qui GALAFAZA est, cum suos terminos", "Galafaza dan Bustar bere lurraldeekin".

Utzi dezagun bá toki "galafatsu" edo "galapatsu" ori, lengo galdera bera egiñaz: Bi atzizki auetan zein ote zaarrena "ATZU" edo "ATSU"? Ez ote dira berdiñak? Euskalki batzuetakoa geiago ote bakoitza, besteetakoa baiño?

BUSTAR—. Euskalduna au ere. Eta dokumentu ontako beste tokiak bezala, Bureba'n zegoana. Nere ustez, "AR" atzizkia "ARRI" dugu. "BUS" eta "BUST" bat baiño geiago dira Euskalerra-zear, BUSTURI adibidez. Eta BUSTO, Naparroa'n.

OROVI—. Bai al da munduan OROBI euskalduna ez dala esan lezakeanik? Bureba zarrean, erdiaro garaeian, euskara bizirik zegoala erakusten digun izena!

"BI" atzizkia, aski edatua dakusgu gure arrian: BERROBI, ARRAIBI... Geiago berriz "ORO" aurrizkia: OROBIO Bizkai'ko Yurreta'n; "OROB"ekin senidetasun izugarria duan itza. OROZKO, OROZKETA, Bizkai'n. ORONOZ, OROZ, OROZ-BETELU, OROKIETA, Naparroa'n. Eta, Naparroa'n bertan ORO. Gesalaz-Aranean. Antxe dago, ain zuzen, ORO-GATZAGA: Salinas de ORO. Araba'n ORO Zuia-Aranean menditxo baten izena da, eta Amabirjin baten baselizaren egoitza.

ORO eta OKA, —baita OÑA ere— Euskera zarraren itzik zaarrenetakoak ditugu; euskeraren aurretiko izkuntzarenak bearbada. Topinimian badiraute oraindik, eta ez da erreza, ziurki zer esan' nai duten igartzea.

\* \* \*

11 dira larruki onek damizkigun done-izenak; jenitibu-eran ia guztiak.

Sncti Felicis	Sancti Iohannis	Sancti Michael
Sancta Maria (ablatibuz)	Sancte Crucis	Sancti Pelagi
Sancti Cipriani	Sancta Agata	Sancti Saturnini
Sancti Andres	Sancto Christoforo (ablatibuz)	

Done oietatik, bat zaigu era berezian jakingarri: Felis Donea. Gazteleraz, San Felices. Euzkalduna zan. Errioxarra. Gaur-eguneko Aro uriaren ingurukoa seguruaski, Aro'ren alboan dagoan BILIBIO mendian bizittu bait zan beintzat, bakartasunean otoitz eta garbai egiñaz, bostgarren mendearen barruan.

Bere antzera bakartasunean bizitutako Doneprudentzi'k bezala eraspen aundia jaso zuan antziña artako euskaldunen aldetik. Izan ere, gure larrukirik zaarrena aurkeztean ikusi aal izan genduanez, Armenti'ko Prudentzi Doneak aipu merezia ba'zuan VIII mendean, Felix Doneak, IX garrean, bai bait zuan OKA mendietan bere omenez eraikitako lekaidetxe bat.

Bizi ez ezé il ere BILIBIO mendian il zan Felis Donea, eta ango gaztelu zarreko otoiztegian izan zan obiratua. Antxe egon zan, 1090'garren urtean KUKULLA'ko Donemillian'en lekaidetxera eramana izan zan arte. Ez arrazoirik gabe aruntz eramana! Donefelis euskalduna Donemillian euskaldunaren maixu izan bait zan bakarbizitzan.

Aztertu dezagun, arinki, izen miresgarri ori: BILIBIO.

Mendi baten izena izateaz gaiñera, bada antziñako un baten eta, bereiziki, uri arta-ko gazteluaren izena ere.

Ain zuzen, Felis Donea mendi arian bizitutako V mendean bertan, emen ibilli zitzaigun Antonino erromatar idazleak aipatzen ditu uri eta gaztelu zar aiek bere "ITINERARIUM" izeneko liburuan. BILIBIO adierazi nai ornen zigun ba, idazle zar arek, LIBIO eta LIBIA idazten duanean.

Gero, "CASTRUM BILIBIUM" edo "CASTELLUM BILIBIUM" esan oi zitzaion gure uri-gaztelu ari.

BILIBIO uria mendiaren ipar-aldean zegoan, Ibero ibaiaren gain-gaiñean. Bere aurrean, TOLOÑO mendiaren egoan, BURADON izeneko uri-gaztelua zeukan. Bien artetik doa IBERO edo Ebro ibaia, eta orain bi mendi-mutur aiei, "Conchas de Haro" esan oi zale.

Garai artan, lurralde ura dana ARABA'koa zalarik, arabatarrek babestuak izan ziran bi gazteluak; sendo gaiñera babestuak; arabitarrek ez bait ziran beiñere arabatarrei gaztelu aietako bat kentzeko gauza izan.

BILIBIO'k zer esan nai duan, iñork ez daki. "BIL", aurreiziki euskalduna, aurrizki ezaguna da: BIL-BAO, BIL-BATUA, BIL-ARRUBI, BIL-ARRUZA, BIL-AÑA, edo BILA-ÑA, BILA-GOIEN, BILA-BA... Edozein iztegi, -Kerexeta'renak adibidez, emango dizkizu orrelako izen geiago. Zuberora'n bada BIL-AÑE bat.

Baiñan, atzizki bezala ere, maiz aurkituko duzu BIL euskal-itzetan: MENDIBIL, SASIBIL, GARAIGORDOBIL...

Bilibio'ren "BIO" atzizkia ere, "BIL" bezain ulerkaitza egiten zaigu. Toki-izen askotan agertzen da. Araba'ko BARANBIO'n adibidez. OROBIO, Araba'n. Larruki onek ematen digun OROVI'rekin aidetasun aundia duan izena. BOROPIO, Naparroa'n: BILIBIO'n agertzen zaigun atzizki bera: "BIO", eta "BIO'ren aldakuntza dira eskierki Naparroa'ko BOROPIA eta OROPIA ere.

Gure BILIBIO au era ontara ere zatitu genezake: BIL-IBI-O.

"IBI" itzak, ibai bat oiñez igaro daitekean tokia esan nai du. "O" atzizkia berriz, edo aunditasun-adi-erazle, ("superlativo" gaztelera) edo "leku-adierazle dugu ("locativo").

"O" aurreneko zentzuan artzen ba'dugu, BILIBIO, "Bil'ko ibai-oiñez-igaro-bide zabala", ("el gran vado de Bil") izango litzake. "O" ori bigarren zentzuan artzen ba'dugu berriz, "Bil'ko ibai-igaro-bidea dagoan tokia". ("el vado de Bil").

Beti ere, BIL gelditzen zaigu zer dan jakiteke.

Eta "BIO" ta "BIL" atzizkietaz ari geran ezkerro, zillegi bezaigu beren izenetan atzizki oietako bat daramaten INDIBIL eta MANDONIO gogoratzea: erromatarren aurka borrokan gogor aritu ziran ilergetak: euskaldunak! Euskalerrria bait zan orduan, gaurko Lerida'ren lurraldean aurkitzen zan Ilerget-Erria!

Dokumentu onek aski ugari damaizkigun Doneen izenek, ez digute ezer aundirik erakusten, kristautasunaren Euskalerrirunzko etorrerari-buruz; aipatu dugun Felis Donea ez gaiñeko beste Done guztiak Eliza osoko Doneak bait dira. Zerbait erakustekotan Euskalerrria, 863'garren urtean ez zegoala bisigoten kulturaz eta kristaukeraz ukitua, adieraziko ligukete; eta Done Saturnino doneen zerrendan aurkitzeari balio bereizirik eman nai ba'diogu, iparraldeko eraginmenak egoaldekoak baiño indar geiago izan zuala gure lurralde osoan aitortu bearko dugu. Dokumentu au autrigoiaren lurraldekoa bait da; Euskalerrriaren sarkalde-sarkaldekoa!!!

Miren Donea, "Sancta Maria", ere, gogoratzen du Didako Konteak dokumentu au eratzerakoan. Baiñan Andra Mari'z beste egun batean mintzatuko gera; naiz larruki au gure larrukirik zarrenetakoa izan, ez bait da bera Andra Mari aipatzen dutenetan zárrena.

Giza-izenak, ugari agertzen zaizkigu larruki ontan. Ikus:

SEBERO abata eta DIDAKO kontea, larrukia idatziaz zutenak ditugu: "Ego Severo aba". "Ego Didaco comite".

MONNIO, Oka-Mendi'n Donefelis'en lekaidetxeko abata.: "Trado corpus et animam mean in manus Monnionis abbatis": "Nere gorputz-animak Moño abataren eskuetan ipintzen ditut".

"NNI" "N" idazteko, erabiltzen zutela, eta "O" eta "U" euskaldunok maiz naasten ditugula, kontuan arizen ba'ditugu Monnio ura MUÑO zan izenez; euskalduna beraz.

"ASSUR": "...in villa Domino Assur": "Assur jaunaren bordan". Esan dugunez, Assur ori, "Azur" edo "Atxur" izan daiteke. Ortaz, euskalduna genduke Assur Jaun ura ere.

ADEFONSO. Asturietako III Albontsa. Asturitarrek Euskalerrriaren sarkaldean izan bide zuten aalmenaz badut astiroago mintzatzeko gogoia, beste egun batean.

GOMAZE, GOGENELLU, eta SARRAZINO. Iru testigu edo lekuko dira. "ELLU" eta "ELU" euskerazko izenetan sarri ikusi daidezkean atzizkiak diralako, Gogenellu ura, izenez, bazitekean euskalduna. Sarrazino berriz, orduango Euskalerrrian maiz agertzen zaigun izena dalarik, euskalduna da agian bera ere. Ez du beintzat gaztele-razko "sarraceno" edo "maometar"ekin zer ikusirik. "SAR" "SARRA", gure izkuntzaren aurrizkiak dira.

SANTXO: dokumentuari "egiztasuna eta benetasuna eman zion" gotzaiaren izena dugu: "Sancio episcopo sic testis et confirmans". Santxo, orduan, ez zan abizena, izena baizik, eta bete-betea euskalduna. "SANTXO", "ANTZIO" eta "ANTXO", izen bat bera dirala esateko, arrazoi sendorik aurki daitekeanik ez dut uste.

Nungo gotzaia zan Santxo au? Oka'koa iñolaz ere.

TAMARUM. Larrukia idatzi zuan bereterraren izena: "Tamaru presbiter scriptor et testis": "Tamaro bereterra idazle ta lekuko". Ez dirudi euskal-izena, ez daiteke, ezta-re, germaniarra edo latindarra danik esan.

Larrukietako giza-izenei-buruz, auxe adierazi nai nuke: Larruki zarretan euskal-izenak aurkitzea, garrantzi aundiko gauza dala; larruki aietan erdel-izenak aurkitzeak ordea, ez duala batere garrantzirik, erdel-izena eramateak ez bait du esan nai izen ori daramakiana euskalduna ez danik. Nik neronek, erdel-izena daramat: "Vincens", "Bixente", baiña nik ez dut erdel errietako odolaren tantorik ere zaiñetan.

Kosme eta Damian martiriak arabitarrek ziran. Baiña euskaldun batek eraman dezake izen oietako bat, izen oiek kristautasunak ekarri bait dizkigu Euskalerrira. Ez da ordea ain gauza erreza, arabitar batek bere seme bati euskal izen bat ipintzea, izen oiek ipintzeko ez bait dio ari erlijioa bezalako igikunde indartsu batek eragiten.

Ortaz, larruki zarretan agertzen diran euskal-izeneko gizakumeak euskaldunak dira. Guraso bisigota batek, ain gorroto zituan euskaldunen arteko izen bat bere umeari jarri izatea, ez bait da pentsatzeko gauza. Euskal-izenak, ez ziran gainera orduan santu-izenak, abere-izanak baizik maiz aski. Alderantziz, erromatarrengandiko, bisigotengandiko edo frakiarrengandiko izenak, santu izenak ziran ordurako. Orregaitik, errez ipintzen zizkieten guraso euskaldunek, beren umeei, Elizako Santuenak ziran izen oiek.

**Latiegi'tar Bixente**





## EUZKAL ADITZA

Euzkeraren ikaskuntzak gero ta sakonago egiten dan neu ian barna gure izkuntza onen aberastasuna nabariago agertzen da ikaste ori burutzen ari danarentzat, eta txunditurik geratzen da aren egitura ain egokiro egiña dala oartzen duenean. Jakiña, euzkeraren asiera noiz izan zan ikustea orain arte eziña izan dalarik, asiera ori, bai, aspaldi-aspaldikoa izan zala agerizen zaigu zalantzik gabe; ta bereala sortzen da guztiz bidezkoa dan galdera au: nola aintziña artan egin al-izan zan ain bikaña dan elizti-antolatze ori?; ba-dirudi gogo-lantze bete-betea izan zala ta berian edo burutu al-izan zala lan ede ori. Baña izan ote zan o elako gogo-lantzea?, nola ez da agertu orain arte aren aztarnik inun euzkera bera izan ezik?. Beraz, eziña edo da ortan argirik ikustea ez eta susmo-barano batetik ateratzea; ta auxe da baka -baka ik begiratzeko duguna, euzkera bera danez.

Eta ez da gutxi ortan ikus dezakeguna gure izkuntza ontan bizi sakon eta zabala dagoelarik. Lenengoz guztiz edef eta egokia bezela aurkezten zaigu bere osotasunean; ede a bere egitura ongienik burututa; egitura o ek, ots, bere eliztiak ez dauka inoren erabakiak ja itako arauak eta bidezko ta berezkoak dirala ikusten da argi. O a zergaitik ageri diteken gure euzkera izkuntza bidezko ta ongienik tajutua bezela, ta benetan a iga ia agertzen zaigu antolatze ori noiz, nun eta nola egin zala ezagutzeko gaurkotz eziña dalarik.

Utzi dezagun o engatik azpegi itun ori euzkeraren egiturari ez dagokiona, egitura ori, ots, izkuntzaren eliztiz nolakoa dan begiratzeko, gure aztertze ta ikastearen pean egon ditekena ikusteko. Edonork egin dezake ori e az eta geuk be noski; alik eta zeatzenez egin nai dugu ori euzkeraren ezagupena gure e ita en artean ongienik zabaltzeko asmoz.

Egokia bezela ikusten dugun lenengo bereizkuntza auxe da: Gure izkuntzan ezta ezagutzen elizti-kundea, beata ezpaita; noski, izakiak bitarikoak ditugu, zentzundunak eta zentzungabeak; auetan eztago kunderik, beraz bea ik ere ez o elako bereizterik egitea; ayengan bai, ta notiñentzat eta etxabere batzuentzat izen bereziak daukate afak eta emeak; abere guztientzat, noski, eziña da izen oyek izatea, ta orduan ba-dagoz —af eta —eme atzizkiak kunde bi oyentzat izendatzea egiteko. Baña gauzentzat ez dago bea ik bereizitasun ori egiteko, beraz ortarako izan diteken guzia guztiz aukerazkoa izango da beti.

Izen-jokoan agertzen da gure izkuntzan dagoen bereizitasun oso egokia, zentzundun izakientzat era bat erabiltzean eta beste bat zentzun gabekoentzat; o ela ortan dagoen ga antzia ederkienik adieraztean, gatantzi oso aundia baitago bereizitasun ori egitean. Onela esaten da, e.b., etxean zentzungabeko batentzat, eta zaldia-rengan edo zaldia-gan zentzunduna dan beste batentzat; eta zentzunduna dan notin batentzat ba-dago beste zentzun berezia e.b., ene baitan esaten da, ene barnean, ene gogoan adierazteko, ta onela goi-yakintzari dagokion zerbait agertzen da.

Ba-dagoz gure eliztian oso bereziak diran asmoak azaltzeko era oso egokiak. Alkar itzaren bidez alkartasuna adierazten da bereziki, e.b.; alka ikusten dugu esaten da, nik zu ta zuk ni ikusten dugula esateko; alka ekin egon gera, zu edo zuek nirekin edo gurekin ta alderantziz ni edo gu zurekin edo zuekin esateko ere; beti alka beste notin bat izango bailitzan.

Egitea ta izakaya notin bati buruz batera agertzen diranean, era berezi au dago asmoa adierazteko: Nire, zure, ... burua esaten da, onela, e.b.: nik nire burua begiratzten dut, ots, nik ni begiratzten dut; berak bere burua erail du, ots, berak berbera erail du.

Atzizki, erdizki ta aufizkien artean, ugari diralarik, asmo bereziak agertzen dira, bakoitzak berea duela noski; baña ba-dagoz bikote batzuk bien arteko lits oso nabariga iak ikus ditezkeela: len —an eta —gan aipatu ditugu, ta beste aukerak aipa ditzakegu orain: —men eta —pen, —tasun eta —keri, —era ta —kera, —ntzat eta —rako; oyen artean eta lenengoetan batik bat goi-yakintzaren galgan jafi ditezke asmoak.

Baña eliztiaren azpegi bedega ena aditzan agertzen da berezi-berezia, emen aztertu nai duguna. Lenengoz, aditz guzian barna arautasun osoa ikusten da, bere era ta aldi guztiak alka en ondoan egokiro azaltzen diralarik, eta beren osotasunean ongienik antolatuta dagoen egitura gelga ia adierazten da.

Aditz iragankofak era iragangaitzak agertzen zaizkigu guziak zearo ta egokiro banandurik eta era ta aldi guztiak bi onafitik sortzen dira guztiz bidezkoa dan jokera, tinkoerazko orainaldia ta lenaldia; agintzera bakafik bide ortatik at ari da bere izakera bereziagatik, ez ala ere zearo.

Aldi bakoitzaren erak egokienik egiñak agertzen dira, adi-yabeak, efoak eta betekizunak ongi nabariturik; bilduta batzuk eta zearka besteak. Era bilduak darabilzkiten aditzak gutxi dauzkagu orain eguneroko erabiltzean; len geyago erabiltzen ziran eta idazleen artean Olabide da geyen darabilzkiena, berak baño lenago inork erabili ez dituenak. Ofela ondo adierazten du asieran aditz guziak ()tela jokatu dezaketela; ta egokia edo izango litzake erabiltze ori gero ta geyago zabal dedifa.

Alakotz aditz-jokoa guztiz arauduna agertzen da bere osotasunean, nabari-erazi ditudan azpegi guztietan. Alaz ere jokera ori ez bide da egiazko euzkal-aditzarena, itano'koa deitzen dana baño, aspaldian erabiltzen edo zan bakafa. Onela uste dezakegu eskierki, ta auxe da ori ongi adierazten duena: Zu izenordeak eta berari degozkion erak askaf-zentzuna zuten bereziki; noizpait eta beste tokietan begirunezko izenordeak zerabilzkitelarik, oyen antzera jokatzera bea ezkoa bezela iruditu edo zitzayen gure aufekoai, ta ondorioaz zu izenordeari zentzun ori eman bide zioten eta orobat aditzetan barna berari zegozkion erai ere; ta itano-jokoak asko galdu zuen erabiltzean.

Itano aditz-jokoa zeatzez aztertu baño lenago azpegi berezi aukerak begiratzera befezkoa dala dirudi. Len esan dugunez, euzkal-aditzak bi talde aundietan edaturik ditugu. Baña, egitan, muetatze ori eztagokio ertsiki euzkerari, erderai baizik. Eta neufi batean gure aditzak o ela muetatua ikus baditzagu ezin aditz-joko guzia zedafi oyetan bakafik artuta ikustea.

Ofengatik, noski, egite batzuek euzkal-aditz-jokoa baka a dala diñote, ta beste izkuntzaen muetatzean sartzea ezina dala.

Esate baterako, "nor zera?" esatean, ortan dagoen asmoa, egitan, iragangaitza da, IZAN aditzaren asmoa dalarik.

Baña asmo ori bera adierazteko, beste era aukerak be erabil ditzakegu: "nor zaitut?", "nor zaitu?", "nor zaitugu?", "nor zaitue?", onela esango baikenuen: "nor zera niretzat?"; "... berarentzat?", "... guretzat?", "... berentzat?"; e.b., onela erantzuteko: "aita nauzu", "aita nau", "aita nauzute", "aita naute"; era aukerak be onela ulertu ditezkeela: "aita naiz zuretzat" edo "zurekiko", "aita naiz berarentzat" edo "berarekiko", "aita naiz zuentzat" edo "zuekiko", "aita naiz berentzat" edo "berekiko".

Ori dala-ta, iragankofak bezela ikasten diran era aukerak: dut, duzu, du, dugu, duzute, dute, "ukan" aditzaren zentzuna adieraztean, "izan" aditzaren era iragan-

gaitza dan DA'narena euki dezakete, zentzun auetaz: DA niretzat, ... zuretzat, ... berarentzat, ... guretzat, ... zuentzat, ... berentzat.

Argi ikus ditekenez, era bera batzuk, iragangaitz eta iraganko a diran zentzun bietan a ditzakegu. Baña, ori egia ta egokia izana en, zein ote da, egiz, euzkeraz duten zentzun zeatza? Ortxe nonbait untzea, ikusteko zafa dana.

Alan eta guzti, ta euzkal-aditzan dagoen egiazko zentzuna edozein izan, ustekoa da, ortan dagoen egi utsa, zeazki, argi ta garbi, asmo ori ta besteak ere, izkuntzalariek euzkal-olozpenez bururatuko dituztenean baka ik zeda ituko dala. Orain, eta geyenetan, erderaz oldozten dugularik, eta beste aldetik erderaz ere landutako adimenentzat aurkeztu bea ditugulako, nolabait adieraziko ditugu gure asmoak, egunorokoak eta ezagunak ditugun bururakizunen bitartez egiagana urbiltzeko aleginetan.

Alakotz, ITANO'koa deitzen dugun euzkal-aditz-jokoa obeto ulertzeko, euzkal-adizkin batzuek dituzten zentzun bietako asmoak, oña i bezela, gogoratu beaf ditugu beti.

Itanozko aditz-jokoa bi azpegi auetan ikusten da: bat, I biga en notiña adi-yabea edo izakaya bezela agertzen danean; bestea, lenengo ta iruga en notiñak adi-yabeak edo izakayak diranean, zentzun auetan biga en notiña agertzeke.

Nabariga ia dan euzkal-aditz-jokoaren azpegia, zentzun oroka ean, auxe dago aipatzeko: adizkin barnean, ez adi-yabea, ez izakaya, ez eta zea -betetzekoa ere adierazten eztituen notiña age eraztea da. Onela, Nauzu, Nau, nauzute, Naute eraetan, —zu, — —, —zute, ta —te notin atzizkiak, adi-yabeak bezela a ditezke, beren zentzuna egiarena lez onartzen bada; baña zer adierazten dute egiazkoa dugun beste zentzun onezaz: zuretzat (edo: zurekiko) naiz, berarentzat (edo: berarekiko) naiz, eta aba , artzen badira? Zentzun ontaz neuk notin-atzizki-mota oni "alkat betetzekoa" deituko nioke; ta oek alke-aditz-jokoari ere lits maitagafia ematen dio. Schuchardt'ek alkarbidezko erak deitu omen zizkien. (Ikus.: "Real Sociedad Bascongada de Amigos del País"-en "Boletin "-ean — II Urtea, 4'gn. Ingu aztian, 370'gn. ofialdean, Dr. Ernest Lewy jaunaren "Bosquejo de una sintaxis elemental del vascuence" lana).

Gure itanosko euzkal-aditz-jokoan, beste azpegi nabariga i ta oso berezia, auxe dugu: biga en notiñean, adi-yabea bezela edo au eko le oetan aipatzen dugun beste zentzunaz agertzen danean, notin o en kunda bereiztekoa da. Ta berezitasun au guztiz aipatzekoa dugu, euzkeraz elizti-kunderik eztagoela gogoratzen bada. A -kunda, adizkiñaren barnean, **K** izkiaz adierazten dugu, ta eme-kunda, **N** izkiaz. Esate baterako, onela esaten da:

Aita eto i dek (duk) = aita etoti da, edo zuri (iri) eto i zaizu (zaik), gizona.

Aita eto i den (dun) = aita eto i da, edo zuri (iri) eto i zaizu (zain), emakumea.

Esandako K ori, a -zentzunaz, batzuentzat kentzen da; ta o ela, esate baterako, Egin dikat = (iri buruz, gizona) egin dut, esan ordez, K ori gabe, onela esaten da: Egin diat. Asmoa bera (iri buruz, emakumea), Egin diñat diñogu, a ezko K'en ordez, emezko N jartzean; ontan, gañera, au eko 1 oek eraginda, N ori Ñ biurtu dalarik.

Itanozko asmoa Z— (ZE—) izki bateaz ere adierazten da era batzuetan, alke-aditz-jokoan erabiltzen dan D— aufeko izkiaren tokia artzen duelarik; ongi dakigunez, aditz-jokoaren lenengo erabidean, D— oek iruga en notin iragangaitzetan adi-yabea, ta iraganko guztietan izakaya adierazten dituela. Bizkayeraz, Z— o i l— edo —l— dagokio. Onela: Dago (alke'ri, zegokik edo zegokin (itano) dagozkio. Doa (alke'ri, zikoakik edo zikoakin (itano)dagozkio. Daramat (alke)'ri, zeramakiat edo zeramakiñat (itano) dagozkio.

Beraz, egitan, itanozko aditz-jokoa aieraztean, iru izki auek ditugu: **Z**— au, Bizkaya'n l— (notin eta aldi batzuetan), eta kunden bedega ak diran **K** ta **N**.

Batzuen batzuk uste dutenez, esakuntza menpekoetan ez dira aditz-jokoan erabiltzen beste itanozko erak bigafen notiñak, egitan, jokatzen duenetan baño. Ots, au izki edo atzizkia daramaten erak izan ezker —bayezko ba— ta ezezko ezi-izanezik— ta oyetan biga en notiña zuzen jokatzen eztuenean, eta agintzerazkoetan berdin, zutanozko erak erabiltzen dira.

Au ote da euzkeraz bidezkoa? Ez gera ausartzen bein-betiko erantzuna ematea, naiz eta, izkuntza batean erabiltzeak, batez ere, azkenez legea jartzen duela aitzutzen ezpazaigu ere. Alan eta guzti, auxe esan dezakegu ziñez: itanozko aditz-jokoan, biga en notiña, ez egile ez betekizuna bezela, agertzen eztan esakuntza menpekoen aditzeratan erabiltzen entzun dugu, ta idazle batzuek ere erabili ditzutela. **Ikus ditzagun batzuen batzuk:**

Olabide. "Idazteuna": "Ta lu osoak yakingo dik Israel'ek Yainko dikala" (I-Samuel, 17-46). "Oñordea au duk; il dezakagun" (Luka, 20-14). "Baña au nongoa dukan ba-zekikagu; Kristo'a zetorkanean, befiz, iñork ez zekikek nongoa dukanik" (Yon, 7-27).

Buztintza'ta E ose. "Ipuñak" "VII" "Otsoa ta azeria" (Jesus'en Biotzaren Deya) Bagila edo Garaga ila 1963, 19'gn. ofialdean): "... nire miñak ireak bestekoak ez dozkala esango neukek neuk be".

**Uztu e** (oraingo idazlea, niri egindako gutun batean), tolosata "Egubefiak gainean dizkiagu. Jaunak opa **dezaizkikela** guk nai guztiak".

"Herria" asterokoan, "**Jainkoa sotoetan**" (1961-II-16'gn. 550'gna., 2'gn. lefoan): "Lehenbiziko aldia diat, mutiko bat hola mintzo **zauiatala**".

**Joannatey. "Ehunbat Sainduen Bicitzea"** (Baionan, 1876) (317' gafen o ialdean): "Ichil hadi, haurra, eta beaun aitar ez **dezaunan** holakorik entzun".

**Joannes Leizarraga. "Testamentu Berria":** "eznecala hunqui; ecen oraiño eznaun igan neure "Aitagana"; baiña habil ene anayétara, eta erran ieen, ..." (S. Ioan, XX-17). "Non nani duc appain **diacagun** iatera Bazcoa?" (S. Mat. 26-17).

Azaldutako era guzti oyen artean, Leizarraga'ren azken ori, "diazagun", berezikiago begiratu bea dala uste dugu; menekoerazko era baita, menpekoa dan esakuntzan agertzen dana, bigafen notiña alka -betetzekoa bezela bakatik, ots, itanozko jokoaren era bedegatenaz agertzen dalarik.

Leizarraga'k, beste bi Berrion'tan, txatal berbera beste eraz azaltzen du: "Non nahi duc appain decagun?" (S. Luc. XXII-9), ta "Non nahi duc ioanik appain decagun ian deganrat Bazkoa?" (S. Marc. XIV-12). Argi ateman dezakegu azken bi Be ion oyetan erabiltzen duen "zu"-tanozko "dezagun" era ta lenengoan ematen duen "i"-tanozko "diazagun" beste eraren arieen agertzen dan ezberdintasuna. Ori dala-ta, uste dezakegu Leizarraga'k era ori bere yitez erabili zuela, ots, ororen mintzaeran egunerokoa bezela ezaguturik, eta o ela izanik, era bakata izango ez litzakela uste ere uste dezakegu, oren antzeko beste batzuk be berdin erabiliko lirakela, auek edo: "diacadan", "diacan", "diacaten", ...

Orixe dala-ta, "diazagun" era ortakoak Axular'ek be darabilzkiela ikusten dugu, baña idazle ofengan "i"-tanozko zentzuna iñoiz euki gabe, ta ofengatik esandako Leizarraga'ren "diazagun" era ori, egiz, itanozkoa ote dan zalantza izan ditek; baña ofela ezpada, "diazagun" eta "dezagun" erak zentzun berberakoak dirala ere onartu bea da (biak aipatutako Be ion'etan agertzen diranez), eta era oyek eta oyen antzeko beste batzuek ere, naiz bat naiz bestea, zentzun berbera adierazteko erabili edo ditek; ta oek bakan dala dirudi.

Beste alde batetik, "diazagun" erak, itzen eitez, "i"-tanozko zentzuna duela ikus ditekela uste dugu; bi era-talde auetan age erazi ditek ten tartidetasunaz azaltzen danez. Aldi baten, menekoerazko era iragankofak, beren eratzean, dagozkien tinkierazkoetatik sortzen dirala gogoratzean:

"su": "degu" (tinkiera) ... "dezagun" (menekoera)


"i": "diagu" (tinkiera) ... "diazagun" (menekoera)

Aipatutako eraetan eta batik bat Leizarraga'k erabifitakoen oña ia arturik, uste dezakegu itanozko erak, lenengoan, aldi guztietan eta esakuntza-mota guztietarako be erabili zirala.

Zer gertatu al-izan zan, itano aditz-jokoaren erabiltzea, gero, ainbeste jetxi zedin? Ezta e az izango zeazki ta eskie jakitea; baña ba-dago gure izkuntzaren bizian, arazoa begiratzean, argiren bat edo eman dizaigukena. Orok dakitenez "zu" izenordea ta berari dagozkion aditzerak, lendabizi, aska -zentsuna ukan zuten, gaur "zuei" dagozkienak; eta izkuntzaren eratortzean, "zu" ta bere aditzeraen zentsuna "bakaf" izateko une-aldi bat eldu zan, alke-margoa emateko edo (aurki, aldameneko erderaren "vos" edo "vous"-en zentsunaz age erazteko). Ordudanik, zalantzik gabe, "i" ta bere aditzerak, "zu" ta bereak bateratasunean aurkitu ziran, eta bidezkoa zanez, "zu" gero ta geyago "i" bazterten ari-izan zan, alde batetik begirunea azalerazteko erabiltzen zalako, ta bestetik, bere erak "i"-renak baño efazagoak ziralako, alkafbetetzekorik ez izatean. O ela, lenengo euzkal-idazleak, aldatze ori oso auferatuta zegoela aurkitu zuten, eta bearbada, naiz e aztasun aundiagoagatik naiz beste zioak zirala kari, "i"-ren erabiltzea uztea ta bere orde z "zu"-rena artzea nayago-izan zuten, naiz eta oarkabez izan bazan ere. Ta era berean, e ita en artean erabiltzen ziran "i"-ren erak, zabaltzen ari-izan zan "zu"-ren zentsunerako artu ere. "Kardaberraz - 4" aldizkarian azalpenak geyago ikus ditezke.

Au uztea baño besterik ezta, naiz eta geron ustez ongi oña itua; ta izkuntzaren erabiltzea izango da argi geyago edo emango duena; "erabiltzea" diñogunean, eztugu esan nai orain erabiltzen dana dala, euzkera itoten ari diran beste izkuntzaen egikeraz gero ta laburtuago dagoena; gure izkuntzak E i-aren bizi guzian bizi erabilita, irakaskintza guzian eta euzkal-gogo-lantzearen ekintza guztietan izan diteketa eta lortu bea duena baizik. O a oso bedega a ta berezia dan gure euzkal-aditzaren egitura.

**U estarazu'ta Andoni**



CASERIO EN IZURZA

# ERI-YAKINTZA

## ORIXE ABERTZALE

Gure egunotan **abertzale** agorik ago eta komunika bide guztietan dabillen itza da. Gure inguruko erdaldunen agotan geienetan aldakuntzatxo bat artzen dau: **abertzale** egiten deuskue, geienetan abertzale amorratuenak aitatu nai dabezenetan.

Abertzaletasuna gauza barritxoa dala esan geinke munduan. Erdal errietan **patriota** itzak ez dau beti gauza bera adierazo; sortu barritan itz orrek erriko semea besterik ez eban nai. Aspalditxorik asita, gaur badakigu zelango soiñua daukan eta zer ekarten deuskun gogora. Ezta norbera jaio daneko auzoa edo jaioterria maite dabena; politikazko eta agintaritzazko muga jakin eta zabalago batzuk dituen erribarrua gogoratzen dau. Bere burua **patriotatzat** daukanak olango erri edo aberri zabalago ori daroa bere gogo eta biotzean, eta **patriota** burubero eta amorratuenzat gurpil barria emoten deutsoe itz orri, patriotero, chauvinista edo antzekoren bat.

Euskeran, **abertzale** itza ezta erderazkoen mailla berekoa. Itzaren lenengo zatiak, **aberri** itzak, **zale** orrek erri muga zabalagoetara daroa abertzalearen gogoia, odol beraren eta izkuntza beraren jabe diranekin edo izan nai dabenekin erri alkartu bat sortzera.

Bere erriaren eta bere izkuntzaren alde diarduana, bere erriaren nortasuna zaintzeko ekintzetan sartzeko bere burua eskintzen dakiana, ori da abertzalea. Benetako abertzalea bere buruaganik asiko da lan egiten; bere bizian erakutsi bearke da badakiela bere erriko seme jator izaten. Batez bere, bere esku daukazan eta iñork zuzenbidez eragotzi ezin leikezan egitekoetan sartuta.

Abertzaletasuna kulturazko arazoa, lenengo ta bein. Eta erri baten nortasuna nabarmen eta agirien ipinten dauana, izkuntza (eta gure gure artean euskera) bada, benetako abertzaleak izkuntza au ikasi, landu eta erabilteko gai eginez erakutsi bearke dau bere abertzaletasuna. Beste politika guztien ganetik, gizarte eta ekonomi egoera guztien ganetik, or da beiñena. Ori barik eztago Euzkadirik ez Euskalerririk zutunik ipinterik.

Bere burua abertzaletzat saldu gura dauan euskaldunak, or dau Orixe euskal idazlea eredurik garbiena.

Abertzale jator agiri izan zan bere bizi guztian. Abertzale jator, jesuiten artean ikasle eta irakasle izan zaneko egunetan; abertzale gartsu gero, jasuiten lagunartea itxita, Bilbon Azkue andiaren ondoan, Euzkadi egunkarian eta aldizkari batzuetan euskal-lanari ekin eutsanean; abertzale aundi eta zindo, gero **Euskaldunak** poema andia idazten lan egin ebanean; abertzale adoretzu, 1936'ko gerratean, ain zakar eta gaizki erabilia izan zanean; eta abertzale iarraituko, erbestera iges egin bear-eta, mugaz andiko errietan eta Ameriketan egun latzak igaro bear izan zituenetan; Orixe ez eutsan ezelango politika alderdiri izenik emon, etzan bera arlo orretan lan egitekoa, euskal-kulturaren bitartez, Euskalerriri bere noriasunari eta izkuntzari laguntzekoa baiño. Eta orretan ez eban bere bizi guztian oporrik egin, ez atsedetik artu.

Jesuitako ikasurteetan ez eban bere euskalzaletasuna aitzu, bai ostera argiagotu eta garbiagotu. Euskera jator garbia eroian bere etxetik, eta ikasurteetan ikasiak bere erri-euskera sakonago ikasi eta ezagutzeko balioko deutso. Orretarako ez eban maisurik bear, eta laster erakutsiko dau bere maisutza. Comillas'en ango ikasle ziran abadegei euskaldunen artean eta beste jesuite-etxe batzuetan lan ederra egin eban, ikasleen artean euskaltzaletasuna sortzen, argitzen eta bultzatzen. Gomuta ederra eta azi ona erein eban euren buruetan. Nemesio Etxaniz eta Martin Oiarzabal abadeak, Eta Andima Ibiñagabekiak Orixeren ikutua eta eragiña erakutsiko eban laster.

Jesuitak 1917n euskerazko aldizkari bat, **Jesus-en Biotzaren Deya** asi ziran ateraten. Lenengo urte orretatik asi eta 1922-ate, sarri dator an Nikola Ormaetxearen izena, idazleen artean. Gipuzkeraz eta Bizkaieraz idazten dau bai bertsoz eta bai itz-lauz.

Baina Orixeren euskal-lana ezta mugatzen Jesuiten etxe eta aldizkarien barruan. RIEV aldizkarian be agertuko dau euskal-gaizko lanik; euskal kulturazko gaietan izena artzen dau eta Euskaltzaindia sortu danean Naparroatik (Xabierreko jesuite-etxean zala) Euskaltzain urgazle izentau eban, eta 1921, Euskaltzaindiak lenen euskal-egunak Durango-n sortu zituanean, an da Nikola Ormaetxea itzaldi bi egiten, euskal-bertsogintzara aize barriak dakazela.

1923: urte onetan jazo jako Jesusen Lagundia itxi bearra. Orixek orduan artu dau bere bizilekua eta emen jardungo dau Azkue euskaltzainburuaren ondoan, bere urgazle-lana egiten (erriz erri Euskaltzaindiariaren Eruzkizundiari erantzunak jasotzen eta abar). Ordukoa dau euskal-literaturaren lenengo edestia euskeraz idatzia) eta Bilbon jarraitzeko **Euzkadi** egunkarian erderaz eta euskeraz euskal-gaiak aztertu eta argitzen.

Bilboko egunetan idatziak Orixe'ren abertzale alderdia argitzeko euskerazko liburu bi: **Santa Kruz Apaiza** eta **Mireyo**, Mistral'en poema andia euskeraz. **Santa Kruz Apaiza** eztau idatzi apaiz ospetsu orren jokabidea ontzat emon, txalotu eta goratzeko. Euskaldun askok ondo gogoan euken gizona zalako abade ori, orregaitik artu dau aren bizitza idatzeko nekea, euskera errez jatorrean idatziz, euskaldun asko euskerazko liburuak irakurten zaletzearen, eta bide batez, abade orren irudia apur bat garbituz, Euskalerrriaren arazoak euskaldunen gogoan bizirik gordeten laguntzearen. Ori izan zan Orixe'ren asmoa, aberri lana egitea. Liburu ori bere aitari eskiñiaz erabili zituen berbak argi dagoz: "Jainkoa ta Euskalerrria zenduzen buru-biotzetan, armak artzean; nik ere bai ustez, lumari eragitean". Eta azkenen orrialdetan euskaldunaren eta Euskalerrriaren arteko itz-aspertuan, ona euskaldunaren azken itza: Jainkoa eta Euskera nai ditut zuretzat, ama Euskalerrria; gaiñerakoa Jainkoaren kontu. Bera baita errien jabe eta jaun".

Mistral'en **Mireyo** euskeratzekoan, barriz, berak ondo gogoan daroan maitasun bati emon deutso urtenbidea: Euskalerrria lango erri txikiak dauksen maitasunean Euskerari eta gure erriari Mistral'en antzeko kantari bat opa dauksola antz-eremoten deutsogu.

Bai: Mistral-ek bere erriko izkuntzari egiñiko opari ederrak kezka bizia sortu eban Orixe-ren gogoan: Ai gure euskerak olako poema bat baleu!

Baina, ez, ain zuzen, Mistral-en poemaren antz-antzekoa. **Mireyo** poemari berari iñausketa batzuk egin eutsazan Orixek. Mistral-ek orduko erromantik tankeran oben egiñez poeta orretan sartu zituen geiegikeri eta apainkeri batzuk soildu eta kendu egin eutsozan euskerara itzultzaileak. Olango apainkeri bako poema bat opa deutso euskerari.

Eta ona **Euskaldunak** poema, Orixek bere abertzaletasun jator eta garbienaren ezaugarri idatzia. Gure poema idazlea ezta joan gai billa, ez Aitor zalakoaren ipuñetara, ez Orreagako gudaketara, ez euskaldunen beste benetako ez guzurrezko erraldoikerietara. Euskaldun nekazari, artzai eta arrantzaleen bizitzara jo dau; euskalduna bere lur-lanetan, artzain-lanetan eta illeten inguruan. Erri baten eguneroko

arnasea arnas eta senti-erazo nai izan deusku. Orretarako eskatu dau asiera-asieran Jainkoaren laguntza:

Zatozkida, Goi-Arnas,  
eizu nerekin lan,  
erri baten arnasa  
mamitu dezadan.  
Geroak esan beza:  
erri bat izan zan,  
edo-ta atzemaiozun  
onetan iraun dezan.

Poema 1936-ko urtea baiño lenago gelditu zan amaiturik. Aita Mokoroak, Ibar ezinez, bere txosten ederra eskiñi euskun **Genio y Lengua** liburuan. Txosten onekin, aurkespen orrekin gelditu giñan, amabost urte inguru, 1950n poema osoa argitaratu zan arte.

Artean, 1936-n, Euskalerraren eta Orixe beraren nekaldia dator, Orixe-ren aber-tzaletasunean nekaldi gogorra. Nekaldi au ondo baltz eta gorri iruditaratu euskun gero berak **Kiton Arrebarekin** liburuan. Inpernu gorria bera etorri zan Euskalerraren gañera, inpernua bera bai, bere bost odei inpernu ekarleekin: gezur-zuri, gezur-baltz, gorroto, izenik bako odeia, eta biraoa, dana **gurutze -gudaren** izenean. Gurutzada argia, olango inpernuko lagunekin sortu zana! Inpernutiko ekatx onek Iruñen San Kristobal gazteluko ekarri deutso Orixe-ri, lenengo; eta gero, urte batez, bereen artean ostenduta bizi bearra, arerio amorratuaren menpean egotetik urtetea lortuko dauan arte. Nekaldi onetan agertu zan argien Orixe-ren abertzaletasuna. Orduan agiri dau zelango politikaren alde dagoan gure euskaltzale sutsua. **Kiton arrebarekin** liburu orretan **gureak** aitatzen dira sarri: **gu, gureak** eta...besteak. Eta nortzuk eta zeintzuk dira gureak? Jakiña: euren agintea Euskalerrari indarrez ezarri gura deutesen aurrean burua makurtzen ez eutsenak, euskera eta Euskalerrari bizirik irauten lagundu gura eutsen abertzaleak. Besteak, labur esateko, euskaldunai gerriari baiño gorroto andiago eutsen indarkerizaleak.

Inpernuko egoera negargarri atatik urtetea lortua dauanean, mugaz andik eta erbestean bizi bear izan dauan artean, bere barruan barru eroango dau Euskalerraren ganera jausi zan inpernuko ekatx arek emoten eutsan ezin etsizko eta barru-barruko miña, eta kementsu agertuko da, beti gaizki esale ez-jakiñen aurka **gureen** jokabidea eta izen ona garbitu bear dituean, eta zorrotz erabiliko dau bere lumea, Jaunkillaren, Matxin Murrien, au da, Francoren aldekoak zabaltzen ebezan guzurrak salatzen. Bere arreba mojatxoaz Kiton izeneko autuetan garbi eta zeatz uztu dau gai onetan bere barrua. Liburu orretan agertzen Orixe goitik berako abertzale betea. Abertzaleen politika alderdiari izenik emon bakoa ba zan be, eta euren artean babesik billatu ez eban arren be, abertzalerik abertzaleena ezta izan orixe baiño abertzaleago barruko zintzotasunaren eta osotasunaren aldetik.

Ez daiogun eskatu Orixe olerkariari aberriaren zorigatxai illeta errez eta negar utsezkorik jotea, beste olerkari batzuk egin izan daben lez; ez eta euskerari eta Euskalerrari lora utsezko edo aize utsezko eskeintzarik egitea; barruagokoa eta sakanagoa da Orixe-ren aberri miña. Ez eskatu berari goizetik gabera, lenbailen, **Zazpiak bat** edo Euskalerr oso bateratu bat, osoan euskaldundu bat eta eztakít zein koloretakoa egin bearrez ames zororik egitea, euren burua euskalduntzeko gauza eztiran batzuk egin nai daben lez. Orixe-ren abertzaletasuna ez zan buru-beroaren ez buru ariñaren amesik. Aberriaren arazoak, lurreko frutuak lez, epea bear dabe euren garara eltzeko.

Orixe-ren abertzaletasunak oiñarri sendo bi ditu: Jainkoaren legea eta euskera. Ori dau Euskalerriak beiñen. Euskera barik eztago EuskalerriTik, eta euskereari eustea benetako abertzale danaren eskuetan dago. Eta Jainkoa diñoanak gizon eta erri guztien ganetik, guztien kontu-artzaille dan Norbait diño, Jainkoa diñoenak gizon



eta erri guztien arteko anaitasuna eta bardintasuna, gizon eta erri guztien nortasuna aintzat artzea diño, Jainkoa aitzuten edo albo batera isten dauanak edozeiñen indarkeriaren mende isten dau gizonen eta errien, eta batez be, erri txikien geroa.

Orixen abertzalearentzat Euskalerrriaren geroa Jainkoaren eskuetan dago. "Bera baita errien jabe eta jaun". Orregaitik be Orixen abertzaletasuna ezta itxaropenik bakoa. Berak, bere nekaldiko eta erbestealdiko egunetan, egun senti obe baten argi zirrintak ikusi zituen, euskerarentzat Euskalerrrian askatasuntxo lortu zanean, ordu obeak ikusi ziranean. Eta orduan Euskalerrira itzuli zan Jainkoaren billa, bere erria Jainkoagana joateko erreztasun andiagoaren billa, eta bere azkenengo indarrak euskeraren alde ipinteko. Tamalez, etzan gaurko giro obe eta zabalagoa ikustera eldu. Baiña itxaropena ukatu barik joan jakun.

Eta itxaropena da abertzale on batek bear dauan indarrak bearrezkoena eta suzpergarriena. Itxaropenik ezak, eperik ezak indarkerietarako eta beste ameskerietarako jokabideari zabaltzen deutso atea. Eta indarrezko jokabidea kaltegarri izan zan euskaldunentzat Santa Kruz apaizaren egunetan. Eta gure egunetan kaltegarri eta euskal-indarren euren banatzaille eta indargetzaille biurtzen jaku. Garbiagoa, gizalegezkoagoa, kristauago eta osasungarriagoa zan Orixen'eren aberizaleatasuna.

L. Akesolo



ki7knIariak» a;zaiburuko apaingarria «Euskaidunak» Iiburuan



# "ORIXE"REN BERTSOKERAK

Iñor naas eztediñ' asieran onako au esatea obe izango da. Euskeraz **bertso** esaten degunean' gaztelanizko **estrofa**, portugesezko **estrofe**, prantzesezko **strophe** ta italianoazko **strofa** itzek adierazten duena berbera adierazten degu. Euskeraz **zortzikoa** zortzi lerroz egindako bertsoa dala esaten degunean' gaztelaniz **octava** = **estrofa de ocho versos** esaten danean adierazten duena berbera adierazten degu. Ori letraz eta zenbakiz onela adieraziko degu: lerro bakoitzean zenbat izki edo silaba diran zenbakiz adieraziko degu, eta puntua duanean **p** letra erantsiz. Orrela **zortziko aundia** deritzana 10 - 8p - 10 - 8p - 10 - 8p - 10 - 8p itxuraz agertuko degu. Gaztelaniz **octava real** deritzana berriz' beste itxura onen bidez: 11 p - 11q - 11 p - 11q - 11 p - 11q - 11r - 11r; p, q, r puntuetako muturreri dagozkie. Adibidez' Espronceda'ren olako bertso bat jarriko degu:

¿Por qué volveis a la memoria mía  
tristes recuerdos del placer perdido,  
a aumentar la ansiedad y la agonía  
de este desierto corazón herido?  
¡Ay!, que de aquellas horas de alegría  
le quedó al corazón solo un gemido,  
y el llanto que al dolor los ojos niegan  
¡lágrimas son de hiel que el alma anegan!

**Octava italiana** deritzanak onako itxura artuko du, Zorrilla'ren octavilla ontan: 8 - 8p-8p-7q-8-8r-8r-7q

Hay un templo sostenido  
en cien góticos pilares,  
y cruces en los altares  
y una santa religión;  
y hay un pueblo prosternado  
que eleva a Dios su plegaria  
a la llama solitaria  
de la fé del corazón.

Onek egiñez' arako Xenpelarr'ek Iparragirre'ri egindako bertsoak onako itxuraz agertuko genituke: 10 - 8p - 10 - 8p - 7p - 7p - 8q - 10 - 8q

Iparragirre abilla dala  
askori diyot aditzen;  
eskola ona eta musika,  
ori oyetaz serbitzen.

Ni enazu ibiltzen  
kantuz diruba biltzen  
komeriyante moduban:  
debalde pesta preparatzen det  
gogua dedan orduban.

Irakurlea orain gure jokabidearen jakitun da, eta Orixe'ren bertso-idazkiak azter-  
tzen asi gindezke.

EUSKALDUNAK

**Pestaburu** Zortziko ttikiak: 37 bertso, baiña lau lerrotan idatzirik; zortziko aundi-  
diak: 3 bertso; lauko ttikiak, bi lerrotan: 4 bertso.

**Artazuriketa** 8 - 6p - 8 - 6p - 8 - 6p - 7 - 6p itxurako 100 bertso; zortziko aundi bat  
lau lerrotan; lauko artaiñak 8 - 7p - 8 - 7p: 25 bertso.

Gaztaiñaro zortziko aundiak: 10 - 8p - 10 - 8p - 10 - 8p - 10 - 8p, 25 bertso.

Iruleak zortziko ttikiak: 7 - 6p - 7 - 6p - 7 - 6p - 7 - 6p: 69 bertso zortziko aundiak:  
13 bertso.

Olentzaro zortziko ttikiak: 145 bertso.

**Iñauteri** lau puntuko seiko aundiak 8p - 8p - 10 - 8p - 10 - 8p: 132 bertso iru pun-  
tuko lauko ttikiak 6p - 6p - 7 - 6p: 9 bertso (batzu gaizki neurtuak).

Denok bat zortziko aundiak: 78 bertso.

Axurtaro zortziko aundiak: 102 bertso.

**Letari** amarreko ttikiak 7 - 6p - 7 - 6p - 7 - 6p - 7 - 6p - 7 - 6p: 41 beriso (bost lerro-  
tan); zortziko aundiak: 71 bertso; lau puntuko seiko aundiak: 8p - 8p - 10 - 8p - 10 -  
8p: 4 bertso.

Artajorra zortziko ttikiak: 72 bertso, lau lerrotan idatziak.

Belarrekoan zortziko aundiak: 125 bertso.

Eultzia zortziko aundiak: 118 bertso; zortziko ttikiak (lau lerrotan): 7 bertso.

Eztaietan zortziko ttikiak (lau lerrotan): 100 bertso; lauko aundiak: 10 bertso. iru  
puntuko lauko aundiak 8p - 8p - 10 - 8p: 21 bertso; lauko aundiak 10 - 8p - 10 - 8p:  
amar bertso.

Eztaiondo zortxiko aundiak: 100 bertso.

Amonaren illetak zortziko aundiak: 86 bertso.

BARNE-MUINETAN

A Jainkoaren begiera

I 8 - 4 - 8p - 8 - 4 - 8p: 7 bertso.

II 5 + 5 lerroak

III zortziko ttikiak: 9 bertso.

Benedicite lux et ...Domino

I zortziko aundiak: 8 bertso

II bost puntuko zortziko aundia bertso bat; zazpi puntuko amabiko aundia: bertso  
bat; lau bikote aundikoa: bertso bat; lauko aundiak: 4 bertso; bikote aundi bat;  
amar puntu (lau muturreko) amalauko aundia; seiko aundi bat.

III zortziko ttikiak (zortzi lerrotan): 4 bertso.

**Benedicite ...et tenebrae Domino**

I zortziko ttikiak (zortzi lerrotan): 5 bertso.

II seiko aundiak: 8 beriso.

III zortziko aundiak: 6 bertso.

Benedicamus Patrem

I zortziko ttikiak: 7 bertso.

et Filium... zortziko ttikiak: 8 bertso.

cum Sancto Spiritu zortziko ttikiak: 6 bertso.

Luureko Irutasunari

I zortziko ttikiak: 11 bertso.

II zortziko ttikiak: 6 bertso

III zortziko ttikiak: 9 bertso.

### **Jainkoagan bat**

I 6 + 6 lerroak, iruko naiz lauko itxuran, ia beti puntudunak.

II eta III 6 + 6 lerroak bi, iru, lau, sei alkarturik, geienetan puntudunak.

**A. Zatarain**



«Aizkolariak»  
atzaiburuko  
apaingarria  
(S. Etxeberria)



# "ORIXE"REN KARTA BAT

## (Jakakortajarena'ri idatzia)

Bilbo'tik, 1930'ga engo Garaga ilaren 22'ga enean.  
Adiskide Txomin:

Igandez a apatu nazu, ta zurekin naiz. Txaku aren eriotzaz "ezer gutxi esan zidan", diozu. Bai neri gogoak eman zurekin gogor-antzean jokatu nintzala! Nonbait ez nizun ongi aditzera eman, esan nai nizun guzia. **Oraingo**z uzteko esan nizun gai oiek, geixego ikasi arte: ez **erabat** uzteko. **Gero** dionak **bego** dio, esan oi da; baño nik ez dizut ori esan nai; ba liteke bada lirica'n ere zuk asko balio izatea ta. **Oraingo**z, "poesía objektiva" edo epica-antzekoan saia zaitte, sasoa dezun artean; gai ori utzita bestetara joko ba zendu, gogaitu edo egingo zifñuzkea bertso e itar oiek. Eta sasolak ere ez baitu irauten gaztetan bezela. Konpeshiotxo bat egin bear dizut oraindik apaiz ez ba zera ere: ni ere klase ortan asi nintzan gaxte nintzala, baño goizegi utzi nion. Ja aitu izan ba nu, onozkero ba nun pifa ede a "Itzai zekena"ren antzekoak, eta obeak ere. Orain sasoa gaiduxea daukat ortarako. Zori oneko **lirica** orlan ere ba dezakedala esan didea, ta or saiatu bearko det alper-tartexoren bat a apatzen ba det.

Bai, bai, gai e ita etan ere sentimentalak egin ditezke, ta "Txaku aren eriotza" bear ain bat ez nizun aupatu. Nere espa guzia, bidea erakustea zan eta ez nintzan kokatu. Beta ba neuke, guzien azterpen edo analisis zearoa bialduko nizuke, baño ez dakit nola ler egiten ez dedan. Or udatzenezan alper-egun batzuk a apatzen ba ditut, eta zurekin Uli alde orlan bildu, or egingo degu deskantsura. (Gaur iruga en karta det).

Ez dezake edozein base ita ek egin "Atsoentzako" ori, ez. Orlan izan nun nik ere oke a. Enbeitaren bertsoak paperean ezer gutxi balio dute: oztu egiten dira gogotik. Olako bertsoak egiteko (Atsoentzat bezelakoak) base itar ernea bear du. Gu bezelako ez-ikasien artean; gure e i au bezain landu-gabeen ezetsi egingo dira bertso oiek; baño ez e i landuentzat.

Berastegi'k nere ustez **Belrazetegi** edo **berartegi** adierazten du; belar ta **berar** ere ba da.

Mugikak ez dit bialdu oraindio Euskal-esnalea'ko mintzaldirik. Ark bialdu orduko or dituzu.

Nik bialtzen nizula esan nizuna (ta arkitzen ez ta bialdu ez), "Itzai zekena" zan. Kaxkafa afen, ori ere bialdu nun E enteri'ra taldea egiteagatik.


U ena arte  
**Ormaetxea**

# ITZAI ZEKENA

Idi gofi makal bat  
daukat ukufuan,  
itxedon du urtebetez  
naikoa yan-edan.  
Lan geiegiz ukegin  
zian ikazketan.  
Ontza bi ote ditu  
balio okeletan?

II

Zurkeriz, ale gutxiz  
nai nukean oitu;  
lana berdin kentzeaz  
ez nun izan kontu.  
Gaur aldapan geldi ta  
biar loitan sartu,  
ezten-zulotik ezin  
inda ik txertatu.



III

Goizean uzta ia  
ikusit-orduko,  
buruari eragin,  
itzaiari muko.  
Lagunaren kupiraz  
ez al dut lotuko;  
bestela biga enak  
egiñen dit uko.



IV


Ukutu ederga i  
ez gose ta (y) ez min,  
erleju ona dugu  
mafuka eguerdin.  
Aztalari dardarka  
sumatzen du noizpin  
egueldi txar-zantzua  
naiz egon zeru-urdin.

Eze iga ak yan ta  
 gizentzari uka,  
 nagusiak arekin  
 ixtilu daduka.  
 Birikenak yo du ta  
 asi da eztulka,  
 idi go i bakar  
 laster daite buka.

Itzen da, ta aragirik  
 auzoan ezin sal;  
 artaletan gordea  
 idi-buruan gal.  
 Abarkak egiteko  
 la ua gauz aal?  
 Aiekin i ixt eta  
 itzaia anka-xabal.

Bilbao'n 1930'ga engo Maiatzean.

Clase ontan saia zaite. Guk ez diogu eske ik ematen olako gauzari, baño euskal-bizieraren bei ez dakitenak estimatzen dute. "Lauaxeta"-ri asko gustatzen zaio. Berak ez ornen luke egingo, ezpaitakí gauz oien be í.



FZAyo Z .



# "ORIXE" TA OLERKIGINTZA

Bein idatzi neban: "Orixe oro jakitun dozu". Eta esan nai neban edozein gairi gurpil emoteko ez ebalatu oztoporik, jakitatez eta euskal gramatikaz aundi genduala. Guzurtzat jo euskun au beste batek. Ni gaur be len-esanari nago.

Irakur egizuz aren lan osoak. Ez eban egi-egiaz izar, bizi, giza-izti ta olako gai bazuetaz ezer erabili; alan be, idatzi eban bai teologi, filosofi, mistika, elerii, gramatika, antze, Jainko-bizitza ta olako zerez, ugari ta ondo. Beti garbi ta sotil, euskera eder jagian; bai, izanez ta eskolaz osotoro jantzia zan.

Amazazpi urrez, artzain eta nekazari, Huizi-n bizi izanik, egunean-eguneango lan bitarteko izketaz, urte orreitan ia konturatu barik, euskal lexikon bikaiñaren jabe egin zan. Gero, Jesu Lagundiko ikasle ta irakasle zalarik, bizitza osoan irakurriz ta idatziz sakondu ta eder-azo eban. Aren idatziak lekuko ta ziñaldari trebe jakintsua genduan "Orixe".

Maisu bizkorrak eta zentzundunak izan zituan Jesuiten artean, Loiolan, Burgos'ko "La Merced" ikastetxean eta Oña'n Filosofia ta Teologia egiten. Ainbat urte ikasi ta ikasi, askotariko lanak, eleiz-gizonen karrerak eskatzen ditunak. Eta ikasketa orreine ostean, maisutsa egin eban Comillas, Carrion de los Condes, Tudela ta Jabier'en, 1915'tik 1920'ra bitartean; ikasi ta irakatsi etenik gabe. Ez eban gertakuntza makala izan idazle gorenengo izateko.

Jesusen Lagundia laga ta gero, Bilbo'n egoala ("Santa Cruz Apaiza", "Tormes'ko Itsu-mutilla" ta "Mireio"), Oresa'n ("Barne-muinetan" eta "Euskaldunak"), Frantzian egiñiko egotaldian ("Urte guziko Meza-bezperak" eta abar), Ameriketatik ebillela askotxo idatzi eban J. Zaitegi'ren "Euzko-Gogoa"-n, prosaz eta olerkiz; andik Euskalerrirata, Lazkao'n ("Agustin deunaren Aitorkizunak"), au da, euskal idazle saillean nekatzeka lan egin euskun.

Itz-lauzko idaztea eder jakolarik be, poesia zan bere berezko barru-deia, izatez ekarrena: "Humanidades" gaiak astindu ta ikasteen, errotik sakondu zitun ikaskideakaz batera, orduko ikas-liburuetan asimasi ta sail bereziak. Olako gizaseme jantzia ta beronek damoskun argia ez dira errez illunpean euki oi, eta jesulagun azkarraren jakite-ospea be laster zabal-azo zan euskaltzaleen artean. Beraz, laster genduan onein arteko gure Orixe.

Entzun R. M. Azkue jaunak diñoskuna: "Bizkaikoak aurea arturik, Euskalerriko lau aldundiak Oñatiko uri paketsuan, orain iru urte, Batzar aundi aztuezin bat osparazi zuten". An sortu zan gero Eusko Ikaskuntza ta ortik Euskaltzaindia. Eta bion on gogoa zan Batzar batzuk ospatzea. Euskaltzaindiak **Euskal-Egunak** antolatzea erabagi eban, eta lenengo Durango'n, Astarloaren sorturian ospaturik, 1921'an.

Eta emen dozu Orixe, Azkue, Eguzkitza, Elortza, G. Manterola, Lacombe, Arantza-di, J. M. Barandiaran eta Belaustegi'tar Perderika'ren artean izlari. Gai bi azaldu eban: 1) "Eusko Olerkitzaz" eta 2) "Eusko Olerki-neurrizaz". Itzaldi oneitatik atera geinkenez, kultura zabalekoa agertzen jaku Orixe, literatura arloan atan be. Gerkar eta latindar kultura artu eban, arein izkera ta euskera alderatuz ez eban pentsaketa



gitxi irauli, griegori begira batez be: antz aundia aurkitzen eban aren eta euskeraren artean.

Gogaketa orreik adierazoz onela idazten dau: "Gure izkerak antzerik bai al du bada? Gure erriak eresietarako gai diran itzak eta izenak egin al ditu?— Ikus. Bada-kizue, izkeraren arintasuna ta xalotasuna iñon ageri baldin bada, **izen-ondoetan** ageri dela. Grezian **epitheton** esaten zutena hik **izen-ondo** esaten dut; ala baita izanez ere, izanaren ondoan jarria. Onetan ez dute ezagutzen askok greziera bezelakorik, Homeroren izkuntza bezelakorik. Orain izkera berrietan ez duzu beiñipein olakorik. Eta euskera? — Bera bada greziaren baño ere geiago. Iliadan edo Odisean daudenak euskeraldu ditezke nekerikabe, ta euskera dirudite. Homerok etzituen iñolaz ere bere burutik atera itz oriek, bai erritik artu" (**Lenengo Euskal-Egunetako Itzaldiak**, 35 of.). "Ankoker", "besamotz", "oin-arin", "buru-zuri" ta onako izen-ondokoekaz diardu emen. Olerkigintzarako, izan be, egokia dozu au.

Bigarren itzaldia "Eusko Olerkitzaz" eratu eban, euskal neurkerari ondo samarretik ikutuz. Egundaiñoko ergelkeria esan ei eban euskaldun barrilari batek. Zer gero? Gure izkuntza ez dala gai oraingo asmaketarako. Igidun ibilliz erakusten dala-ta, "ibilli gaitez —diño— bada ta jakiñen dute dakigun ez dakigun". Eta ainbaten kanpoko ta etxeokan esanak dakaz erri erantzuna emoteko. Aiaz eta Uliseren arteko burruka sailla jarten dau euskeraz, au gaiñeratuz: "Emen Ayazen edo uliseren orde z Otxoa edo Andia edo olako izenak jarriko bagiñuze, nork esanen luke au gutartean gertatu ez dela? Edozeñek ikus dezake, itsurik ezpadago beintzat, gure izkera antze-izkera dela; orain berriz esan nai nuke gure izaera ere bere bizikoa dela antze-gaietarako.

Guk izan ditugu burrukak, geuk naiezta sartuak izanik be, azken gizaldi oneitan batez be. Orixe'k onan: "Gu ez gara odolzale, ez guduzale, bai pakezale, baño aspaldiko gertakariak ez al giñuzke eresiko? Karlomanoren guda-mutillek ixuritako odola, oztu zan aspaldi, aien ezurrek austu dire, ta gure idurimena ezin izutu lukete geriatu aiek. Umeak ere ez du entzun nai erri-irian lapurrak dabiltzanik, baño aspaldi aspaldiko lapur-ipuien bat yalkitzen ba diote, ez da ainbeste ikaratuko. Aztu egin zai-gu, ta gogora ekarri bear zen izandu giñen eta zer garan" (**Ibidem**, 39 of.).

Ipuin-zale zan Grezia, eta ango idazle jatorrak, ipuin naiz luze naiz laburrak, gertakizun, eleberri ta epopei biurtu ebazan. Or Iliada, Odise ta Pindaro'ren jolas-odak, Gurean, ortarako urri ta eskax ez garealarik be, poema luze samar bikaiñak bai, baiña epopeirik ez dogu oindiño biribildu.

Azkenez, gure neurtizkerak aztertu ditu Orixe'k. Neurtitzak bere igiera dau. Eta gure olerkariari egokiena dirudiena, auxe da, irunako igikera, baita launakoa bosnakoaz naste be; baiña bakarrean, "irunakoa aterata —diño— besterik ezin dut errez irakurri" (49 of.). Zortzikoa, euskeraz asko erabillia, ez da aren belarrietarako. "Artu dezagun zortziko bat —idazten dau—: "Gernikako arbola —da bedeinkatua — euskaldunen artean— gustiz maitatua". Lendabiziko neurtitza ere nik ezin mingatu dut zazpi zatitan gelditzen delarik".

Eta bere eritxiari oiñarri sendoa jarri nairik, zaldiaren laugaiña gogoratzen dausku, Horazio'ren "Maecenas atavis edite regibus" asten dan lenengo oda ta Adema'ren "Azken afana".

Gaietarako be ba-diño zeintzuk igikera diran egoki. "Irunako igikera garai-eresirako egokia dan bezala, ala da launakoa negar-eresirako. Launako utsa berdiñegia da, miinbakarra; baña bosnakoaz naste, ez dirudi ain motela; entzun itzazue arren, Lapurdiko eresi eder baten ahapaldi au; bosteko ta lauко dira lenengo ta irugarren-gu neurtitza, bigarrena ta laugarrena, launakoak:

Gizona, non duk zuurtzia?  
Zer? Ez dakik  
Ez dela deusera bizia,  
Kea baizik?

Ez jakon bape atsegin Arrese-Beitia'ren zortziko nagusia. Ori gaitik edo, Lauaxeta'k bi edo iru ditu neurkera ortan egiñak.

Estrofa! ta itzen bardin amaitzeari buruz be Orixe'k ba-dau bere uste ta aburu berezia. Alan be berak azkenaldirarte rimaz idatzi eban geienetan. Ez ditu eder aha-paldiak. "Alan ere —diño— noizpait elegoke gaizki norberak ikus dezakenez, eta kantatzeko beti aizu diteke... Gaiari ta gogoetari dagokionez neurri bear ditugu itzak, eta ez estutu, ez moteldu. Badakizute zer gertatzen dan yoale edo txintxarri bat atzaparrez estutzean; min motela aterako du; orixe gertatzen zaie bada euskal neurtitz askori; bear ez bezala estutzen dute euskera, ta gure izkuntzak galtzen du bere mintzoa. Utzi bada, yarei babil. Berekio soñua beza, gorabera ori ez ausi, ez ebaki, ez ito. Igikera bakarra, launakoaz edo, estuegi ba da, erabilli naste, ta leunago ta euskerago diteke" (Ibidem. 53 of.).

Azken amaitze bardiña be, erderazko **rima**, ez eban maite. "Bear al dugu? —itan-duten dau—. Beste izkuntza batzutan ere ez dute askok uste itzen atzenkide edo guenkide ori edergarri denik: gu gaizki oiturik gaude, ta ez dugu erraz osotara kenku oitura ori, baño ederrik asko baluke gure mintzoak ori gabe ere; askotan bada estutu egiten du orrek ere: itzen joskera gañezberatu ta nasi".

Orixe'k, orraitioño, estrofa ederrik eundu euskun poema sutsuetan, eta azken oskide-tza darabil. Barriz esanda be, poesi asko ta egoki egiñak itxi euskuzan. "Euskaldunak" dogu aren lan nagusia, batzuk ez jakifnez aurki au ta bestea otsegin arren, or J. Zaitegi'k esana: "Eztaietan dut euskera; or duzu lekuko "Euskaldunak"; badugu gure poema nagusia. Areago oraindik: non-naiko ta noiz-naiko poema bikaiñenak bezin bikaiña" (**Omenaldia**, 255 of.).

Jakizu egillearen asmoa be bere poema osotzean. "Au izan dut —dautor— len asmo: nik moldatu dudana poema au, erriak modatua litzan gisan egitea; nik egin ditudan bertsu ok, erriak egin zezazken gisan egitea, orran ez dezu gertakizun ontan maratil askorik billatu bear, ez naspil aundirik bereizi bear, nunbait nobela tzarrare-tan bezala. Ezta eriotzarik eta beste gauza lazgarririk dramaetan bezala. Erri bat bere oiko lanbidetan, jolasetan, ipuietan, sukaldean, bizian, eriotzean agertu nai nizuke, gauzak eskuarki edo komunzki gerta oi diranez... Nere lan oni kera berri bat ematen saiatu naiz; ez Homer'ena bezain lasaia, ez Horati'rena bezain tinkoa, bien tartekoa baiño. Gauza eder aunitz esan, labur esan, arin eta laister eman, ustez beintzat. Erri-kera asmatu dudala nago alde batera, baina bestera, batez ere poema au bere izkuntzara biur ba ledi, norbaitek esan lezake, erri-tajuz ez dauden gauzak ere an emen ba ditula. Ez ordea niri ala iruditzen, gure euskera bizkor onek, ondoko erderak baino erri-erriari gauza izkutugoak eta geiago adierazi baitezakio, nik uste" (Itzaurrea, 7-9 of.).

Egoki etorkionean, gertu ta prest geunkan beti euskal olerkiaz zerbait adierazteko. 1963'an "Musika Ixilla" argitaratu eban Aita Gaztelu'k euskeraz gaztel olerkari biren lanak: Ruosselot'ek esan ebanez Frai Luis Leon dogu "Eguzkipeko lirikurik aundiena", ta M. Pelayo'k: "Donibane Gurutz'en eresiak lekuko, ez da gaztel lirikurik ari alderatzen jakonik". Oneik biok euskeraz emon dauskuz Gaztelu'k.

Orixe'k egin euton sarrerea, ta lenengo lerroetan diño: "Beraz, Gaztelu'k bi aundienetara io du; euskeraz poliki jantzi ditu bi aundien orien olerkirik onenak. Ez ote du ioko laister goiena izkuntzak? Guk baiñon obeki itzuliko dituztenak etorri ditezke-la dirudit, erabat gaintzea neke ba'da ere. Gutxi al lizeke gure ele ederrarentzat, bes-terenak olan ematea, geronetik aiek lako olerkaririk atera ez ba'ledi ere?" (12 of.).


Ezta errez aurkituko utsik bako izkuntzarik. Gureak be ba-ditu batzuk Kampion'ek eta beste batzuk oar-azoak. "Uts bat au —diñosku Orixe'k— aundi samarra gureak, aundiena ia esateko; itz luzeekikoa, errezago egin oi dugu itz-alkarketa; baiñan aditz ele-biko orrek estutzen digu izkera olerkirako. Besteak itz bakarrean emaiten duzten itzak, guk bitan eman bearra daukagu. Uts edo oker au zuzentzen dugu batzutan itz-ixiltzearekin bidez. Leen-leenagoko izkuntza zarretan egin oi zutena guk ere egin oi dugu, ta ederki datorkigu. Gaiñera, orain berri xamar, asi zaiguz gure olerkariak

iokaitz-ele-bakarrak emaiten. Ederki dago ongi egiten asmatu ezker; baizik ere, itz berri oriek guriña kentzen diotela olerkiari. Ele-xiltzeak ere, ba-du xorapide" (14 of.).

Orixe'k, puntu oneitatik agiri jakunez, benetako ardurea euki eban gaztetatik gure izkuntza besteekaz alderatu ta sakon ikasten. Aurrera jorik euskerearren muin-jator-tasuna nun datzan esaten dausku. "Urrena-idazten dau-mintzaeran dago gure eus-kerearen aitor ona, batez ere sudur-izki esaten zaienetan. Urrenago, itz-urrenean (joskeran) datza gure izkeraren indarra. Oraingo izkuntzenen aldean, indar aundia emaiten dio adierazpideari".

Eritxi oneitakoa dogu Orixe, gramatikari sakona ta euskal idazle zeatz eta giarra.

**Afta Onaindia**



T20131K.A MUNCtA

## «Salmutegia» «Orixe»

### ITZAURREA

Orixe'ren Salmotegiarentzako Itz-aurrea eskatu didate.

Salmoak *ez* dira Orixe'renak, Dabid'enak baizik. Orixe'rena, Dabid'en lanaren euskerazko itzulpena da.

İñor *ez*, ordea, gure Orixe baño egokiagorik, Dabid'en Saimoak enskerara itzultzeko.

Oierkaria zan Dabid ; olerkaria gure Orixe ere. Artzai izana zan Dabid; artzai izana Orixe ere. Al-da geiagoren bearrik, biok ondo alkar-artuko zutela jakiteko?

Ez dakit, ipuia dan, aia egia, Santo Tomas eta San Buenaventura'rentzat esan oi-dana. Alakoren batean, juan omen-zitzaiola, alegia, Tomas domingotarra Buenaventura frantziskotarrari ikuste bat egitera ; eta, Konbentuko atean diosal-eginda, Fr. Tomas'ek Fr. Buenaventuraren galde egin zuanean, Aita Frantzisko il-berriaren bizitza idazten buru-belarri ari zala, erantzun zioten. Utzaiogun —esan omen-zuan Fr. Tomas'ek— utzaiogun pakean seme serafindarrari, Aita serafindarraren bizitza idazten". Aita serafindar Frantzisko'k nunbait etzetzakean izan, seme serafindarra baño bizitz-idazle egokiagorik.

*Mutuas mutandis*, nik ere gauza bera diot gure Orixe'rentzat : gure egunetan ezin arkitu zitezkean Salmoen itzultzalle egokiago ta jatorragorik, Orixe baño.

Salinoak, ezer bada-ta, olerkariro itzuliak bear dute izan. Olerkariro. Saimoak berak dauden neurri berean. Dabid, olerkari bortitza zan. Aren lana ere, berdin.

Hebertarren olerkiak ba'du bere ritmo. Ritmo au, pentsamentuetan, ideietai, dagola esan oi-da : pentsamentuen paralelismoan, ez itzen neurrian; eta, beragatik, Salmoen itzultzalleak aski duala pentsamentuen paralelismoa ondo ematea, Salmoen olerki-kutsua guri osorik emateko; *eta* ori, olerkari ez dan batek ere egin dezakeala, prosista on batek ere egin dezakeala ondotxo...

Ez det nik uste, ori egi-egia danik.

Hebertarren olerkiak, poesiak, paralelismoaz gañera ba'du beste "zer" bat ere, zer ezkutu bat, poesiari dagokiona, poesiaren muin-mu-

ñetan dagona : izketaren "gore" berezia batik-bat, izkuntzaren goitar-izate bat. Eta poesiaren muin ori ondo ukitzeko, prosistarik onena ere ez bait-da aski; ez du ori bere arlo. Olerkariaren gauzak itzultzeko, nor-berak olerkari bear du izan, bere barrunbean olerki= `oyartzun" gozoa senti-sen ti duana...

Beste zer bat ere bai : itzen ritmoa. Ez bait-da Salmoetan izketaren gorea eta ideien, pentsamentuen ritmoa bakarrik; Salmoak ba'-zuten hebertarrentzat, beste itzezko, fonetikazko ritmo ezkutu bat ere; guretzat ezkutua dana ; azentuetatikan sortzen zan gauza ezkutu bat. Eta azentu ori, iñork baño obeto —izkuntza bakoitzari dagokion eran— olerkari batek eman dezake. Gai ontan, olerkari ez danak, itzulpen-erdi egingo liguke.

"Izkuntza bakoitzari dagokion eran" diot : izkuntza bakoitzaren gaitasunak erabilliaz, alegia. Eta ortarako, guri dagokigunez, Euskeraren gaitasunak —euskal-olerki-gaitasunak— ondo ezagutu bear. Gai ontan berriz, —euskal-poetikaren gaitasunak jakiten ta ezagutzen, alegia— nor Orixe añakorik gure artean? nor, gaitasun oiek beren iturburuan astiroago xurgatu zituanik?... Iturburuan... artzantzan... mendi-mendian... Uitzi'n... Eta astiro, emezortzi urte arte.

Amar-amaika urtetan —oraindik erriaren jakintzan ondo "jantzi" gabe— irten izan gera gu geren etxeetatik, "estudietan" joan izan geranik geienok. Zortzi urteren bentaja atera izan zigun guri Orixe'k gal ortan. Emezortzi urtetan utzi zuan berak Uitzi'ko artzantza, Xabier'era "estudietan" joateko. (Beste ainbeste izango zituan Dabid artzaiak ere, Goliat aundia menderatu zuanean). Denborarik asko izan zuan gure Oreatarrak, emezortzi urte aiek arte, Uitzi'ko errixka ezkutuan, artzai ta ikazkin-arte, besteak beste, euskal-olerki erriko jatorraren muin gozoa xurgatzeko —beretzakotzeko— gero bere "Euskaldunak" Poema aundia-ta gure ber-ixurtzeko neurri errikoi-errikoi baten ontzi bikañean.

Orduko xurgamen aiek —bere artarako gaitasun aundiaz gañera— prestatu bide-zuten gure Uitzi'ko artzai olerkaria, baita Dabid'en Salmoen ixuri gozoa ere euskal-ontzirik ederrenean euskaldunon eskuetaratzeko.


Itz bat.geiago oraindik.

Salmoen itzulpen au, ez dala Orixe' ren "gaztearoko Jan". Zaaturik egin zuala. Olerkari elduaren lana da, beraz. Zentzu oneko lan. Ontan ere, bera bere lanaren neurriko.

Ez nua geiago luzatzera.

Emen diodan au, ala dan, ala ez, "geroak esan beza" esango det nik ere, gure "Euskaldunak"-en egille jatorraren beraren itzak aotan artuaz. Geroak esan beza; edo-ta esan beza irakurleak; edo-ta obeto, esan bezate, Elizan Jaunari ao-betez salmo-kantari jardun bear duten kristau euskaldunak.

Andoain'en, 196E'gn. Otsail]ean.



# ORIXE'REN IRISPIDE BATZUK

*(Nikolas Ormaetxea "Orixe" eta Zatarain aita- seme artean ainbat karta eta agerbi- de euki zituen, batez ere gure azken guda ondorenez Betharran'en bata eta besteak Pau 'en bizi ziranean.*

*Orreitariko batzuk agertzen ditugu, batez ere Orixe'ren pentsabide eta maisutza ezagutuaz, Euskalerrriak bere eungarren urtean eskintzen deardun omenaldian, erri euskera jatorraren maitale zanari, bere eskolan jarraitu nai degunon esker eta kidea- sun zintzoa agertzeko.)*

(ORIXE'K ZATARAIN AITARI, Betharran'dik, 2-VI-44'n).

## BERTSO KONTUAK

Aspaldiko urteetan goi ontan uko egiñik nintzan, euskerari zegokion bertsurik asmatzen ez nulako. Ortaz, neri gai au aipatzea uko egin dun idiari uzta ia erakustea da. Ala ere Zatarain'dar gaztearen lan polit ori neri ere zuzendua baitator, itz bi esa- tea bearturik gertatzen naiz.

(Lenbizi artan emana nion erantzun au Leizaola jaunari, zuri emateko, bañan aztu egin omen zitzaion. Atzo itzuli zidan beste cua rilla zuri oiekin).

**Neu i, ta neu i, Euskerarentzat nolako?** Aspaldiko e iena ala oraingoena, geron neu irik asmatzen ez duguño? Ta ez dezakegu asmatu ere, bea ik ez!, gure prosodia len-aldiko egoeran baitago (en estado primitivo). Griegoaren silabak ez ziran aufen-be i artan ez luzeago ez labu ago. Izkuntza kaxkartu-ala, endakatu-ala agertu ziran. Gaitz ortaz edo premi ortaz baliatuki (haciendo de la necesidad vi ruda) zorioneko bertso ori asmatu zuten musikaren, batez ere dantzaren babesean. Ez ordea irakurtzeko!!! Euskeraz astakeria da bertsoa irakurtzea, euskeraren berekiko doñua galdu gabe ez baititeke jalki. Ar dezagun ahapaldi edo estrofarik jato ena, (bai Zatarain'ek dakafen Senpelar'ena ere, itzik bere lekutik aldatu gabe). Lotutxo gel- ditzen da, koskatu egiten da, urgundu egiten da batetik; eta bestetik euskerak dun gorabera-mintzo lasaia (la amplitud melódica) zufundu egiten da, beti batera eror- tzen da, doñu zelaitura dator (al tono recto). Kantatzekoan or konpon. Nik ere orta- rako egin ditut, bertsoen etsai agertua en. Irakurtzeko etsai, alegia. "Bertsuak irakur- tzean —dio Zatarain'ek— dantzaren kutsu arin bat bederen erantsi bear diogula, beraz ez dirala itz lauzko idazkiak bezela irakufi bear". Erdaldunak oso bestera egi- ten du.

Irakurle on batek, noizpeinkako oztopo aundi ori, inda ezko azentu ori, auldu ta lagundu egiten du bertsoan, doñu lasaiagoa ar dezan: izketa a untera jotzen du, betiko garbi soñu ortatik aldegeteko. A las ár/mas valién/tes astú/res // empuñád/las con nué/vo vigór.

Iru silabaz, bein mutu ez erori bear ori, noren bela iak jasan dezakete ongi eziak eta aziak ba dira? Irakurle on oek mintzo-etena edo **cesura** bilatzen du batez ere kanta-kutsu edo dantza-kutsuari eusteko. Bañan ala ere nork ez dakus, alkar-izketa batean bertsoan baño doñua lasaiago, ugariago, mila aldiz aberatsago dala? Bertsoz bertso dan aldetik **irakurtzeko** exkasa iduri zait (musika arauz); itsusia, ezin-jasanekoa, euskeraz beintzat: beti-batekoa = **monótono**.

Nire ustez, bertsoan bea enik mintzo-etena edo **cesura** da. Amaika saio egiña naiz gaztetan gure izketaren goraberari nengokiola, heberta en paralelismo antzera euskerarentzat bertsoaren bat asma ote nezan. Alper alpe ik. Doñu-biurgune lera naiz antzekoa arkitzerik ez nun erdietsi ondoko bi berisotan ere, ainbeste bertso egiñik ere. Mintzo-etenez gañera beste zerbait bear genukela nengoan —iñola ere ez puntuketa itsusi soil— irakurtzeko beintzat. Gaur, guzia alde batera utzita, itz-etenari baka ari nagokio, batez ere irakurtzeko moda gaiztoa gutartean sar ba ledi. Zuzen dabilenari noizpeinka e en egiñaraztea gaizki iduritzen zait. Bertso biz batean puntua ematea, nai ta eten egin dezan. Ahapaldi batek bi puntu ta lau bertso aski ditu silaba berdiñeko edo berdintsukoak. Nik belaña bertsolarien kantarekin oker ezia nedukan aten, oso politak arkitu nitun klasikoen bertsoak puntu gabe ere. Bein griegozko **Jesusen Biotzaren Deia'n** Victor Hugo'ren poesi bat ikusi nun griegora biurtua, puntu ta guzi, oraingo e ien modara. Egia esan, naigabea eman zidan. Nere belatiak bezelakoak arkitu ditut oker azi ta egonik ere zuzen eziak. Euskale ian bertso iraku ia sartu nai duten oiek zertako ez dira saiatzen eskoletan eta eskoletarako, Akademiatarako, —ez e irako— aspaldiko e ien bertsoa sartzen? Efia ere ematen zaionera oitzen da. Eliz-kantarik edefenak puntu gabe ta bertso gabe dira. Eliz himnorik ede ena noiz urbilduko da ede ean ainbeste Introito, tracto, Antiphonaren edertasunera, naiz musikaz naiz itzez?

Beti silaba berdiña orde berdintsua aukeratu bear genukela nago etenetik etenera. Arau ontako bertsoak ba ditugu bana-banaka:

Kartak iru	kartak lau	7
jokuak one	-tara nau	8
edota jokuak ontara	eka i nau.	10
Amairu diru	ukan eta	9
ezin galdu	amalau	7
poltsan dudan	diruarekin	9
ez diat afal	-duko gaur.	8
Bi urtez iduki dut	astoa saltzeko	13-eko
edota Bi urtez idukitu dut	astoa saltzeko	14
Txomin eto i zait aurten	erosten asteko	14-ko E otako
Bereala konpondu giñan	biga en itzeko	14-eko kalaka!
Beta gabe nedukan	la ua kentzeko	13-eko.

Au zortziko txikia da ez zazpi ta seikotan bereizi-bea a, erdian ez bai luke etenik eta ez bailitzake bertsoa; amairuna **silabakotan** baizik, baño Corchea-bidez luzatu diteke amabostekoraño ere:

Txominek eka i dio andreari astoa	15
ez daki egin dion gaurkoan gustoa	13
probarik eman gabeko ganadu gaiztoa	14
lan puskak egiteko ez dakar gaiztoa.	13

Erdaldunak Erdi-Mendean olerki ematen zuten ahapaldi au:

En nombre de Dios Padre que fizo toda cosa  
e de don Jesucristo Fijo de la gloriosa

e del Espiritu Santo que equal de ellos posa  
de Santa Oria Virgen quiero fer una prosa.

Seiko bertsoa ta zazpikoa bakarka artuta, norik ezagutu bertso diranik?

Emengo euskaldunak ere obeki idazten ditut e biak leo batean erdian etenarekin. Silaba berdiñak beti artu ezkerreko beti amairunakoak gertatzen dira, erdal-kutsu gutxiagorekin. Baña ritmoa ondo artu ezkerreko, etenak berdiñarazten ditu amairukoarekin amalauko ta amabosteko.

Zortziko aundia baño ariñago gelditzen da iraku rtzeko, ez baitu bost silaba-ere etenik: ua bai, bi le otan eman diteke, bost-bost- irutan zatitzen baita. Baña euskeraz iraku rtzeko astunagorik eta itsusiagorik neke da billatzen, lotura asko baititu. Españolez bertsoz edefena azenturik gutxiena duna da, naikoak izan ezkerreko, ez baitu lotzen melodia; ofek u untzen baitu geienik tono recto tik.

Astoaren ahapaldi oren antzera beste bat moldatu det era ontara:

					8	Ritmo ofekin berofekin emezortzi silabako
II	—uu				9	bertsoa salatzen ari naiz hexametron baño
III	--	—uu			9	labu agoa <b>punturik</b> gabe. Ez dator gaizki.
IV	—uu		—uu		10	Auen au enetik nere belatiak ontzat artu
V	--	—uu	—uu		10	dute. Besterenak ere laister oituko dirala
VI	—uu		—uu	—uu	11	nago.
VII	--	—uu	—uu	—uu	11	
VIII	—uu	—uu	—uu	—uu	12	

Zortzi bertso oetatik edozein aukera aldioro, al bait bizikoak (diferenteak) azkeneko bertsoak silaba bat gutxiago ez dula. Klasikoan **asklepiadeo** deritzon bertsoetik atera det. O ela koplak ontzen ezezago da, ta itzik bere lekutik aldatu gabe egin diteke.

O a labur nere iritzia. Bañan ez zirikatatu, aren, idi zar au, ezpaitauka uzta irako gri

## ORMAETXEA

Beste "sorginkerietaz" erantzutea  
Leizaola jaunari dagokio.

.....  
.....

Zatarain'dar Anbulusi semeari. Pau'era.

Adiskide be i: zure akuloak zerbait gaztetu nauta dirudit. Ez da makala 56'ga en urtean be i-be i bertsoak egiten astea. Bertso be iak noski, puntu gabekoak. Amabina silabako Iogaediko'etan puntua ezin-aztua gertatu zitzaidan emezortzi oetan, befiz, berela aztu zait: lenengo iraku aldian. Zuri ere ori gerta ba lekizu! Euskale iari ori gerta balekio! Jakiña, izketan esateko. Beude puntuak musikarako ta bertsolari-entzat. Oiei lekutu naiean ez naiz ari, alpe ik bailitzake.

Gauzatxo batean okertzen naiz Altube jaunarengandik; prantsez -mintzoa irizten. Ontan polikitxo ere bai. Bestela euskerazkoan oso oso batera ez ba gaude ere, 99% an bai urbil. Leizaola jauna ere ez dago guregandik u uti azentu kontuan; bai ordea bertso-auzian, biongandik. Zu ere ba liteke gu biokin ez egotea bertso-auzian. ala ere nere bertso befi oeri ongi balerizkiezu ez dut alpe ik jardun. Egia, gizonak bafeminbera bear du aldiz aldiz, baño ez beti; ez geiegiko-minberazale edo **impresionista**. Neu iz adimenzale (**intelectualista**) izatea (ez geiegiko **razionalista**) gizonak berez dun griñarik ede ena du. Naiago dut ontara erori beste o rtara baño.



Zurekin auzi txa a dut soñukidego ortan, batez ere aleman-izkera ede aren ahapaldira oiturik ornen baitzaude. Ahapaldi bat edo bestetan eta kantarako batez ere, bego onako au:

**Seh die Bfume** hinter **Bsumen,**  
 Wie sie schnell vorüber rücken,  
**Und die Klippen die sich bücken,**  
**Und die langen Felsennasen,**  
**Wie sie schnarchen wie sie blasen!**

Bañan ez ote da geiegikoa? Suena **mucho**. Suena **bien**? Soñukidego ori berariz billatzea eder ez ba da, gertatzen danean aldegitia ere zorakeria da. Bertso bei oetan nik ez dot ez billatu ez galarazi. Burutapenak e espeto geixago ekartzen dit ori baño. Euskeraz arki litezke banaka banaka.

"Zingulin mingulin atsoa  
 kupelapean engonanean  
 ez unan mozko a gaiztoa."

"Txango mango gure au a noongo...  
 Txinguren minguren gure au a noren" eta abar.

Nere bertso oiek kopiatzan etzaitzela asi. Nik baño obeki gordeko dituzu bear ba da, ta zerekin eduki itzazu.

**ORIXE**

(Leizaola jaunak ez ornen dio soñurik asko arkitzen nere bertso bei oni. Neretzat be iz geiegi du. Belati ta bela i. Ta euskalki ta euskalki. Nere euskalkian aierako gaingora azentua nabarmentsuagoa dalako edo, nik esdrújilo antza artzen diot).

**Betharran, 2-VI-44**

% c a r e w ^%c ! c?- / i^c 'rte jcz.c ,,j:

o te, (L. A F .mit (4, -, u - ... -  
 4:(. l-tc-) -L\_ e\_-tn h Ik ' c-f- , ^ I ^lr - ^,, -

^ \_k r,i (te. c4&./, ^ik .^ v^ e2 a-w,,i c.c t ^n e..ie4 ti -

# ZATARAIN DAR ANBULUXI'RI PAUBERAT

Adiskide: Esker ainitz, erantzun baitiozu nereari, ta pulamentuz erantzun ere. Batera ez gaudenetan banaka banaka erantzutea luze ta alper litzaiket... Ona erabat diozudana: segi zere bidetik eta "arte métrica" oso bat egin, emen a otu ditugunakin, ortarako ederki jantzia ikusten baitzaitut.

1.—Zuk diozun era ortara zortzikoak irakurtzea (u –, u –...) ots, (ritmo iámbico) neke zait. Nik nere joera artua daukat prosaren antz antzera.

2.—Puntuen kontra gauza asko, ta edeak daude esanik. Bide oberik asmatu ez degula? Bego, beraz, puntua; baña ezin esan bide kaxka a ez danik. Fenelon'ek atazoi aundia du ta ederki adierazia, ta Fenelon ez zan norbai: "véritable poéte en prose" nere "arte metrica" k dionez. Chere delako oren erantzuna, diteken aulena ta ezerezena da: "On évite les rimes dans la prose parce qu'elles y seraient l'exception" (!!!!)

3.—Ritmoa. Vigouroux'en "Dictionaire de la Bible" aipatzen didazu. Ba dira ogeita geiago urte iraku i ez dedala, baña len bezala genditu nintzan. Atzeman al nezaken guzia iraku i det "ritmo hebraico" ortaz, bañan "el mentir de las estrellas" iduritzen zait. Nik ere hebreo ikasi nuenean, ongi edo gaizki, bertso batzuk izkuntza ortan egin nizkion Jesus au ari. Alakoak ditezke! Puntuak euskeraz bezelatsu egin ditezke: zeruetan zaudena...zure izena; xemeka...malkuteka (zure izena...zure e einua); bañan ez zan ori, noski, hebreoen sistema. Euskeraz, puntu diruditen asko, ez dira azentuarengatik. Etxera, euskera puntuan ondo daude, bañan ez oiekin egitera, egitérá baita.

4.—Nik oraintsu asma dedan iru zatiko bertsoa irakurtzeko ede a derizkiozu. Leizaola jaunari, ere geroz neronek iraku i dizkiot eta ozen (sonoros) iruditu zaizkio. M. Ba iola andereari ere atsegin zaizkio, diozunez. Altube jaunak ere bikain eta atsegin arkitzen ditu. Lau lagunek iraku i ta lauek iritzi ona eman. Ez da gutxi, dagoneko. Alde au etik esanik utzi nun bertso modu ori ez zala e iarentzat. Leizaola jaunak baietz ere uste du. Akademietan rezitatzeke orain artekoak baño e ezago dira nere ustez eta M. Bafiolaren ustez. Ori besterik ez nun asmo. Bego puntua bertsolarien-tzat, kanturako. Bertso mintzatuan euskera ondatu rik ez nuke ikusi nai oraindiño bezala. Zuk ere nereen antzera bertso edeak eman dituzu alemanetik biur-tuta. Egia diozu, "neuzkanen artetik" etengabe esan beata da. neretan ere arki ditzakeza ola-koak. Au erako saioan gauza biribilla egiten neke da. Puntuak arkitzen e ezago alda ta aukerakoak? "Merezi duen neskata bati..." Ondo dago puntuetan kantarako, ez mintzorako: ertzéra ortzéra'rekin ondo dator, jartzérá artzérá'rekin ere bai baña biko oek ezin elka ekin nasi.


Or itzultzen dizkizut zure argibideak eta bertsoak... o etaz balia zaitezen. Ar zazu biotz "arte metrica" bat egiteko.

Altube jaunari astiro erantzungo diot.

Goraintzi etxekoeri.

ORIXE

Betharran, 11-VIII-44



# BÉTHAÑAM'DIK

1944-VIII-28

Adiskide on: Zure azkenekoa jaso det nere paper ta guzi.

Zure bertsoekin naiz lenik, eta aufetik dakartziten prantses-oafakin. "Le vers...par ses accents interieurs" ederki dago: "le rythme et la rime"z diona ez ain ederki ta zenbait gauza gaizki. "...suivre en esprit ces divisions du rythme" atsegin ba da (kantatzeko gero!) "le rythme de la prose mintzatzeko **esateko** atsegiñago da. Ciceron'ek esanik utzi zun prosa'k ere bere ritmoa ba zula lendanik zalantzan ibili ba zan ere. Orduan ere prosa'k ritmorik ez zula uste zutenak ba ziran. Gaur ere ba dira olako jendeak. Ortatik dator geienik bertso-ritmoa goraiatzea ta prosa-ritmoaz aztutzea. prosa-ritmoa ondo landu nai dudalako (irakurtzean) bertsozaleak ez luke ezparik (jelosiarik) bear. Eta bertsoan prosaren edertasunaz obeki baliatu nai dudalako, ezago; ez baitaukat bertsoa galarazterik (mintzatzeko ere). Egia esan, nere sei ete-neko tanbo ada befi ori baño zure arau gabeko leí() oiek askoz maiteago ditut. Ortan zu baño arantzago noa: "naiko atsegin zaizkit" baitiozu. Nik nere atsegiñerako onela aldatuko nituke. Puntuak bi besterik ez, aski ufun ez alare aztutzeko moduan. Zuk zazpi puntutaraño ba dituzu **-iya...ez**. Eta bertso labufetan...efotaren kalaka ta anko-kefaren urguña. "Gaizki iritziko dituzun bildur naiz". —Bai zera! nere teoriarekin ez al datoz oso ederki, puntua alik gutxiena befitu ezker? Ez al da ori prosa bikaña? Neretzat bi puntu naikoa dira. "E etore zará" nerekin gordeko det, diozun bezala.

Orain zure kartari erantzutera noa. Tranmoy'ek "La musique des vers" ean dion ori, aldez egia da, aldez gezufa. Nere ustez alemanak eta ingelesak belafia askoz ukiberagoa dute prantsesak baño; alare prantsesak aukera aundiagoa azenturik ez dulako. Ori ordea ezerakoaren afazioa da. Nik onela erantzungo nioke Tranmoy'ri: "pas par délicatesse d'oreille mais par absence d'oreille". Afazoi ofek ordea Uitz'i'ko euskerarentzat ez du balio. Guk iru gora-mintzor itz askotan ditugu, eta phrasean azkeneko mintza-erorkera ezik (la cadencia final) iru silaba baño geiagorik ez dugu gora-mintzofikgabe. Musikatzafeak euskeraz ondo ba daki, itzuri (evitatu) detzake iru silaba oiek. Eta bein edo bein beramintzofean zaka egin bear ba lu ere, beste alderako bentaja geiago ditu. Griegoak ere ori egin oi zuten: gora mintzofean nota garaiaogo ta indartsuagoa. Ori nai du Altubek euskeran zuk eta nik bezala, baña nik gañera (gañera ez, afazoi berarengatik) Leitzako eta uitziko **zéru-ú-tan, eteínúa, bezála** itzetan. Zuk "doixtafek eta ingelesek ez dute belafi minbera nere ustez" diozu. Zuk diozuna ere egia da aldez, nik esanaren kontza dirudin afen.

Azentu gogofa dutelako ez da ain zail belafi ukibera izatea, baña euskaldunok bai belafia ukibera dugula, azentu biguña baitugu. Prantsesak ez bat eta ez bi **gaur**. Urte guzian oyuka **llano** bat eta batez ere **esdrújulo** bat ezin safarazi zaie. Berak azken-azentua dute izugafia; besterik ez, **gaur**, radio'ko artifizioak gora-bera. Altuberekin erara nago prantses azentua libreago dala ta asiera-azentua ere ba dutela: nik bi jartzen ditut gañera, esaterako **mércredi** eta **máison**.

Gaurko prantsesak ez dute sumatzen. Emen ba dugu prantses aita bat Altube jaunak eta nik baño askoz geiago dakina (metrika kontuan alegia). Atzo ere latin-ber-  
tsoak neurtzen atzeman nun bere gelan. Ez dakigu seguru nola neu rtu oi zituzten  
bertso aiek. Onek esan zidan bada: "Zer geiago nai genuke prantsesak esdrujulo  
ta Ilano'en ilusioa bertsoetan artzea baño? Alper alpe ik ari zerate Altube jauna ta zu  
"vous vous trompez carrément". Prantses bertsoa baño itsusiagorik ez dala dio, beti  
anapesto'ra jotzen dulako. Prantsesik ez da batere ikasia ba da arako Racine'ren  
bertso aiek buruz ez dakizkinik: "Oui, je viens dans son temple adorer l'Eternal".  
Pentsakizunez edeak ba dira ere, mintzoz itsusi amo atuak dira. Aita onek pozik  
ikusiko ornen luke Altubek eta nik prantsesean esdrujulo ta Ilano moda sar ba  
geneza. Ortan a azoi du. Prantsesaren bela ia ez da gai (urie guzian nere auekin  
itsututa ez ba nago) berak ematen dun azentua sumatzeko. Esan nion Altuberi  
prantsesal belati soraira zutela. Orlan guk biok a azoi dugu. Altube'ri, ordea, pran-  
tses bela ia ezi-gai dala derizkio. aita oni be iz, ezetz, eta nik emen ikusten dedanez,  
oso zaila beintzat, eziña ez ba da ere. Ta izanean ez da beñere gertatuko prantses  
izkera-zale guziak orlan ekin ba lezate ere. Geroak eman bear digu afazioa, Altube'ri  
edo guri.

Altube jaunak bela ia menbera dula? Zuk esaten dezun gauza ortarako ez du oso  
minbera bear, ots, "gure mintzo a italianua baño askoz makalagua izan aren, gaizki  
ja irik dagonian, min egiten baitio". Baita edozein euskalduni ere. Gure auzia ez da  
au; beste au da: bi gora- mintzor bata bestearen u ena daudela, zeñetan eman bear  
dan: zérú-ú-tán, esaterako. Ez nik bakafik, napar-belafiak ú orlan eman oi du, ez  
gorago dagolako, nabarmenago dalako baiño. Ta nabarbertza ori zerk egiten dio?  
Au eneko ú bera-mintzo a dunaren alboan egoteak. Ez esan neri napar-bela ia zue-  
na baño sorairago danik. Giputzak itzak biribifago ematen ditu, agoan goxoago,  
baña bela irako alde aundia kentzen dio napa ak. Tarte edo intervalo aindiagoak  
ditu, bera-mintzo a ere indartsuagoa, gora-mintzo arekin berdiñagoa. Gipuz-mint-  
tzoa motelago da (Berastegin ezik, emen napar- mintzoa baita), Bizkai-mintzoa  
motelago be iz. Bermeo'ko ta Onda abiko kanta-marmaria phrasearen az ken aldera  
baka ena dago. Berastegiko ta Napafoko au enean, erdian, azkenean. Amaika  
burla egiten zioten napar-mintzoari (Lafamendi lekuko Aita Mendibururi idazten dio-  
la); baño bear dan aiñean onesteko garaia ere eto iko da. Ez dala euskera? A ja ja!  
Nik Altube jaunarekin ez det eztabaidarik Gipuzkerari dagokionez. Arek esanari  
"amen" egiten diot. Zer geiago nai du? Nik ez diot esango nere esanari amen egite-  
ko. Napar-mintzoa erabe itzen asten ba da, aurki be rtsoak aterako dizkiote. Iñork ez  
dio bere buruari iritzi bear bela irk onena dunik. Nik ere ez dedala makala esan oi  
didate musiko aundiak, bañan ez naiz fio nere bela iarekin. Ez Altube jaunari, ez Fil-  
delfia'ko orkesta-maisuari jokatu dio, gaur biori ematen diguten nota bat zeñek  
biaramonean zintzoago be itu. Metronomo baten au ean ja i gazatela, ta metrono-  
moa ufundurik eta gu alka engandik la zeñek luzarago ritmoari eusten dion.


Donostiko Santamariko organista batekin prueba au emana nago aste santu  
batez. Maitinetako antiphona guziak bere tonutik aldatu (trasporiatu) bear zitun, sal-  
mo bakoitzaren ondotik. An jarduten zun kontuak ateratzen, baño problema o ek,  
aufetik, bat utzi gabe, nik bereizten nizkion. Musikarik jakin gabe gero, buruz ikasita.  
Afituta begiratzen ziran aldioro. Nik pakeak egiñik dauzkat Altuberekin, bañan ark ez  
nerekin, ez baitit pakean uzten beregana eka i arte. Ta ori eziña da nik aren bela iak  
ta aren iritzi ez ditudan arte. Nik egia dakusdan bezala esan bear det. Nik ez dezaket  
gezu ik esan edo gezur uste dedanik iñoren alde. Ni nere Teorian seguru nago (Altu-  
be'ri ez diot esango) ua berean bezain seguru, baño nere buru az gibel-beldurii edo  
fiakaitz izaten ere ikasirik nago. Altube geitxo fiatzen da nere ustez bere iritzian. Ark  
garbi ala ikusten ba du, nik garbi ola ikusten det. Bat edo bat oker dago. Zertako  
esan nik ua dagola? Zertako esan ark ni nagola? Gai au agortua dala zeo ek ikusiko  
dezu. Ortik au era ja aitzea seta besterik ez litzake.

Oraintxe laster 30 urte dira Altubek asiera ta bukaera azentuaz díona argitaratzen asi nintzala. Oraintxe 35 urte prosodia clasica'rekin euskal azentua aztertzen asi nintzala. Ordu ezkerro geitu bea ak arkitu ditut, aldatu bea ak gutxi. Altuberen Acen-to Vasco íraku i nun eta berari entzun ere baí. Nere ustez Altube nere aldera geíago eto i da ni arenera joan naizen baño.

Barkatu letra txa a ta euskera txa a ta gañerakoak. Lapitz go i tarteán daudenak zuri konfiantzaz esanak dira, Altube'ri karta au íraku rtzen ba díozu ixiltzekoak.

Egízüe lan gazteok. Idi zar onek ere sa era bat egiteko sasoia arkítzen du zuk ziri-katuta. Eske ik asko.

ORIXE



# ALBISTEAK



Azilla'ren 9'an, 93 urte bete ondoren, Jazinto Karraskedo Olarra jauna il zan Donosti'n. Billabonatarra zan jaiotez.

Karraskedo Olarra ezaguna izan zan 1930/1936 urtetan, euskal antzerki saillean.

Ain zuzen bera izan zan urte areitan eratutako Lenengo Antzerki sariketaren irabazlea, "Etxe Aldaketa" deiturako ekintza bakarreko lanagaz.

Geroago "Garó Usaia" idatzi eban, Txomin Agirre'ren elebarrian oiñarrirituta, eta nobela on batetik antzerki makala ataraten dan esaera egonarren, berak antzerki bizi eta jator bat lortu eban, eta alaxe, antzetzu zanean,

benetan txalotua izan zan.

Bakar izketa eta beste antzerki txikien egille zan.

Ez zan idazle ugaria izan, bai txukuna eta etorri onekoa.

Karraskedo jaunak euskera erraz eta errikoia erabilten ekian. Goian bego.



Liburu berriak

Azken iru-ille oneitan Euskerazaintza eta Kardaberaz taldekoen lankideen liburu bi kaleratu izan dira.

Anes Arrinda'ren "**Oto ta Pototo**" (Bigafen zatia) (Itxaropena argitaldaria, 120 orrialde).

Aita Santi Onaindia'ren "**Oroi txinpartak**" (Igarri S. C. L. irarkolea, 472 orrialde).

Txomin Jakakortajarena'ren "**Erlezaintza II**" (Kardaberaz Bazkunako 40 garren libura. I eta II aleen artean 1.312 orrialde eta beste XXV Bibliografi eta aurkibidetan).



Esan bearreko da 1.233'tik 1.312 orrialdeak Erlezaintzako iztegi dirala, eta arlo onetan ezagutzen dan iztegirik jator eta ugariena dala, itz asko egille berberak osotu izan ditunak tartean dirala.

Txomin Jakakortajarena'k oraiñarte euskaldunen artean inok egin ez dauana egin dau. Bere ondasunik geienak liburu mardul bi orreik kaleratzen eralgi, ale biak doan zabalduz eskatu dautsenen artean.

#### Munduko pasiotarren nagusi

Denbora laburrean Euskerazaintzako lankide gazte eta zintzo bi, bakoitza bere Erakundetan, ardura andietara aupatuak izan dira.

Karmeldarrak, Joakin deuna erkialdeko buru aukeratu eben Aita Luis Arostegi.

Oraínsu, pasíotarrak, ardurarik nausíena emon dautse Jose Agustin Orbegozo Aitari, Mundu guztiko pasiotarren buru aukeratzean.

EUSKERAZAINTZA postu egiten da bere arteko lankideak ainbesteko arduetara aukeratuak izatean, nai eta euren zeregin ori bitarte, urte batzutan gure artetik eta gure batzarretatik aldendu eragin. Baiña ziur gagoz euren biotz eta gogoetan gure euskera jatorra gogoan erabiliko dabela eta euren utsunak beteten gaitz izanarren, Euskerazaintza'rentzat beti gordeko dabela oroipen biozkor bat.



Jose Agustin Orbegozo



Elurren zuriak  
atsegin ematen,  
baiñan aurpegi ori  
atsegiñago den.  
Ene! laiño beltza  
lurrera jetsltzen...  
Elurren zuria  
bereala jaten!

II

Zergatik artu den  
besteren esana?  
Laiño arnas itzak  
beztu au, laztan.  
Ez den etorriko  
iñor iregana:  
neretzat ere ez ah;  
biontzat, au Lana!

(OrIxe)



# BETI LAGUN

Non nago? Non aut? Ez ote da auxe  
neretzat lengo Tolosa?  
El al dezaket entzun be iro  
mintzo goxo o en otsa?  
Bego nega a, lufindu bedi  
begian malko mingotsa,  
alare ez uke nik iregatik  
negar egitea lotsa.

Ire e ainua ikusten diat  
riere begi on txingua a,  
ergí biurru dela niokek  
ire ezpainen li-bata.  
pante'ren itzal isillak beude,  
betorkit neri ire gafa,  
bete dezadan azken aginduz  
oman idaken beata.

Biotz-bertsoak egin nai eta  
Jaingo billa nauk oldartu,  
¡K esan idan bein ta be iro  
onetan nendilla leiatu.  
**Lagun** egidak argi o ekin,  
mere biga en aingeru,  
¡gan ikusten diat garbien  
Jaungoikoaren e ainu.

¡aunkorik ezin, ez ta aingerurik  
gorputz antzean iduri,  
ñestez iñoiz konturatzen nauk  
¡tzalpean nautela ni.  
Illun ortatik bizi ontara  
¡aut bitartean argi,  
e ainu onen dirdaia lagun  
au ean zeuzkeat beti.

Beretarbiden, itu i-askan  
agertu didak begia,  
osto tartetik iragazirik  
eguzkiaren izpia.  
Nere aufetik, ¡bjllj gabe,  
igaro uan mendia,  
ikusi genin basora antzean  
loretan den sagastia.

Len lagun zintzo gorputz bizitan,  
orain are, lagunago,  
tokiz aldatzen nekerik ez duk  
ez egal eta ez zango.  
Begi-orde ok au eko ormara  
eguzkiak jota baino,  
zintzoago abil nere au ean,  
abil ni bizi naizeno.

Oroitu ta aztu, bu uka diat  
tartzet bakar eguzkia,  
e ainu onek irauten balu,  
auxe nere zona.  
Goibeltzen ba'zait, gainbero bedi  
bego baten au gorria,  
gorputz ustel au, gandu nasi au  
daiteken arte eroria.

Biga atera duk, begiak lauso,  
ikullu-zoko beltzetik,  
begiak u ez igurtzi eta  
lauso o ek aldegiten dik.  
Egun otako negar-malkoak  
txuka ditudanean nik,  
ni ¡l arte ez beza Jaingoak nai  
ire e ainua galtzerik.

Nere biga en albo aingeru,  
nere Jaingo-erakusle,  
¡l arte lagun, ortik onera  
ezegok len ainbat bide.  
Bakar-baka ik nakustenean  
jendeak esan bezate:  
bekokian dik aren itzala,  
lagun dik oraindik ere.

NIKOLAS ORMAETXEA, «ORIXE» (1888-1961)

Orexa'n jaio zan, Añorga'n il, euskal letretan «Orixe» izengoitiz ezagutzen dogun -degun- gure idazlerik bikaiñena.

Umetan Uitzira eroan -eramán- eben -zuten-, eta antxe bere iñude Asuntxi'k, gero arek bere idaztietan gozoro gogoratu eban -zuan- amandre onak azi eban guztiz arduratsu.

Amazazpi urte zituala, 1905'an Xabier'eko jesuitetan sartu zan. Ondoren, Loiola'n nobiziadu urtea, Burgos'en klasikoak ikasi; Oña'n, iru urtez, Filosofia. Gero, Comillas'en, Carrión de los Condes'en, Tudela'n eta Xabier'en irakasle. 1921'an Teolojia ikasten dau Oña'n, eta 1923'an ikasteak itxi ta etxera doa.

R. M. Azkue'k, Euskaltzaindiaren buru zanak, laguntzaille lez artu eban -zuan-, zortzi urte ortan egiñik. 1931'tik 1936'ra bere etxean lan egin eban -zuan-, bere poema eder «Euskaldunak» idazten. Gerra zala-ta, mugaz emendik eta andik gorrak ikusi zituan. Frantzia'tik Ameriketara joan yakun -zitzaigun-, Argentina'n,

Txile'n, Peru'n, Bolivia'n eta El Salvador'en zear ibillirik.

1954'an bere lurrera biurtu zan, eta Lazkai'n, Tolosa'n, Orexa'n, Arama'n eta Añorga'ko «Zabalegi»-n bizi izan zan. Bere azurrak Donosti'ko Polloe illerrian dagoz lur-emonik.

| 69

Bere idaztiak

Euskal oitura, olerki ta gramatikari buruz idatzi ebana -zuana- albora laga bage, liburu mordoa dau -du- gure Ormaetxea'k argitaratuta.

Ona batzuk:

1) *Euskal literaturaren atze edo edes-ti laburra* (Donosti, 1927). «Euskal Esnalea»-n dator.

2) *Santa Kruz Apaiza* (Bilbao, 1929).

3) *Tormes'ko Itsu-mutilla* (Bilbao, 1929). Itzulpena, bizkaieraz, polito egiña.

4) *Mireio* (Bilbao, 1930). F. Mistral'ena euskeraz.

5) *Barne-muinetan* (Zarautz, 1934).

Olerki mistikuz osoturiko bilduma goxoa.

6) *Urte guziko Meza-bezperak* (Tours,

170

1949). Eleiz-euskerari indar ikaragarria emon dautsan -dion- liburu bikaiña.

7) *Euskaldunak* (Zarautz, 1950). Poema, XV kantutan. Eusko bizitza kantatzen dau, oso-osorik.

8) *Kito'n arrebarekin* (Euzko-Gogoa, 1950-54). Mistika gaiezko alkar izketa atsegiña.

9) *Augustiñ Gurenaren Aitorkizunak* (Zarautz, 1956). Aturia'ko ta Akiza'ko Gotzain txit agurgarri Clement Mathieu jaunari eskeiña.

10) *Lau Ebanjelioak* (Donosti, 1967).

11) *Salmutegia* (Donosti, 1968). Dabid'en eresiak.

12) *Jainkoaren Billa* (Bilbao, 1971). Mistika gaia.

13) *Lati izkuntzaren joskera* (Bilbao, 1966).

14) *Euskal izkera* —Lenguaje vasco (Donostia, 1963). Zati bi. M. Oiarzabal apaizarekin batera egiña.

15) «*Euskaldunak*» poema eta olerki guziak (Donosti, 1972). Laterri arteko Liburu eguna zala-ta, Auñamendi'k argitara emona. (699 orr.).

Eta abar. Oindiño, ba, Orixe'ren paper artean ba-da lanik aztertu, sailkatu ta argitaratu bage.

Euskaltzaiña. «Kirikiño» saria jaso eban -zuan-, 1929'an. 1961'an «Olerti» ta «Lizardi» sariak irabazi zituan. 1957'an ornaldi eder bat egin yakon -zitzaion- Leitzai'n, eta geroago, 1965'an, «ORIXE» *Omenaldia* (Donostia, 1966) agertu zan, gaurko euskal idazle askoren artean gertatutako liburu mardula.